

**Kutxabank, S.A. eta
Mendeko Erakundeak
(Talde Bateratua)**

2013ko abenduaren 31n
bukatutako ekitaldiari dagozkion
Urteko Kontuak eta
Kudeaketa-txostena, Auditoria-txosten
independentearekin batera


Hurrengo ikuskaritza txostena gastelaniazko txostenaren itzulpena da. Desberdintasunen bat egotekotan, gaztelaniazko bertsioa nagusitzen da.

URTEKO KONTU BATERATUEN KONTUEN IKUSKARITZAREN TXOSTENA

Kutxabank, S.A.ren akziodunei:

1. Kutxabank, S.A.ren eta Mendeko Sozietateen ("Taldea", aurreantzean) urteko kontu bateratuak ikuskatu ditugu, 2013ko abenduaren 31ko balantze bateratua, galera eta irabazien kontu bateratua, ondare garbiaren aldaketen egoera bateratua, efektibo-fluxuen egoera bateratua eta memoria bateratua, hain zuzen ere. Horien formulazioa Erakunde Nagusiko administratzaileen erantzukizuna da, erakundeari dagokion informazio finantziarioko araudiarekin bat etorritik (atxikitutako memoria bateratuko 2.a. Oharrean aipatzen dena), eta bereziki, araudiak biltzen dituen printzipio eta irizpide kontableekin bat etorritik. Gure erantzukizuna, aipatutako urteko kontu bateratuei buruzko iritzia ematea da (hauek beren osotasunean kontutan hartuz), Espainian indarrean dagoen ikuskaritza araudia betearaziz; horretarako, froga selektiboen bidez, urteko kontu bateratuak aztertzeaz gain, urteko kontu horien aurkezpena, aplikatutako kontabilitate printzipio eta irizpideak eta garatutako balioespenak informazio finantziarioako araudiarekin bat datozen ebaluatu behar da.
2. Gure iritziz, txosten honekin batera doazen 2013ko urteko kontu bateratuek, atal esanguratsu guztietan, Kutxabank, S.A.ren eta Mendeko Sozietateen 2013ko abenduaren 31ko ondare bateratuaren eta finantza-egoera bateratuaren irudi fidela adierazteaz gain; 2013ko eragiketen emaitza bateratuen eta efektibo-fluxu bateratuen irudi fidela adierazten dute, aplikatu beharreko informazio finantziarioko araudiarekin, eta bereziki, araudiak biltzen dituen printzipio eta irizpide kontableekin bat etorritik.
3. Atxikitutako 2013ko ekitaldiko kudeaketa-txosten bateratuan, Sozietate Nagusiko administratzaileek egokitzen jo dituzten Taldearen egoerari, negozioaren bilakaerari, eta beste gai batzuei buruzko azalpenak daude; hala ere, txosten hau ez dago urteko kontu bateratuen barne. Aipatutako kudeaketa-txosten bateratuak duen kontabilitate informazioa, 2013ko ekitaldiko urteko kontu bateratuekin bat datorrela egiaztatu dugu. Ikuskariak garen aldetik, gure lana kudeaketa-txostena egiaztatzea da, paragrafo honetan aipaturiko mugen barruan, eta, beraz, ez da gure ardura, Kutxabank, S.A.ren eta Mendeko Sozietateen kontabilitate-erregistroetatik at eskuratzen den informazioa berrikustea.

DELOITTE, S.L.
R.O.A.C. S0692 erregistro zenbakia



Pablo Mugica
2014ko otsailaren 28a

KUTXABANK, S.A.
ETA MENDEKO ERAKUNDEAK (TALDE BATERATUA)

BALANTZE BATERATUA 2013ko eta 2012ko ABENDUAREN 31n
(Mila eurotan)

AKTIBOIA	2013	2012 (*)	PASIBOIA	2013	2012 (*)
Kutxa eta gordailuak banku zentraletan (21. oharra)	532.402	448.506	Negoiazio-zorroa (22. oharra)	121.747	184.401
Negoiazio-zorroa (22. oharra)	128.192	423.706	Negoiazio eratorriak	121.747	184.401
Zorra adierazten duten baloreak	-	226.471	Arrazoizko balioan dauden eta galdutako irabazietan aldatuak diren beste finantza-pasibo batzuk	-	-
Beste kapital-tresna batzuk	-	8.986	Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan (34. oharra)	54.076.505	59.574.254
Negoiazio eratorriak	128.192	188.249	Banku zentralen gordailuak	2.026.930	4.330.924
<i>Aurrememoria: Mailegatuak edo berran (43. oharra)</i>	-	65.978	Kreditu-erakundeen gordailuak	1.583.854	2.173.887
Arrazoizko balioan dauden eta galdutako irabazietan aldatuak diren beste finantza-aktibo batzuk (23. oharra)	44.772	100.000	Beste erakundeen gordailuak	44.135.042	46.596.573
Zorra adierazten duten baloreak	36.527	100.000	Zorra adierazten duten balore negoziagarriak	5.567.162	5.306.585
Kapital-tresnak	8.245	-	Mendeko pasiboak	85.648	325.584
Salgai dauden finantza-aktiboak (24. oharra)	5.901.703	7.673.853	Bestelako finantza pasiboak	677.869	840.701
Zorra adierazten duten baloreak	3.493.919	4.838.338	Makro-estalduren ondorioz egindako finantza-pasiboen doiketak	-	-
Beste kapital-tresna batzuk	2.407.784	2.835.515	Estaldura eratorriak (27. oharra)	53.026	62.090
<i>Aurrememoria: Mailegatuak edo berran (43. oharra)</i>	1.305.496	1.577.208	Salgai dauden aktibo ez korronteak lotutako pasiboak	-	-
Kredituen inbertsioak (25. oharra)	47.599.643	50.460.318	Aseguruen kontratuengatiko pasiboak (36. oharra)	703.116	682.628
Gordailuak kreditu erakundeetan	1.671.985	1.289.487	Hornidurak (35. oharra)	522.132	634.618
Beste erakundeen kredituak	45.927.758	49.171.831	Pentsio eta antzeko betekizunetarako fondoak	330.170	330.570
Zorra adierazten duten baloreak	4.977.672	4.042.156	Zerga eta beste lege-kontingentzia batzuetarako hornidurak	1.478	1.648
<i>Aurrememoria: Mailegatuak edo berran (43. oharra)</i>	-	-	Arrikuetarako eta konpromiso kontingenteetarako hornidurak	44.254	53.739
Epemugarako inbertsio zorroa (26. oharra)	43.958	-	Bestelako hornidurak	146.230	248.661
<i>Aurrememoria: Mailegatuak edo berran (43. oharra)</i>	32.390	-	Pasibo fiskalak (32. oharra)	253.904	432.535
Makro-estalduren ondorioz egindako finantza-aktiboak doiketak	-	-	Korronteak	22.676	36.330
Estaldura eratorriak (27. oharra)	469.858	690.506	Geroratuak	231.228	396.205
Aktibo ez korronteak salgai (28. oharra)	1.263.561	1.352.993	Gizarte Ekintzako fondoak (37. oharra)	-	218.852
Partaidetzak (29. oharra)	591.381	594.943	Gainontzeko pasiboak (33. oharra)	118.614	88.562
Elkartutako Erakundeak	591.380	594.186	PASIBOA GUZTIRA	55.849.044	61.877.940
Taldeanitzeko Erakundeak	1	757	ONDARE GARBIA	-	-
Pentsioei lotutako aseguru-kontratuak	-	-	Fondo Propioak (38. oharra)	4.676.556	4.602.213
Berrereserbituengatiko aktiboak (36. oharra)	57.926	21.411	Kapitala	2.000.000	2.000.000
Aktibo materiala (30. oharra)	1.266.386	1.477.579	Eskruturatuak	2.000.000	2.000.000
Ibilgetu materiala-	1.015.039	1.290.022	Jaulkipen-prima	2.545.553	2.545.553
Norberak erabiltzekoak	850.447	951.092	Erreserbak	22.684	-
Errentamendu operatiboa utzita	164.592	174.288	Metatutako erreserbak (galerak)	35.055	-
Gizarte Ekintzari lotu daagokionak	-	164.642	Partaidetza metodoaz baloratutako erakundeen erreserbak (galerak)	(12.371)	-
Inbertsioak higiezinetan-	251.347	187.557	Erakunde nagusiari egotzitako ekitaldiaren emaitza	108.319	84.560
<i>Aurrememoria: Finantza-errentamenduan hartuta</i>	-	-	Ken: Dibidenduak eta ordainsariak	-	(27.900)
Aktibo ukiezina (31. oharra)	331.858	372.178	Balorazioagatiko doiketak (39. oharra)	223.402	143.384
Merkataritza-fondoa	301.457	301.457	Salgai dauden finantza-aktiboak	239.151	145.242
Bestelako aktibo ukiezina	30.401	70.721	Efektibo fluxuen estaldura	(547)	(1.831)
Aktibo fiskalak (32. oharra)	1.937.011	2.199.224	Karbio-itsen diferentziak	-	(27)
Korronteak	32.762	229.085	Partaidetza metodoaz baloratutako erakundeak	1.024	-
Geroratuak	1.904.249	1.970.139	Gainontzeko balorazioagatiko doiketak	(16.226)	-
Gainontzeko aktiboak (33. oharra)	592.963	892.218	Gutxiengoan interesak (40. oharra)	12.612	83.898
Izakinak	522.437	763.746	Balorazioagatiko doiketak	1.135	352
Gainontzekoak	70.526	128.472	Gainontzekoa	11.477	83.546
AKTIBOA GUZTIRA	60.761.614	66.707.435	ONDARE GARBIA GUZTIRA	4.912.570	4.829.495
			PASIBOA ETA ONDARE GARBIA GUZTIRA	60.761.614	66.707.435
			ORDENA KONTUAK		
			Arrisku kontingenteak (43. oharra)	1.932.510	2.132.802
			Konpromiso kontingenteak (44. oharra)	4.867.782	5.034.799

Memorian deskribatutako 1etik 64.ra arteko Oharrak eta atxikitako I.etik IV.era arteko eranskinak, 2013ko abenduaren 31ko balantze bateratuaren osagaiak dira.

(*) Konparaketa egiteko baino ez aurkeztuak.

KUTXABANK, S.A.
ETA MENDEKO ERAKUNDEAK (TALDE BATERATUA)

2013ko eta 2012ko ABENDUAREN 31n
AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOKION
GALERA ETA IRABAZI BATERATUEN KONTUA
(Mila Eurotan)

	2013	2012 (*)
INTERESAK ETA ANTZEKO ERRENDIMENDUAK (45. oharra)	1.360.665	1.831.318
INTERESAK ETA ANTZEKO KARGAK (46. oharra)	644.624	910.003
INTERESEN MARJINA	716.041	921.315
KAPITAL-TRESNEN ERRENDIMENDUAK (47. oharra)	105.428	142.724
PARTAIDETZA METODOZ BALORATUTAKO ERAKUNDEETAN EMAITZAK (38. oharra)	25.188	(16.110)
HARTUTAKO KOMISIOAK (48. oharra)	357.763	344.769
ORDAINDUTAKO KOMISIOAK (49. oharra)	36.155	35.751
FINANTZA-ERAGIKETEN EMAITZAK (Garbia) (50. oharra):	116.321	89.653
Negoiazio-zorroa (22. oharra)	2.473	2.922
Galdututako irabazietan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioan dauden beste finantza-tresnak	42.578	600
Galdututako irabazietan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioan baloratu ez diren beste finantza-tresnak	63.603	6.959
Bestelakoak	7.667	79.172
KANBIO-TASEN DIFERENTZIAK (Garbia) (51. oharra)	4.186	(491)
BESTE USTIAPEN PRODUKTU BATZUK (52. oharra):	353.119	425.116
Jaulkitako aseguru eta berraseguru kontratuen sarerrak	212.819	185.609
Salmentak eta zerbitzu ez-finantzarioak emateagatik sarrerak	84.600	184.176
Gainontzeko ustiapen-produktuak	55.700	55.331
BESTE USTIAPEN KARGA BATZUK:	319.866	339.977
Aseguru eta berraseguru kontratuen gastuak (52. oharra)	115.353	108.855
Izakinen bariazioa (53. oharra)	89.698	125.733
Gainontzeko ustiapen-kargak (53. oharra)	114.815	105.389
MARJINA GORDINA	1.322.025	1.531.248
ADMINISTRAZIO GASTUAK:	726.435	784.853
Langile gastuak (54. oharra)	526.933	555.643
Administrazioaren beste gastu orokor batzuk (55. oharra)	199.502	229.210
AMORTIZAZIOA (56. oharra)	114.015	75.376
HORNIDURETARAKO ZUZKIDURAK (Garbia) (57. oharra)	1.096	139.769
FINANTZA-AKTIBOEN NARRIADURAGATIKO GALERAK (Garbia) (58. oharra):	85.782	414.854
Kreditu-inbertsioak (25. oharra)	45.365	334.666
Galdututako irabazietan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioan baloratu ez diren beste finantza-tresnak (24. oharra)	40.417	80.188
USTIAPEN JARDUERAREN EMAITZA	394.697	116.396
GAINONTZEKO AKTIBOEN NARRIADURAGATIKO GALERAK (Garbia) (58. oharra):	177.658	30.554
Merkataritza fondoa eta beste aktibo ukiezina	838	348
Beste aktibo batzuk	176.820	30.206
SALGAI DAUDEN AKTIBO EZ KORRONTE BEZALA SAILKATUTAKO BAJETAKO IRABAZIAK (GALERAK) (59. oharra)	11.258	14.976
NEGOZIO-KONBINAZIOETAN DIFERENTZIA NEGATIBOA	-	-
SALGAI DAUDEN AKTIBO EZ KORRONTEEN IRABAZIAK (GALERAK) OPERAZIO ETEN BEZALA SAILKATU GABEAK (60. oharra)	(135.182)	(31.075)
ZERGA AURREKO EMAITZA	93.115	69.743
MOZKINEN GAINEKO ZERGA (41. oharra)	(16.070)	(20.100)
DERRIGORREZKO ZUZKIDURA GIZARTE EKINTZA ETA FONDOETARA	-	-
ERAGIKETA JARRAITUETAKO EKITALDIKO EMAITZA	109.185	89.843
ETENDAKO ERAGIKETEN EMAITZA (Garbia)	-	-
EKITALDIAREN EMAITZA BATERATUA	109.185	89.843
ERAKUNDE NAGUSIARI EGOTZITAKO EMAITZA	108.319	84.560
GUTXIENGOEN INTERESEI EGOTZITAKO EMAITZA (61. oharra)	866	5.283

Memorian deskribatutako 1etik 64.ra arteko Oharrak eta atxikitako I.etik IV.era arteko eranskinak, 2013ko ekitaldiko galera eta irabazien kontu bateratuaren osagaiak dira.

(*) Konparaketa egiteko baino ez aurkeztuak.

KUTXABANK, S.A.
ETA MENDEKO ERAKUNDEAK (TALDE BATERATUA)

AITORTUTAKO SARRERA ETA GASTUEN EGOERA BATERATUA 2012ko eta 2013ko
ABENDUAREN 31n AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIEI DAGOZKIEN

(Mila eurotan)

	2013	2012 (*)
Ekitaldiaren emaitza bateratua	109.185	89.843
Aitortutako bestelako gastu eta sarrerak	88.275	(131.816)
Emaitzetan birsailkatuak izango ez diren partidak	(16.226)	-
Prestazio definituko pentsio-planetako galera eta irabazi aktuarialak	(22.536)	-
Salgai dauden aktibo ez-korronteak	-	-
Partaidetzaren bidez baloratutako erakundeak	-	-
Emaitzetan birsailkatuak izango ez diren partidekin lotutako mozkinen gaineko zergak	6.310	-
Emaitzetan birsailkatu ahal izango diren partidak	104.501	(131.816)
Salgai dauden finantza-aktiboak	142.471	(180.206)
Balorazioagatiko irabaziak/galerak	192.506	(242.531)
Galera eta irabazien kontura transferitutako zenbatekoak	50.035	(62.325)
Bestelako birsailkapenak	-	-
Efektibo fluxuen estaldurak-	1.783	(2.617)
Balorazioagatiko irabaziak/galerak	1.783	(2.617)
Galera eta irabazien kontura transferitutako zenbatekoak	-	-
Estalitako partiden hasierako baliora transferitutako zenbatekoak	-	-
Bestelako birsailkapenak	-	-
Atzerriko negozioetan egindako inbertsio garbien estaldurak-	-	-
Balorazioagatiko irabaziak (galerak)	-	-
Galeren eta irabazien kontura transferitutako zenbatekoak	-	-
Bestelako birsailkapenak	-	-
Kanbio-tasen diferentziak-	-	(3)
Balorazioagatiko irabaziak (galerak)	-	(3)
Galeren eta irabazien kontura transferitutako zenbatekoak	-	-
Bestelako birsailkapenak	-	-
Aktibo ez korrienteak salgai-	-	-
Balorazioagatiko irabaziak (galerak)	-	-
Galeren eta irabazien kontura transferitutako zenbatekoak	-	-
Bestelako birsailkapenak	-	-
Partaidetza metodoaz baloratutako erakundeak-	1.051	(430)
Balorazioagatiko irabaziak (galerak)	1.051	(430)
Galera eta irabazien kontura transferitutako zenbatekoak	-	-
Bestelako birsailkapenak	-	-
Aitortutako gainontzeko sarrera eta gastuak	-	-
Emaitzetan birsailkatu ahal izango diren partidekin lotura duten mozkinen gaineko zerga	(40.804)	51.440
SARRERA ETA GASTU AITORTUAK GUZTIRA	197.460	(41.973)
Erakunde nagusiari egotziak	196.594	(47.256)
Gutxiengoan interesei egotziak	866	5.283

Memorian deskribatutako 1etik 64.ra arteko Oharrak eta atxikitako I.etik IV.era arteko eranskinak, 2013ko abenduaren 31ko sarrera eta gastu aitortuen egoera bateratuaren osagaiak dira.

(*) Konparaketa egiteko baino ez aurkeztuak.

KUTXABANK, S.A. ETA MENDEKO ERAKUNDEAK (TALDE BATERATUA)

ONDARE GARBI BATERATUKO ALDAKETEEN OROTARAKO EGOERA 2013KO
ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOKIONA

(Mila Eurotan)

	Erakunde Nagusiari egotziako Ondare Garbia											
	Fondo Propioak											
	Kapitala	Jaulkipen prima	Erreserbak		Beste kapital- tresna batzuk	Ken: Balore propioak	Erakunde nagusiari egotziako ekitaldi- emaitza	Ken: dibidenduak eta ordainsariak	Fondo propioak guztira	Balorazio- gaitik doiketak	Guztira	Gutxiengo- interesak
Metatutako erreserbak (galerak)			Partaidetza metodoaz baloratutako erakunde- erreserbak (galerak)									
Hasierako saldoa 2012ko abenduaren 31n	2.000.000	2.545.553	-	-	-	84.560	(27.900)	4.602.213	143.384	4.745.597	83.898	4.829.495
Kontabilitate-irizpideen aldaketengatik doiketak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Akatsengatik doiketak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Hasierako saldo doituia	2.000.000	2.545.553	-	-	-	84.560	(27.900)	4.602.213	143.384	4.745.597	83.898	4.829.495
Aiortutako sarrerak eta gastuak	-	-	-	-	-	108.319	-	108.319	88.275	196.594	866	197.460
Ondare garbiaren bestelako aldaketak	-	-	35.055	(12.371)	-	(84.560)	27.900	(33.976)	(8.257)	(42.233)	(72.152)	(114.385)
Kapital zabalkuntza	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Dibidendu- banaketa	-	-	-	-	-	(55.800)	27.900	(27.900)	-	(27.900)	-	(27.900)
Negozio kombina- zioengatik igoerak (murrizketak)	-	-	(12.952)	-	-	-	-	(12.952)	-	(12.952)	(31.779)	(44.731)
Gizarte ekintza eta fondeo- juzkidura diskre- zionala	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Ondare garbiaren partiden arteko traspa- soak	-	-	49.952	(12.935)	-	(28.760)	-	8.257	(8.257)	-	-	-
Ondare garbiaren gaimontze- ko igoerak (murrizketak)	-	-	(1.945)	564	-	-	-	(1.381)	-	(1.381)	(40.373)	(41.754)
Anaierako saldoa 2013ko abenduaren 31n	2.000.000	2.545.553	35.055	(12.371)	-	108.319	-	4.676.556	223.402	4.899.958	12.612	4.912.570

KUTXABANK, S.A. ETA MENDEKO ERAKUNDEAK (TALDE BATERATUA)

ONDARE GARBI BATERATUKO ALDAKETEN OROTARAKO EGOERA 2012KO
ABENDUAREN 31IN AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOKIONA

(Mila Eurotan)

	Erakunde Nagusiari egotziako Ondare Garbia											
	Fondo Propioak (*)											
	Kapitalka	Jaulkipen prima	Erreserbak		Beste kapital- tresna batzuk	Ken: Balore propioak	Erakunde nagusiari egotziako ekitaldiko emaiza	Ken: dibidenduak eta ordainsariak	Orotara Norberaren Fondoak	Balorazioagatiko doiketak	Guztira	Gutxiengoan interesak
Metatutako erreserbak (galerak)			Partaidetza metodoaz baloratutako erakunde erreserbak (galerak)									
Hasierako saldoa 2011ko abenduararen 31in	18.050	-	-	-	-	-	-	18.050	-	18.050	-	18.050
Kontabilitate-inizpideen aldaketengatiko doiketak Akatsengatiko doiketak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Hasierako saldo doituia	18.050	-	-	-	-	-	-	18.050	-	18.050	-	18.050
Aitorutako sarrerak eta gastuak orotara	-	-	-	-	-	84.560	-	84.560	(131.816)	(47.256)	5.283	(41.973)
Ondare garbairaren beste aldaketa batzuk	1.981.950	2.545.553	-	-	-	-	(27.900)	4.499.603	275.200	4.774.803	78.615	4.853.418
Kapital zabalkuntza	1.981.950	2.545.553	-	-	-	-	-	4.527.503	-	4.527.503	-	4.527.503
Dibidenduen banaketa	-	-	-	-	-	-	(27.900)	(27.900)	-	(27.900)	27.900	-
Negozio konbinazioengatiko igoerak (murrizketak)	-	-	-	-	-	-	-	-	275.200	275.200	157.353	432.553
Zuzkidura diskrezionala gizarte fondo eta lanetarako	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	(88.031)	(88.031)
Ondare garbiaren partiden arteko traspasoak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	(18.607)	(18.607)
Amiarako saldoa 2012ko abenduararen 31in	2.000.000	2.545.553	-	-	-	84.560	(27.900)	4.602.213	143.384	4.745.597	83.898	4.829.495

Memorian deskribatutako 1etik 64.ra arteko Oharrak eta atxikitako I.etik IV.era arteko eranskinak, 2013ko abenduaren 31ko ondare garbi bateratuko aldatketen orotarako egoeraren atalak dira.

(*) Alderatzeko baino ez dira aurkezten, eta horretarako besterik ez.

KUTXABANK, S.A.
ETA MENDEKO ERAKUNDEAK (TALDE BATERATUA)

EFEKTIBO FLUXUEN EGOERA BATERATUA
2012ko eta 2013ko ABENDUAREN 31n
AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIEI DAGOZKIEN

(Mila eurotan)

	2013	2012 (*)
A) USTIAPEN JARDUEREN EFEKTIBO FLUXUAK	(142.768)	584.788
Ekitaldiaren emaitza bateratua	109.185	89.843
Ustiapen jardueren efektibo fluxuak lortzeko doitzeak		
Amortizazioa	114.015	75.376
Bestelako doitetak	132.524	399.721
	246.539	475.097
Ustiapen aktiboen igoera/jaitsiera garbia:		
Negoiazio zorroa	298.502	(101.714)
Beste finantza-aktibo batzuk arrazoizko balioan, galera eta irabazietan aldatetekin	143.605	2.928
Salgai dauden finantza-aktiboak	1.941.031	(21.424)
Kreditu inbertsioak	2.493.397	2.743.496
Beste ustiapen-aktibo batzuk	561.683	(349.980)
	5.438.218	2.273.306
Ustiapen-pasiboen igoera/jaitsiera garbia:		
Negoiazio zorroa	(62.654)	(15.950)
Beste finantza-pasibo batzuk arrazoizko balioan, galera eta irabazietan aldatetekin	-	-
Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan	(5.594.937)	(2.068.439)
Beste ustiapen-pasibo batzuk	(268.369)	(168.721)
	(5.925.960)	(2.253.110)
Mozkinen gaineko zergengatiko kobrantzak/ordainketak	(10.750)	(348)
B) INBERTSIO JARDUEREN EFEKTIBO FLUXUAK	158.869	149.789
Ordainketak		
Aktibo materialak	(28.338)	(51.573)
Aktibo ukiezinak	(22.242)	(27.063)
Partzaidetzak	(15.635)	-
Mendeko erakundeak eta beste negozio-unitate batzuk	-	-
Aktibo ez korronteak eta salgai dauden pasibo lotuak	-	-
Epemugarako inbertsio zorroa	-	-
Inbertsio-jardueren lotutako bestelako ordainketak	-	-
	(66.215)	(78.636)
Kobrantzak		
Aktibo materialak	28.234	34.894
Aktibo ukiezinak	-	231
Partzaidetzak	26.288	44.848
Mendeko erakundeak eta beste negozio-unitate batzuk	-	-
Aktibo ez korronteak eta salgai dauden pasibo lotuak	170.562	148.452
Epemugarako inbertsio zorroa	-	-
Inbertsio-jardueren lotutako bestelako ordainketak	-	-
	225.084	228.425

Memorian deskribatutako 1etik 64.ra arteko Oharrak eta atxikitako I.etik IV.era arteko eranskinak,
2013ko ekitaldiko efektibo-fluxu egoera bateratuaren osagaiak dira.

(*) Konparaketa egiteko baino ez aurkeztuak.

KUTXABANK, S.A.
ETA MENDEKO ERAKUNDEAK (TALDE BATERATUA)

EFEKTIBO FLUXUEN EGOERA BATERATUA
2012ko eta 2013ko ABENDUAREN 31n
AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIEI DAGOZKIEN
(Mila eurotan)

	2013	2012 (*)
C) FINANTZAKETA JARDUEREN EFEKTIBO FLUXUAK	67.795	(1.221.205)
Ordainketak		
Dibidenduak	(27.900)	-
Mendeko pasiboak	(238.091)	(37.900)
Erakundearen kapital-tresnen amortizazioa	-	-
Erakundearen kapital-tresnen erosketak	-	-
Finantzaketa jarduerekin zerikusia duten bestelako ordainketak	(559.304)	(1.183.305)
	(825.295)	(1.221.205)
Kobrantzak		
Mendeko pasiboak	-	-
Erakundearen kapital-tresnen jaulkipena	-	-
Erakundearen kapital-tresnen besterentzea	-	-
Finantzaketa jarduerekin zerikusia duten bestelako kobrantzak	893.090	-
	893.090	-
D) KANBIO-TASEN ALDAKETEN ERAGINAK	-	-
E) EFEKTIBOAREN ETA BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA (A+B+C+D)	83.896	(486.628)
F) EFEKTIBOA ETA BALIOKIDEAK EKITALDIAREN HASIERAN	448.506	935.134
G) EFEKTIBOA ETA BALIOKIDEAK EKITALDIAREN AMAIERAN	532.402	448.506
AURREMEMORIA:		
EFEKTIBOA ETA BALIOKIDEAREN OSAGAIK EKITALDIAREN AMAIERAN		
Kutxa	245.926	261.920
Banku zentraletako efektiboaren baliokideak diren saldoak	286.476	186.586
Beste finantza-aktibo batzuk	-	-
Ken: banku-ageriko itzulgarriak	-	-
Guztirako efektiboa eta baliokideak epealdiaren amaieran	532.402	448.506

Memorian deskribatutako 1etik 64.ra arteko Oharrak eta atxikitako I.etik IV.era arteko eranskinak,
2013ko ekitaldiko efektibo-fluxu egoera bateratuaren osagaiak dira.

(*) Konparaketa egiteko baino ez aurkeztuak.

Kutxabank, S.A. eta Mendeko Erakundeak (Talde Bateratua)

2013ko abenduaren 31n
bukatutako urteko ekitaldiari dagozkion
Urteko Kontuen Azalpen Memoria

1. Erakundearen izaera

1.1. Erakundearen izaera

Kutxabank, S.A. (aurrerantzean, "Bankua", "Kutxabank" edo "Erakunde Nagusia") 2011ko ekainaren 14ko eskritura publikoaren bidez eratu zen, Banco Bilbao Bizkaia Kutxa, S.A. (Pertsona Bakarreko Erakundea), zuzenbide pribatuko erakundea, Espainian diharduten banku-erakundeen araudi eta erregulazioaren mendean dagoena. Geroago, 2011ko abenduaren 22an, Bankuak bere izen soziala aldatu zuen eta gaur egungoa hartu zuen, Kutxabank, S.A.. Azken hau, Kutxabank Taldeko Erakunde Nagusia da eta hiru euskal kutxen integrazio prozesutik sortu zen. Integrazioa eratu zuten hiru euskal kutxak honako hauek dira: Bilbao Bizkaia Kutxa, Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea (aurrerantzean "BBK"), Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián (aurrerantzean "Kutxa") eta Caja de Ahorros de Vitoria y Álava (aurrerantzean "Vital Kutxa") (ikus 1.2 Oharra). Helbide Soziala Bilboko Kale Nagusiko 30ean du.

Bankua honako hauek eraentzen dute: Erakundearen Estatutuek; Kreditu erakundearen Diziplina eta Eskuhartzeari buruzko uztailaren 29ko 26/1988 Legeak; Kreditu Erakundearen arloan indarrean dagoen Zuzenbidea Komunitate Europarrenera Egokitzeari buruzko ekainaren 28ko 1298/1986 Errege Lege Dekretuak; bankuak sortzeari, mugaz gaindiko jarduerari eta kreditu erakundearen arregimen juridikoaren gaineko beste gai batzuei buruzko uztailaren 14ko 1245/1995 Errege Dekretuak; Balore Merkatuaren uztailaren 28ko 24/1988 Legeak; Inbertsio Zerbitzuen Enpresen eta Inbertsio Zerbitzuak ematen dituzten gainontzeko enpresen errejimen juridikoari buruzko otsailaren 15eko 217/2008 Errege Dekretuak; uztailaren 3ko 1/2010 Errege Lege Dekretuak onartu zuen Kapital Erakundearen Legearen Testu Berreginak; eta indarrean dauden eta ezgarriak diren gainontzeko xedapenek ere.

2012ko urtarrilaren 3an, Kutxabank, S.A.ren kodearen (0483) ordezkapenaren idaztoharra egin zen Banku eta Bankarien Erregistroan eta data horretara arte Bilbao Bizkaia Kutxa, Aurrezki Kutxa eta Bahitetxeari zegokiona 2095 hartu zen. Bere helburu soziala banka negozioan, oro har, egiten diren mota guztietako jarduerak, operazioek eta zerbitzuek eratzen dute, beti ere, indarrean dagoen legediak onartzen baditu, baita Balore Merkatuko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 63. artikuluan xedatutako inbertsio-zerbitzuak eta zerbitzu osagarriak ematea ere, eta mota guztietako balore higigarrien erosketa, edukitzea eta salmenta.

Kutxabank, S.A.k 2012ko urtarrilaren 1ean ekin zion bere jarduerari.

Bere jarduera garatzeko, Taldeak, 1.066 bulego ditu 2013ko abenduaren 31n (1.211 bulego 2012ko abenduaren 31n), eta haietariko 436 Euskal Autonomia Erkidegoan daude (459 2012ko abenduaren 31n). Eremu geografikoaren arabera, Taldearen aipatutako bulego-sarearen banaketa, honako hau da 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n:

	Mila Euro	
	2013	2012
Euskal Autonomia Erkidegoa	436	459
Kordoba	165	167
Hedapen Sarea	460	580
Frantzia	5	5
	1.066	1.211

Bankua Kutxabank Taldea osatzen duten Partaidetzazko Erakunde Talde baten Erakunde Nagusia da (aurrerantzean, Taldea). Beraz, Erakunde Nagusiak, urteko banakako kontuak egiteaz gain (derrigorrezko auditoria batek aztertzen dituenak) Taldearen urteko kontu bateratuak ere egin behar ditu, eta hauek, Mendeko Erakundeetako eta Taldeanitzeko Erakundeetako partaidetzak eta Bazkideetako Erakundeetako inbertsioak hartu beharko dituzte barne. Taldea osatzen duten erakundeen jarduerak askotarikoak dira, I. eta II. Eranskinetan adierazi den legez.

2013ko abenduaren 31n, Erakunde Nagusiaren guztirako aktiboak, ondare garbia eta ekitaldiko emaitzak Taldearen kontzeptu berberen %81,19, %96,95 eta %32,37 ziren, hurrenez hurren (%80,81, %100,06 eta %88,34 hurrenez hurren, 2012ko abenduaren 31n).

Jarraian, era laburtuan, Erakunde Nagusiak 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietan izan dituen banakako balantzea, galera eta irabazien banakako kontua, banakako ondare garbiaren aldaketen egoera eta efektibo-fluxuen banakako egoera jaso dira. Horiek prestatzean, gainera, Espainiako Bankuaren 4/2004 Zirkularrean eta hurrengo aldaketek ezarritako (2.a Oharra), kontabilitate eta arau printzipioak eta balorazio-irizpideak erabili dira:

a) *Banakako balantzeak, laburbilduta, 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n:*

	Mila Euro	
	2013	2012
Kutxa eta gordailuak banku zentraletan	402.634	308.473
Negoiazio-zorroa	131.552	415.629
Arrazoizko balioan dauden eta galdu-irabazietan aldaketak dituzten beste finantza-aktibo batzuk	-	100.000
Salgai dauden finantza-aktiboak	2.667.384	3.252.888
Kredituen inbertsioak	38.741.581	41.588.840
Epemugarako inbertsio-zorroa	43.958	-
Estaldura eratorriak	274.690	412.758
Aktibo ez korronteak salgai	152.337	170.185
Partaidetzak	5.062.668	5.789.532
Aktibo materiala	763.806	818.633
Aktibo ukiezina	18	26.770
Aktibo fiskalak	1.053.376	974.245
Gainontzeko aktiboak	36.706	49.472
Aktiboa guztira	49.330.710	53.907.425
Negoiazio-zorroa	121.598	183.521
Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan	43.660.469	47.880.530
Estaldura eratorriak	30.135	32.046
Hornidurak	570.734	801.297
Pasibo fiskalak	103.605	116.064
Gainontzeko pasiboak	81.602	61.579
Pasiboa guztira	44.568.143	49.075.037
Fondo propioak:	4.613.397	4.597.017
Kapitala	2.000.000	2.000.000
Jaulkipen-prima	2.545.553	2.545.553
Erreserbak	32.502	-
Ekitaldiko emaitza	35.342	79.364
Ken: dibidenduak eta ordainsariak	-	(27.900)
Balorazioagatiko doiketak	149.170	235.371
Ondare garbia guztira	4.762.567	4.832.388
Pasiboa eta ondare garbia guztira	49.330.710	53.907.425
Arrisku kontingenteak	2.097.376	2.621.718
Konpromiso kontingenteak	5.018.875	5.260.698

b) 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiei dagozkien galera eta irabazien banakako kontuak laburbilduta:

	Mila Euro	
	2013	2012
Interesak eta antzeko errendimenduak	976.759	1.351.877
Interesak eta antzeko kargak	480.861	678.630
Interes-marjina	495.898	673.247
Kapital-tresnen errendimenduak	61.036	118.143
Hartutako komisioak	308.733	301.762
Ordaindutako komisioak	18.167	26.459
Finantza-eragiketen emaitzak (garbia)	141.560	82.542
Kanbio-tasen diferentziak (garbia)	3.879	(610)
Beste ustiapen-produktu batzuk	22.981	21.149
Beste ustiapen-karga batzuk	81.821	71.159
Marjina gordina	934.099	1.098.615
Administrazio-gastuak	531.915	561.973
Amortizazioa	85.183	46.239
Horniduretarako zuzkidurak (garbia)	24.785	121.634
Finantza-aktiboen narriaduragatiko galerak (garbia)	(112.584)	214.143
Ustiapen jardueraren emaitza	404.800	154.626
Gainontzeko aktiboen narriaduragatiko galerak (garbia)	380.693	107.953
Salgai dauden aktibo ez-korronte bezala sailkatutako bajetako irabaziak (galerak)	10.666	15.711
Salgai dauden aktibo ez korronteen irabaziak (galerak), operazio eten bezala sailkatu gabeak	(32.881)	(2.124)
Zerga aurreko emaitza	1.892	60.260
Mozkinen gaineko zerga	(33.450)	(19.104)
Eragiketa jarraituetako ekitaldiko emaitza	35.342	79.364
Ekitaldiko emaitza	35.342	79.364

c.1) 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiei dagozkien banakako ondare garbiaren aldaketa-egoerak - Aitortutako banako sarrera eta gastuen egoera laburtuak:

	Mila Euro	
	2013	2012
Ekitaldiko emaitza	35.342	79.364
Aitortutako beste sarrera eta irteera batzuk:	(81.953)	(39.829)
Emaitzetan birsailkatuak izango ez diren partidak		
Prestazio definituko pentsio-planetako galera eta irabazi aktuarialak	(13.438)	-
Mozkinen gaineko zergak	3.763	-
	(9.675)	-
Emaitzetan birsailkatu ahal izango diren partidak		
Salgai dauden finantza-aktiboak		
Balorazioagatiko irabaziak /(Galerak)	9.211	(36.185)
Galera era irabazien kontura transferitutako zenbatekoak	71.314	18.346
	(62.103)	(54.531)
Efektibo-fluxuen estaldurak	(2.015)	1.121
Inbertsio garbien estaldurak atzerriko negozioetan	-	-
Kanbio-tasa diferentziak	-	-
Aktibo ez korronteak salgai	-	-
Pentsio-planetako irabazi (galera) aktuarialak	-	-
Aitortutako gainontzeko sarrera eta gastuak	-	-
Mozkinen gaineko zergak	(8.160)	13.581
	(72.278)	-
Sarrera eta gastu aitortuak guztira	(46.611)	39.535

c.2) 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiei dagozkien banakako ondare garbiaren aldaketa-egoerak - banakako ondare garbiaren aldaketa-egoera laburtuak:

	Mila Euro							
	Fondo Propioak						Balorazioa-gatiko doiketak	Ondare garbia guztira
	Kapitala	Jaulkipen-primaria	Erreserbak	Ekitaldiko emaitza	Ken: dibidenduak eta ordainsariak	Fondo propioak guztira		
Amaierako saldoa 12.12.31n	2.000.000	2.545.553	-	79.364	(27.900)	4.597.017	235.371	4.832.388
Doiketak	-	-	-	-	-	-	-	-
Hasierako saldo doituia	2.000.000	2.545.553	-	79.364	(27.900)	4.597.017	235.371	4.832.388
Onartutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	35.342	-	35.342	(81.953)	(46.611)
Beste aldaketa batzuk	-	-	32.502	(79.364)	27.900	(18.962)	(4.248)	(23.210)
Amaierako saldoa 13.12.31n	2.000.000	2.545.553	32.502	35.342	-	4.613.397	149.170	4.762.567

	Mila Euro							
	Fondo Propioak						Balorazioa-gatiko doiketak	Ondare garbia guztira
	Kapitala	Jaulkipen-primaria	Erreserbak	Ekitaldiko emaitza	Ken: dibidenduak eta ordainsariak	Fondo propioak guztira		
Amaierako saldoa 11.12.31n	18.050	-	-	-	-	18.050	-	18.050
Doiketak	-	-	-	-	-	-	-	-
Hasierako saldo doituia	18.050	-	-	-	-	18.050	-	18.050
Onartutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	79.364	-	79.364	(39.829)	39.535
Beste aldaketa batzuk	1.981.950	2.545.553	-	-	(27.900)	4.499.603	275.200	4.774.803
Amaierako saldoa 12.12.31n	2.000.000	2.545.553	-	79.364	(27.900)	4.597.017	235.371	4.832.388

d) 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiei dagozkien efektibo fluxuen banakako egoerak, laburbilduta:

	Mila Euro	
	2013	2012
Ustiapen-jardueren efektibo-fluxuak:		
Ekitaldiko emaitza	35.342	79.364
Ustiapen-jardueretako efektibo-fluxuak lortzeko doiketak	199.565	389.142
Ustiapen-aktiboen Igoera/Jaitsiera garbia	4.173.457	1.630.960
Ustiapen-pasiboen Igoera/Jaitsiera garbia	(4.162.266)	(1.553.117)
Mozkinen gaineko zergengatiko Kobrantzak/Ordainketak	(619)	(348)
	245.479	546.001
Inbertsio-jardueren efektibo-fluxuak:		
Ordainketak	(1.135.543)	(299.350)
Kobrantzak	644.426	80.770
	(491.117)	(218.580)
Finantzaketa-jardueren efektibo-fluxuak:		
Ordainketak	(557.291)	(711.205)
Kobrantzak	897.090	-
	339.799	(711.205)
Kanbio-tasa aldaketan eragina	-	-
Efektiboaren eta baliokideen igoera /jaitsiera garbia	94.161	(383.784)
Epealdi hasierako efektibo eta baliokideak	308.473	692.257
Epealdi amaierako efektibo eta baliokideak	402.634	308.473

1.2. Bilbao Bizkaia Kutxa, Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea, Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián – Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa eta Caja de Ahorros de Vitoria y Álava – Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxa eta Kutxabank, S.A. arteko integrazioa.

2011ko ekainaren 30an, BBK, Kutxa, Vital Kutxa eta Bankuaren Administrazio Kontseiluek kontratu-oinarria duten kreditu-erakunde talde bateragarria (Babeserako Sistema Instituzionala edo "BSI") eratzeko integrazio kontratua onartu zuten. Bankua litzateke erakunde burua, eta gainera, honako hauek osatuko lukete, BBK-k, Kutxak eta Vital Kutxak (aurrerantzean, denak batera "Kutxak"). Integrazio kontratu honek Talde berriaren osagai konfiguratzaileak arautzen zituen, bere gobernua eta Bankuarena, baita haren egonkortasun mekanismoak ere.

Halaber, Kutxen Administrazio Kontseiluek, eta Bankuak (azken hau erakunde onuradun gisa), merkataritza-Erakundearen egitura-aldaketei buruzko apirilaren 3ko 3/2009 Legearen III. Tituluan eta Hirugarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera, dagozkion segregazio proiektuak onartu zituzten. Proiektu hauen kariatz, BBK, Kutxa eta Vital Kutxaren finantza-jarduerari lotutako aktibo eta pasibo guztiak Bankura ekartzea sustatu zen, eta Kutxek zeharka garatuko zuten, Bankuaren bidez, kreditu-erakunde diren aldetik duten eginkizuna.

Aipatutako segregazioak, lagapen unibertsalez, Ondare Banandua osatzen zuten unitate ekonomikoa integratzen zuten elementuak blokean eskualdatzea zuen helburu. Ondare Banandua Kutxen ondarea osatzen duten elementu guztiak osatzen zuten, Aktibo eta Pasibo baztertuak izan ezik, hauek finantza-jarduerara zuzenean lotuta ez daudenak, segregazio-proiektu bakoitzean identifikatuak, BBK-k bankuan duen partaidetza barne.

Segregazio proiektu horiek Kutxen Batzar Nagusien eta Bankuaren Akziodunen Batzar Nagusiaren (akziodun bakarra) onarpenaren mende geratu ziren, baita dagozkien baimen administratiboaren mende ere.

2011ko irailaren 16an, BBK eta Vital Kutxaren Batzar Nagusiek, eta 2011ko irailaren 23an, Kutxaren Batzar Nagusiak eta Bankuaren akziodun bakarrak, Kutxa bakoitzaren Bankuaren aldeko segregazio proiektua onartu zuten, erakunde bakoitzaren Administrazio Kontseiluak idatzi eta sinatu zuenaren arabera eta, ondorioz, Kutxaren finantza-negozioaren Bankuaren aldeko segregazioa. Halaber, kontratu oinarria duten kreditu-erakundeen talde bateragarria eratzeko Integrazio-kontratua onartu zuten eta sinatu 2011ko ekainaren 30ean, eta talde honen burua Bankua izango da. Gainera, kutxen estatutuen aldaketa onartu zuten, finantza-jarduera Banku baten bidez, zeharka burutzeko oinarritzko baldintzak sartzeko beste aldatu zituzten, hain zuzen ere.

2011ko irailaren 15an, Kutxen Administrazio Kontseiluek eta Bankuak, Kutxen Batzar Nagusien eta Bankuaren akziodun bakarraren onarpenaren mende, 2011ko ekainaren 30eko datza sinatu zen kontratu oinarria duten kreditu-erakundeen talde bateragarria eratzeko integrazio-kontratuaren termino batzuen aldaketa onartu zuten. Aldaketa hauek alderdi guztiek 2011ko irailaren 23an sinatu zuten Integrazio Kontratuaren Aldaketa Berritze Kontratuan geratu ziren islatuta. 2011ko urriaren 20an BBK, Kutxa eta Vital Kutxaren Batzar Nagusiek eta Bankuaren akziodun bakarrak aipatutako Kontratua onartu zuten. Behin dagozkion baimen administratiboak lortu ondoren, 2011ko abenduaren 22an, BBK-k, Kutxak eta Vital Kutxak, Bankuarekin batera, kutxen finantza-negozioen dagozkien segregazio eskriturak eman zituzten eta Kutxabank, S.A.ren aldeko haien ekarpena.

Merkataritza-Erakundeen egitura-aldaketei buruzko apirilaren 3ko 3/2009 Legearen 31.7 artikulua arabera, Kutxen negozioen segregazioaren eraginkortasuna eta Bankuari egiten dioten ekarpena, eta ondorioz, BSIrena, 2012ko urtarrilaren 2an burutu zen Bizkaiko Merkataritza Erregistroan egin zen Segregazioaren inskripzioak zehaztu zuten.

Segregazioen inskribatzearekin batera, Kutxek sinatutako integrazio-kontratua indarrean sar zedin bete behar zen azken baldintza etentzailea gauzatu zen. Ondorioz, 2012ko urtarrilaren 1an, integrazio-kontratua eraginkor bilakatu zen. Integrazio-kontratu honen kariaz Babeserako Sistema Instituzionala eratu zen, eta sistema honen bidez, Kutxek bere jarduera zeharka gauzatu zedila onartu zuten eta haien finantza-negozioak Bankuaren alde banandu zituzten. Beraz, hiru erakundeak kreditu-erakundeen talde bateragarri berrian geratu ziren integratuta eta Kutxabank, S.A. dute erakunde nagusi.

Bankua, segregazioaren erakunde onuraduna den aldetik, banandutako ondarearen eskubide, akzio, betebeharrak, erantzukizun eta karga guzti-guztietan subrogatu zen. Halaber, banandu diren Kutxa guztietako negozioen ustiapenari lotutako giza baliabideak eta baliabide materialak hartu ditu bere gain Bankuak.

Banandutako Ondarearen truke, Bankuak kapitalaren gehikuntza burutu zuen. Orotara 1.981.950 mila eurokoa izan da gehikuntza hori, eta 1.000 bana euroko balio nominaleko 1.981.950 akzio nominatibori dagozkie, gehi jaulkipen-prima. Beraz, Kutxa bakoitzak Bankuaren kapital soziala ordezkatzeko jaulkipen berriko akzioak jaso zituen. Akzio berri hauen balioa bakoitzak banandu duen ondarearen baliokidea izan da. Jaulkitako akzioak titulu nominatiboen bidez daude ordezkaturak, zirkulazioan daudenak bezala, denak mota berekoak eta zabalkuntza egin zenean zeuden eskubide bereberekin. Kapitalaren gehikuntza egin ostean, Kutxa bakoitzak Bankuan duen partaidetza honako hau da:

	Partaidetza %
Bilbao Bizkaia Kutxa, Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea	%57
Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa	%32
Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxa	%11

1.3. Bateratze-perimetroan egindako aldaketa esanguratsuenak

Jarraian, 2013ko ekitaldian bateratze-perimetroan egindako aldaketa esanguratsuenak adierazi dira:

- 2013ko otsailaren 8an, Kutxabank Taldeak Kutxabank Kredit, S.A.ren partaidetzen %51 erosi zuen, eta horrela, enpresaren %100 izatea lortu zuen, 30.626 Mila Euroko zenbatekoan. Era berean, 2013ko maiatzaren 31n, Kutxabank S.A.k Kutxabank Kredit, S.A.ren irenstearen bidezko bategitea

burutu zuen. Halaber, 2013ko maiatzaren 31n, Kutxabankek irenstearen bidezko bategitez integratu du CK Corporación Kutxa – Kutxa Korporazioa, S.L.

- 2013ko martxoaren 12an, Inversiones Crilur, S.L., kapital murrizketa eta gehikuntza egin ditu aldi berean, eta Kutxabank taldeak erosi du Erakundearen %100, 1.805 Mila Euroko zenbatekoan. Gero, 2013ko abenduaren 16an, Erakundea likidatu egin da.
- 2013ko martxoaren 26an, Taldeak Fineco Sociedad de Valores S.A. ren partaidetzen %20 erosi du, 13.046 Mila Euroko zenbatekoan, beraz, partaidetzaren %80 du. Erosketaren ondorioz, halaber, %20 igo du, zeharka, GIIC Fineco S.G.I.I.C., S.A.U., Fineco Previsión E.G.F.P., S.A.U. eta Fineco Patrimonios S.G.I.I.C., S.A.U. Erakundeetan zuen partaidetza. Erakunde horiek guztien partaidetzen %100 Fineco Sociedad de Valores S.A. ren esku dago.
- 2013ko maiatzaren 23an, Mail Investment, S.A.U.k kapital murrizketa eta gehikuntza egin zituen aldi berean, eta Kutxabank taldeak erosi du Erakundearen %100, 2.220 Mila Euroko zenbatekoan.
- 2013ko ekainaren 16an, Taldeak Harri 1, S.L.U. ren partaidetzaren %30 erosi du, 950 Mila Euroko zenbatekoan, eta ondorioz, %100eraino handitu du bere partaidetza.
- 2013ko ekainaren 28an eta urriaren 8an, Taldea San Mamés Barria, S.L. ren bi kapital zabalkuntzatarata bertaratu da, bakoitza 7.750 Mila Euroko zenbatekoan. Beraz, Erakunde horretan duen partaidetza %5,40 handitu da, eta %20,60koa da, gaur egun.
- 2013ko maiatzaren 28an, Ibermática, S.A.k kapital zabalkuntza egin du, baina Kutxabank taldea ez da bertaratu, beraz, bere partaidetza murriztu egin da %47,97tik %47,50era. Gerora, 2013ko urriaren 10an, 90.521 akzio saldu ditu eta kapital murrizketa egin du. Kapital murrizketa horren bidez, Taldeak 90.259 akzio amortizatu ditu. Erakunde horretako partaidetza, 2013ko abenduaren 31n %14,63koa da, eta "Salgai dauden finantza-aktiboen" zorrora birsailkatu da.
- 2013ko ekainaren 28an, Taldeak kitatu egin du Ibermática, S.A. ren alde zuen %21ari dagokion akzioen lagapena, Sociedades de Servicios Informáticos, S.A. ren kapitaletik, beraz, Taldeak Sociedades de Servicios Informáticos, S.A. n zuen partaidetza %70era iristen da. Gerora, 2013ko abenduaren 16an, Sociedades de Servicios Informáticos, S.A. likidatu egin da.
- 2013ko abuztuaren 20an, Taldeak Viacajas, S.A. ren akzioen %14,75 erosi du, beraz, bere partaidetza %32,06ra iristen da eta "Partaidetzak" epigrafera birsailkatu da.
- 2013ko urriaren 22an, Taldeak Datasur Servicios Tecnológicos S.A. mendeko Erakundearen kapital sozialaren %2,51 erosi du, eta horrela, Erakunde horretako partaidetzen %100 lortu du. Gerora, 2013ko urriaren 30an, Taldeak Datasur Servicios Tecnológicos S.A. n zuen partaidetza osoa saldu du.
- Ekitaldian zehar, Neinor Barria, S.A. higiezinaren taldearen berrantolaketa gertatu da, irentsi egin baititu Viuc Promociones, S.A, Grupo Inmobiliario Inverlur, S.A. eta Neinor Inversiones, S.A., eta Silene Activos Inmobiliarios, S.A.U. eta SGA CajaSur, S.A.U. erosi ditu. Neinor Ibérica Inversiones, S.A.k CajaSur Inmobiliaria, S.A. erosi du, eta Neinor S.A.k Promotora Inmobiliaria Priesur, S.A.U. erosi du. Aldez aurretik, SGA CajaSur, S.A.U.k Tejares Activos Singulares, S.L.U. irentsi zuen eta Promotora Inmobiliaria Priesur, S.A.U.k Sermansur, S.A.U. irentsi zuen.
- Era berean, Aurrezki Kutxei eta Banku fundazioei buruzko 2013ko abenduaren 27ko 26/2013 legearen arabera, Banku Fundazio dira, zuzenean nahiz zeharka, kreditu-erakunde baten kapitalaren edo boto-eskubideen %10 dutenak, gutxienez, edo bere administrazio-organoko kideren bat izendatzea edo kargutik kentzea ahalbidetzen dion portzentajea. Banku Fundazioek gizarte helburua izango dute eta bere jarduera nagusia gizarte ekintza artatzera eta garatzera bideratuko dute, baita partaidetza duten kreditu-erakundearen bere partaidetzaren kudeaketa egokia egin dadin.

Aipatutako Lege horren arabera, Kutxabanken akziodunak diren hiru kutxek banku fundazioa izateko bere eraldaketa-prozesuari ekin beharko diote urte beteko epean, eta horrela kreditu-erakunde izaera galduko dute.

Erregulazio berria aztertu ondoren, eta eraldaketa horren ondorioz, hiru Kutxa akziodunek Taldearen bateratze-perimetroko parte izateari utzi diote.

2. Urteko kontu bateratuen aurkezpen-oinarriak

a) Aurkezpen-oinarriak

Urteko kontu bateratuak Taldeko erakundeek kontabilitate-erregistroetan oinarrituta prestatu dira, eta NIIF-EB arauetan ezarritakoaren arabera egin dira, Espainiako Bankuaren 4/2004 Zirkularra eta honen aldaketak kontuan harturik. Azken horren arabera, Europar Batasunak hartutako NIIF-k garatu eta espainiar kreditu erakundeek sektoreari egokitzen zaizkie. Horrela, egiazko ondare bateratua, 2013ko abenduaren 31ko Taldearen finantza-egoera bateratua eta egun horretan amaitutako ekitaldiari dagozkion eragiketen emaitza bateratuak, ondare garbiaren aldaketak eta efektibo-fluxu bateratuak islatzen dituzte. Ez da ondorio garrantzitsuak izan ditzakeen nahitaezko kontabilitate-printzipio edo – arau zein balorazio-irizpiderik alde batera utzi honako txostena prestatzerakoan. 14. Oharrean, urteko kontu bateratu hauetan erabilitako kontabilitate-printzipio eta – arau eta balorazio-irizpide esanguratsuenen laburpena erantsi da.

Taldeko Erakunde Nagusiko Administrazioaren ardurapekoa da urteko kontu bateratu hauetan jasotako informazioa.

2014ko otsailaren 27an Administrazio Kontseiluaren bileran landu dituzte Erakunde Nagusiko Administrazioak 2013ko ekitaldiaren urteko kontu bateratuak. Dena den, Akziodunen Batzar Nagusian onartu beharko dira, baina ez da espero horretan aldaketa nabarmenik ematea. Urteko kontu bateratu hauek mila eurotan aurkezten dira, aurkakoa adierazten duenik egon ezean.

b) Bateratze-printzipioak

Europar Batasunak onartutako Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Arauetan (FINA) ezarritakoari jarraiki definitu da Taldea. Mendeko, Taldeanitzeko eta Bazkideetako Erakundeak, Partaidetzazko Erakundeak dira. Bateratze-perimetroko sartzeak eta aldaketak 1. eta 29. Oharretan zehaztu dira.

Erakunde Nagusiarekin batera erabakigune bat osatzen duten Partaidetzazko Erakundeak Mendeko Erakundeak dira, hau da, Erakunde Nagusiak hauetan, zuzenean edo zeharka, ezarritako Partaidetzazko beste Erakunde batekin edo batzuekin kontrolatzeko gaitasuna du. Partaidetzazko erakunde baten edo batzuen bitartez, zuzenean edo zeharka, partaidetza izateagatik kontrolatzeko gaitasun hori adierazten da orokorrean, baina ez kasu horretan bakarrik. Kontrola, norberaren jardueri etekin ateratzearen, Partaidetzazko erakunde bateko finantza- eta eragiketa-politikak zuzentzeko gaitasunari esaten zaio, eta gorago aipatutako partaidetza-porzentajea izan gabe ere bete daiteke.

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n Mendeko Erakundeetako partaidetzei buruzko informaziorik esanguratsuenak I. Eranskinean jaso da.

Mendeko Erakundeek urteko kontuetarako integrazio globalaren prozedura erabili da bateratze-prozesuan. Ondorioz, erakunde bateratuen artean egindako transakzio eta saldo adierazgarri guztiak ezabatu egin dira bateratze-prozesuan. Halaber, Taldearen Ondare garbian esku hartzen duten hirugarrenen partaidetza, balantze bateratuko "Gutxiengoaren interesak" epigrafean aurkezten da, eta horiei esleitzen dakiekeen ekitaldiko emaitzaren zatia, galera-irabazien kontu bateratuko "Gutxiengodunei egotzitako emaitza" epigrafean.

Ekitaldian zehar Taldeak erositako erakundeetan sortutako emaitzen bateratzeari dagokionez, hauek erosi zirenetik eta ekitaldi itxi arteko epealdiari dagozkionak baino ez dira kontuan hartu. Halaber, ekitaldian zehar

Taldeak eskuz aldatutako erakundeek sortutako emaitza bateratuak, berriz, ekitaldiaren hasieratik eskuz aldatze egunera arteko epealdiari dagozkionak baino ez dira kontuan hartu.

Taldeanitzeko Erakundeak dira, baterako negozioak eta Partaidetzazko Erakundeak, Mendeko Erakundeak izan gabe, Taldeak eta taldeari lotu gabeko beste erakunde batek edo batzuek elkar kontrolatzen dituztenak. Baterako negozioak kontratu bidez hitzartutako negozioak dira, eta horietan oinarrituta, erakunde edo partaide bik edo gehiagok eragiketak egiteko edo aktibo partekatuen inguruan finantzen edo esparru operatiboaren arloko erabaki estrategikorik hartu behar izatekotan, partaide guztien baimena izatea beharrezkoa da, partaideenak ez diren beste finantza-egitura batzuetan integratutako eragiketak edo aktiboak ez diren bitartean.

Bateratze prozesuan, partaidetza metodoaren prozedura ezarri da, Taldeanitzeko Erakundeen urteko kontuetarako.

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n Taldeanitzeko Erakundeetako partaidetzei buruzko informaziorik esanguratsuenak, II. Eranskinean dator.

Bazkideetako Erakundeak Partaidetzazko Erakundeak dira, eta horietan Taldeak eragin garrantzitsua izaten du. Partaidetzazko erakunde bako boto-eskubideen %20 edo gehiago duten Partaidetzazko beste Erakunde baten edo batzuen bitartez, (zuzenean nahiz zeharka) adierazten da eragin garrantzitsua hori orokorrean, baina ez da kasu horretan bakarrik gertatzen. %20ko edo hortik gorako boto-eskubideak dituztenean, Taldeko bazkideetako erakundetzat hartzen dira kasu guztietan 2013ko ekitaldian. 2013ko abenduaren 31n, ez dago partaidetza esanguratsurik Taldeak %20 baino beheragoko portzentajea duenik eta Taldearen bateratze-perimetroko atala denik.

Bateratze-prozesuan, partaidetzazko metodoa erabili da Bazkideetako Erakundeetarako eta Taldeanitzekoetarako. Ondorioz, Taldeak bere kapitaletik duen frakzioaren arabera balioetsi dira Bazkideetako Erakundeen eta Taldeanitzeko partaidetzak, horietatik jasotako dibidenduak eta ondarearen bestelako ezabaketak kontuan hartu ondoren. Bazkideetako eta Taldeanitzeko Erakunde bako bako transakzioen emaitzak ezabatzen dira, Taldeak duen partaidetzaren proportzioaren arabera. Bazkideetako Erakundeak izan dituen galeren ondorioz dagokion kontabilitate-ondarea negatiboa balitz, Taldearen balantze bateratuan ondarea balio gabe azalduko litzateke, Taldeak laguntza finantzarioa emateko betebeharra izan ezean.

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n Bazkideetako Erakundeetako partaidetzei buruzko informaziorik esanguratsuenak, II. Eranskinean jaso da.

Taldearen 2013ko eta 2012ko ekitaldietako urteko kontu bateratuak prestatzean erabilitako kontabilitate-printzipio eta arauak eta balorazio-irizpideak eta horretan txertatutako Mendeko eta Taldeanitzeko Erakunde eta Bazkideetako Erakundeetan erabilitakoak ezberdinak izan daitekeenez, bateratze-prozesuan kontabilitate-printzipio eta arauak eta balorazio-irizpideak berdinkatu ahal izateko beharrezkoak diren doiketa eta birsaikapen nabarmenak egin dira.

c) Arau berriak hartzea eta jaulkitako interpretazioak

Epealdi honetan indarrean dauden arauak eta interpretazioak

2013ko ekitaldian kontabilitate-arau berriak sartu dira indarrean, eta ondorioz, 2013ko ekitaldiko Taldearen urteko kontu bateratuak egitean aintzat hartuak izan dira:

- NIC 12ren aldaketa Irabazien gaineko zerga – Ondasun higiezinekin zerikusia duten zerga geroratuak: NIC 12ren printzipio orokorreari salbuespena sartu die eta Inbertsio Jabetzak NIC 40aren arazoizko balioaren ereduaren arabera baloratutako ondasun higiezinekin zerikusia duten zerga geroratuei eragiten die aldaketak. Kasu hauetan, ezgarriak diren zerga geroratuak neurtzeko ustezko bat sartzen da, aktibo horien kontabilitate-balioa erabat berreskuratuko dela salmenta bidez.

Arau honen ezarpenak ez du eragin esanguratsurik izan urteko kontu bateratu hauetan.

- NIIF 13 Arrazoizko Balioaren Neurketa – Arau berri hau da orain araudi-iturri bakarra, era honetara baloratzen diren aktiboaren edo pasiboaren elementuen arrazoizko balioa kalkulatzeko, beste arau batzuek eskatutakoaren arabera. NIIF 13k arrazoizko balioaren gaur egungo definizioa argitzen du, eta aintzat hartu beharreko ñabardura berriak sartzen ditu; gainera, arlo honetan eskatzen diren banantzeak zabaltzen ditu.

Arrazoizko balioaren definizio berriak eta eskakizun berriek zein neurritan eragin dezaketen bere balantze bateratuko elementuen balorazioan aztertu du Taldeak, eta ez du aldaketa esanguratsurik eragin, gaur egun egindako onartze, metodo eta kalkuluei dagokienez, jarraian datorren paragrafoan aipatutako alderdiak izan ezik.

Pasibo baten arrazoizko balioaren definizio berriak NIIF 13an, pasibo horren transferentzia merkatuko partaide bati egitearen kontzeptuan oinarrituta, kredituaren berezko arriskua pasiboaren arrazoizko balioan aintzat hartu behar dela egiaztatzen du. Alderdi honetan, aniztasuna zegoen praktikan, eta orain arte Taldeak, orain arte NIC 39an egiten zen eta likidazio kontzeptuan oinarritzen zen pasibo baten arrazoizko balioaren definizioan babestuta, balorazio hauetan kredituaren berezko arriskuaren eragina ez sartzeko irizpidea zuen hartuta.

Horrela, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, beharrezkoa da arrisku hau arrazoizko balioa duten finantza-pasiboaren balorazioan sartzea, eta taldearen kasuan pasiboaren eratorriak besterik ez dira.

NIIF 13aren arabera, arau honen lehenengo ezarpenaren eragina, modu prospektiboan, hau da, aurrera begira egiten da, galera eta irabazien kontu bateratuan, eratorrien arrazoizko balioaren gainontzeko aldaketarekin. Hau da, kontabilitate aurreikuspenetan egiten den beste edozein aldaketaren antzera.

42. oharrean, eratorrien balorazioan erabilitako hipotesi eta metodologia guztiak deskribatzen dira. 2013ko ekitaldian, aldaketa honek izan duen eraginak galera eta irabazien kontu bateratuan 3.893 mila euroko galera garbia erregistratzea ekarri du.

- NIC 1en aldaketa – Beste Emaidza Integralaren Aurkezpena: Aldaketa hau “Beste emaitza integrala” ataleko diru-sarreraren eta gastuen orotarako banatua aurkezteko eskakizunean datza, funtsean, etorkizuneko ekitaldietan galera eta irabazien kontu bateratura birziklatuko diren kontzeptuen eta birziklatuko ez direnen kasuan.

Arau honen ezartzeak ez du eragin esanguratsurik izan 2013ko ekitaldiko urteko kontu bateratuetan.

- NIIF 7ren aldaketa Finantza-tresnak: jakinarazteko informazioa – Finantza aktiboaren eta pasiboaren konpentsazioa: banatze berezi berriak sartzen ditu, finantza aktiboaren edo pasiboaren konpentsazioa egitean eta konpentsazio garbiko edo antzeko hitzarmen galdagarri batera lotuta dauden gainontzeko tresnetarako.

NIIF 7ren aldaketaren indarrean sartzeak ez du ekarri banantzeen zabaltzea, taldeak zenbait finantza aktibo eta pasibo era konpentsatuan aurkezteko edo ez aurkezteko egiten duen azterketa arauan sartutako argibideekin bat datorrelako.

- NIC 19aren aldaketa Ordainsariak langileei: NIC 19aren aldaketa honek dakarren aldaketa nagusiak zehaztutako mozkinen planen kontabilitate-trataerari eragiten dio, orain arte irabazi eta galera aktuariaren zati bat geroratzea aukeratzea ahalbidetzen zuen “fluktuazio banda” ezabatzen delako. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, irabazi eta galera aktuarial guztiak berehala erregistratzen dira beste emaitza integralean. Beste alde batetik, planeko aktiboaren interesen araberrako kostua eta espero den itzulera ordezkatu egin dira arau berrian, deskontu-tasa pasiboari (edo aktiboari) ezarri, konpromisoarengatik. Emaidza integral egoerako kostuaren osagaien aurkezpenean ere aldaketak dakartza, taldekatu eta beste era batera aurkeztuko baitira.

Taldearen kontabilitate-politika iraganean, “fluktuazio banda” ezartzea zen, eta ondorioz, prestazio mugatuko planetako galera eta irabazi aktuariaren zati zehatz bat geroratzea.

Aldaketa horrek atzera eragina du. Aldaketa horrek 2013ko urtarrilaren 1ean duen eraginak, Ondare Garbi Bateratuko “Balorazioagatik gainontzeko doiketak” epigrafean, 16.226 mila euroko zenbateko garbia erregistratzea ekarri du.

- 2009tik 2011ra Ziklo NIIF arauari egindako hobekuntzak: Zenbait arauen aldaketa txikiak (NIC 1, NIC 16, NIC 32 eta NIC 34).

Indarrean ez dauden arau eta interpretazio jaulkiak

Urteko kontu bateratu hauek formulatu diren datan, jarraian agertzen direnak dira IASBk argitaratutako arau eta interpretazio esanguratsuenak, baina oraindik indarrean sartu gabe zeudenak, bai haien eragin data urteko kontu bateratuena baino beranduagoa delako, bai oraindik Europar Batasunak onartu ez dituelako:

Arauek, aldaketak eta interpretazioak		Derrigorrez ezarri beharrekoak data honetatik aurrera hasitako ekitaldietan
Erabiltzeko onartuak UEn: NIIF 10 NIIF 11 NIIF 12 NIC 27 NIC 28 Aldaketa NIIF 10, 11 eta 12 Aldaketa NIIF 10, NIIF 12 eta NIC 27 Aldaketa NIC 32	Finantza-egoera bateratuak Baterako akordioak Bestelako erakundeetan partaidetzen gaineko banantzeak Banakako finantza-egoerak Inbertsioak bazkideetan eta baterako negozioetan Trantsizio arauak Inbertsio-Erakundeak: salbuespena bateratzean, inbertsio-Erakundea definizioa betetzen duten Erakunde nagusietarako Aktiboak finantza-pasiboen bidez konpentsatzea	2014ko urtarrilak 1 2014ko urtarrilak 1 2014ko urtarrilak 1 2014ko urtarrilak 1 2014ko urtarrilak 1 2014ko urtarrilak 1 2014ko urtarrilak 1 2014ko urtarrilak 1
Erabiltzeko ez onartuak UEn (1): NIIF 9 Aldaketa NIC 36 Aldaketa NIC 39 Aldaketa NIC 19 Hobekuntzak NIIF IFRIC 21	Finantza-tresnak: Sailkapena eta balorazioa Aktibo ez finantzarioen zenbateko berreskuragarriaren gaineko banantzeak Eratorrien nobazioa eta estalduren kontabilitatearen jarraipena Langileen kontribuzioa prestazio mugatuko planetara Zenbait arauen aldaketa txikiak Kargak NIIF	Zehaztu barik 2014ko urtarrilak 1 2014ko urtarrilak 1 2014ko uztailak 1 2014ko uztailak 1 2014ko urtarrilak 1

(1) Arau eta interpretazio hauek ez ditu ezarri Europar Batasunak urteko kontu bateratu hauek egin diren egunerako.

Arau hauek indarrean sartzeak, etorkizuneko ekitaldietako urteko kontu bateratuetan eragin esanguratsuak sor litzake, honako kasu hauetan:

- NIIF 10, Finantza-egoera bateratuak, NIIF 11 Baterako akordioak, NIIF 12 Beste erakunde batzuetan dituen partaidetzen gaineko banantzeak, NIC 27 Banakako finantza-egoerak eta NIC 28 Inbertsioak bazkideetan eta baterako negozioetan: NIIF 10ek gaur egun dagoen kontrol definizioa aldatu du. Kontrolaren definizio berriak bete behar diren hiru elementu ditu: partaidetzakoaren gaineko boterea, inbertsioaren emaitza aldakorretarako esposizioa edo eskubidea eta botere hori erabiltzeko ahalmena, itzulera horien zenbatekoan eragin ahal izateko moduan.

NIIF 11, Baterako akordioak, gaur egun indarrean dagoen NIC 31 ordezkatuko du. Gaur egungo arauarekiko NIIF 11k dakarren aldaketa nagusia, elkarrekin kontrolatzen diren erakundeetarako bateratze proportzionalerako aukera ezabatzea da, eta ekibalentzian jartzeagatik sartzera pasako dira.

Arau berri honek ez du eragin esanguratsurik izango Taldearen urteko kontu bateratuetan, Taldeanitzeko Erakundeek erabat bateratzen direlako 2013ko abenduaren 31n partaidetza metodoaz (2.b. Oharra).

NIC 27ren eta NIC 28ren aldaketak arestian aipatutako NIIF berrien jaulkipenen paraleloak dira.

Taldearen kasuan, arestian aipatutako arauak eragin esanguratsurik izango ez dutela izango iritzi diote.

Azkenik, NIIF 12 banantze araua da, beste erakunde batzuetako partaidetzei buruzko kontuetako errebelatze-eskakizun guztiak taldekutzen dituen (mendekoak, bazkidetuak, baterako negozioki edo beste partaidetza batzuk izan) banantze eskakizun berriak barne hartuta.

Horrela, indarrean sartzeak, ziur aski, Taldeak egin ohi dituen banantzeen handitzea ekarriko du eta gaur egun beste erakunde batzuetako eta beste inbertsio-mota batzuetako partaidetzetarako eskatzen direnak.

- NIC 32aren aldaketa, Finantza-tresnak: aurkezpena – Finantza aktibo eta pasiboen konpentsazioa eta NIIF 7rena, Finantza-tresnak: informazioa - Finantza aktibo eta pasiboen konpentsazioa: NIC 32ren aldaketak arauaren eskakizunei buruzko zenbait argibide gehigarri sartzen ditu inplementazio-gidan, finantza aktibo bat eta pasibo bat konpentsatu ahal izateko, balantzean aurkezten direnean. NIC 32 arauak badio finantza aktibo bat eta pasibo bat erakundeak aitortutako zenbatekoak konpentsatzeko legez eska daitekeen eskubidea duenean baino ezin izango direla konpentsatu. Inplementazio-gida aldatuak adierazten du, besteak beste, baldintza hau bete dadin, konpentsazio-eskubideak ez duela izan behar geroko gertakizunen mende eta legalki galdagarria izan behar duela, bai negozioren ibilbide arruntan, baita ez-betetze, kaudimen eza edo erakundearen eta kontra alderdi guztien porrot kasuetan ere.

NIIF 7ren aldaketa paraleloak banantze eskakizun berrien atal berezia sartu du balantze bateratuan garbi aurkezten diren finantza aktibo eta pasiboetarako, baita konpentsazio garbiko edo antzeko akordio galdagarri batera lotuta dauden gainontzeko finantza-tresnetarako, berdin da NIC 32ren arabera kontabilitate bidez konpentsatuta aurkezten ari diren ala ez.

Aldaketa hau indarrean sartzeak ez luke aldaketarik ekarri beharko kontabilitate-politiketan, finantza aktibo eta pasibo zehatz batzuk era konpentsatuan aurkezteko ala ez aurkezteko Taldeak egiten duen azterketa arauan sartu diren argibideekin bat dator.

- NIIF 9, Finantza-tresnak: NIIF 9- etorkizunean NIC39 ordezkatuko du. Gaur egun, sailkapen eta balorazio kapituluak eta estalduren kontabilitatekoa daude jaulkita (narriadurari dagozkion arauak egiteke daude). Alde oso esanguratsuak daude finantza-aktiboei dagokienez egungo arauaren aldean, esaterako, sailkapen eredu berri baten onarpena, kostu amortizatua eta arrazoizko balioaren kategorian bitan oinarritua, gaur egungo "Epemugarako inbertsioak" eta "Salgai dauden finantza-aktiboak" sailkapenen desagertzea, narriadura azterketa kostu amortizatura doazen aktiboetarako baino ez, eta eratorri inplizituen ez adarkatzea finantza-aktiboen kontratuetan.

Finantza-pasiboei dagokienez, NIIF 9k proposatutako sailkapen kategoriak, gaur egun NIC39n gaur egun daudenen antzekoak dira, beraz, ez litzateke desberdintasun handirik izan beharko, salbu eta kredituaren arriskuarekin zerikusia duen arrazoizko balioaren aldaketak ondare osagai gisa erregistratzeko eskakizuna, arrazoizko balioaren aukerako finantza-pasiboen kasuan.

Estalduren kontabilitateak aldaketa handiak ere ekarriko ditu, arauen ikuspegia oso bestelakoa delako gaur egungo NIC 39aren aldean, kontabilitate arriskuaren kudeaketa ekonomikoarekin lerrotzen saiatzen baita.

NIIF 9aren etorkizuneko ezarpenak eragin esanguratsua izan dezakeela deritza zuzendaritzak, barneko zenbait prozesu eta prozedurari dagokionez, gaur egungo eskakizunen aldean. Edozein kasutan, Zuzendaritzak, gaur egungo datan, arau hau ezartzeak ekarriko dituen etorkizuneko eragin guztiak aztertzen ari da eta ez da posible ere eraginen arrazoizko balioespena ematea, aipatutako azterketa osatuta egon arte, eta beste alde batetik, bere eragin guztiak aintzat hartu arte, behin araua erabat amaituta dagoenean.

Administratzaileek ebaluatu dituzte, goian aipatutako gainontzeko arauen etorkizuneko ezarpenaren balizko eraginak eta, indarrean sartzeak, urteko kontu bateratuetan, eragin garrantzitsurik izango ez duela deritzote.

d) 2012ko ekitaldiari buruzko informazioa

NIC 1ek eskatutakoaren arabera, urteko kontu bateratu hauetan 2012ko ekitaldiari buruz datorren informazioa, 2013ko ekitaldikoarekin alderatzeko helburuz baino ez da aurkezten eta, ondorioz, ez da Taldearen 2013ko ekitaldiari buruzko urteko kontu bateratuetako osagaia.

3. Kontabilitateko irizpide eta balioespenetako aldaketak eta akatsak

Urteko kontu bateratu hauetan, behar izan den kasuetan, hainbat aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromisoak kalkulatzeko balioespenak erabili dira, eta horiek, Erakunde Nagusiko eta Partaidetzako Erakundeetako Zuzendaritzak egin eta horietako Administratzaileek berretsi dituzte. Hona balioespen horiek noiz erabili diren:

- Hainbat aktiboren narriadurek eragindako galerak (14.h, 14.p, 14.q, 14.r, 14.t eta 14.u Oharrak).
- Lan-ondoko ordainketetan eta epe luzerako beste ordainketa batzuetan oinarritutako pasibo eta konpromisoak kalkulatzeko erabilitako hipotesi aktuarialak (14.o Oharra).
- Aktibo material eta Aktibo ukiezinetak elementuei ezarritako balio-bizitza (14.q eta 14.r Oharrak).
- Kotizatu gabeko hainbat aktiboren arrazoizko balioa (14.e Oharra).
- Hornidura eta pasibo gertagarrietan espero den bilakaera eta kostua (14.s Oharra).

Balioespen hauek, eragindako partidei buruz, urteko kontu bateratu hauek egin diren datan eskuragarri zegoen informaziorik onenaren arabera egin direnez, baliteke etorkizunean gerta daitezkeen jazoeren ondorioz, hurrengo ekitaldietan, hola edo hala, aldatu behar izatea. Aldaketa hori, hala badagokio, geroari begira egingo da, horren eragina dagokion galera-irabazien kontu bateratuan jasoz.

a) Aldaketak kontabilitate-irizpideetan

Ez dira aldaketarik gertatu 2013ko eta 2012ko ekitaldiei eragiten dieten kontabilitate-irizpideetan, 2012ko urtarrilaren 1eko balantze bateratuaren aldean, 2.c. oharrean deskribatutako indarrean dauden araudiak izan ezik.

b) Akatsak eta aldaketak kontabilitate-balioespenetan

2013ko eta 2012ko ekitaldietan ez dira aurreko ekitaldiei dagozkien akats esanguratsuen zuzenketarik egin, ezta aldaketarik ere ekitaldi horiei dagozkien kontabilitate balioespenetan, edo etorkizuneko ekitaldiei eragin liezaieketen kontabilitate balioespenetan ere.

4. Ekitaldiko emaitzaren banaketa

Onartua izan dadin, Erakunde Nagusiaren Administrazio Kontseiluak Akziodunen Batzar Nagusira eramango duen 2013ko emaitzaren banaketa-proposamena ondorengoa da:

	Mila Euro
	2013
Banaketa:	
Legezko erreserba	3.534
Borondatezko Erreserbak	4.728
Banatzeko dauden emaitzak (*)	27.080
Banatutako emaitza	35.342
Ekitaldiko emaitza	35.342

(*) Akziodunen Batzar Nagusiak dibidenduaren banaketa adostu dezala proposatu da, 2013ko emaitzan kargatzekoa, honako baldintza hauetan:

- a) Dibidendu osagarri gisa banatuko den kopurua ezin liteke 1.000 mila euro baino txikiagoa izan, ezta 27.080 mila euro baino altuagoa ere.
- b) Berariaz eskuordetuko litzateke Erakunde Nagusiaren Administrazio Kontseiluaren eskuetan aipatutako dibidendu osagarriaren zenbatekoa zehaztea, Akziodunen Batzar Nagusiak ezarritako mugen barruan, baita akziodunei ordainketa bakarrean edo zenbait ordainketatan ordaintzeko data edo datak eta era ere. Ondorio hauetarako Erakunde Nagusiko Administrazio Kontseiluak har dezakeen edo ditzakeen akordioa edo akordioak, 2014ko abenduaren 31 baino lehen gauzatu behar dira.
- c) Administrazio Kontseiluak hartutako erabakia edo erabakiak, aurreko (b) letrak aipatu duen funtzio eskuordetzearen kariaz, (a) letran aipatutako maximoa baino zenbateko txikiagoan izango balitz, aldeari dagokion kopurua borondatezko erreserba gisa gehituko litzaioke balantzeari.

Akziodunen Batzar Nagusiak, 2013ko martxoaren 27ko bileran, eta Erakunde Nagusiko Administrazio Kontseiluaren proposamenez, dibidendu osagarriaren banaketa adostu zuen, 2012ko ekitaldiaren kargura, honako termino hauetan:

- a) Dibidendu osagarri gisa banatu beharreko zenbatekoa ezin zitekeen 1.000 mila eurokoa baino baxuagoa izan, ezta 27.900 mila eurokoa baino altuagoa ere.
- b) Berariaz eskuordetuko litzateke Erakunde Nagusiaren Administrazio Kontseiluaren eskuetan aipatutako dibidendu osagarriaren zenbatekoa zehaztea, Akziodunen Batzar Nagusiak ezarritako mugen barruan, baita akziodunei ordainketa bakarrean edo zenbait ordainketatan ordaintzeko data edo datak eta era ere. Ondorio hauetarako Erakunde Nagusiko Administrazio Kontseiluak har dezakeen edo ditzakeen akordioa edo akordioak, 2013ko abenduaren 31 baino lehen gauzatu behar dira.
- c) Administrazio Kontseiluak hartutako erabakia edo erabakiak, aurreko (b) letrak aipatu duen funtzio eskuordetzearen kariaz, (a) letran aipatutako maximoa baino zenbateko txikiagoan izango balitz, aldeari dagokion kopurua borondatezko erreserba gisa gehituko litzaioke balantzeari.

Erakunde Nagusiko Administrazio Kontseiluak, 2013ko abenduaren 26ko datan, dibidendu osagarri horri dagokionez, 27.900 mila euroko zenbatekoa banatzea erabakiko zuen, 2012ko ekitaldiaren kargura.

Talde osatzen duten mendeko erakundeen emaitzak bakoitzaren Akziodunen Batzar Nagusiak onartzen duen eran ezarriko dira.

5. Negozio-segmentutan antolatutako informazioa

a) Segmentazio irizpideak

Segmentutan antolatutako irizpideak Kutxabank Taldearen negozio arlo desberdinen arabera aurkezten dira, bere 2013ko ekitaldiaren itxieran indarrean dagoen bere antolaketa-egituraren arabera eta honako arlo hauetan taldekatzen da:

- Kutxabank.
- CajaSur Banco azpitaldea.
- Erakunde aseguratzaileak.
- Beste zenbait jarduera.

Kutxabanken arloan Kutxabanken jarduera sartzen da. Jarduera hau Kutxabanken bulego sarearen bidez garatzen da eta bezero partikularrekin, enpresa txiki eta ertainekin eta sustatzaileekin garatzen den jarduera eta enpresa partaidetzen garapena da. Eskaintzen den produktu eta zerbitzu multzoan hipoteka-maileguak daude, kontsumorako kreditua, enpresetarako eta sustatzaileentzako finantzaketa, ageriko eta epeko aurrezki produktuak, abalak, zordunketa eta kreditu txartelak. Arlo honetako erabaki operatiboak hartzetako instantzia gorena Kutxabanken Administrazio Kontseilua da.

CajaSur Banco arloan CajaSur Bancoren eta bere mendeko Erakundeen jarduera sartzen da. Jarduera hau CajaSur Bancoren bulego sarearen bidez garatzen da eta bezero partikularrekin, enpresa txiki eta ertainekin eta sustatzaileekin garatzen den jarduera da. Eskaintzen den produktu eta zerbitzu multzoan hipoteka-maileguak daude, kontsumorako kreditua, enpresetarako eta sustatzaileentzako finantzaketa, ageriko eta epeko aurrezki produktuak, abalak, zordunketa eta kreditu txartelak, eta abar. Arlo honetako erabaki operatiboak hartzetako instantzia gorena CajaSur Banco, S.A.U.ren Administrazio Kontseilua da.

Erakunde aseguratzaileen arloak Taldeak Kutxabank Vida y Pensiones Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.U. eta Kutxabank Aseguradora Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.U Erakundeen bidez burutzen duen jarduera hartzen du barne. Arlo honetako erabaki operatiboak hartzetako instantzia gorena mendeko Erakunde bietako Administrazio Kontseiluak dira.

Beste zenbait jarduera atalean aurreko negozio-segmentuei egozten ez zaizkien guztiak sartzen dira eta, funtsean, enpresa-partaidetzen garapena. Arlo honetako erabaki operatiboak hartzetako instantzia gorena Erakunde filial bietako Administrazio Kontseiluak dira. Bertan daude ordezkaturak dagokion Erakunde Nagusiko Arloetako zuzendaritzak, Erakunde filial bakoitzaren jardueraren arabera.

b) Negozio-segmentutan antolatutako informazioaren lanketan erabilitako oinarriak eta metodologia

Jarduera segmentuak jarduera bakoitza garatzen den merkataritza-erakundeak erantsiz eratzen dira. Beraz, segmentu bakoitzeko informazioa segmentu bakoitza osatzen duten Erakundeen kontabilitate-informazioaren bateratzeak eratu da. Horregatik, ez da beharrezkoa izan barne transferentziako tasen erabilera. Kasu guztietan, finantza-egoerak Taldeak erabiltzen dituen kontabilitate-irizpideekin homogeneizatuta daude.

Doiketak eta ezabatzeak, funtsean, segmentuen artean mailegatutako zenbatekoen ezabatzearekin bat datoz, baita dagozkien etekinekin eta finantza-kostuekin ere.

Jarduera segmentuen balantzeen eta galera eta irabazien kontuen batera, doiketa eta ezabatzeekin batera, bat datoz balantzearekin eta galera eta irabazi bateratuen kontuarekin, hurrenez hurren.

c) Negozio-segmentuen araberako informazioa

Jarraian datozen tauletan galera eta irabazi bateratuen kontuko sarrera eta beste partida batzuei buruzko informazioa dago ikusgai, baita negozio segmentuei buruzko informazio gehiago ere:

	2013 (Mila Euro)					
	Kutxabank	CajaSur Banco azpitaldea	Erakunde aseguratzaileak	Beste zenbait jarduera	Doiketak eta ezabatzeak	Taldea orotara
Galera eta irabazien kontua						
Interes-marjina	495.898	220.800	17.322	(18.931)	952	716.041
Kapital-tresnen etekina	7.980	606	20	96.822	-	105.428
Partaidetza metodoaz baloratutako erakundeen emaitzak	-	2.299	-	22.888	1	25.188
Komisio garbiak	291.043	48.342	(42.632)	26.446	(1.591)	321.608
Finantza-operazioen emaitzak	142.202	10.878	7.852	(44.611)	-	116.321
Kanbio-tasa diferentziak (garbia)	3.879	307	-	-	-	4.186
Beste ustiapen produktu batzuk eta Beste ustiapen karga batzuk	(59.319)	(7.487)	108.474	4.743	(13.158)	33.253
Marjina gordina	881.683	275.745	91.036	87.357	(13.796)	1.322.025
Langile gastuak	(383.726)	(117.046)	(5.378)	(20.783)	-	(526.933)
Administrazio beste gastu orokor batzuk	(148.189)	(47.068)	(7.390)	(9.009)	12.154	(199.502)
Amortizazioa	(85.182)	(9.131)	(2.482)	(17.220)	-	(114.015)
Horniketarako zuzkidura garbiak	(25.403)	24.395	-	(88)	-	(1.096)
Finantza-aktiboen narriaduragatikoko galerak	1.117	(173.704)	-	(26.380)	113.185	(85.782)
Ustiapen jardueraren emaitza	240.300	(46.809)	75.786	13.877	111.543	394.697
Gainontzeko finantza-aktiboen narriaduragatikoko galerak	(26.904)	(32.052)	(176)	(118.526)	-	(177.658)
Beste sarrera eta irteera batzuk	(14.711)	84.614	-	(82.284)	(111.543)	(123.924)
Emaitzak zerga aurretik	198.685	5.753	75.610	(186.933)	-	93.115

	2013 (Mila Euro)					
	Kutxabank	CajaSur Banco azpitaldea	Erakunde aseguratzaileak	Beste zenbait jarduera	Doiketak eta ezabatzeak	Taldea orotara
Aktiboa guztira	44.252.924	12.742.099	1.059.697	6.165.439	(3.458.545)	60.761.614
Bezeroei emandako kreditua	37.394.651	9.635.899	8.114	527.382	(1.638.288)	45.927.758
Balore-zorrotz (*)	2.708.269	677.584	779.199	2.474.864	(58.102)	6.581.814
Aktibo ez korrontetarako salgai	152.337	150.989	-	960.235	-	1.263.561
Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan	43.660.406	11.771.582	78.338	2.022.255	(3.456.076)	54.076.505

(*) Saldoak zorra adierazten duten baloreetan, Kapitalaren beste tresna batzuetan eta Partaidetzetan.

	2012 (Mila Euro)					
	Kutxabank	CajaSur Banco azpitaldea	Erakunde aseguratzailak	Beste zenbait jarduera	Doiketak eta ezabatzeak	Taldea orotara
Galera eta irabazien kontua						
Interes-marjina	712.844	212.818	18.941	(32.682)	9.394	921.315
Kapital-tresnen etekina	142.058	652	14	4	(4)	142.724
Partaidetza metodoaz baloratutako erakundeen emaitzak	(2.760)	(6.270)	-	(7.080)	-	(16.110)
Komisio garbiak	296.031	52.261	(36.814)	(2.090)	(370)	309.018
Finantza-operazioen emaitzak	84.751	2.059	2.843	-	-	89.653
Kanbio-tasa diferentziak (garbia)	(611)	120	-	-	-	(491)
Beste ustiapen produktu batzuk eta Beste ustiapen karga batzuk	(52.518)	31.341	76.953	39.008	(9.645)	85.139
Marjina gordina	1.179.795	292.981	61.937	(2.840)	(625)	1.531.248
Langile gastuak	(429.995)	(114.535)	(5.686)	(5.602)	175	(555.643)
Administrazio beste gastu orokor batzuk	(170.875)	(50.211)	(8.548)	(2.975)	3.399	(229.210)
Amortizazioa	(49.775)	(9.447)	(4.922)	(11.378)	146	(75.376)
Horniketarako zuzkidura garbiak	(128.263)	(7.781)	-	(3.717)	(8)	(139.769)
Finantza-aktiboen narriaduragatikoko galerak	(323.383)	(91.554)	-	-	83	(414.854)
Ustiapen jardueraren emaitza	77.504	19.453	42.781	(26.512)	3.170	116.396
Gainontzeko finantza-aktiboen narriaduragatikoko galerak	(25.725)	(5.291)	-	462	-	(30.554)
Beste sarrera eta irteera batzuk	(5.903)	(9.835)	5	(653)	287	(16.099)
Emaitzak zerga aurretik	45.876	4.327	42.786	(26.703)	3.457	69.743

	2012 (Mila Euro)					
	Kutxabank	CajaSur Banco azpitaldea	Erakunde aseguratzailak	Beste zenbait jarduera	Doiketak eta ezabatzeak	Taldea orotara
Aktiboa guztira	52.004.167	13.796.768	989.684	1.323.094	(1.406.278)	66.707.435
Bezeroei emandako kreditua	40.154.406	9.437.082	7.830	132.187	(559.674)	49.171.831
Balore-zorrotz (*)	6.947.330	1.410.479	687.114	288	(440.958)	8.604.253
Aktibo ez korranteak salgai	571.211	717.152	-	-	64.630	1.352.993
Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan	46.977.360	12.549.562	3.243	990.208	(946.119)	59.574.254

(*)Saldoak zorra adierazten duten baloreetan, Kapitalaren beste tresna batzuetan eta Partaidetzetan.

Taldeak, batez ere, Estatuan garatzen du bera jarduera, 2013ko abenduaren 31n 1.066 bulegoz osatutako sarearen bidez, 436 Euskal Autonomia Erkidegoan, 165 Kordoban eta 460 Estatuko gainontzekoan eta 5 Frantzian (1.211 bulego 2012ko abenduaren 31n, 459 Euskal Autonomia Erkidegoan, 167 Kordoban eta 580 Estatuko gainontzekoan eta 5 Frantzian).

Taldearen finantza-aktiboen eta kredituen inbertsioen banaketa geografikoa urteko kontu bateratu hauetako 22. Oharretik 26.era zehazten da. Taldearen diru-sarrerei dagokienez, ia-ia gehienak Espainian sortzen dira.

6. Gutxieneko koefizienteak

Kapital kudeaketaren helburuak, politikak eta prozesuak

Maiatzaren 22ko Espainiako Bankuaren 3/2008 Zirkularra, kreditu erakundeetara ezartzekoa, norberaren gutxieneko baliabideen zehaztapena eta kontrolari buruzkoa, eta gerora egin dizkioten aldaketek, Espainiako kreditu erakundeek izan behar dituzten gutxieneko baliabide propioak arautzen ditu - indibidualki zein talde bateratuetan - eta nola zehaztu behar diren aipatutako baliabide propio horiek, baita erakundeek egin behar dituzten kapitalaren auto-ebaluazio prozesu desberdinak eta merkatura igorri behar duten informazio publikoa ere.

Zirkular hau, norberaren baliabideei eta finantza-erakundeen oinarri bateratuaren gainbegiratzeari buruzko legediaren garapena da, kreditu erakundeen eremuan; azaroaren 16ko 36/2007 Legearen gainean egina, maiatzaren 25eko 13/1985 Legea aldatu zuen. Lege hori inbertsio-koefizienteen, norberaren baliabideen eta

finantza-bitartekarien informazio betebeharren gainekoa zen, baita finantza-sistemako beste arau batzuen gainekoa ere eta, otsailaren 15eko 216/2008 Errege Dekretua ere hartzen du, finantza-erakundeen baliabide propioen gainekoa. Arau hau Espainiako araudiaren egokitze prozesuaren isla da, 2006/48/CE eta 2006/49/CE jarraibide komunitarioetara, Banku-gainbegiratzeko Basileako Batzordearen Kapitalaren Hitzarmen Berria onartutako printzipio berrien ildotik ("Basilea II").

Aipatutako Basileako Batzordeak Kapital Akordio berria argitaratu zuen 2010eko abenduan, Basilea III izenaz ezaguna, eta 2013tik aurrera, kaudimen arloan, munduko estandar berriak ezartzea da bere eginkizuna. Helburu nagusia, kreditu-erakundeek izan behar duten kapitalaren kalitatea igotzea eta hobetzea da, haien negozioaren garapenean balizko galerei aurre egiteko asmoz. Basilea IIIk ekarri duen berrikuntza garrantzitsuenetakoa likidezia ratio berezi biren definizioa eta palankatze ratio batena izan dira. Europar Batasunak 2013/36/UE Zuzentaraua (aurrerantzean "CRD IV"), eta 575/2013 zenbakidun Erregelamendua (aurrerantzean, "CRR"), Basilea III komunitatearen eremuan egokitu eta 2014ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko diren lege-testuak argitaratu ditu 2013ko ekainaren 26an. Finantza-erakundeen gainbegiratze eta kaudimen arloan, zuzenbide espainiarra Europar Batasuneko araudira egokitzeko premiazko neurriei buruzko azaroaren 29ko 14/2013 Errege Lege-dekretuak partzialki egokitu du araudi nazionalera arestian aipatutako Zuzentaraua. Espainiako Bankuak urtarrilaren 31ko 2/ 2014 CBERen bidez, CRRren eta CRD IVren araudi nazionalaren mende dauden zenbait alderdi egokitu ditu.

Taldeak egiten duen bere baliabide propioen kudeaketa, Espainiako Bankuaren 3/2008 Zirkularrak xedatutakora egokitzen da, kontzeptuen definizioei dagokienez. Zentzu honetan, Taldeak baliabide propio zenbakarritzat hartzen ditu, Espainiako Bankuaren 3/2008 Zirkularraren Hirugarren Kapituluaren adierazitakoak.

Aipatutako Zirkularrak ezartzen dituen gutxieneko baliabide propioen eskakizunak, Taldeak kreditu eta diluzioen aurrean hartzen dituen arriskuen arabera kalkulatu dira, kontrako alderdi arriskuaren aurrean hartzen duena eta negoziazio-zorroari dagokion posizio eta likidazio aurrean, urretan trukitzea eta posizioaren aurrean eta eragiketa arriskuen aurrean hartzen duen arriskuaren arabera. Gainera, Taldea mugak betetzeari lotuta dago, baita aipatutako Zirkularrean ezarritako arriskuen kontzentrazioari ere eta Taldea lotuta dago barneko Erakunde Gobernuaren betebeharrak betetzeari, kapitalaren auto-ebaluazioari, eta interes-tasen arriskua neurtzeari eta merkatuari eman beharreko informazio publikoari, hauek ere aipatutako Zirkularrean ezarritakoak. Lehen aipatutako helburuak beteko direla bermatzeari begira, Taldeak arrisku hauen kudeaketa integrala egiten du, lehen adierazitako politiken arabera.

Kaudimenari buruz indarrean dagoen araudia zorrotz betetzeaz gain, Taldeak kapital politika du, arriskuaren kudeaketa politikaren ezinbesteko osagai gisa integratua. Politika honen osagai gisa, Taldeak kaudimen helburuak definitu ditu, eta helburu hauek bere jardueraren garapenean hartzen duen arriskuarekin eta bere kudeaketa eta kontrolerako azpiegiturarekin konbinatuta, arrisku objektiboaren profila zehaztea ahalbidetzen dute.

Politika hau praktikan gauzatzeak, mota biko jarduerak dakartza: alde batetik, erakundearen baliabide konputagarrien kudeaketa eta erakartzeko iturriak eta beste alde batetik, arrisku mota guztien onarpen irizpideetara duten kapital-kontsumo mailaren aintzat hartzea sartzea.

Egikaritze hori, Erakundearen kaudimen-egoeraren etengabeko jarraipenaren bidez monitorizatzen da, baita etorkizuneko planifikazioarena. Honen barruan, datozen hiru ekitaldietarako gerta daitezkeen betetze-hipotesiak biltzen dituen eszenatoki zentrala, nahiz mota desberdinetako oso kontrako egoerak gainditzeko Taldearen finantza-ahalmena aztertzeke helburua duten hainbat estres eszenatoki daude.

Beraz, kudeaketa ondorioetarako eremua kreditu-erakundearen Talde bateragarria da.

Jarraian, 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n Taldearen baliabide propioen xehetasun bat sartu dugu, Espainiako Bankuaren maiatzaren 22ko 3/2008 zirkularrak ezarritakoaren arabera kalkulatuta:

	Mila Euro	
	2013	2012
Oinarrizko baliabide propioak		
Kapital eta erreserbak, eta haueetatik:	4.681.780	4.667.916
Gutxiengoan interesak	48.283	71.679
Ekitaldiko emaitza konputagarriak	81.162	51.464
Norberaren oinarrizko baliabide gisako jaulkipen konputagarriak	548	2.548
Aktibo ez-materialak	(264.051)	(288.232)
Beste kenkari batzuk	(33.898)	(79.411)
	4.384.379	4.302.821
Bigarren mailako baliabide propioak		
Salgai dagoen balore-zorroaren balorazioagatik doiketak	100.293	69.529
Metodo estandarren mende dauden espozizioekin zerikusia duen estaldura generikoa	-	3.241
Botorik ez duten akzioei dagozkien gutxiengoan interesak	-	1.569
Gizarte-ekintzako fondoak	65.688	67.826
Mendeko finantzaketak	27.980	217.116
Bestelako kenkariak	(33.898)	(79.410)
	160.063	279.871
Taldearen baliabide propioak guztira	4.544.442	4.582.692

2013ko abenduren 31n, Taldearen baliabide propio konputagarriak, aipatutako Zirkularrak data horretan eskatutako gainetik zeuden, 1.614.464 mila eurotan, eta Kaudimen Koefizientea %12,4an zegoen (1.188.206 mila euro eta %10,8, hurrenez hurren, 2012ko abenduren 31n).

Kreditu-erakunde berregituratze eta suntsitzeari buruzko 9/2012 Legeak bere egin zuen 24/2012 Errege Lege Dekretuan sortutako Kapital Printzipalaren Ratioaren adiera, eta finantza-taldee galdagarria zen %9ko gutxiengo berria ezarri zuen. Eskakizun berri hau 2013ko urtarrilaren 1ean jarri da indarrean eta 2/2011 Errege Lege Dekretuan jasotakoa indargabetu du. 2013ko abenduaren 31n, Kutxabank Taldearen Kapital Printzipal Galdagarriaren Ratioa, 9/2012 Legearen arabera definitua, %12,0koa da (%10,1 2012ko abenduaren 31n, Lege honen definizioaren arabera ere).

2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, finantza erakunde gainbegiratze eta kaudimen arloan, zuzenbide espainiarra Europar Batasuneko araudira egokitzeko premiazko neurriei buruzko azaroaren 29ko 14/2013 Errege Lege-dekretua indarrean sartzearekin batera, Kapital Printzipal Galdagarriaren Ratioari dagokionez %9aren eskakizunak galdagarri izateari utzi dio.

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n, Taldeak indarrean dagoen araudi berriak ezarritako kaudimen eskakizunak aise betetzen ditu.

Gutxienezko Erreserben Koefizientea

Irailaren 29ko 1/1998 Diru Zirkularrarekin bat etorritik, gutxienezko erreserben koefizientea betetzearen mende dago Bankua (Espainiako Bankuan saldo minimoak mantentzea galdatzen duena).

2011ko abenduaren 21an, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Europako Banku Zentraleko abenduaren 14ko 1358/2011 Araudia. Araudi honek gutxiengo erreserben aplikazioari buruzko 1745/2003 Araudia aldatu zuen. Loturadun erakundeek mantendu behar duten gutxiengo erreserben koefizientearen maila murriztean datza aldaketa, gaur egungo %2tik %1eraino, 2012ko urtarrilaren 18an hasi zen erreserben mantenu-epealditik aurrera.

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n, ekitaldi bietan bezala, Taldeko erakundeek Espainiako araudi ezgarriak koefiziente honetarako galdatutako gutxiengoak betetzen zituzten.

Espainiako Bankuko kontuan Taldeak ondorio hauetarako ibilgetuta mantentzen zuen efektiboaren zenbatekoa 285.848 mila eurokoa zen 2013ko abenduaren 31n (185.747 mila euro 2012ko abenduaren 31n), baina koefiziente honi lotutako Taldeko Erakundeek araudi ezargariak galdutako saldoa mantentzeko zuten betebeharra, gutxieneko erreserben koefiziente hori betetzeko, Erakunde bakoitzak mantenu-epealdian aipatutako kontuan mantendutako eguneko batez besteko azken saldoen gainean kalkulatu da.

7. Erakunde Nagusiko Administrazioen eta Goi-mailako zuzendarien ordainsariak

a) Kontseilarien ordainsaria

Erakunde Nagusiko Administrazio Kontseiluko kideen ordainsariak, orotara, funtzio betearazleak dituztenenak barne, 2013ko eta 2012ko ekitaldian, 1.290,7 eta 1.488,6 mila eurokoak izan dira, hurrenez hurren, eta jarraian agertzen den banantzea izan dute:

Ordainsari kontzeptua	Mila Euro	
	2013	2012
Ordainsari finkoa	796	1.016
Ordainsari aldakorra	-	45
Dietak	495	428
Beste ordainsari batzuk	-	-
Guztira	1.291	1.489

Gainera, 2013ko ekitaldian, 32,3 mila euro ordaindu dira aurreko ekitaldietan sortuak, 2009-2011 urte anitzeko planaren barruan (64,5 mila euro 2012ko ekitaldian).

Erakunde Nagusiko Administrazio Kontseiluko ezin kidek du enplegu-osteko prestazioetarako eskubiderik, beraz, 2013ko eta 2012ko ekitaldietan, ez da kontzeptu honen mendeko gasturik sortu.

Ordainsari hauen banakako xehetasuna atxikitako III. Eranskinean sartu da.

b) Erakunde Nagusiko Goi-mailako Zuzendaritzarentzako ordainsariak

Urteko kontu bateratu hauek egiteko eta Erakunde Gobernu Urteko Txostenean aurkeztutako xehetasunarekin era homogean, 5 pertsona hartu dira Goi-mailako Zuzendaritzako langile gisa 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n, hau da, haien zuzendaritza-funtzioak zuzen-zuzenean Erakunde Nagusiaren Administrazio Organoen, Batzorde Betearazleen edo Presidentetzaren mendean betetzen dituzten Zuzendari Nagusiak eta parekatuak.

Ondorengo taulan, Erakunde Nagusiko Goi-mailako Zuzendaritzako langileen alde sortutako ordainsariak azaldu dira:

	Mila Euro	
	2013	2012
Ordainsariak	1.693	1.759
Enplegu-osteko prestazioak	141	88
	1.834	1.847

Goiko taulan islatutako zenbatekoek gain, 2013ko ekitaldian, 2012 baino lehenagoko ekitaldietan sortutako 66,3 mila euroko ordainketa egin da (56,4 mila euro ordaindu ziren 2012n, 2011 baino lehenagoko ekitaldietan sortuak).

c) Antzeko jarduerak dituzten Erakundeetan Administrazioaileek dituzten partaidetzen xehetasuna

Uztailaren 17ko 26/2003 Legeak sartutako Erakunde Anonimoen Legearen Testu Berreginaren 127 ter artikulua aldatzen duen Kapital Erakundearen Legearen 229. artikuluan ezarritakoaren arabera, 2013ko abenduaren 31n, Administrazio Kontseiluko kideek eta beraiei lotutako pertsonak (Kapital Erakundearen Legearen Testu Berreginaren 231. artikuluan definituak) ez zeukaten partaidetza esanguratsurik Erakunde Nagusiaren helburu sozial bera, antzekoa edo osagarria zuten Erakundeen kapitalean.

Erakunde Nagusiko Administrazio Kontseiluak 15 kide ditu 2013ko abenduaren 31n (15 kide 2012ko abenduaren 31n).

Halaber, eta arestian aipatu den legezko testuaren arabera, Administrazio Kontseiluko kideek eta haien lotutako pertsonak, haien kontura edo besteren kontura, Erakunde Nagusiaren helburu sozial bera, antzekoa edo osagarria duten Erakundeetan, urteko kontu bateratu hauek egin diren datan, betetzen dituzten funtzioak azalduko dira jarraian. Halaber, nahiz eta formulazio data horretan kontseilari ez izan, urteko kontu bateratu hauek aipatzen duten epealdiko momenturen batean izan diren pertsonen buruzko informazioa ere badago:

Izen-abizenak	Kontseiluko kidea		Erakundea	Betetako karguak edo funtzioak
	Noiztik	Noiz arte		
Mario Fernández Pelaz	(*)	(*)	Bilbao Bizkaia Kutxa, Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea	Presidentea (**)
Xabier Gotzon Iturbe Otaegi	(*)	(*)	Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa	Presidentea
Carlos Vicente Zapatero Berdonces	2013.01.01	2013.01.31	-	-
Joseba Mikel Arieta-Araunabeña Bustinza	(*)	(*)	-	-
Ainara Arsuaga Uriarte	(*)	(*)	-	-
Iosu Arteaga Álvarez	(*)	(*)	-	-
Maria Begoña Achalandabaso Manero	(*)	(*)	-	-
Alexander Bidetxea Lartategi	(*)	(*)	-	-
Jesús M ^a Herrasti Erlogorri	(*)	(*)	-	-
Jesús Echave Román	2013.01.01	2013.05.29	-	-
María Victoria Mendia Lasa	(*)	(*)	-	-
Josu de Ortuondo Larrea	(*)	(*)	-	-
Fernando Raposo Bande	2013.01.01	2013.01.31	-	-
Luis Viana Apraiz	2013.01.31	-	-	-
Juan María Ollora Ochoa de Aspuru	2013.01.31	-	-	-
José Miguel Martín Herrera	2013.05.29	-	-	-
José Antonio Ruíz-Garma Martínez	(*)	(*)	-	-
Luis Fernando Zayas Satrustegui	(*)	(*)	-	-

(*) Administrazio Kontseiluaren kide izan dira 2013ko ekitaldian eta urteko kontu bateratu hauek egin diren data arte.

(**) Bilbao Bizkaia Kutxa, Aurrezki Kutxa eta Bahitetzeko Presidentziako bere kargua utzi du 2013ko azaroaren 4an.

8. Agentzia-kontratuak

Erakunde Nagusiak Dinero Activo, S.A. Taldeko Erakundearekin du agentzia -kontratuak, eta bezeroen aurrean beren izenean eta bere kontura jarduteko ahalmenak eman dizkio, zenbait finantza-eragiketa egiten direnean.

9. Kreditu-erakundeen kapitalaren partaidetzak

Uztailaren 14ko 1245/1995 Errege Dekretuaren 20. Artikuluan ezarritakoaren arabera, 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n, Taldeak ez zuen nazio barruko nahiz atzerriko kreditu-erakundeen kapitalean partaidetzarik, I. eta II. Eranskinetan zehaztu direnez gain, kapitalaren edo boto-eskubideen %5 gaintzen zuenik.

10. Ingurumen-eragina

Taldeko eragiketa orokorrak, besteak beste, ondokoen arabera araututa daude: ingurumena babesteko legeria (ingurumenari buruzko legeak) eta langilearen segurtasuna nahiz osasunari buruzkoa (lan segurtasunari buruzko legeak). Taldeak deritzo, legeak betetzeaz gain, horien betetzea bermatzeko eta sustatzeko diseinatu diren prozedurak mantentzen dituela.

Taldeak ingurumena babestu nahiz hobetzeko eta, behar izanez gero, ingurumenaren gaineko eragina murrizteko beharrezko neurriak hartu ditu, alorrari dagokion legeria betez. 2013ko eta 2012ko ekitaldian zehar, Taldeak ez du beharrezkotzat jo ingurumenari lotutako arrisku eta gastuetarako inolako probisiorik erregistratzea. Izan ere, Erakunde Nagusiaren Administrazio Kontseiluaren iritziz, ez dago kontzeptu horren bidez urteko kontu bateratuetan eragin nabarmena eduki dezakeen gertaerarik.

11. Gordailuen Bermerako Fondoa

Erakunde Nagusia nahiz CajaSur Banco, S.A.U. Erakunde Kreditu Entitateen Gordailuen Bermerako Fondoan sartuta daude. Taldeak Gordailuen Berme Fondoari egindako diru-sarrerengatik 2013ko ekitaldiari dagokion gastua 76.957 mila eurokoa da (75.556 mila euro 2012ko ekitaldian). Erantsitako galera-irabazien kontu bateratuen "Beste ustiapen produktu batzuk" izeneko epigrafean sartu dira (53. Oharra).

Abenduaren 2ko 19/2011 Errege Lege-dekretuak berariaz indargabetu zituen, indarrean zegoen erregimenaren arabera, erakundeek ekarpenen koiuntura eta hautazko beherapena ezartzen zuten ministerioaren aginduak eta milako 2ko ekarpen erreala ezarri zuen eta milako 3ko muga, bermatutako gordailuetan.

Kreditu Erakundeek Gordailuen Berme Fondoaren ondarea indartzeko helburuz, martxoaren 22ko 6/2013 Errege Lege-dekretuak zera ezartzen du, Kreditu Erakundeek Gordailuen Berme Fondoari buruzko abenduaren 20ko 2606/1996 Errege Dekretuko 3. artikulua aurreikusitako urteko ekarpena ezohiko eran igoko dela, eta behingoz besterik ez, 3 bider mila gehigarrian. Igoera hori tarte bitan gauzatuko da:

- Orotarako igoseraren bi bostenaren baliokidea den lehenengo tarte bat, 2013ko abenduaren 31tik 20 laneguneko epean ordaindu beharrekoa, erakundeek inbertitutako kopuruen %30eko murrizketarekin, 2013ko abenduaren 31 baino lehen, Bankuen Berregituratzeak datozen Aktiboek Kudeaketa Erakundeak jaulkitako akzio edo mendeko zor-tresnen harpidetzan edo erosketan.
- Bigarren tarte bat, Batzorde Kudeatzaileak finkatzen duen egutegiaren arabera, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, 7 urteko gehieneko epearen barruan, ordaindu beharreko gainontzeko hiru bostenaren baliokidea. Ordainketa-egutegi horren kalterik gabe, bigarren tarte horri dagokion zenbatekoa, fondoko ondare gisa erregistratuko da, lehenengo tarte likidatzen den datan.

Goiko paragrafoetan deskribatutako lehenengo tarteari dagokionez, 5.852 mila euroko gastua erregistratu du Taldeak 2013ko abenduaren 31n, galera eta irabazi kontu bateratuko "Beste ustiapen karga batzuk" epigrafean.

Goian deskribatutako bigarren tarteari dagokionez, Taldeak 63.995 mila euro likidatuko ditu 2014ko ekitalditik aurrera eta 7 urteko gehieneko epe barruan, Gordailuen Berme Fondoaren Batzorde Kudeatzailea duen ordainketa egutegiaren arabera.

12. Auditoria ordainsariak

2013ko eta 2012ko ekitaldian, Taldearen urteko kontu bateratuen auditoreak, Deloitte, S.L.k eta Deloitte sarekoak diren beste enpresa batzuek, egin dituen kontuen auditoria eta eman dituen beste zerbitzu batzuei

dagozkien ordainsariak, baita bateratzean sartuta dauden Erakundeen urteko kontu individualen auditoreek emandako zerbitzuengatik fakturatutako ordainsariak ere, eta hauei lotutako erakundeenak:

Deskripzioa	Mila Euro			
	Kontu auditoreak eta enpresa lotuek emandako zerbitzuak		Beste kontu auditore batzuek eta enpresa lotuek emandako zerbitzuak	
	2013	2012	2013	2012
Auditoria zerbitzuak	1.394	1.162	114	137
Egiaztapen beste zerbitzu batzuk	30	10	4	-
Auditoria zerbitzuak eta antzekoak guztira	1.424	1.172	118	137
Aholkularitza Fiskaleko zerbitzuak	294	177	2	-
Beste zerbitzu batzuk	398	449	8	19
Beste zerbitzu profesional batzuk guztira	692	626	10	19

13. Ondorengo gertakizunak

Urteko kontu bateratu hauek egin direnetik 2013ko abenduaren 31ra arte doan epealdian, ez da Taldearen eragin esanguratsua ekarri dion gertaera gehigarririk izan.

14. Kontabilitate printzipio eta arauak eta aplikatutako balorazio-irizpideak

Jarraian zehaztuko dira urteko kontu bateratu hauek egiteko aplikatu diren kontabilitate printzipioak eta arauak, baita baloratzeko irizpide esanguratsuenak ere:

a) Funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa

Urteko kontu bateratuak egitean, Taldean sartutako erakundeen kudeaketak aurreikusitako etorkizunean jarraituko duela ikusi da. Beraz, kontabilitate-arauak ez dira aplikatzen bateratutako Ondare osoaren balioa bere eskualdatze orokorrari edo partzialari dagokienari buruz zehazteko, ezta likidazio kasuetan, geratzen den zenbatekoa zein den jakiteko ere.

b) Sortzapen-printzipioa

Urteko kontu bateratu hauek, esku-diruaren fluxuen bateratutako Egoerari buruzkoa salbu, ondasun eta zerbitzuen benetako korrontearen arabera egin dira, ordainketa eta kobrantza data alde batera utzita.

c) Bestelako printzipio orokorrak

Urteko kontu bateratuak kostu historikoaren ikuspegia kontuan hartuz egin dira, baina 1.2 Oharrean deskribatutako operazioak aldatuta, baita 2004ko urtarrilaren 1ean egindako lur eta eraikinen birbalioespenak ere, 14.q Oharrean zehaztutakoaren arabera, eta saefektibolgai dauden finantza-aktiboen eta arrazoizko balioko finantza-aktibo eta pasiboen (eratorriak barne) balorazioagatik izan ezik.

Urteko kontu bateratuak prestatzeak kontabilitateari buruzko kalkulu batzuk egitea eskatzen du. Halaber, Zuzendaritza derrigortzen du Taldearen kontabilitate politikak aplikatzeko prozesuan bere iritzia plazaratzera. Estimazio horiek aktibo eta pasiboen zenbatekoan eragina izan dezakete, hala nola, urteko kontu bateratuen datan gertakizun dauden aktibo eta pasiboen banantzean, bai eta sendotutako urteko kontuen epean zehar dauden diru-sarrera eta gastuen zenbatekoan ere. Estimazio horiek Zuzendaritzak gaur egungo egoeraren

nahiz aurreikusi daitezkeen egoerei buruz duen ezagutza hobean oinarritzen diren arren, azken emaitzek estimazio hauekin desberdintasun nabarmenak eduki ditzakete.

d) Finantza eratorrien izaera eta jarduna

Finantza eratorrien bidez, galera edo irabazi bat emateaz gain, baldintza jakin batzuen barruan, kredituaren edo saldoei zein eskualdaketei lotutako merkatuen arrisku osoa edo zati bat konpentsatzeko aukera dago. Horretarako, azpiko elementu gisa honakoak erabiltzen ditu: interes-tasak, erakusle jakin batzuk, zenbait baloretako salneurriak, gurutzatutako kanbio-tasa diru-mota desberdinetan edo antzeko erreferentziak. Taldeak, kontrako alderdiarekin merkatu antolatuetan negoziatutako finantza eratorriak erabiltzen ditu, baita beste alderdiarekin merkatu antolatuetatik kanpo negoziatutakoak ere (OTC).

Finantza eratorriek hala eskatzen duten bezeroekin negoziatzeko erabiltzen dira, Taldearen posizio propioen arriskuak kudeatzeko (estaldura eratorriak) edo horien prezioan izandako aldaketez baliatzeko. Kontabilitatean estaldura eragiketa gisa jaso ezin daitezkeen finantza eratorriak negoziazioaren eratorritzat jotzen dira. Estalduraren kontabilitatea aplikatu ahal izateko baldintzak hurrengo hauek dira:

1. Finantza eratorriak aldaketen arriskua estali behar du aktibo eta pasiboen arrazoizko balioan. Arrisku hori interes-tasaren eta/edo kanbio-tasa nahiz balore-prezioen (arrazoizko baloreen estaldura) aldaketengatik izan daiteke. Halaber, honako hauetan ere aldaketak izan daitezke: finantza-aktibo eta -pasiboetan oinarritutako efektiboaren estimatutako fluxuetan, konpromisoetan eta gertatzeko aukera handia duten aurreikusitako transakzioetan (efektiboaren estaldura) edo atzerrian egindako inbertsio garbiaren arriskua (atzerriko negoziotan egindako inbertsio garbien estaldura).
2. Finantza eratorriak eraginkortasunez ezabatu behar du estalitako elementu edo posizioari lotutako arriskuren bat, estaldurak dirauen bitartean. Beraz, aurreikuspenarako eraginkortasuna izan beharko du, bai eta baldintza normaletan egindako estaldura kontratatzean eraginkortasuna, eta atzerantzko eraginkortasuna, estalduraren eraginkortasuna estalitako elementu edo posizioaren bizitza osoan zehar mantenduko dela nahiko ebidentzia izatea.

Eraginkortasun hori konprobatzeko asmoz Taldeak egindako azterketa kalkulu desberdinak egitean datza. Kalkulu horiek Taldearen arriskuak kontrolatzeko aplikazio informatikoetan daude. Modu sistematikoan egunero aplikazio horiek balorazioaren kalkuluetak erregistroa gordetzen dute, estalitako elementuena nahiz estalduraren tresnena, elementu horien ezaugarri propioak gehituz, baloratzeko kalkulu historikoak eta sentzibilitateen azterketa. Batik bat, estimazio horiek eraginkortasunari buruzko testak egiteko oinarriak dira hala estalduren eraginkortasuna neurtzeko testetarako, hala arrazoizko balioan nola efektiboaren fluxuetan. Informazioaren erregistro horrek aukera ematen du azterketa guztiak beharrezko aldizkatasunez eta zehaztutako datan berriro islatzeko.

3. Finantza eratorriaren kontratazioa saldo edo transakzio jakinak estaltzeko soilik egin zela egiaztatu behar da, agirien bidez. Halaber, estaldura eraginkor hori lortu eta neurtu nahi zen modua erakutsi behar da; betiere modu hori Taldeak burutzen dituen arrisku propioak kudeatzeko erarekin bat etorritik.

Estaldurak honakoei aplikatu ahal zaie: banakako elementuak edo saldoak edo aktibo-zorroak eta finantza-pasiboak. Azken kasu horretan, estaltzeko finantza-aktibo edo -pasibo multzo osoak arrisku mota bera partekatu behar du, eta hori bete dela ulertzen da estaldurapean dauden banakako elementuek estalitako arriskuaren aurrean duten sentzibilitatea antzekoa denean.

Estaldurak burutzeko politikak Taldearen arriskuaren kudeaketa orokorraren testuinguruan daude, eta Erakunde Nagusiaren Aktibo eta Pasiboen Batzordearen erabakietan gauzatuta, ondokoetatik datozen mikro estalduretan oinarrituta batik bat:

1. Taldearen balantzeak duen interes-tasaren arriskua kudeatzetik, eta
2. Taldearen jarduera beretik eratorri diren nahi gabeko arriskuak arintzetik.

Oro har, estalduraren diseinua arriskua sortzen denean egiten da, eta bere helburua horren estaldura eraginkorra da (osorik edo zati bat), honako hauetan oinarrituta: fluxu ezagunen sentsibilitatearen azterketa, edo arrisku faktoreetan (batik bat interes-tasetan) izandako aldaketen aurrean estalitako kontu-sailen balioa moldatzea. Horren ondorioz, merkatu antolatuetan tresnak edo OTC deiturikoak kontratatzen dira, merkatuaren baldintzetan izandako aldaketek duten eragina murriztuz. Merkatuaren baldintza horiek arrazoizko baloreetan eta estalitako elementuen efektiboaren fluxuetan oinarrituta daude.

Taldeak arrazoizko balioko estaldurak burutu ditu eta efektibo-fluxuetakoak izan dira. Arrazoizko balioko estaldurak interes-tasa edo baloreen finantza-aldaketetan izandako akordioekin bideratuta daude, finantza-erakundeekin kontratatuta eta beren helburua arrazoizko balioaren aldaketak estaltzea da. Aldaketak aktibo zein pasiboko eragiketa jakinen estalitako arriskuari dagozkio. Beste alde batetik, efektibo-fluxuen estaldurak, salerosketa aukeretan eta eperako salmentetan bideratu dira, helburua da burutzeko aukera asko dituzten etorkizuneko transakzioen efektibo-fluxuen aldaketen estaldura. 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n, Taldeak ez du atzerriko negozioetako inbertsio-estaldura garbirik.

Beste finantza tresnetan edo beste kontratu nagusietan inplizituak diren finantza eratorriak separatuta erregistratzen dira eratorri gisa ondoko kasuan: beren arriskuak eta ezaugarriak kontratu nagusienei estuki lotuta ez daudenean, eta kontratu nagusi horiek balantze bateratuko "Negoziazio Zorroa" eta "Arrazoizko balioan dauden eta galdu-irabazietan aldaketak dituzten beste finantza-aktibo batzuk" epigrafeetan sailkatuta ez daudenean.

Ohar honetako "Finantza-aktiboak" e) atalean, finantza eratorriak baloratzeko irizpideak deskribatzen dira.

e) Finantza-aktiboak

Finantza-aktiboak ondoko irizpideen arabera sailkatzen dira balantze bateratuan:

1. "Kutxa eta gordailuak banku zentraletan": Espainiako Bankuan eta bestelako banku zentral batzuetan efektiboko eta mantentzen diren saldoei dagozkienak.
2. "Negoziazio-zorroa": epe laburrera gauzatzeko helburuarekin erositako finantza-aktiboak barne hartzen ditu. Horiek, identifikatutako eta elkarrekin kudeatutako finantza-tresna batuen zorroaren zati bat dira, eta epe laburrera etekina ateratzeko erabiltzen dira edo, kontabilitate-estaldurako tresnatzat hartzen ez diren eratorriak dira.
3. "Arrazoizko balioan dauden eta galdu-irabazietan aldaketak dituzten beste finantza-aktibo batzuk": hauetan, negozioziorrokoak izan gabe eta bere arrazoizko balioaren arabera balioetsirik, finantza-aktibo hibridotzat hartzen diren finantza-aktiboak barne hartzen ditu. Halaber, arrazoizko balioaren arabera balioetsitako aseguru-kontratuen pasiboekin batera edo arrazoizko bere balioaren aldaketen arriskua murrizteko helburu eta ondorioz duten finantza eratorriekin batera edo interes-tasaren arrisku osoa nabarmen murriztea helburu duten finantza-pasibo eta eratorriekin batera kudeatzen direnak.
4. Zorra adierazten duten balioeei dagozkien "Salgai dauden Finantza-aktiboak" dira, baina honako hauek bezala sailkatuta ez badaude: "Epemugarako inbertsio-zorroa", "Galera eta irabazien aldaketen arrazoizko balioa duten beste finantza-aktibo batzuk", "Kredituen inbertsioak" ezta "Negoziazio-zorroa" ere. Elkartekideak ez diren Erakundeetako kapital-tresnak ere barne hartzen dira, baldin eta "Negoziazio-zorroan" eta "Arrazoizko balioan dauden eta galdu-irabazietan aldaketak dituzten beste finantza-aktibo batzuk" kategorietan barne hartuta ez badaude.
5. Merkatu aktibo batean negoziatu gabe edo bere arrazoizko balioaren arabera derrigorrez baloratu behar ez diren finantza-aktiboak barne hartzen dituzten "Kredituen inbertsioak". Horien efektibo-fluxuek zenbateko zehatz edo zehazgarria izaten dute eta horietan, zordunaren kaudimenari eragotz dakizkiokeen arrazoiak izan ezin, Taldeak egindako gastu osoa berreskura daiteke. Kreditu-jarduera tipikotik eratorritako inbertsioa, hau da, edozein izaera juridikoa izanik, kreditu gisa edo beste erakunde batzuei mailegatutako gordailu gisa bezeroek erabilitako efektiboak edo amortizatu gabe dituztenak, zein Taldearen negozioaren zati bat osatzen duten ondasun-erosleek edo zerbitzuen erabiltzaileek bereganatutako zorrak barne hartzen da.

6. Epemuga finkoko zorra edo zenbateko zehatzeko efektibo-fluxuak adierazten baloreei dagokien "Epemugarako Inbertsio Zorroa", baldin eta Taldeak amortizatu arte mantentzea erabaki badu, funtsean, egiteko gaitasuna duelako edo antzeko finantziarioa duelako. 2012ko abenduaren 31n Taldeak ez zeukan erregistratuta mota honetako finantza-aktiborik.
7. Kontabilitate-estalduratzat jotzea ahalbidetzen duten Taldeak erosi edo jaulkitako finantza eratorriak barne hartzen dituzten "Estaldura Eratorriak".
8. Izaera finantzarioko "Aktibo ez korronteak salgai": banakako partiden kontabilitate-balioari dagokio, erabilera-talde baten edo saldu nahi den negozio-unitate (etendako eragiketak) baten barruan hartutakoak eta, unean-unean aktibo horiei dagozkien baldintzen arabera eta urteko kontu bateratuaren datatik urtebeteko epean, seguruenik, saldu egingo direnak. Beraz, finantza-izaerako partida hauei esleitutako kontabilitate balioa saltzean lortzen den prezioan berreskuratuko da. Badira izaera ez-finantzarioko saltzeko beste aktibo ez-korronte batzuk ere, eta horiek kontabilitatearen arabera nola lantzen diren, 14.t. oharrean jasotzen da.
9. "Pentsioei Lotutako Aseguru Kontratuak": aseguru-erakundeei zehaztutako prestazio baten obligazioa kitzeari dagokion kostu osoa edo horren zati bat itzultzeko eskubideei dagozkie, aseguru-polizek Planeko aktibo gisa hartu ahal izateko baldintzak betetzen ez dituztenean.
10. "Berraseguruengatiko aktiboak": jatorria hirugarrenekin dituen berraseguru kontratuetan izan eta Taldeak jasotzeko eskubidea duen zenbatekoak jasotzen ditu eta, zehatzago, berraseguruak eratutako horniketa teknikoetan duen partaidetza.

2013ko ekitaldian Taldeak, aldez aurretik "Salgai dauden finantza-aktiboak" kategorian sailkatutako tresnak "Epemugarako inbertsio-zorroa" kategoriara baino ez ditu birsailkatu (ikus 24. eta 26. oharra). 2012ko ekitaldian ez da aktiboen birsailkapenik eman balantze bateratuko honako kategorian hauen artean: "Negoziazio zorroa", "Arrazoizko balioan dauden eta galdu-irabazietan aldaketak dituzten beste finantza-aktibo batzuk", "Salgai dauden finantza-aktiboak" eta "Epemugarako inbertsio-zorroa".

Kontratu arrunten bidez egindako finantza-aktiboen salerosketen eragiketak erregistratu behar dira jabe orori dagozkion mozkinak, arriskuak, eskubideak eta obligazioak eroslearenak diren datan hasita. Data hori salerosketako finantza-aktibo motaren arabera da, hots, kontratazio eguna edo kitapena edo entrega egiteko data. Kontratu horietan alderdiek dauzkaten elkarrenganako obligazioak denbora tarte jakin baten barruan gauzatu behar dira, araudiak edo merkatuaren ohiturek ezarritakoaren arabera. Era berean, ezin dira kitatu diferentzien bitartez, esate baterako, burtsako kontratuak edo dibisen eperako salerosketak. Zehatz-mehatz, erregistroak honako egunetan egingo dira: eskurako dibisa merkatuan egindako eragiketak kitapen-datan; balio espainiarren bigarren mailako merkatuetan negoziatutako kapital-tresnekin egin diren eragiketak kontratazioaren egunean; eta balio espainiarren bigarren mailako merkatuetan negoziatutako zor-tresnen bitartez burutu diren eragiketak kitapen-egunean.

Oro har, finantza-aktiboak hasiera batean erosi ziren prezioan erregistratzen dira. Kontabilitatea ixten den bakoitzean, honako irizpide hauek jarraitzen dira ondorengo balioa esleitzeko:

1. Arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira finantza-aktiboak, honako hauek izan ezik: kredituen inbertsioak, Epemugarako inbertsioa, nahikoa objektibotasunez ezarri ez den arrazoizko balioa duten kapital-tresnak eta azpiko aktibotzat kapital-tresna horiek dituzten eta beroriek entregatzean likidatzen diren finantza eratorriak.

Egun zehatz bateko finantza-aktibo baten arrazoizko balioa esaten zaio, behar bezala informatutako alderdi (bakoitzak bere kasa) interesatuen artean erosteko ezarritako zenbatekoari. Merkatu aktibo batean duen kotizazio-prezioa da arrazoizko balio baten balioakide argiena, merkatu hori, antolatua, garden eta zorrotza denean.

Finantza-aktibo zehatz baten merkatuan preziorik ez duenean, antzeko instrumentuekin egin berri diren transakzioetan ezarritakora jotzen da arrazoizko balioa emateko edo, bestela, aski egiaztatutako balorazio-ereduetara. Gainera, balioetsi beharreko aktiboaren berariazko ezaugarriak hartzen dira

kontuan, eta bereziki, finantza-aktiboari datzekion arrisku-mota ezberdinak. Dena dela, garatutako balorazio-ereduen berezko mugen eta eredu horiekin beregana daitezkeen akatsen ondorioz, gerta daiteke finantza-aktibo batentzat balioetsitako arrazoizko balioa eta baloratu zenean izan zezakeen salmenta- edo erosketa-prezioarekin bat ez etortzea.

Merkatu aktibo batean kotizazio-balioa duten finantza eratorrien arrazoizko balioa eguneroko kotizazio-prezioa da eta, salbuespen gisa, egun zehatz bateko kotizazioa ezin bada ezarri, OTC finantza eratorriak baloratzeko erabiltzen direnen antzeko metodoetara jotzen da.

OTC eratorrien arrazoizko balioa, instrumentua jatorri duten kutxa-fluxuen batuketa da, balorazio-egunean ("balio eguneratua" edo "itxiera teorikoa") deskontatuta. Horretarako, finantza-merkatuek egiaztatutako metodoak erabiltzen dira balorazio-prozesuan: "Balio Eguneratu Garbia" (VAN), aukera-prezioak zehazteko ereduak, etab.

2. Amortizatutako kostuaren arabera balioesten dira Kredituen inbertsioak eta epemugarako inbertsioak, horretarako, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiltzen delarik. Amortizatutako kostu esaten zaio, finantza-aktiboa erosi zeneko kostuari, baina, nagusitik egindako errenboltsoen eta galera-irabazien kontuan ezarritako zatiaren arabera zuzenduta dagoenean. Horretarako, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiltzen da, aktiboaren kopuruaren gutxiagotuz edo balioa zuzenduz onartutako narriadura baten ondoriozko balio-murrizketak kontuan hartu gabe. Arrazoizko balioa estaldura operazioetan estalduta dauden kredituen inbertsioen kasuan, arrazoizko balioan gertatzen diren aldaketak erregistratzen dira, aipatutako estaldura operazio horietan estalitako arriskuarekin edo arriskuekin zerikusia dutenak.

Finantza-tresna baten balioa eta tresna horrek irauten duenerako aurreikusitako kontzeptu guztiengatik efektibo-fluxu guztiak berdintzen dituen eguneratze-tasari esaten zaio interes-tasa efektiboa. Interes-tasa finkoko finantza-tresnetarako, interes-tasa efektiboa bat dator kontratatu zirenean ezarritako interes-tasarekin, edota duten izaeragatik interes-tasari esleai dakizkiokeen komisioekin. Interes-tasa aldakorreko finantza-tresnetan, egingo den lehen interes-tasaren berrikuspenera arteko kontzeptu guztiengatik errendimendu-tasarekin bat dator interes-tasa efektiboa.

3. Beste erakunde batzuetako kapitaleko partaidetzei dagokien arrazoizko balioa ezin denean behar bezain objektiboki ezarri eta tresna hauek azpiko aktibo gisa finantza eratorriak dituztenean eta berauek entregatzen likidatzen direnean, hala badagokio, narriaduragatik jasan dituen galeren bidez zuzendutako erosketa-kostuari eusten zaio.

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n ez litzateke esanguratsua izango zorrak gureganatzea erabiltzearen eragina, barne ereduaren bitartez kalkulaturako finantza-tresnak baloratzeko baliatutakoak ez direnean .

Galera-irabazien kontu bateratuan dagokion kontrako alderdia ezarri erregistratu ohi dira finantza-aktiboen kontabilitate balio-aldaketak. Horretarako, interesen eta antzeko etekinen ondorioz sortu direnak "Interes eta Etekin Bereganatuak" epigrafean jasotzen dira eta, galera-irabazien kontu bateratuko "Finantza-eragiketen emaitzak (Garbia)" deritzon epigrafean zenbateko garbiarekin erregistratu direnak, hauek beste arrazoi batzuen ondorioz sortu dira, bereizten dira.

Dena den, "Salgai dauden Finantza-aktiboak" epigrafean barne hartutako trenei dagokien kontabilitate-balioaren aldaketak, aldi baterako, ondare garbi bateratuaren "Balorazioagatik doiketak" epigrafean ezartzen dira, diruzko finantza-aktiboak trukatzegatik ondorioztatutako aldeetan sortu ez badira. "Balorazioagatik doiketak" epigrafean jasotako zenbatekoak ondare garbi bateratuan barne hartzen dira, aktiboa sortu zenean zegokion balantze bateratua amaitzen ez den bitartean, edo honen narriaduraren aitortzea, eta orduan, galera-irabazien kontu bateratuan zordunduz kitatzen dira.

Euroaz besteko dibisa bidez adierazitako zorro horietako kanbio-tasen diferentziak 14.i Oharrarekin bat etorri erregistratzen dira. Balore horiek izan ditzaketen balizko narriadurak, berriz, 14.h Oharraren arabera adierazten dira.

Estalitako eta kontabilitate-estaldurako partidak izendatutako finantza-aktiboen balorazio-ezberdintasunak, honako irizpide hauei jarraiki erregistratzen dira:

1. Estalitako arrisku-motari dagokionez, arrazoizko balioaren estalduretan, estaldura-elementuetan zein estalitako elementuetan emandako aldeak, galera-irabazien kontu bateratuan onartzen dira zuzenean.
2. Efectibo-fluxuak eta atzerriko negozioetarako inbertsio garbiak estaltzeko eragiketen alderdi ez-eraginkorriari dagozkien balorazio-aldeak, galera-irabazien kontu bateratuan ezartzen dira zuzenean.
3. Efectibo-fluxuen eta Atzerriko negozioetarako inbertsio garbien estalduretan, estaldura-elementuen estaldura-zati eraginkorrean sortutako balorazio-aldeak, Ondare garbi bateratuaren "Balorazioagatik doiketak" epigrafean erregistratzen dira aldi baterako.

Balorazio-aldeak ez dira emaitzat hartzen estalitako elementuaren galera edo irabaziaz, galera-irabazien kontu bateratuan erregistratu bitartean edo estalitako elementuaren epemugara arte.

f) Finantza-pasiboak

Finantza-pasiboak balantze bateratuan sailkatzen dira eta ondoko irizpideei jarraituz:

1. "Negoziazio Zorroa", epe laburrera gauzatzeko helburuarekin erositako finantza-pasiboak barne hartzen ditu. Horiek, identifikatutako eta elkarrekin kudeatutako finantza-tresna batuen zorroaren zati bat dira, eta epe laburrera etekina ateratzeko erabiltzen dira edo, kontabilitate-estaldurako tresnatzat hartzen ez diren eratorriak dira, edo bestela, aldi baterako erosi edo mailegu gisa jasotako finantza-aktiboak saltzeagatik sortutakoak.
2. "Arrazoizko balioan dauden eta galdu-irabazietan aldaketak dituzten beste finantza-aktibo batzuk": hauetan, negoziozko-zorrokoak izan gabe, finantza-aktibo hibridotzat hartzen dira, eta ezin zaie inplizituki duen eratorriaren arrazoizko balio fidagarria ezarri. 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n Taldeak ez zeukan horrelako finantza-pasiborik bere balantzean.
3. Balantze bateratuko gainontzeko kapituluetan sartzen ez diren Finantza Pasiboak dagokien "Finantza Pasiboak amortizatutako kostuan". Hauek, gainera, finantza-erakundeek fondoak bereganatzeko egiten dituzten jarduera tipikoen ondorioz izaten dira, edozein dela horiek gauzatzeko era edo epemuga.
4. Kontabilitate-estalduratzat jotzea ahalbidetzen duten Taldeak erosi edo jaulkitako finantza -eratorriak barne hartzen dituzten "Estaldura eratorriak".
5. Saltzeko aktibo ez-arruntetan sortutako saldo hartzekodunei dagozkien, "Salgai dauden aktibo ez-korronte lotutako pasiboak". 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n Taldeak ez zeukan horrelako finantza-pasiborik bere balantzean.

Amortizatuko kostuaren arabera erregistratzen dira finantza-pasiboak, 14.e. Oharrean finantza-aktiboetarako definitzen den bezalaxe, ondorengo kasuetan izan ezik:

1. "Negoziazio-zorroa" eta "Bestelako finantza-pasiboak arrazoizko balioan, aldaketadunak galera-irabazietan" epigrafeetan barne hartutako finantza-pasiboak, 14.e. Oharrean finantza-aktiboak definitzen diren bezalaxe. Arrazoizko balioa estaltzeko eragiketetan estalitako finantza-pasiboak doitu egiten dira, eta horretarako, estaltzeko eragiketetan estalitako arriskuaren arabera arrazoizko balioan ematen diren aldakuntzak erregistratzen dira.
2. Nahikoa objektibotasunez ezarri ez den arrazoizko balioa duten kapital-tresnak eta azpikotzat kapital-tresna horiek dituzten eta beroriek entregatzean likidatzen diren finantza eratorriak, bere kostuaren arabera balioesten dira.

Galera-irabazien kontu bateratuan dagokion kontra alderdia ezarriz erregistratu ohi dira finantza-pasiboen liburuetak balio-aldaketak. Horretarako, interesen eta antzeko zamen ondorioz sortutakoak, "Interesak eta antzeko kargak" epigrafean erregistratzen direnak, eta galera-irabazien kontu bateratuko "Finantza-eragiketen emaitzak (garbia)" deritzon epigrafean zenbateko garbiarekin erregistratu direnak bereizten dira.

Estalitako eta kontabilitate-estaldurako partidak izendatutako finantza-pasiboen balorazio-ezberdintasunak, 14.e. Oharrean Finantza-aktiboetarako ezarritako irizpideei jarraiki erregistratzen dira.

g) Finantza-tresnen transferentziak eta balantze bateratutik deuseztatzea

Finantza-tresnen transferentziak, transferitutako finantza-tresnei lotutako arriskuak eta etekinak zein neurritan traspasatu diren kontuan hartuz kontabilizatuko dira, eta ondoko irizpide hauei jarraituko zaie:

1. Arriskuak eta etekinak hirugarren batzuei traspasatzekotan, transferitutako finantza-tresna balantze bateratutik kendu egingo da, aldi berean, transferentziaren ondoriozko bereganatu edo sortutako edozein eskubide edo obligazio onartuz.
2. Transferitutako finantza-tresnari lotutako arriskuak eta etekinak, funtsean, atxikitzen badira, ez da balantze bateratutik ezabatzen eta transferentzia aurretik ezartzen zitzaizkion irizpide berberen arabera balioesten jarraitzen da. Dena den, ordainean jasotako zenbateko berarekin onartzen da finantza-pasiboa kontabilitatean ezartzean, eta ondoren, amortizatutako kostuaren ondoren, ezabatu ez den finantza-aktiboaren sarreraren eta finantza-pasibo berriaren gastuen arabera balioesten da.
3. Transferitutako finantza-tresnari lotutako arriskuak eta etekinak transferitu edo atxikitzen ez badira, honako hauek bereizi behar dira:
 - a. Taldeak transferitutako finantza-tresnaren gaineko kontrola ez duenean: balantze bateratutik ezabatu eta, transferentziaren ondorioz gorde edo sortutako eskubide eta obligazio guztiak onartzen dira.
 - b. Taldeak transferitutako finantza-tresnaren gaineko kontrola gordetzen duenean: balantze bateratuan jarraitzen du izan ditzakeen balio-aldaketen arabera zenbatekoan eta transferitutako finantza-aktiboari lotutako finantza-pasiboa onartzen da. Transferitutako aktiboaren eta horri lotutako pasiboaren zenbateko garbia, atxikitako eskubide eta obligazioen amortizazio-kostua izango da, transferitutako aktiboa amortizazio-kostuaren arabera neurtzen bada, edo atxikitako eskubide eta obligazioen arrazoizko balioa, transferitutako aktiboa arrazoizko balioaren arabera neurtzen bada.

Beraz, finantza-aktiboak balantze bateratutik ezabatzen dira, sortzen dituzten efektibo-fluxuak desagertu direnean edo hirugarren batzuei atxikitako arrisku eta obligazio eta guzti transferitzen zaizkienean. Era berean, finantza-pasiboak balantze bateratutik kentzen dira, sortzen dituzten obligazioak bertan behera geratzen direnean edo kitatzeko edo berrezartzeko asmoz erosten direnean.

Hala eta guztiz ere, Europar Batasunak onartutako NIF arauen arabera, Taldeak ez du, aurreragoko transakzio edo jazoeraren baten emaitza gisa hartu behar ez izatekotan, aplikatu beharreko araudiaren ondorioz balantze bateratutik ezabatutako tresna eratorriak ez diren eta 2004ko urtarrilaren 1a baino lehen gertatutako finantza-aktibo eta – pasiboen transakziorik. Izan ere, Taldeak, 2013ko abenduaren 31n, 2004ko urtarrilaren 1a baino lehen balantze bateratuan izendatutako eta ezabatutako aktibotan 23.235 mila euro ditu (26.077 mila euro 2012ko abenduaren 31n), ezargarria zen aurreko araudiaren ondorioz, (25. Oharra).

h) Finantza-aktiboaren balioaren narriadura

Finantza-aktiboei dagozkien kontabilitate-balioa zuzentzean, oro har, galera-irabazien kontu bateratuan zorduntzen da, narriaduraren ondoriozko galera eman dela objektiboki egiaztatzen denean, eta hori, honako kasu hauetan gertatzen da:

1. Kreditu eta zorra ordezkaten duten baloreak bezalako zor-tresnen kasuan, hasiera batez onartu ostean jazoeraren bat ematen denean edo etorkizuneko efektibo-fluxuetan negatiboki eragin dezaketean hainbat jazoera ematen direnean.
2. Kapital-tresnen kasuan, hasiera batean onartu ondoren, jasotako kontabilitate-balioa ezin izango dela berreskuratu ondorioztatuko duen jazoera edo jazoera bateratuak ematen direnean.

Amortizazio-kostuaren arabera balioztatutako zorrek tresnen kasuan, narriadurak eragindako galeren zenbatekoa, duten kontabilitate-balioaren eta gerorako aurreikusitako efektibo-fluxuen egungo balioaren arteko alde negatiboa da. Kotizatzen diren zorrek tresnen kasuan, gerorako aurreikusitako efektibo-fluxuen egungo balioa erabili beharrean, merkatuan duen balioa erabili daiteke, baldin eta Taldeak berreskura zezakeen balioaren antzekotzat hartzeko behar bezain sakona denean.

Zorrek tresna baten gerorako aurreikusitako efektibo-fluxuak, Taldeak, instrumentuak dirauen bitartean izango dituen zenbateko osoak, nagusia eta interesak, dira. Finantza-egoera bateratuak egitean eskuragarri dagoen informaziorik garrantzitsuena hartzen da aurreikuspen hori egiterakoan, delako hori, kontratuko efektibo-fluxuak kobratzeko aukeraren inguruko datuak eskaintzen duenean. Era berean, egiazko bermeak dituzten tresnen gerorako efektibo-fluxuak aurreikustean, horiek egitekotan sortuko diren fluxuak hartzen dira kontuan, hori eskuratzeko eta ondoren saltzeko beharrezko kostuak kontuan hartu gabe, bermea gauzatzeko aukera alde batera utziz.

Gerorako aurreikusitako efektibo-fluxuen egungo balioa kalkulatzeko, tresnaren hasierako interes-tasa erabiltzen da eguneratzeko tasa gisa, kontratuko tasa finkoa bada. Kontratuko tasa aldakorra denean, kontratuko baldintzen arabera ezarritako finantza-egoera bateratuen inguruan data horretako interes-tasa efektiboa.

Taldea zein arriskuren aurrean egon daitekeen jakiteko, zorrek tresna-zorroak, arrisku gertagarriak eta konpromiso gertagarriak, edozein dela titularrak, gauzatzea edo bermea, aztertzen dira eta balioa okerrera joatekotan beharrezkoak izan diren estaldurak aurreikusten dira. Finantza-egoera bateratuak egiterakoan, kreditu-arriskuaren arabera sailkatzen ditu eragiketarako Taldeak, eta horretarako, bezeroari esleia dakiokkeen kaudimen-arriskua eta herrialdearen araberrako arriskuak bereizirik aztertzen dira.

Banakako narriadura objektiboa adierazten duten zor-tresna guztietarako banaka ezarriko da eta banaka edo taldeka adierazten dutenak, banaka edo taldeka. Tresna bat antzeko arriskuak dituzten aktibo-talde batean sartu ezin denean, banaka aztertuko da narriatuta dagoen ezartzeko eta, hala badagokio, okerrera egiteagatik galerak balioesteko.

Galera-irabazien kontuan aldaketak eragiten dituzten zorrek tresnak, arazoizko balioaren arabera balioetsi ez direnean, arrisku gertagarriak eta konpromiso gertagarriak jarraian adierazitako kategorietan sailkatzen dira, bezeroari edo eragiketari esleia dakiokkeen kaudimen-arriskuaren arabera: arrisku arrunta, estandarren azpiko arriskua, bezeroaren berankortasunarengatik zalantzarikoa arriskua, bezeroa berankor izan gabe erakutsi ditzakeen bestelako arazoengatik zalantzarikoa arriskua eta arrisku kobraezina. Taldearen eta sektorearen esperientzia oinarrituta, arrisku arrunta gisa sailkatu ez diren zorrek tresnetarako, okerrera egiteagatik beharrezko estaldurak aurreikusten dira, ordaindu ez diren zenbatekoen antzintasuna, ekarritako bermeak eta bezeroaren, eta hala badagokio, berme-emateen egoera ekonomikoa hartzen dira kontuan. Orokorrean, Taldearen esperientziaren eta sektoreak eskura dituen informazioaren arabera landutako berankortasun-egutegiaren arabera egiten da aurreikuspen hori.

Eragiketa birfinantzatu edo berregituratuei dagokienez, bere kreditu-sailkapenak ordainketa-portaera hartzen du aintzat epe luze batean, ezaldiak ematea, berme gehigarri eraginkorren ekarpena eta baliabideak sortzeko ahalmena, besteak beste, zalantzarikoa arriskuen, azpi-estandarren edo egoera normalekoen sailkapena zehazten dutenak.

Ordainketa egunean ez duten eragiketen birfinantzatzeko ez du etengo zalantzarikoa gisa duen sailkapena, salbu eta, bezeroak, aurreikusitako egutegian, bere ordainketari aurre egin diezaioketela dioen arazoizko segurtasuna izan edo berme eraginkor berriak ekarri eta, kasu bietan, kobratzeko dauden interes arruntak, behintzat, jaso.

Egoera irregularrean leudekeen finantza-aktiboen zenbatekoa, bere baldintzak birnegoziatuak izan direlako ez balitz, ez da esanguratsua urteko kontu bateratuekiko, multzoan aintzat hartuta. Taldeak birfinantzatze edo berregituratze gisa identifikatutako eragiketak orotara, aktiboak bajan ematea eta berrien aitortza ekarri dutenen portzentajea %20ra iristen da, gutxi gora behera, 2013ko abenduaren 31n (%10 gutxi gorabehera 2012ko abenduaren 31n) eta horien estaldura hobetzea du helburu, funtsean, berme erreal eta gehigarrien bidez. Eragiketa hauetarako eta 2013ko eta 2012ko ekitaldietarako ez dago alde esanguratsurik bajan emandakoek duten kontabilitate balioa eta aktibo berrien arrazoizko balioa. Era berean, aipatutako eragiketek ez dakarte, aldatuak izan balira, eskatuko luketen narriaduragatiko zuzkiduraren atzerapena edo murrizketa, aldaketa datan, beharrezkoa izanez gero, horiek bazeudelako narriatuta, eta Taldeak, mota honetako eragiketak gauzatu baino lehen, bazuen erata dagokion kaudimen-gabezia fondoan.

Era berean, edozein dela bezeroa, herrialdearen arabera kreditu-arriskua ezartzeko, galera-irabazien kontuan aldaketak eragiten dituzten, arrazoizko balioaren arabera balioetsi ez diren zorroko tresnak eta arrisku gertagarriak aztertzen dira. Herrialdearen arabera arriskua, herrialde jakin batean bizi diren bezeroei, ohiko merkataritza-arrisku ezberdinengatik, esleitzen zaienari esaten zaio.

Amortizatutako kostuaren arabera baloratutako zor-tresnen narriadurarengatik liburu-etako balioaren zuzenketa narriadura hori agertzen den epealdiko galera-irabazien kontu bateratuan zordundu behar da. Halaber, aurretik erregistratu diren narriaduragatiko galeren berreskurapena, halakorik jazotzekotan, narriadura ezabatu edo murrizten den epealdiko galera-irabazien kontu bateratuan jasotzen da. Erregistratutako edozein kopuru berreskuratzeko aukerarik ez dagoela irudituz gero, hori kendu behar da balantze bateratutik; preskripzioa, barkamena edo beste arrazoi batengatik bere eskubideak behin betiko iraungi ez diren bitartean, Taldeak hori kobratzeko behar diren ekintzak burutu ditzakeen arren.

Interes-sortzapena galera-irabazien kontu bateratuan jasotzea kontratu-terminoen arabera, banaka narriatu gisa sailkatutako moztu egiten da zor-tresna guztietarako, baita hiru hilabete baino gehiagoko antzintasunaz zenbateko muga eguneratuak izateagatik, taldeka narriaduragatiko galerak kalkulatu zaizkien haietarako ere.

Zorra ordezkatzeko duten baloreen eta kapital-tresnen artean "Salgai dauden finantza-aktiboak" epigrafean jaso direnen okerrera egiteagatiko galeren zenbatekoa, erosi zireneko kostuaren, printzipalaren edozein amortizazioaren garbiaren, eta arrazoizko balioaren arteko alde positiboa da.

Arrazoizko balioaren beherakada narriadurak eragin duela argi ikusten denean, Ondare garbi bateratuaren "Balorazioagatiko Doiketak" epigrafean zuzenean ezarritako ezkutuko akatsak, galera-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira berehalaxe. Beranduago narriadurak eragindako galera osoak edo horien zati bat berreskuratzen bada, zenbateko hori jasoko da: zorra ordezkatzeko duten baloreen kasuan, berreskuratzeko inguruko galera-irabazien kontu bateratuan; eta kapital-tresnen kasuan, berriz, Ondare garbi bateratuaren "Balorazioagatiko Doiketak" epigrafean.

"Aktibo ez-korronteak salgai" epigrafean sailkatutako zorroko tresnetarako eta kapital-tresnetarako, ordea, Ondare garbi bateratuan alde aurretik erregistratutako galerak onartu direla ulertuko da, sailkatu ziren datako galera-irabazien kontu bateratuan jaso badira.

Erosi zirenean zuten balioaren arabera balioetsitako kapital-tresnen narriaduragatiko galerei, jasotako kontabilitate-balioaren eta kuxan aurreikusten diren fluxuen egungo balioaren arteko aldea dagokien, antzeko beste balio batzuek merkaturatu duten errentagarritasunaren arabera gauzatu beharko direlarik. Narriaduragatik ondorioztatutako galerei dagokien epealdiko galera-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira, eta horretarako, finantza-aktiboaren kostua zuzenean gutxiagotzen da, eta saltzen ez bada, ezin izango da zenbateko hori berreskuratu.

i) Atzerriko dirutan egindako kontuen balorazioa

Taldeak, bere jardueran erabiltzen duen diru-mota, Euroa da. Ondorioz, Euro bitartez egiten ez diren saldo eta transakzio guztiak, atzerriko diru-motan egindakotzat hartzen dira.

Ondorengo hau da, Taldeak, 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n, atzerriko diru-motan guztira dituen aktibo eta pasiboen kontrabalioa Eurotan:

	Mila Euro			
	2013		2012	
	Aktiboak	Pasiboak	Aktiboak	Pasiboak
AEBetako dolarrak	116.318	102.076	66.498	87.821
Libera esterlinak	7.621	7.128	9.478	6.531
Yen japoniarrak	73.910	16.511	84.761	3.365
Franko suitzarrak	25.177	1.542	26.691	1.861
Peso mexikarrak	40.288	24.068	17.967	9.295
Bestelako diru-motak	887	1.899	2.119	2.211
	264.201	153.224	207.514	111.084

Hona, Taldeak, 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n, izaeraren arabera sailkatuta, atzerri-monetan zituen aktibo eta pasiboen kontrabalioa Eurotan:

	Mila Euro			
	2013		2012	
	Aktiboak	Pasiboak	Aktiboak	Pasiboak
Negoiazio-zorroa	374	360	413	411
Kredituen inbertsioak/Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan	261.899	129.942	204.180	101.135
Estaldura eratorriak	-	22.188	-	9.295
Bestelakoak	1.928	734	2.921	243
	264.201	153.224	207.514	111.084

Atzerriko diru-motan izendatutako saldo zordunak eta hartzekodunak, jarduerako diru-mota bihurtzen dira, hasiera batean, onartu zireneko datako kanbio-tasa erabiliz, berehala entregatzeko kanbio-tasatza ulertzen. Hasierako onarpenaren ostean, ondorengo arau hauek erabiltzen dira atzerriko dirutan izena daramaten saldoak jarduerako diru-motara aldatzeko:

1. Diruzko aktibo eta pasiboak, itxierako kanbio-tasaren arabera aldatzen dira eta finantza-egoerei dagozkien datan eskurakoaren batez besteko kanbio-tasatza ulertzen da.
2. Kostu historikoaren arabera baloratu eta diruzkoak ez diren partidak, erosi ziren eguneko kanbio-tasaren arabera aldatzen dira.
3. Arrazoizko balioaren arabera baloratu eta diruzkoak ez diren partidak, arrazoizko balioa ezarri zen eguneko kanbio-tasaren arabera aldatzen dira.
4. Sarrerak eta gastuak, eragiketa-eguneko kanbio-tasak aplikatuz aldatzen dira. Hala ere, epealdian egindako eragiketa guztien arabera batez besteko kanbio-tasa erabiltzen da, oso aldaketa handiak egon ez badira. Dagozkion aktiboari aplikatutako tasaren arabera aldatzen dira amortizazioak.

Orokorrean, atzerriko monetan izendatutako saldo zordun eta hartzekodunak aldatzean sortzen diren kanbio-aldeak, hauek galera irabazien kontu bateratuan jasotzen dira.

j) Sarrera eta gastuen onarpena

Sortzapen-aldiaren arabera eta interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuz erregistratzen dira kontabilitatean, interesengatik edo dagozkien kontzeptuengatik sarrerak eta gastuak. (14.e Oharra). Beste erakunde batzuetatik jasotako dibidenduak, berriz, jasotzeko eskubidea sortzen denetik onartzen da.

Finantza-zerbitzuengatik ordaindu edo kobratutako komisioak, edozein dela kontratutako izena, galera-irabazien kontuan nola jaso ezartzen duten ondorengo kategorien arabera sailkatzen dira:

1. Komisio finantzarioak; Finantza-eragiketa baten etekin edo kostu efektibo osoa osatzen dutenak dira eta eragiketari aurreikusten zaio balio-bizian zehar jasotzen dira galera-irabazien kontu bateratuan, horren kostu edo etekin efektiboaren doiketa gisa. Komisio horiek galeren eta irabazien kontu bateratuko "Interesa eta antzeko errendimenduak" epigrafean erregistratzen dira. Hona komisioen artean irekitze-komisioa eta ordaintzeko baliabideen atzeratzeari dagozkienak nabarmen daitezke. Hona 2013an eta 2012an sortutako komisioak:

	Mila Euro	
	2013	2012
Irekitze-komisioak	20.052	20.976
Ordainbideetan atzeratzeagatiko komisioak	17.977	7.022
Bestelako komisioak	745	1.014
	38.774	29.012

2. Komisio ez-finantzarioak. Zerbitzuak eskaintzetik ondorioztaturikoak dira eta epealdi batean ematen den zerbitzu batengatik edo ekintza berezi batean eskaintzen denagatik sortzen dira (ikus 48. eta 49. Oharrak). Galera-irabazien kontu bateratuan erregistratu ohi dira, ondorengo irizpide hauei jarraiki:
 1. Galera eta irabazien araberako aldaketak izanik, arrazoizko balioaren arabera baloratutako aktibo eta pasiboan ingurukoak, horiek zorduntzean eta ordaintzean erregistratzen dira.
 2. Epealdi batean egiten diren transakzio eta zerbitzuei dagozkienak, transakzio edo zerbitzu horiek iraun duten epealdian erregistratzen dira.
 3. Ekintza berezi bateko transakzio edo zerbitzu bati dagozkionak, sortzen dituen ekintza ematen denean erregistratzen dira.

Sortzapen-printzipioaren arabera erregistratzen dira kontabilitatean finantzarioak ez diren sarrerak eta gastuak. Denboran geroratutako zorduntzetak eta ordaintzetak, merkatu-tasetan aurreikusitako efektibo-fluxuak finantzarioki eguneratuzetik ondorioztatutako zenbatekoarekin erregistratutako dira kontabilitatean.

k) Saldoak eta Transakzioak konpentsatzea

Kontratua betez edo Lege Arau batek horrela agintzen duelako, transakzioetan jatorri duten saldo zordun eta hartzekodunak konpentsatzeko aukera izanda, dagokien zenbateko garbiaren truke kitatzeko asmoa izatekotan edo, aktiboa gauzatu eta aldi berean pasiboa ordaindu nahi izatekotan, dagokion zenbateko garbia balantze bateratuan aurkezten da.

l) Finantza-bermeak

Finantza-bermeak Taldeak egindako kontratuak dira, eta horien arabera Taldeak berak hirugarren batek ez ordaindutako berariazko diru-kopurua ordaintzera behartzen du bere burua, bere izaera juridikoa kontuan hartu gabe: fidantza, finantza-abala edo abal teknikoak, eta Taldeak jaulki edo berretsitako agiridun kreditu ezeztazina.

Bermeak balantzeko pasiboaren "Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan – Bestelako finantza-pasiboak" kontu-sailean jasotzen dira bere arrazoizko balioaren truke. Hasieran, kontrakoa egiaztatzen ez bada, jaso beharreko efektiboaren fluxuen gaur egungo balioa izango da eta, aldi berean aktiboaren "Kredituen inbertsioak" kontu sailean jasotzen da jaso gabe dauden efektiboaren fluxuen gaur egungo balioa. Horretarako, Erakundeak emandako finantza-aktiboaren antzeko interes-tasa bat erabiltzen da, antzeko epea eta arriskuarekin. Hasierako onarpenaren ostean, "Kredituen inbertsioak" kontu-sailean erregistratutako

kontratuen balioa eguneratzean sortutako desberdintasunak galera-irabazien kontuan finantza diru-sarrera gisa jaso behar da eta Pasiboaren "Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan" kontu-sailean erregistratutako bermeen arrazoizko balioa galera-irabazien kontuan egozten da, hartutako komisioengatik diru-sarrera gisa, modu linealean bermeak dirauen bitartean.

Finantza-bermeak bezeroaren edo eragiketaren kaudimen-gabeziako arriskuaren arabera sailkatzen dira, eta hornidurak sortu beharra aintzat hartzen da. Horretarako, 14. h. Oharrean bere kostu amortizatueta balioztatutako zorretako tresnetarako adierazitako antzeko irizpideak erabiltzen dira.

Eragiketa horien gainean eraturiko doiketak honako epigrafean kontabilizatu dira: "Hornidurak -Arriskueterako eta konpromiso kontingenteetarako hornidurak", bateratutako pasiboan (35. Oharra). Doikuntza horien horniketa nahiz errekupeazioa, berriz, beste epigrafe honetan sartu da: galera eta irabazien kontu bateratuaren "Horniduretarako Zuzkidurak (garbia)".

Finantza-bermeetarako hornidura sortzea beharrezkoa izango balitz sortzeke dauden komisioak, balantze bateratutako pasiboaren "Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan – Bestelako finantza-pasiboak" epigrafean erregistratzen diren sortzapena egiteke duten komisioak, dagokion horniduraren arabera sailkatzen dira berriz.

m) Errentamenduak

Errentamendu-kontratuak eragiketaren fondo ekonomikoaren arabera aurkezten dira, bere izaera juridikoa kontuan hartu gabe, eta hasieratik finantza-errentamenduak edo eragiketa-errentamenduak bezala sailkatzen dira.

1. Errentamendu bat finantza-errentamendutzat jotzen da kontratatzen den aktiboaren jabetzari atxikitako arrisku eta mozkin guztiak funtsean transferitzen direnean.

Taldeak ondasun baten errentatzaile gisa jarduten duenean, errentariaren eskutik jasoko dituen zenbatekoen gaur egungo balioen batura gehi bermatutako hondar-balioa, sarritan errentariak kontratua bukatzerakoan duen erosteko aukeraren ekitaldiaren prezioa dena, Hirugarrenei emandako finantzazio bat bezala erregistratzen da. Hortaz, errentariaren izaeraren arabera, balantze bateratuaren "Kreditu Inbertsioak" epigrafean jasotzen da.

Bestalde, Taldeak errentari gisa jarduten duenean, balantze bateratuan errentan hartutako aktiboen kostua erregistratzen da, kontratatutako ondasunaren izaeraren arabera. Aldi berean beste pasibo bat ere erregistratzen da zenbateko berberarekin, eta errentan hartutako ondasunaren arrazoizko balioaren, edo errentatzaileari ordaindu beharreko kopuruen gaur egungo balioen baturaren txikiena izango da; kasu horretan, erosteko aukeraren ekitaldiaren prezioa. Aktibo hauek berezko erabilerako aktibo material guztietan ezarritako antzeko irizpideekin amortizatzen dira.

Kontratu hauetako diru-sarrerak eta finantza-gastuak galera-irabazi kontu bateratuan abonatzen eta zorduntzen dira, "Interesak eta antzeko errendimenduak" eta "Interesak eta antzeko kargak" epigrafeetan, hurrenez hurren, etekina etengabea izan dadin kontratuak irauten duten bitartean.

2. Finantza-errentamendutzat jotzen ez diren errentamendu-kontratuak eragiketa-errentamenduak gisa sailkatzen dira.

Taldeak errentatzaile gisa jarduten duenean, balantzeko aktiboko "Aktibo Materiala" epigrafean errentan hartutako ondasunen eskuratzeko-kostua erregistratzen da. Aktibo horiek berezko erabilerako antzeko aktibo materialetan erabilitako politiken arabera amortizatzen dira, eta errentamendu-kontratueta lortutako diru-sarrerak galera-irabazien kontu bateratuan jasotzen dira era linealean.

Beste alde batetik, Taldeak errentari gisa jarduten duenean, errentamenduaren gastuak, errentatzaileak emandako pizgarriak barne hartuta, galera-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira linealki, "Administrazioaren beste gastu orokor batzuk" deritzon epigrafean.

n) Taldeak kudeatutako ondareak

Taldeak oroipen-kontuetan jasotzen ditu, duten arrazoizko balioaren arabera, Erakundeetan edo inbertsio-fondoetan, pentsio-fondoetan, aseguru-aurrezki kontratutan eta zorroen kudeaketa diskrezionalerako kontratutan inbertitzeko hirugarrenek bere esku utzitako baliabideak. Desberdinu egiten dira Taldeak kudeatutako baliabideak eta Taldeak merkaturatutakoak izan arren, hirugarrenek kudeatzen dituztenak.

Aipatutako inbertsio-fondoak eta pentsio-fondoak, Erakunde bateratuek kudeatutakoak, ez dira Taldearen balantze bateratuan jasota aurkezten, dagokien ondarea hirugarrenen jabetzakoa baita.

Gainera, oroipen-kontuen barruan, arrazoizko balioaren arabera erregistratzen dira, edo hauen balioespen fidagarririk ez balego, kostuaren arabera, hirugarrenen kontura, Taldearen izenean erositako aktiboak eta zorra ordezkatzeko duten baloreak, kapital-tresnak, eratorriak eta gordailutan, bermean edo komisioan Taldean mantentzen diren gainontzeko finantza-tresnak hirugarrenen aurreko erantzukizuna baitu kasu hauetan.

Taldeak kudeatzen dituen hirugarrenen ondareak ez dira barne hartzen balantze bateratuan. Jarduera horrek sortutako komisioak galera-irabazien kontu bateratuko "Hartutako komisioak" epigrafean erregistratzen dira (48. Oharra). 63. Oharrean 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n Taldeak kudeatzen dituen hirugarrenen ondareei buruzko informazioa ematen da.

o) Langileriaren gastuak eta enplegu osteko ordainsariak

o.1) Enplegu osteko ordainsariak

Enplegu osteko ordainsaritzat jotzen dira euren jarduera bukatu eta gero likidatzen diren langileen ordainsariak. Enplegu osteko ordainsariak, baita ere, barneko zein kanpoko pentsio-fondoekin estalitakoak, ekarpen mugatuetako edo prestazio mugatuetako plan gisa sailkatzen dira, Taldeak aurrez zehaztutako kontribuzioak burutzen dizkionean banatutako erakunde bati, eta ez duenean kontribuzio gehigarririk egiteko betebeharrak ez efektiborik erakunde banatuak ezin dienean erantzuna eman indarreko ekitaldian nahiz aurrekoetan zerbitzua eman duten langileen ordainsariei. Aurreko guztiarekin bat ez datozen konpromisoak definitutako prestazio gisa hartuko dira.

Prestazio definituko planak

Taldeak balantze bateratuaren pasiboan dagoen "Hornidurak- Pentsioetarako eta antzeko betebeharrarako fondoa" izeneko epigrafean (edota aktiboan, "Gainerako aktiboak" epigrafean, aldearen zeinuaren arabera) erregistratzen du prestazio mugatuen pentsioengatiko konpromisoen egungo balio garbia, jarraian azaldu bezala, "Planari lotutako aktibo" gisa kontsideratuak izateko baldintzak betetzen dituzten aktiboaren arrazoizko balioa. Planeko aktiboaren arrazoizko balioa obligazioen gaur egungo balioa baino altuagoa balitz, Taldeak erregistratutako aktiboa baloratuko du, eta balio txikiena aukeratuko du aipatutako aldearen balio absolutua eta erakunderako erabilgarri dauden kutxa-fluxuen gaur egungo balioaren artean, planaren itzulketa eran edo planari etorkizunean egiten zaizkion ekarpenen murrizketa eran.

"Planari lotutako aktiboak" izango dira, definitutako prestazio-konpromiso zehatz bati lotutakoak, zeintzuen bidez zuzenean likidatuko baitziren betebeharrak, eta honako baldintzak betetzen dituztenak: ez dira bateratutako erakundearen jabetzapekoak, legez banandutako hirugarren baten jabetzapekoak baizik, eta ez dute Taldeari lotutako izateko; langileen enplegu osteko ordainsariak ordaindu edota finantzatzeko erabil daitezke soilik; eta ezin daitezke erakunde bateratuetara itzuli, planean geratzen diren aktiboak aipatu plan horren betebeharrak edota egungo nahiz iraganeko langileen prestazioekin lotutako erakundearen betebeharrak erantzuteko gai direnean salbu, edota Taldeak jadanik ordaindu dituen langileen prestazioak berriz kobartzeko; eta aktiboak langileentzako enplegu-osteko prestazioen erakunde (edo fondo) batek izango balitu, pentsio-fondo baten antzera, ezin izan daitezke Taldeak jaulkitako finantza-tresna transferiezinak.

Baldintza hauetarikoren bat betetzen ez duten aseguru-kontratuak, balantze bateratuaren aktiboak erregistratzen dira, "Pentsioei loturiko aseguru-kontratuak" izeneko epigrafean.

Erregistratutako horniduraren aldaketa guztiak (edo aktiboa, arestian aipatutako aldearen joeraren arabera) gertatzen direnean erregistratuko dira, era honetan:

1. Galera eta irabazien kontu bateratuan langileek emandako zerbitzuaren kostua erregistratzen da, bai ekitaldiari dagokiona bai aurreko ekitaldi aitortu gabeei dagokiena, horniduraren (aktiboaren) gaineko interes garbia, baita likidazioaren unean gertatzen den irabazia edo galera ere.
2. Ondare garbi bateratuko aldaketen egoeran: horniduraren balorazio berriak (aktiboa), irabazi edo galera aktuarialen ondorioa, horniduraren (aktiboaren) gaineko interes garbian sartu ez diren planeko aktiboaren errendimendua, baita aktiboaren egungo balioaren aldaketak ere, erakunderako eskuragarri dauden fluxuen egungo balioaren aldaketen ondorioz, horniduraren (aktiboaren) gaineko interes garbian sartuta ez daudenak. Ondare garbi bateratuan gertatutako aldaketen egoeran aitortutako zenbatekoak ez dira birsailkatuko galera eta irabazien kontu bateratura geroko ekitaldietan.

Erregistratutako horniduraren gaineko interes garbia (edo, kasuaren arabera, aktiboaren gainekoa) informatzen ari garen urteko epealdiaren hasieran zehaztutako obligazioen gaur egungo balioaren balioespenean erabilitako interes-tasa eta horien balioa biderkatuta lortuko da. Bere balioan gertatzen den edozein aldaketa hartuko da aintzat. Interes garbiak planaren aktiboaren interesengatiko diru-sarrera, horniduraren interesengatiko kostua eta, kasuaren arabera, planaren aktiboak bider erakunderako erabilgarri dauden kutxako fluxuen egungo balioa baloratzetik ateratzen diren interesak hartzen ditu barne, planaren berreskuratze eran edo horri etorkizunean egiten zaizkion ekarpenen murrizketa eran.

Prestazio mugatuko planak era honetan erregistratuko dira:

- a) Zerbitzuen kostua galera eta irabazien kontu bateratuan erregistratzen da, eta honako osagai hauek ditu:
 - "Langile gastuak" epigrafean, indarrean dagoen epealdiko zerbitzuen kostua erregistratuko da, hau da, langileek ekitaldian emandako zerbitzuen ondorioz sortutako obligazioen gaur egungo balioan egondako gehitzea.
 - "Horniduretarako zuzkidurak (garbia)" epigrafean, iraganeko zerbitzuen kostua erregistratuko da, jatorria lehendik zeuden enplegu-osteko ordainsarrietan sartutako aldaketetan duena, edo prestazio berrien sartzean, murrizketen kostua barne.
 - "Horniduretarako zuzkidurak (garbia)" epigrafean, erregistratzen den planaren likidazio batean sortzen den edozein irabazi edo galera.
- b) Galera eta irabazien kontu bateratuko "Interesak eta antzeko kargak" ("Interesak eta antzeko errendimenduak" sarrera bada) epigrafean, prestazio mugatuko konpromisoen pasibo (aktibo) garbiaren gaineko interes garbia (denboraren joan-etorrian sortzen den prestazio mugatuengatiko pasibo (aktibo) garbian ekitaldian gertatutako aldaketa dela ulertuta) erregistratzen da.

Jarraian Taldeak bere gain hartu dituen prestazio definituko konpromisoak laburtuko dira, sortu zituen Erakundearen arabera. Erakunde Nagusian indarrean dagoen hitzarmen kolektiboaren arabera, BBK, Kutxa eta Vital Kutxatik datorren kolektibo bakoitzak arlo horretan bere jatorrizko erakundean, aipatutako hitzarmen kolektibo hori sinatu baino lehen, indarrean zegoen estaldura erregimena mantentzen du.

BBKtik datozen langileekin hartutako konpromisoak

Indarrean dagoen hitzarmen kolektiboaren arabera, Taldeak konpromiso hau du: Gizarte Segurantzaren prestazioak osatzea 1996ko uztailaren 31n egindako erretiroen onuradunei, eta baliaezintasuneko,

alarguntzako edo aipatu datatik aurrera langilearen heriotzagatiko zurtzasuneko prestazioak jaso ditzaketen onuradunei.

Kontzeptu horiengatik hartutako konpromisoak kanporatzeko xedez, BBK-k Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE) sortzeari bidea eman zion 1990ean, Eusko Legebiltzarraren urriaren 27ko 25/1983 Legeari eta Eusko Jaurlaritzako otsailaren 20ko 87/1984 Dekretuari lotuta, langileekin hitzartutako prestazioak etorkizunean erakunde horiek asetzeko xedez.

Kutxatik datozen langileekin hartutako konpromisoak

Kutxan indarrean dagoen lan hitzarmenaren arabera, prestazio definituko konpromisoari eutsi dio, lanean diharduten langileen baliaezintasuneko, alarguntzako edo langilearen heriotzagatiko zurtzasuneko gertakizunetarako, baita prestazio definituko konpromisoak ere, 1994ko urriaren 18an egoera pasiboan zeuden langileentzat. Konpromiso hauek zenbait Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek estaltzen dituzte.

Vital Kutxatik datozen langileekin hartutako konpromisoak

Indarrean dagoen lan hitzarmenaren arabera, Vitalek bere Enpresa Batzordearekin 1996ko urriaren 25ean sinatutako akordioak eraldatua gizarte aurreikuspen erregimenari dagozkion alderdietan, 1996ko urriaren 25ean erretiro, erretiro aurreratu eta aurre-erretiro egoeran dauden Taldeko langileei dagozkien seguritate sozialeko prestazioak osatzeko konpromisoa du Taldeak, baita data horretatik aurrera lanean diharduten langileen baliaezintasuneko, alarguntzako edo langilearen heriotzagatiko zurtzasuneko prestazioen balizko onuradunei ere.

Lanean diharduen nahiz ez diharduen bere langileekin hartutako konpromisoak kanporatzeko xedez, Vitalek Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko lau Erakunde (BGAE) eratzea sustatu, langile kolektibo desberdinekin.

35. Oharrean banantzen da konpromiso hauei buruzko informazio gehigarria.

CajaSur Bancotik datozen langileekin hartutako konpromisoak

CajaSur Bancok zenbait enplegatu eta huen eskubidedunei, enplegu aldia amaitu ostean, Gizarte Segurantzako sistema publikoen prestazioak osatzeko konpromisoa du, 2005eko azaroaren 30eko CajaSurreko Enplegatuen Pentsio Planaren Zehaztapen Akordioaren arabera.

Desagertutako CajaSurrek, 2000ko ekitaldian kanporatu egin zituen langile pasiboek eragindako pentsioengatiko konpromisoak, CajaSur Entidad de Seguros y Reaseguros, S.A. erakundearekin aseguru-poliza bat kontratatuz, prestazio definituko sistemari jarraiki. 2011ko ekainaren 30etik plan horren kudeaketa Kutxabank Vida y Pensiones Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.k egiten du.

Enplegu-sistemako kanpoko Pentsio-planari atxikita ez eta lanean ziharduten langileentzat, CajaSur desagertuak poliza bat kontratatu zuen 2000. urtean Caser, Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.U.rekin.

35. Oharrean banakatu da konpromiso hauei buruzko informazio gehigarria.

Ekarpen definituko planak

Taldeak zenbait BGAEtan bideratutako ekarpen definituko zenbait planetara urteko ekarpenak egiteko konpromisoa du hainbat langilerekin. Konpromiso hauen zenbatekoa zenbait kontzeptu ordainduen eta / edo kopuru zehatz baten gaineko portzentajea bezala ezartzen da. Epealdi bakoitzean Taldeko Erakundeek konpromiso hauek estaltzeko egindako ekarpenak, galeren eta irabazien kontu bateratuetako "Langile Gastuak – Ekarpen definituko pentsio planetarako zuzkidurak" atalaren kontura egindako karguaz erregistratzen dira (54. Oharra).

Enplegu osteko beste konpromiso batzuk

Taldeak zenbait konpromiso ditu langileekin, eta enplegu-aldia amitu ondoren kitatuko dira, mota anitzeko gauzatan egindako ordainketetatik eratorriak. Konpromiso hauek barneko fondoen bidez estaltzen dira eta balantze bateratuko Horniketak kapituluko "Hornidurak – Pentsio eta antzeko obligazioetarako fondoak". 35. Oharrean banakatu da konpromiso hauei buruzko informazio gehigarria.

o.2) Epe luzerako bestelako ordainsariak langileen alde

Konpromiso hauek kontabilitate trataera dute, ezargarria den guztian, arestian azaldu diren irizpide berberetz, prestazio definituko konpromisoetarako, galera eta irabazi aktuariaren ondorioz pasiboaren (aktiboaren) balioan aldaketak izan ezik, ekitaldiko galera eta irabazien kontu bateratuan erregistratuko dira.

Jarraian, Taldeak bere gain hartutako konpromiso hauek laburtzen dira, sortu zituen Erakundearen arabera.

Kutxabanketik datozen langileekin hartutako konpromisoak

2012ko urtarrilaren 1ean gauzatu zen langileen ordezkari sindikal garrantzitsuenekin egin zen lan-akordioa. Bertan borondatezko erretiro plan partziala edo aurre-erretiro plan agertzen da, 2011ko abenduaren 31n lanean diharduten pertsona guztientzako, beti ere, akordio horretan jasotako baldintzak betetzen badituzte, eta aurre-erretiroa hartzen dutenean gutxienez, 10 urteko antzinatasuna badute. 2013ko maiatzaren 13an, eta langileen sindikatu-ordezkari nagusiekin eta Taldearen artean egindako akordio berri baten ondoren, aurre-erretiro plan horretara atxikitzeko kolektiboa zabaldu zen eta planari atxikitzen zaizkion langileek aurre-erretiroa hartzen duten datan gutxienez 10 urteko antzinatasuna izateko baldintza mantenduz. Taldeak balantze bateratuko pasiboko "Hornidurak – Pentsio eta antzeko betebeharrarako fondoak" epigrafean erregistratu du akordio honen estimatutako orotarako kostua, hau da, 101.201 mila euroko zenbatekoa (89.247 mila euro 2012ko ekitaldian) (35. Oharra).

BBKtik datozen langileekin hartutako konpromisoak

Taldeak baditu beste zenbait konpromiso, akordioetatik eratorriak, eta epe luzeko beste prestazio batzuk izenpean katalogatu dira. Horren arabera, aipatutako konpromisoak estaltzeko fondoak ditu eratuta (ikus 35. Oharra).

Heriotza eta baliaezintasuna

Taldeak jardunean dauden bitartean langileen heriotza edo baliaezintasuna estaltzeko bere gain hartutako konpromisoen kostua aditu independente batek zenbatu du. Konpromiso hau borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetan kanporatuta dago, eta 2013ko ekitaldiko kostua 5.762 mila eurokoa izan da (8.190 mila euro 2012ko ekitaldian).

Erretiro aurreratutak

Fondo hauek balantze bateratuko "Hornidurak - Pentsioetarako eta antzeko betebeharrarako fondoak" epigrafean agertzen dira, eta 1.304 mila euroko zenbatekoa zuten 2013ko abenduaren 31n (4.412 mila euro 2012ko abenduaren 31n) (35. Oharra).

Epe luzerako beste konpromiso batzuk

Kanporatuta dauden eta aurreko atalean azaldutako pentsioen osagarri gisa hartutako konpromisoak ez ezik, Taldeak bestelako hornidurak ere sortu ditu, sor litezkeen jardunean dauden langileen gizarte arloko konpromisoei aurre egiteko. Fondo hauek balantzeko Horniketak kontuko "Hornidurak - Pentsio eta antzeko betebeharrarako fondoak" epigrafean agertzen dira (35. Oharra), eta 41.217 mila euroko zenbatekoa dute 2013ko abenduaren 31n (41.861 mila euro 2012ko abenduaren 31n).

Kutxatik datozen langileekin hartutako konpromisoak

Heriotza eta baliaezintasuna

Taldeak jardunean dauden bitartean langileen heriotza edo baliaezintasuna estaltzeko bere gain hartutako konpromisoen kostua aditu independente batek zenbatu du. Konpromiso hau borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetan kanporatuta dago, eta 2013ko ekitaldiko kostua 4.681 mila eurokoa izan da (6.306 mila eurokoa 2012ko ekitaldian).

Epe luzerako beste konpromiso batzuk

Langileriaren batez besteko adina jaisteko helburuz, Taldeak baimen mugagabe eta erretiro partzialen plan bat du, 57 urtetik gorako langileentzat. Mugagabeko baimen edo erretiro partzial bakoitza langileak eskatu eta Taldeak onartu egin behar du. Taldeak soldataren portzentajea ordaindu behar dio langileari, lan egin duen orduen arabera, erretiro partzial erregimenean dauden haien kasuan. "Lizentzia ordainduak" erregimena hautatu duten langileen kasuan, Taldeak hitzartutako kopuruak ordaintzeko konpromisoa hartu du bere gain, erretiro edo erretiro partzialaren datara arte, kasuan kasukoa.

Atxikitako balantzeko "Hornidurak - Pentsio eta antzeko betebeharrarako fondoak" epigrafean erregistratu ditu Taldeak, langileekin hartutako konpromisoen gaur egungo balioa, erretiro datara arte, eta 23.161 mila euroko zenbatekoa dute 2013ko abenduaren 31n (43.666 mila eurokoa 2012ko ekitaldian).

Vital Kutxatik datozen langileekin hartutako konpromisoak

Lanean izanda heriotza eta baliaezintasuna arriskuarengatiko konpromisoak

Taldeak jardunean dauden bitartean langileen heriotza edo baliaezintasuna estaltzeko bere gain hartutako konpromisoen kostua aditu independente batek zenbatu du. Konpromiso hau borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetan kanporatuta dago, eta 2013ko ekitaldiko kostua 1.346 mila eurokoa izan da (1.716 mila eurokoa 2012ko ekitaldian).

Epe luzerako beste konpromiso batzuk

Gainera, Taldeak zenbait hornidura du eratuta, lanean diharduten langileei dagozkien epe luzerako ordainketako beste konpromiso sozial batzuk estaltzeko. Fondo hauek balantzeko bateratuko "Hornidurak - Pentsio eta antzeko betebeharrarako fondoak" epigrafean agertzen dira, eta 11.877 mila euroko zenbatekoa dute 2013ko abenduaren 31n (11.707 mila euroka 2012ko abenduaren 31n) (35. Oharra).

CajaSur Bancotik datozen langileekin hartutako konpromisoak

Aurre-erretiroak

2000ko ekitaldian, CajaSurren desagerpenak indarrean zegoen Hitzarmen Kolektiboan ezarrita zegoen adina bete baino lehen erretiratzeko aukera eman zien zenbait langileri.

Taldeak balantze bateratuko pasiboko "Hornidurak - Pentsioetarako eta antzeko betebeharrarako fondoak" epigrafean erregistratu du konpromiso hauen gaur egungo balioa eta 35.328 mila euroko zenbatekoa dute (32.701 mila eurokoa 2012ko abenduaren 31n) (ikus 35. Oharra).

Gainera, Taldeak aurre-erretiratutako pertsonalaren ekarpen definituko planetarako ekarpenen zati bat aseguratuta du, aseguru-poliza bat kontratatuz edo berrituz Caser, Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.rekin. Konpromiso horien zenbatekoa 1.986 mila eurokoa da 2013ko abenduaren 31n (1.838 mila euro 2012ko abenduaren 31n). Polizaren zenbatekoa kalkulatzeko honako hipotesi aktuarialak erabili ziren: PERM/F-2000P biziraupen-taulak, planari lotutako aktiboaren errentagarritasunaren interes-tasa teknikoa eta %2ko soldata-hazkunde tasa, KPIren urteko berrikuspena duen polizan.

Heriotza eta baliaezintasuna

Taldeak jardunean dauden bitartean langileen heriotza edo baliaezintasuna estaltzeko bere gain hartutako konpromisoak Caserrekin kontratatutako aseguru-polizen bidez daude estalita eta galeren eta irabazien kontuan erregistratzen dira, ekitaldi bakoitzean sortutako aseguru-poliza horien zenbatekoaren berdina den zenbatekoz.

Aseguru-poliza horiek 2013ko ekitaldian sortutako zenbatekoa, galeren eta irabazien kontu bateratuko "Langile Gastuak" kapituluaren erregistratuta dagoena, 169 mila eurokoa izan da (800 mila euro 2012ko ekitaldian).

Fidelitate sariak

Taldeak balantze bateratuko pasiboko "Hornidurak - Pentsio eta antzeko betebeharrerarako fondoak" epigrafean erregistratu du konpromiso hauen gaur egungo balioa eta 4.854 mila euroko zenbatekoa dute (4.633 mila euro 2012ko ekitaldian) (ikus 35. Oharra).

Beste konpromiso batzuk

2004ko azaroaren 12an, desagertutako CajaSurreko Administrazio Kontseiluak errelebo-kontratuak gauzatzeari lotutako erretiro partzialaren prozesua aplikatzea onartu zuen. 2005eko urtarrilaren 1an, dagokion lan hitzarmena sinatu zen CajaSur eta langileen ordezkarien artean; hitzarmen honetan, besteak beste, lan jardunaldia %85 murriztuko zela xedatu zen, eta CajaSurrek ordaindu beharreko ordainsaria ere murriztu zen. Hitzarmenak, gutxienez, ordainsari errealeko finkoaren %87 jasotzea bermatzen du. Kopuru honen barruan daude Gizarte Segurantzak aitortzen dion pentsioa, egindako lan jardunaldi partzialari dagokion ordainsaria eta CajaSurren kargurako osagarria. Denak batera ezin izango du gaituraren langilearen soldata errealeko finkoaren %100. Bermatutako soldata gutxienezko eta gehieneko mugei doitzeko, errelebo osagarria handitu edo txikitu egingo da beharrezko portzentajearen. Halaber, Gizarte Segurantzari gertakizun guztiengatik kotizatzen jarraituko da.

2007ko azaroaren 9an, hasierako hitzarmena 2009ko abenduaren 31 arte luzatu zen. Hitzarmen honetan sartzeko aukera zuen langile kopurua 54koa zen, eta azkenik 53 langile sartu ziren.

Arestian azaldutako kontzeptuengatik, horniketara bat dago erregistratuta atxikitako egoera balantze bateratuko "Horniketak – Bestelako horniketak" epigrafean. Horniketa hori 614 mila eurokoa zen 2012ko abenduaren 31n (2.512 mila euro 2012ko abenduaren 31n) (ikus 35. Oharra).

o.3) Jardunari uzteagatiko kalte-ordainak

Indarrean dagoen araudiaren arabera, Taldeak bidezko arrazoirik gabe kaleratutako langileei kalte-ordaina ordaindu behar die derrigorrez. Goi Zuzendaritzako kontratuei dagokienez, adostutako kalte-ordainaren zenbatekoa galera-irabazien kontu bateratuan erregistratutako litzateke kontratua eragindako pertsonarekin deuseztatzea erabakiko litzatekeenean, eta hala jakinaraziko zaio.

Europako Batzordeak onartutako CajaSur berregituratzeko Estatuko Laguntzen Txostenean, konprometitutako laguntzak jasotzeko, berregituratze prozesuari ekitea ezinbesteko baldintzatza xedatzen zen. Prozesu honek ezarritako ahalmenaren murrizketa ekarri behar zuen eta ondorioz, ustiapen kostuen doiketa, enpresa-proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko.

Finantza-jarduerako langilerari buruzko akordioa 2011ko urtarrilaren lehenengo egunetan gauzatu da CajaSur Banco, S.A.U. k eta erakunde horretako ordezkariak sindikalaren %100ak sinatu duenean. Akordioaren helburua Erakunde horren bideragarritasuna lortzeko beharrezko lan doiketari ekitea da eta lehen aipatu den estatu-laguntzen txostena betetzea. Akordio honek finantza-jarduerako langilerari eragiten zion eta langileria hau egokitzeko zenbait neurriren bidez bideratzen zen: deslotze programak, neurri etentzaileak, jardunaldi murrizketak eta mugikortasun geografikoa. Neurri hauei atxiki dakizkiekeen langileen kopuru maximoa 668 langilekoa zen. 2013ko abenduaren 31n 649 pertsona atxiki zaidio (622 2012ko abenduaren 31n).

o.4) CajaSur Banco erakundearen Aldi Baterako Enplegu-erregulazio Espedientea

2013ko abenduaren 27an gauzatu zen CajaSur Banco eta sindikatuen ordezkariaren %100aren arteko akordioa. Akordio horrek Finantza-erakundearen langile-talde osoari eragiten dio eta honako neurri hauek hartzen ditu barne:

Borondatezko neurriak:

Baja sustatuak, kontratuak etetea eta jardunaldiaren %50eko murrizketak, eta neurri hauetara atxiki daitekeen langile kopuru maximoa ezarri zen, hau da, langileria %10. %5 derrigorrezko onarpenekoa zen CajaSur-erako.

Baja sustatuetara atxiki diren langileek, 60 eguneko kalte-ordaina jasoko dute lan egin duten urte bakoitzeko, eta gutxieneko zenbatekoa 12 hilabetekoa izango da eta maximoa 45 hilabetekoa. 24 hilabetekoa baino zenbateko altuagoa duten kalte-ordainen kasuan, beharrezkoa izango da CajaSur-ek onartzea. 16 langile atxiki dira neurri honetara.

Kontratuak eteteari dagokionez, 2 urte iraungo dute, eta langabeziagatiko prestazioen borondatezko hobekuntza jasoko dute, soldata ordainsari gordin finkoaren %30en baliokidea, urtean 12 ordaintetatan banatua. Etenaldia bukatzen denean, langileak CajaSur-era itzultzeko eskubidea izango du, etenaldi horretara atxiki baino lehen zuen lanpostuaren antzeko mailako lanpostu batera. Neurri honetara atxiki den langile kopurua 31koa izan da.

Jardunaldiaren %50eko borondatezko murrizketari dagokionez, bi urteko iraupena du, eta langileek urteko soldata ordainsari gordin finkoaren %50 jasoko dute gehi langabeziagatiko prestazioen aurreko zenbatekoaren %10eko hobekuntza. 4 langile atxiki dira neurri honetara

Neurri unibertsalak:

Jardunaldi kolektiboaren %10eko murrizketa, 1.848 langilerentzat gehien jota, dagokion urteko soldata ordainsari gordin finkoaren %10eko murrizketarekin, 2 urteko epealdian.

299 langileko taldea geratu da aipatutako neurri horretatik kanpo, haien ezaugarriak eta duten lan-jardueraren garrantzia dela-eta ez dute murrizketarik izango haien lan jardunaldian. Langile kolektibo horren soldata %5 eta %7 bitartean murriztuko da bi urtez, langile bakoitzaren soldata ordainsari gordin finkoaren arabera, eta gehikortasun irizpidea ezarri. Era berean, 2016tik aurrera ezarriko den mekanismoa ezarri da, egin diren soldata murrizketak berreskuratzea ahalbidetuko duena, zenbait baldintza betez gero.

Azkenik, Langile talde osorako, pentsio-planera erretiro kontingentziarengatik egiten diren ekarpenak etengo dira 2014, 2015 eta 2016 ekitaldietan. 2018tik aurrera, ekarpen horiek berreskura litezke, beti ere, zenbait baldintza betez gero.

o.5) Ordaintetarako langilerari, kapital-tresnetan oinarrituta

Taldeak ez du mantentzen bere langileekin kapital-tresnen bidezko ordaintetara-sistemarik.

p) Mozkinen gaineko zerga

Erakundeen gaineko Zerga gastutzat jotzen da, eta galera-irabazien kontu bateratuaren "Mozkinen gaineko zerga" epigrafean erregistratzen da, Ondare garbi bateratuan zuzenean erregistratutako transakzio baten ondorioa bada salbu; izan ere, kasu horretan, Ondare garbi bateratuan erregistratzen da zuzenean. Bestalde, negozioen konbinazioa bada, konbinazio horren ondare-elementu gisa erregistratzen da zerga.

"Mozkinen gaineko zerga" epigrafearen gastua ordaindu beharreko zergak zehazten du. Zerga hori ekitaldiko zerga-oinarria kontuan hartuz kalkulatu da, ekitaldi horretan kredituetan kenkariak eta hobariak direla-eta zein zerga-oinarri negatiboengatik egondako denbora-aldaketak aintzat hartu ondoren. Ekitaldiaren zerga-oinarria eta galera-irabazien kontu bateratuan aurkeztutako ekitaldiaren emaitza garbia ezberdinak izan daitezke, beste ekitaldietan zergapetu edo kendu daitezkeen zein hori guztia egiten ez dituzten diru-sarrerak edo gastuen partidak alde batera uzten baititu.

Geroratutako zergengatik aktiboak eta pasiboak dira ordaindu eta berreskura daitezkeen zergak, aktiboen eta pasiboen liburuaren artean zenbatekoetan dauden diferentziagatik finantza-egoera bateratuetan eta dagozkion zerga-oinarri fiskaletan. Egoera-balantze bateratuan zenbatzen dira, eta denbora-aldeari edo dagozkion kredituari berreskuratu edo likidatu nahi den zerga tasa ezarri kuantifikatzen dira.

Geroratutako zergengatik aktibo bat, hala nola, aurreratutako zerga bat, kenkari eta hobariengatik kreditu bat, eta zerga-oinarri negatiboengatik kreditu bat, onartzen da Taldeak etorkizunean irabazi fiskal nahikorik badu gauzatzeko. Taldeak etorkizunean irabazi nahikorik izango duela ziurtat jotzen da, esaterako, ondorengo egoerak ematen direnean:

1. Geroratutako zergengatik aktiboa egiten den ekitaldian bertan kitatu daitezkeen geroratutako zergengatik pasiboak badaude, edo geroko beste ekitaldi batean, dagoen edo aurreratutako zenbatekoak eragindako zerga-oinarri negatiboa orekatu ahal badu.
2. Zerga-oinarri negatiboak berriz gertatu ezin diren arrazoi identifikatuengatik egon badira.

Hala eta guztiz ere, ondare-elementu baten hasierako erregistroan sortzen den geroratutako zergengatik aktiboak ez dira aitortzen, ez bada negozio-konbinazio bat, aintzatesten den unean kontabilitate- zein zerga-emaitzan eragina izan ez badu.

Geroratutako zergengatik pasiboak beti zenbatzen dira, merkataritza-fondo baten hasierako aintzatespen batetik sortuak izan ezik. Geroratutako zergengatik pasibo bat ere ez da onartzen, hasieran negozio-konbinazioa ez den ondare-elementu bat erregistratzen bada, aintzatesten den unean kontabilitate-emaitzan nahiz zerga-emaitzan eragina izan ez badu.

Kontabilitateko itxiera bakoitzean erregistratutako zerga geroratuak berrikusten dira, bai aktiboak zein pasiboak, indarrean mantentzen direla egiaztatzeko. Hauei, zuzenketa egokiak egiten zaizkie.

q) Aktibo materiala

Norberaren erabilerarako aktibo materiala Taldeak etengabe erabiliko duen ibilgetu materialari dagokio, baita ere, finantza-errentamendu baten truke eskuratutako ibilgetu materialari. Eskuratze-kostuaren arabera balioesten da metatutako amortizazioa kenduta, eta kasuaren arabera, elementu bakoitzaren balio garbia dagozkion zenbateko berreskuragarriarekin alderatzean gertatzen den jaitsierengatik edozein galera kenduta. Erakunde Nagusiak modu librean erabiltzeko aktibo materialaren zenbait elementuren eskuratze-kostuak barne hartzen du horiek 2004ko urtarrilaren 1ean duten balorazioa, arrazoizko balioan. Aipatutako 2004ko urtarrilaren 1eko arrazoizko balioa aditu independenteek egindako tasazio oinarrien arabera lortu zen.

Amortizazioak sistematikoki balioesten dira metodo linealaren bidez. Hartarako, elementu ezberdinetan balioetsitako balio-bizitzako urteak ezartzen dira aktiboen eskuratze-kostuan, hondar-balioa kenduta. Eraikinak eta bestelako eraikuntzak kokatuta dauden lursailen kasuan, bizitza mugagabea dutenez, ez dute amortizatorik. Erakunde Nagusiaren aktibo materialaren amortizazioagatik urteko zuzkidurak galera-

irabazien kontu bateratuan zordunduta erregistratzen dira, eta jarraian elementu talde ezberdinetan batez beste balioetsitako balio-bizitzako urteen arabera kalkulatzeko dira:

	Balioetsitako balio-bizitza urteak
Norberaren erabilerarako higiezinak Datuak prozesatzeko ekipamendua Altzariak, instalazioak eta bestelakoak	33 eta 50 artean 4 eta 10 artean 6 eta 10 artean

Kontabilitateko itxiera bakoitzean, Taldeak zera aztertzen du, ea bere aktibo materialaren elementuen balio garbiak dagokion zenbateko berreskuragarria gainditzen duen barneko zein kanpoko zantzurik dagoen. Hori gertatuz gero Taldeak balioa murrizten du dagokion elementuaren berreskura dezakeen kontabilitate-zenbatekoa arte, eta etorkizuneko karguak duten kontabilitate-baliora eta bere gaineratiko balio-bizitzara egokitzen ditu amortizazio gisa horren balioespen berria egin behar bada. Bestalde, elementu baten balioa berreskuratu delako zantzurik dagoenean Taldeak aurreko ekitaldietan zenbatutako okerrera egiteagatiko galeren itzulketa erregistratzen du, eta etorkizuneko karguak egokitzen ditu amortizazio gisa. Elementu baten okerrera egiteagatiko galeraren itzulketak ezin du ekarri inolaz ere liburuetaiko balioaren gehitzea, aurreko ekitaldietan okerrera egiteagatiko galerak aintzatetsiko ez balira izango lukeen balioaren gaineratik. Norberaren erabilerarako aktibo materialen liburuetaiko balio-murrizte hori, hala behar izanez gero, kargu edota abonu bidez egiten da, hurrenez hurren, honako epigrafean: irabazi eta galeren kontu bateratuko "Aktiboen narriaduragatiko galerak (garbia) - Bestelako aktiboak".

Taldeak, gutxienez ekitaldi bakoitzaren amaieran, norberaren erabilerarako aktibo materialaren elementuetan balioetsitako balio-bizitza berrikusten du. Horretarako xedea horietan egon daitezkeen aldaketa adierazgarriak antzematea da, eta egotekotan, bere amortizazioa egokitzen da balioetsitako balio-bizitza berriaren arabera. Hartarako, zuzkiduraren etorkizuneko ekitaldien galera-irabazien kontu bateratuko erregistroa zuzentzen du.

Norberaren erabilerarako aktibo materialak gordetzeko eta mantentzeko gastuak, egiten diren ekitaldiko galera-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira.

Erabiltzeko moduan izateko urte bat baino gehiago behar duten aktibo-materialek, erosketa kostuaren edo produkzio-kostuaren barruan daramatzate jarduteko moduan jarrai aurretik sortutako finantza-gastuak, eta hornitzaileak igorriak izan direnak, edo mailegari dagozkienak edo inoren beste finantza-mota bat zuzenean erosketari, fabrikazioari edo eraiketari egotzi dakiokiena. Finantza-kostuen kapitalizazioa eten egiten da, kasuan kasukoa, aktiboen garapena eteten den epealdietan eta izango aktiboa duen helbururako prestatzeko beharrezko jardura guztiak osatu direnean bukatzen da.

Kutxen Taldea baterakuntza perimetrotik ateratzearen ondorioz (1.3 Oharra), "Aktibo materiala -Gizarte Ekintzari lotua" epigrafeak ez du zenbatekorik jaso 2013ko abenduaren 31n.

Aktibo materialaren higiezinaren inbertsioak dira Taldeak alokatuta mantentzen dituen lursail, eraikin eta bestelako eraikuntzen balio garbiak. Bere helburua da horiek ustiatzea, edo saldu ostean, etorkizuneko dagozkion merkatu-prezioetan gehitzeen ondorioz egon daitezkeen gainbalioa lortzea.

Amortizatuak izan daitezkeen higiezinaren inbertsioen eskuratzeko-kostua aintzatesteko aplikatutako irizpideak, dagozkien bizi erabilgarrien balioespena egiteko eta narriaduragatiko ausazko galerak erregistratzeko, bat datoz norberaren erabilerarako material aktiboetako buruz arestian esandakoarekin.

Aktibo materialaren errentamendu operatiboan lagatutako aktiboak taldeak errentamendu operatiboan laga dituen lurak eta higiezinak ez diren balore garbiei dagozkie.

Errentamenduan laga diren aktiboen erosketa kostua aitortzeko ezarritako irizpideak, amortizaziorako, haien bizitza erabilgarriak balioesteko eta narriaduragatiko balizko galerak erregistratzeko, erabilera propiorako aktibo materialei buruz deskribatutakoekin bat datoz.

2012ko abenduaren 28an, balantzeen eguneratzeari buruzko abenduaren 18ko 11/2012 Foru Dekretu Arauemailea argitaratu zen. Zerga-arau horrek balantzeen eguneratzea egiteko aukera ematen die Erakundeei, zerga ondorioetarako. Erakunde Nagusiak, araudi honi jarraiki, bere aktiboen atal baten zerga-balioaren eguneratze egin du, Erakunde Nagusiko Akziodunen Batzar Nagusiak 2013ko ekainaren 27an, neurri horretara atxikitzea onartu ostean. Horregatik, eta Erakunde Nagusiaren aipaturako araudiaren arabera, "11/2012 Foru dekretu Arauemailearen birbalioetaren erreserba" deritzona eratu du 51.685 mila euroko zenbatekoz, eta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera dago indarrean (ikus 38. Oharra).

Araudi berri horren inplikazioak honetan dautza, eguneratutako aktiboen balio fiskalaren gehikuntzak horien arrazoizko balioa duela maximo gisa eta kengarria izango dela 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren urteko ekitaldietan. Aipaturako eguneratzearen ondorioz, Bankuak 2.720 mila euroko karga bakarria ordaindu du 2013ko uztailaren, hau da, birbalioetako zenbatekoaren %5, higiezinaren balioa aldatu gabe.

Txosten honetako 41. Oharrean, aktiboen aipaturako birbalioetari buruzko informazio gehigarria jaso da.

r) Aktibo ukiezina

Aktibo ukiezinak dira identifika daitezkeen baina itxura fiskoa ez duten aktibo ez-dirua. Aktibo ukiezinak zeintzuk diren jakin daiteke beste aktibo batzuetatik berezitu daitezkeenean, besterendu, alokatu eta banaka erabil daitezkeelako, edo kontratu edo bestelako negozio juridiko mota baten ondorioz sortu daitezkeelako. Aktibo ukiezin bat aintzatesten da, aurreko definizioa asetzeari gain, Taldeak ziurtzat jotzen badu elementu horretatik eratorritako mozkin ekonomikoak egotea, eta bere kostua era fidagarri batean balioetsi bada.

Aktibo ukiezinak hasieran bere kostuarengatik aintzatesten dira. Kostua eskuratzearena edo ekoizpenarena izan daiteke, eta gero beste kostuaren arabera balioesten dira, metaturako amortizazioa eta narriadurarengatik edozein galera kenduta.

Taldeak eskuratutako erakunde baten aktiboetatik (banaka edo bereizita identifikatu eta aintzatesten ezin daitezkeenetatik) eratorritako etorkizunen mozkin ekonomikoaren ordainketa aurreratua islatzen du merkataritza-fondoak, eta negozio-konbinazio batean kostu bidez eskuratu bada baino ez da aintzatesten.

Mendeko Erakunde, Talde anitz eta Bazkietuen kapitalean dauden partaidetzen kostuaren eta eskuratutako eta lehen bateratzea egin deneko eguneko doitutako balio teoriko zein kontabilitate-balioen arteko ezberdintasun positiboak era honetakoak dira:

1. Eskuratutako erakundearen ondare-elementu zehatzei esleitu ahal bazaizkie, aktiboen balioa handituz edo pasiboen balioa murriztuz, bere merkatu-balioak egoera-balantzeetan agertzen diren kontabilitate-balio garbiak baino handiagoak edo txikiagoak badira, hurrenez hurren, eta kontabilitate-tratamendua Taldearen aktibo edo pasiboen antzekoa bada.
2. Aktibo ukiezin zehatzei esleitu ahal bazaizkie, balantze bateratuan aintzatespen esplizitua eginez egozten dira, betiere erosketa egiten den egunean duen arrazoizko balioa era fidagarrian zehaztu ahal bada.
3. Egotzi ezin daitezkeen gainerako diferentziak merkataritza-fondo bat gisa erregistratzen dira, berariazko efektibo sortzaile bat baino gehiagori esleituz.

Merkataritza-fondoak eskuratzeko-kostuan baloratuta mantentzen dira. Kontabilitateko itxiera bakoitzean Taldeak balioesten du ea merkataritza-fondoek okerrera egin duten; izan ere, balio berreskuragarria erregistratutako kostu garbia baino txikiagoa den zenbateko batera jaitzi daitezke. Hala gertatzen bada, onbideratu egiten ditu galera-irabazien kontu bateratuko "Gainontzeko aktiboen narriaduragatiko galera (garbia) – Merkataritza-fondoa eta beste aktibo batzuk" epigrafean kontra-kontuaren bidez. Fondoaren narriadurarengatik galerak ez dira gerora berrikusi.

Merkataritza-fondoak efektiboa sortzen duten unitate bati edo gehiagori esleituta daude, eta negozio-konbinazioetatik eratorritako sinergien onuradunak izatea espero da. Efektiboa sortzen duten unitateak taldearen aldeko efektibo-fluxuak sortzen dituzten aktibo-talde identifikagarri txikiak ordezkatzen dituzte eta, gehien bat, Taldeko beste aktibo batzuek edo beste aktibo talde batzuek sortzen dituzten fluxuetatik independenteak dira. Merkataritza-fondo bat esleitzen zaion unitate bakoitza:

- Erakundeak merkataritza-fondoa barnetik kudeatzen dion mailarik baxuena da.
- Ez da negozio segmentu bat baino handiagoa.

Merkataritza fondoak esleitu zaizkien eta efektiboa sortzen duten unitateak (kontabilitate-balioan esleitu zaien merkataritza-fondoko zatia dute) aztertu egiten dira, narriatu diren zehazteko. Azterketa hau urtean behin egiten da, gutxienez, edo narriadura aztarnak dauden guztietan.

Narriadura azterketa gauzatzeko helburuz, efektiboa sortzen duen unitatearen kontabilitate-balioa bere zenbateko berreskuragarriarekin alderatzen da. Zenbateko berreskuragarria, honela kalkulaten da: balorazio estatikoa eta balorazio dinamikoaren arteko batuketa. Balorazio estatikoak Erakundearen balioa kuantifikatzen du, bere ondarearen egoeraren arabera eta dauden gainbalioen eta minusbalioen arabera, balorazio dinamikoak, ordea, Taldeak 5 urteko proiektzio epealdirako aurreikusitako kutxa-fluxuen proiektzioetatik deskontatutako balioa kuantifikatzen du (2018ko ekitaldira arte) gehi bere hondar-balioaren kalkulua, betiko hazkunde-tasa erabilita. Proiektzio hauek aldagai batzuetan oinarritzen dira, eta oinarri horiek aktiboa eta pasiboaren marjinen murrizketa banku-sektorean dira eta emaitzaren zati bat kaudimen mailak indartzera banatzen.

2013ko abenduaren 31n erregistratutako merkataritza-fondoa efektiboa sortzen duen CajaSur Banco, S.A.U. ren Xehekako eta Erakunde Bankako unitateari esleitu zaio, partikularren eta enpresen negozioa biltzen baititu, eta ez du higiezinaren negozioa barne hartzen. Kutxa-fluxuak deskontatzeko erabilitako deskontu-tasa, efektiboa sortzen duen unitateari esleitutako kapitalaren kostua da, eta %9,5 ingurukoa da, arriskutik libre dagoen tasak gehi ebaluatutako arriskuari datzekion arriskua islatzen prima batek osatzen dute. Horretarako, hazkunde jasangarriaren tasa erabiltzen da, %1,5aren inguruan dabilena, kutxa-fluxuak betiko estrapolatzeko.

Hipotesi hauekin, merkataritza-fondoaren gaineko berreskuragarria den balioaren soberakina 424 milioi eurokoa izango litzateke. Deskontu-tasa oinarritzko 100 puntutan igo edo jaitsi balitz, kontabilitate-balioaren gaineko balio berreskuragarriaren soberakina, 113 milioi eurotan eta 145 milioi eurotan murriztu edo igoko zatekeen, hurrenez hurren. Hazkunde-tasa 100 puntutan igo edo jaitsi balitz, kontabilitate-balioaren gaineko balio berreskuragarriaren soberakina, 99 milioi eurotan eta 77 milioi eurotan murriztu edo igoko zatekeen, hurrenez hurren.

Mendeko Erakunde, Talde anitz eta Bazkide-tuen kapitalean dauden partaidetzen kostuaren eta eskuratutako eta lehen bateratzea egin deneko egunean doitutako balio teoriko zein kontabilitate-balioen arteko ezberdintasun negatiboak era honetara egozten dira:

1. Eskuratutako Erakundearen ondare-elementu zehatzei esleitu ahal bazaie, pasiboen balioa handituz edo aktiboen balioa murriztuz, bere merkatu-balioak egoera-balantzeetan agertzen diren kontabilitate-balio garbiak baino handiagoak edo txikiagoak badira, hurrenez hurren, eta kontabilitate-tratamendua Taldearen pasibo edo aktiboen antzekoa bada.
2. Egotzi ezin daitezken gainerako zenbatekoa galera-irabazien kontu bateratuaren "Alde negatiboa negozio-konbinaketetan" epigrafean erregistratzen dira, kapitala erosten deneko ekitaldian.

Gainerako aktibo ukiezinak balio-bizitza mugagabea izan dezakete, faktore adierazgarri guztietan egindako azterketan ondorioztatu bada ez dagoela aurreikus daitekeen mugarik Taldearen aldeko efektibo garbiak edo balio-bizitza mugatua sortzea espero den aldian. Balio-bizitza mugagabeko aktibo ukiezinak ez dira amortizatzen; hala ere, kontabilitate-itxiera bakoitzean Taldeak gaineratiko balio-bizitzak berrikusten ditu ziurtatzeko mugagabeak izaten jarraitzen dutela. Hala ez bada, beste jarrera bat hartuko du. Bizitza mugatua

duten aktibo ukiezinak bizitza horren arabera amortizatzen dira 3-4 urte arteko epean, eta aktibo materialean erabilitako antzeko irizpideak ezartzen dira.

Nolanahi ere, Taldeak, kontabilitateari dagokionez, okerrera egin duten aktibo hauetan erregistratutako balioan egon daitekeen edozein galera erregistratzen du, galera-irabazien kontu bateratuko kontra-kontuaren bidez. Aktibo horiek okerrera egiteagatiko galerak, eta aurreko ekitaldietan okerrera egiteagatiko galeren berreskuratzea aintzatesteko irizpideak aktibo materialean erabilitakoen antzekoak dira.

s) *Hornidurak eta pasibo gertagarriak*

Horniduratzat jotzen dira Taldearen gaur egungo obligazioak. Obligazio horiek aurreko gertaeren ondorioz sortu dira, eta argi zehazten da bere izaera finantza-egoeretan. Hala ere, ez daude zehaztuta bere zenbatekoari edo deuseztatze uneari dagokionez. Izan ere, horien epea betetzean, eta deuseztatzeko, Taldeak aurreikusten du mozkin ekonomikoak ekartzen dituzten baliabideak utzi beharko dituela. Obligazio horiek ondorengo arrazoiengatik sor daitezke:

1. Legezko edo kontratuzko xedapena.
2. Obligazio inplizitua edo isilbidezko obligazioa, Taldeak hirugarren baten aurrean sortutako baliozko igurikimen batetik sortzen da, erantzukizun mota jakin batzuk hartzeari begira. Igurikimen horiek sortzen dira Taldeak erantzukizunak jendaurrean onartzen dituenean, aurreko portaeretatik edo jabari publikoko enpresa-politikatik eratorzen badira.
3. Arautzearen bilakaera ia ziurra alderdi jakinetan, bereziki, taldeak utzi ezin dituen proiektu arauemailetan.

Pasibo gertagarriak dira Taldearen obligazio posibleak, aurreko gertaeren ondorioz sortutakoak, eta Taldearen borondatek at gertakizun bat edo gehiago egotearen mende daudenak. Pasibo gertagarriak barne hartzen dituzte Taldearen gaur egungo obligazioak, horiek deuseztatzean mozkin ekonomikoak ekartzen dituzten baliabide murrizketa eragiten ez badute, edo zenbatekoa, ohikoak ez diren kasuetan, fidagarritasun nahikorik zenbatu ahal ez bada.

Hornidura eta pasibo gertagarriak ziurtzat jotzen dira gertatzeko aukera ez gertatzekoa baino handiagoa denean. Bestalde, posibletzat jotzen dira, gertatzeko aukera ez gertatzekoa baino txikiagoa denean. Azkenik, urrunekotzat jotzen dira, gertatzeko aukera oso txikia denean.

Taldeak urteko kontu bateratuetan barne hartzen ditu hornidura eta pasibo geldikin adierazgarri guztiak, eta horiek kontuan hartuz, balioesten da obligazioaz arduratzeko aukera handiagoa dela. Posibletzat jotzen diren pasibo gertagarriak ez dira aintzatesten urteko kontu bateratuetan, baizik eta horien inguruko informazioa ematen da, mozkin ekonomikoak ekarriko dituzten baliabideak ateratzeko urruneko aukeratzat hartzen bada salbu.

Hornidurak zenbatzerakoan kontuan hartzen da eragiten dituzten gertaeren ondorioei buruz dagoen informaziorik onena, eta kontabilitate-itxiera bakoitzean balioesten dira. Horiek erabiltzen dira aintzatestsi ziren obligazio zehatzei aurre egiteko, eta itzulketa osoa edo partziala egiten da, obligazio horiek desagertu edo txikiagotzen direnean (ikusi 35. Oharra).

Aurreko irizpideen arabera beharrezkotzat jotzen diren horniketen zuzkidura eta askatzea, galera eta irabazien kontu bateratuko "Horniketetarako zuzkidurak (garbia)" epigrafearen kargura edo abonura erregistratzen dira (57. Oharra).

t) *Aktibo ez-korronteak salgai eta salgai dauden aktibo ez korronteei lotutako pasiboak*

Balantze bateratuko "Aktibo ez korronteak salgai" epigrafeak barne hartzen du banako partiden edo xedapen talde batean sartuta dauden zein besterendu (eragiketa etenak) nahi den negozio-unitate baten zatia osatzen

duten kontabilitate-balioa. Horiek saltzeko aukera handia da, aktiboek gaur egun duten egoera aintzat hartuta, eta urtebeteko epean egingo litzateke urteko kontu bateratuetan agertzen den egunetik zenbatzen hasita. Halaber, salgai dauden aktibo ez korronteak dira, Taldeanitzeko Erakundeetan edo Bazkidetuetan dauden partaidetzak, arestian aipatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Hortaz, finantzarioak eta ez-finantzarioak izan daitezkeen partida hauen kontabilitate-balioa, ziurrenik besterentzean lortzen den prezioaren bidez berreskuratuko da, etengabeko erabileratik lortu beharrean.

Zehazki, zordunek eurekin dituzten ordainketa betebeharrak erabat edo partzialki ordaintzeko erakunde bateratuek jasotako aktibo higiezinak edo ez-korrienteak diren beste batzuk, salgai dauden aktibo ez-korrienteak hartzen dira, salbu eta erakunde bateratuek erabaki izana, aktiboen izaerari eta duten erabilerari begira, norberaren erabilerarako aktibo materializat, higiezinaren inbertsioztat edo izakintzat sailkatzea. Horrela, ordainketa obligazioak erabat edo partzialki betetzeko jasotako zenbait aktibo maila bateratuan era homogeenan erregistratzea erabaki du Taldeak, atxikitako balantze bateratuko "Aktibo ez-korronteak salgai" epigrafearen barruan. Zentzu honetan, 2013ko abenduaren 31n, "Gainontzeko aktiboak – Izakinak" epigrafean erregistratuta zeuden aktiboak birsailkatu ditu Taldeak eta atxikitako balantzeko "Aktibo ez-korronteak salgai" epigrafean sartu ditu. Aktibo hauen zenbateko gordina 23.751 mila eurokoa da eta narriaduragatiko balio zuzenketak 10.949 mila eurokoak dira (28. eta 33. Oharrak).

Aktibo ez-korronteak salgai gisa sailkatutako aktiboak, oro har, honela balioesten dira: ez-korronteak gisa hartzen diren unean duten kontabilitate-balioaren eta aktibo horietan balioetsitako salmenta-kostuen arrazoizko balio garbiaren arteko gutxieneko zenbatekoarekin. Aktibo ez-korronteak salgai gisa sailkatuta mantentzen diren bitartean, aktibo material eta ez-material amortizagarriak ez dira amortizatzen.

Saltzeko hasieran aurreikusitakoa baino epe luzeagoan balantzean irauten duten esleitutako aktiboak, banan-banan aztertuko dira, erosi ostean nabarmendu den narriaduragatiko edozein galera ikusteko. Narriaduraren azterketan, epealdian jasotako eskaini den salmenta prezioaren gainean egindako arrazoizko eskaintzez gain, erosleak aurkitzeko zailtasuna, baita, aktibo materialen kasuan, haien balioa gutxitu lezakeen edozein narriadura fisiko ere.

Kontabilitate-balioa salmenta-kostuen aktibo garbiaren arrazoizko balioa baino handiagoa den kasuan, Taldeak aktiboen kontabilitate-balioa gehiegizko zenbateko horrekin doitzen du, eta "Salgai dauden aktibo ez korronteak irabaziaz/galerak operazio eten bezala sailkatu gabeak" galera-irabazien kontu bateratuko epigrafean kontra-partida du. Geroago, aktiboen arrazoizko balioa gehituz gero, Taldeak itzuli egingo ditu lehen kontabilizatutako galerak, eta aktiboen kontabilitate-balioa handituko du, gehienez aurreko zenbatekora, okerragotzea gertatzen bada ere; galera-irabazien kontu bateratuko "Salgai dauden aktibo ez korronteak irabaziaz/galerak operazio eten bezala sailkatu gabeak" epigrafean izango du kontra-partida.

Salgai dauden aktibo ez-arrunten kontutik datozen emaitzak galera eta irabazien kontu bateratuko "Salgai dauden aktibo ez korronteak irabaziaz/galerak operazio eten bezala sailkatu gabeak" kapituluan aurkezten dira.

Beste alde batetik, "Salgai dauden aktibo ez korronteei lotutako pasiboak" epigrafeak erabilera taldeekin edo Taldearen eragiketa etenekin lotura duten saldo hartzekodunak hartzen ditu barne. 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n ez dago zenbatekorik "Salgai dauden aktibo ez korronteei lotutako pasiboak" epigrafean erregistratuta.

u) Izakinak

Izakinak dira Taldeak negozioaren ohiko jardueran saltzeko dituen aktibo ez-finantzarioak; ekoizteko, eraikitze edo garatzeko prozesuan aurkitzen dira edo zerbitzuak sortzeko edo emateko prozesuan kontsumituko dira. Izakinetan sartzen dira, beraz, Taldeak higiezinak sustatzeko jardueran saltzeko dituen lursailak eta gainerako ondasunak.

Izakinak baloratzeko, kontuan hartuko da kostu-balioaren gutxieneko zenbatekoa eta bere gauzatze-balio garbia. Kostu-balioan sartzen dira erosteko eta aldatzeko sortutako kostu guztiak eta beste kostu zuzenak eta zeharkakoak, egungo baldintza eta kokapena emateko aldatu direnak, baita zuzenean egotzi dakizkiokeen

finantza-kostuak, betiere salduak izateko urte bat baino epe luzeagoa behar dutenean, norberaren erabilerarako higiezin materialaren finantza-kostuen kapitalizaziorako goian aipatutako irizpideak aintzat hartuta. Gauzatze-balio garbitzat ulertzen da izakinak negozioaren ohiko jardueran saltzeko estimatutako prezioa, ken ekoizpena amaitzeko estimatutako kostuak eta salmenta burutzeko beharrezko direnak.

Ohiko moduan truka ezin daitezkeen izakinen kostua eta proiektu espezifikoetarako sortutako eta berezitutako ondasunen eta zerbitzuen kostua zehazteko, bakoitzaren kostuak identifikatu behar dira; gainerako izakinen kostua, berriz, batez besteko kostu haztatuaren metodoa aplikatuta zehaztuko da.

Izakinen balorazioa bidezko edozein doikuntzaren zenbatekoa, esate baterako, kalteak eta salmenta-prezioa zaharkitzea edo murriztea, eta gauzatzearen balio garbia eta beste kontzeptu batzuen bidezko galerak gastu bezala onartzen dira kaltea edo galera sortzen den ekitaldiko galera-irabazien kontuan. Balioaren ondorengo berreskuratzeak sortzen diren ekitaldiko galera-irabazien kontuan sartzen dira. Kontabilitate balio garbitik beherako existentzien balio garbiaren murrizketek zein ondorengo igoerek, honako epigrafeko irabazi eta galeren kontuan jasotzen dira: "Gainontzeko aktiboen narriaduragatiko galerak (garbia) - Beste aktibo batzuk".

"Salmentak eta zerbitzu ez finantzarioak emateagatiko sarrerak – Beste ustiapen produktu batzuk" epigrafean erregistratzen diren salmentengatiko diru-sarreraren aitortza, saldutako ondasunaren jabetzari datxezkion arriskuak eta onurak erosleari eman zaizkion unean ematen da, ondasun horren gaineko ohiko kudeaketa mantendu barik, ezta bere gaineko kontrol efektibo atxikita ere.

Izakinen kontabilitate-balioari baja emango zaio finkatutako balantzean, eta galera-irabazien kontu bateratuan gastu bezala erregistratuko da, salmenta bidezko diru-sarrera onartzen den ekitaldian. Aipatu gastua jarriko da galera-irabazien kontu bateratuko "Ustiapen beste karga batzuk – Izakinen balorazioa" epigrafean.

v) Gizarte Ekintza

Gizarte Ekintzaren fondoa, balantze bateratutako "Gizarte Ekintzako Fondoa" epigrafean erregistratuko da.

Fondo horretarako zuzkidurak Erakunde Nagusiaren hiru Kutxa akziodunen mozkinaren aplikazio moduan kontabilizatzen dira (1.2 eta 1.3 Oharrak).

Gizarte Ekintzan sortzen diren gastuak balantze bateratuan agertuko dira, Gizarte Ekintzaren Fondoa kenduta, eta inola ere ez dira galera-irabazien kontu bateratuan sartuko.

Gizarte Ekintzari lotutako pasibo eta aktibo materialak balantze bateratuaren partida bereizietan agertzen dira.

Kutxen Taldea baterakuntza perimetrotik ateratzearen ondorioz (1.3 Oharra) "Gizarte ekintzako Fondoa" epigrafeak ez du jasotzen zenbatekorik 2013ko abenduaren 31n.

w) Aseguru operazioak

Aseguruen sektorean ohikoak diren kontabilitate-praktiken arabera, aseguru-erakunde bateratuek emaitzen ostean ordaintzen dituzte primen zenbatekoak dagokion aseguru-poliza jaulkitzen den unean eta haien emaitza-kontuetara kargatzen dute ezbeharren kostua ordainketa unean. Kontabilitate-praktika hauek ekitaldi bakoitzaren itxieran aldizkakotzera behartzen dituzte aseguru-etxeak, bai galera-irabazien kontuetara ordaindutako zenbatekoak eta data horretan sortu gabeak, bai galera eta irabazien kontu bateratuetan kargatu gabeko kostu sortuak.

Erakunde bateratuek egindako aldizkakotze esanguratsuenak eurek kontratatutako aseguru zuzeneni dagokienez, honako horniketa teknikoetan jasotzen dira:

- **Kontsumitu gabeko primak:** ekitaldi batean jaulki eta segurtasun erreargua kenduta geroko ekitaldiei egotzi dakiekeen tarifa-prima islatzen du.

- **Indarrean dagoen arriskua:** kontsumitu gabeko primetarako horniketa osatzen du, itxiera datan igaro ez den epealdiari dagozkion estali beharreko arrisku eta gastuen balorazioa islatzeko hau nahikoa ez den zenbatekoan.
- **Prestazioak:** ekitaldia itxi baino lehen gertatutako ezbeharretatik eratorritako egiteke dauden obligazioen balioetsitako balorazioak islatzen dituzte – likidazio edo ordainketa egiteko zain dauden ezbeharrek izan, nahiz deklarazioaren zain daudenak izan-, egindako konturako ordainketak kendu ostean eta ezbeharren likidaziorako barne eta kanpo gastuak aintzat hartuta eta, kasuan kasukoa, bideratze luzea duten ezbeharren tramitazioan desbideratzeak estaltzeko beharrezkoak diren horniketa gehigarriak.
- **Bizitza-asegurua:** urte bateko edo hortik beherako estaldura-epealdia duten bizitza-aseguruetan, kontsumitu gabeko primen horniketak ekitaldian jaulkitako eta etorkizuneko ekitaldiei egotzi dakiekeen tarifa-prima islatzen du. Horniketa hau nahikoa ez den kasuetan, behin behineko beste horniketa osagarri bat kalkulatu da indarrean dauden arriskueterako. Horniketa osagarri horrek arriskuen balorazioa eta ekitaldiko itxiera datan igaro gabeko epealdian aurreikusitako gastuak estaliko ditu.
 - Urte batetik gorako estaldura-epealdia duten bizitza-aseguruetan, horniketa matematikoa arlo honetan diharduten erakunde bateratuen etorkizuneko obligazioen balio aktuarialaren eta aseguru-hartzailearen edo aseguratuaren arteko diferentzia gisa kalkulatu da; ekitaldian sortutako inbentario-prima kalkulu-oinarri hartuta (prima garbia gehi administrazio gastueterako gainkarguak osatua oinarri teknikoaren arabera).
- **Bizitza-asegurua, inbertsioaren arriskua aseguru-hartzaileek hartzen dutenean:** eskubideen balioa zehazteko bereziki lotutako aktiboen arabera zehazten dira.
- **Partaidetza mozkinetan eta estornuetan:** aseguru-hartzaileek, aseguratuak edo aseguru-onuradunek sortutako mozkinen zenbatekoa jasotzen du baita hartzaileei edo aseguratuak itzuli behar zaizkien primena ere, aseguratuak arriskuak jasandako portaeraren arabera, haietariko bakoitzari esleitu arte.

Kontabilitate-asimetrien zuzenketa

Finantzarioki immunizatuta dauden aseguru-operazioetan, haien erreskate-balioa era berezian esleitutako aktiboen baliora erreferentziatzen dutenak, loturadun aktibo-zorro baten mozkinetan partaidetza aurreikusten dutenak, edo hartzaileak inbertsio-arriskua edo antzekoa bere gain hartzen duen aseguru-operazioen kasuan, aseguru-erakundeek simetrikoki aitortu dute, ondarearen bidez edo galera eta irabazien kontu bateratuaren bidez, “Salgai dauden finantza-aktiboak” eta “Arrazoizko balioan dauden eta galdu-irabazietan aldaketak dituzten beste finantza aktibo-batzuk” kategorietan sailkatutako aktiboen arrazoizko balioan jasandako aldaketak.

Aldaketa horien kontra alderdia bizitza-aseguruen horniketa izan da, Aseguru Pribatuen Ordenazio eta Gainbegiratze Araudiak eta ezargarria den gainontzeko araudiak hala eskatzen duenean, edo pasibo kontu batek (saldo positiboa edo negatiboa duenak) bizitza-aseguruen horniketa gisa erregistratu ez den alderdiarengatik.

Onartutako berraseguruari dagozkion horniketa teknikoak aseguru zuzenean ezarritakoen antzeko irizpideen arabera zehazten dira; oro har, konpainia lagatzaileek emandako informazioaren arabera.

Onartutako aseguru zuzenaren eta berraseguruen horniketa teknikoak balantze bateratuko “Aseguru-kontratuengatiko pasiboak” kapituluan erregistratu ohi ziren.

Berrasegurutzailentzako lagapenei dagozkien horniketa teknikoak – sinatutako berraseguru kontratuen arabera kalkulatu direnak eta aseguru zuzenerako erabiltzen diren irizpide berberen aplikazioz – egoera balantze bateratuko “Berraseguruengatiko aktiboak” kapituluan aurkezten ziren.

Inbertsio-fondoei lotutako bizitza-aseguruen gordailu osagaia “Bestelako finantza-pasiboak” gisa sartzen da “Galdu-irabazietan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioan dauden beste finantza-tresnak” zorroan, lotuta dituzten finantza-aktiboak ere arrazoizko balioan baloratzen direnean, galera eta irabazietan aldaketak eginda.

Onuradunaren zordun zehatz baten aldetik ordainketa betebeharra ez den betebeharr berezi bat ez betetzeagatik Taldea onuradun bat konpentsatzera behartuta dagoen fidantza edo berme-kontratueta, esaterako, enkanteetan edo lehiaketetan parte hartzea bermatzeko ematen diren fidantzak, abal teknikoak, gauzatutako abal-promesa atzera bota ezinak eta berme-gutunak zuzenbidez galdagarriak izan bezain laster, Urteko Kontu Bateratu hauek egiteko ondorioetarako aseguru-kontratutzat hartzen dira.

Taldeak goiko paragrafoan adierazi diren bermeak edo abalak ematen dituzenean, balantze bateratuko "Aseguru kontratuengatik pasiboak" kapituluaren erregistratzen du haien arrazoizko balioa gehi haien transakzio kostuak, eta kontrakoa adierazten duenik ezean, jasotako primak gehi eman den abalaren edo bermearen truke jaso beharreko fluxuen gaur egungo balioaren batuketaren berdina da; aldi berean aitortzen da aktibo bat jasoko diren efektibo-fluxuen gaur egungo balioaren truke. Gerora, jaso beharreko prima edo komisioen gaur egungo balioa eguneratu egiten da, eta aldeak galera eta irabazien kontu bateratuko "Hartutako komisioak" kapituluaren erregistratzen dira; hasieran pasiboan jasotako zenbatekoen balioa literalki egozten zaio galera eta irabazien kontu bateratuari linealki (edo, hala badagokio, zehaztu behar den beste irizpide bat ezarritik). NIC 37an xedatutakoaren arabera, abalak erregistratutako pasiboaren zenbatekoa gaitutako lukeen horniketa bat erregistratzea eskatutako balu, finantza-aktiboen narriadura erregistratzeko azaldu diren antzeko irizpideak aplikatuz erregistratuko da horniketa hori eta sailkatutako zenbatekoa berriz sailkatuko da horniketa horren osagai gisa.

x) Negozio-konbinaketak

Negozio-konbinaketak dira, erakunde bi edo unitate ekonomiko bi edo gehiagoren bat-egitea ematen den eragiketei deritze. Bat-egite honen ondorioz erakunde bakarra edo Erakunde talde bakarra sortzen da.

2004ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako negozio-konbinaketetan, eta horien ondorioz Taldeak erakunde baten edo unitate ekonomiko baten kontrola hartu duenean, honela erregistratzen dira kontabilitatean:

- Taldeak negozio-konbinaketaren kostua balioesten du, emandako aktiboen arrazoizko balioa, inkurritutako pasiboena, eta erakunde erosleak jaulkitako kapital-tresnena, halakorik egin badu.
- Erositako erakunde edo negozioaren aktibo, pasibo eta gertakizun-pasiboen arrazoizko balioa da, baita erakunde erosiak erregistratu barik izan ditzakeen aktibo ukiezinena ere, eta balantzera bateratura arrazoizko balioak sartuko dira.
- Erositako erakunde edo negozioaren aktibo, pasibo eta gertakizun-pasiboen arrazoizko balio garbia eta negozio-konbinazioaren balioaren arteko aldea 14.r Oharrean adierazitakoaren arabera erregistratuko da.

Erakunde bateko partaidetzak erosten direnean, erosketa hauetariko baten ondorioz, partaidetzako erakundearen kontrola izan arte ("mailakako erosketak" edo "atalkako" negozio-konbinaketak), honako irizpide hauek ezarriko ditu Taldeak:

- Negozio-konbinaketaren kostua, egin diren transakzio guztien kostuen batuketa da.
- Erositako erakundearen kontrola hartu arte egin diren partaidetza erosketetan, merkataritza-fondo positiboak edo negatiboak, independenteki kalkulatu da transakzio bakoitzerako, Ohar honetan lehen deskribatutako prozedura ezarritik.
- Mailaka egindako erosketen data bakoitzean, erositako erakundearen elementuen arrazoizko balioaren eta partaidetza horren gaineko kontrola hartu den datan duten arrazoizko balioaren arteko aldea, ondare-elementu horien birbalioa atalpean erregistratzen da, eta kontra alderdia du ondare garbi bateratuko "Erreserbak" kapituluaren.

y) Aldaketen egoera Ondare garbian

Urteko kontu bateratu hauetan aurkezten den Ondare garbi bateratuen aldaketen egoerak, ondare garbi bateratuan ekitaldian gertatu diren aldaketen guztirakoa erakusten du. Informazio hau, bere aldetik, bi egoeratan banakatuta aurkezten da: aitortutako sarrera eta gastuen egoera bateratua eta aldaketen guztirako

egoera Ondare garbi bateratuan. Jarraian egoeraren atal bietan datorren informazioaren ezaugarri nagusiak azaltzen dira:

Onartutako sarrera eta gastuen egoera bateratua

Arestian zehaztuenez, NIC 1ean ezarritako aukeren arabera, Taldeak zera erabaki du, bananduta aurkeztuko dituela, alde batetik, emaitza bateratuaren osagaiak erakusten dituen egoera ("Galera eta irabazien kontu bateratua") eta bigarren egoera bat, ekitaldiko emaitza bateratutik abiatuta, ekitaldiko beste emaitza globalaren osagaiak erakutsiko dituen, eta urteko kontu bateratu hauetan "Sarrera eta gastu aitortu bateratuen egoera" izenpean agertzen dena, Espainiako Bankuaren 4/2004 Zirkularreko izena ezarritz.

Ondare garbi bateratuan emandako aldaketa-egoera atal honetan, ekitaldiko jardueraren ondorioz Taldeak eragindako sarrera eta gastuak aurkeztu dira, eta bereizi egiten dira ekitaldiko galera eta irabazien kontu bateratuan emaitza gisa erregistratutakoak eta indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera, zuzenean ondare garbi bateratuan erregistratutako gainontzeko sarrera eta gastuak.

Ondorioz, egoera honetan honakoak aurkeztu dira:

- a) Ekitaldiko emaitza bateratua.
- b) Sarrera eta gastuen zenbateko garbia, aldi baterako, Ondare garbi bateratuan, balorazioagatiko doiketak gisa onartuta.
- c) Sarrera eta gastuen zenbateko garbia, behin betiko onartuta Ondare garbi bateratuan.
- d) Irabazien gaineko zerga, goiko b) eta c) letretan adierazitako kontzeptuengatik sortutakoa, salbu eta enpresa bazkidetuetan edo talde anizdunetako partaidetzetan jatorria duten eta partaidetza metodoaz baloratuak izan diren balorazioagatiko doikuntzetarako, hauek kopuru garbietan aurkeztuko baitira.
- e) Onartutako sarrera eta gastu bateratuen guztirako zenbatekoa, aurreko letren batuketa gisa kalkulaturik, eta bereizita erakutsita erakunde nagusiari egotzitako zenbatekoa eta gutxiengodunen interesei dagokiena.

Partaidetza metodoaz baloratutako erakundeei dagozkien sarrera eta gastuen zenbatekoa, zuzenean Ondare bateratu garbiaren kontra erregistratuak, horrela aurkeztu dira, euren izaera edozein izan da ere "Partaidetza metodoaz baloratutako erakundeak" atalean.

Ondare garbian bateratuan onartutako sarrera eta gastuetan eman diren aldaketak, aldaketengatiko doiketak gisa, honakoetan banantzen dira:

- a) **Balorazioagatiko irabaziak (galerak):** sarren zenbatekoa jasotzen du, ekitaldian sortutako gastu garbiak, zuzenean Ondare garbi bateratuan onartuak. Ekitaldian, atal honetarako onartutako zenbatekoak, bertan mantendu dira, nahiz eta ekitaldi berean galera eta irabazi kontu bateratura lekuz aldatu, beste aktibo edo pasibo batzuen hasierako baliora edo beste atal batera birsailkatu.
- b) **Galera eta irabazien kontura transferitutako zenbatekoak:** aldeztu aurretik Ondare garbi bateratuan onartuak izan diren balorazioagatiko irabazi edo galeren zenbatekoa biltzen du, nahiz eta ekitaldi berean izan; zenbateko hori galera eta irabazi bateratuen kontuan onartzen dena da.
- c) **Estalitako partiden hasierako balioari transferitutako zenbatekoa:** balorazioagatiko irabazi edo galeren zenbatekoa biltzen du, aldeztu aurretik Ondare garbi bateratuan jasotakoak, nahiz eta ekitaldi berean izan; zenbateko horiek, efektibo-fluxuen estalduren ondorioz aktibo edo pasiboaren hasierako balioan onartzen direnak dira.
Interes-tasaren Egitura Arriskuan identifikatzen diren lau faktore nagusiak honako hauek dira: Balio Galtze Arriskua, aktiboen eta pasiboen interes-tasen epemuga edo berrikusketak epeetako aldeagatik; Kurba Arriskua, interes-tasen kurbaren aldaparen eta formaren balizko aldaketagatik; Oinarri Arriskua, epemuga eta balio galtze ezaugarri antzekoak dituzten tresna desberdinen interes-tasetako aldaketen arteko ez-perfektuaren ondorioz, eta; Aukeragarritasuna, eragiketa batzuek era inplizituan edo esplizituan lotuta daramatzatenak, eta bere titularrari, nola edo hala, etorkizuneko fluxuak erostea, saltzea edo aldatzea ahalbidetzen diona.

Erakunde Nagusiaren COAP delakoak etorkizuneko interes-tasen aurreikuspena ezartzen du, baita bezeroen portaera eta aurreikusitako tasetako aldaketen balizko eragina zein eszenariotan neurtu behar den eredutan sailkatzea ahalbidetzen duten hipotesiak ere.

Premisa hauekin, Erakunde Nagusiko Interes eta Likidezia Arriskua sailak hilean behin neurketa egiten du, lehendabiziko hurbilketa bat hartzen duena barne, balio galtze gaparen eta iraupen kalkuluen bidez, baita balioespen osoa, lehen aipatutako arrisku faktore guztiak jasotzen dituena.

Txosten hauen emaitzan oinarrituta, COAPi dagokio baloratzea Interes-tasaren Egitura Arriskuaren maila eta, kasuaren arabera, beharrezko neurri zuzentzaileak hartzea.

Taldeak, interes-tasen finantza-permutak kontratatzen ditu, interes-arriskuaren nahi diren mailak mantentzeko, zenbait aktibo eta pasiboren arrazoizko balioaren aldaketak estaltzeko, besteak beste Taldeak jaulkitako zedulak, finantzaketa tresna gisa, eta Estatuko zor idaztohartuan egindako inbertsioak aipatu daitezke.

Beste arrisku-faktore desberdin bat, aipatutako galerak sortzeko gai dena, Taldearen finantza-marjinan nahiz bere balio ekonomikoan, Kanbio-tasaren Arriskua da, eragiketetan diharduen dibisa desberdinen kanbio-tasen kontrako mugimenduen ondorioz gerta daitekeen balizko galera gisa definitua.

Kanbio-tasaren Arriskuari buruzko politika finkatzea, baita erabakiak hartzea ere, COAP erakundeari dagozkio. Taldeak bezeroen eragiketekin zerikusia duten dibisatan irekita dituen posizioen estaldura sistematikoaren politika egiten du, beraz, kanbio-tasaren arriskuan duen maila minimoa da.

Erantsitako koadroan jasotzen da interes-tasen mende dauden partiden gap estatikoa, haien berrikuskatze daten arabera sailkatuak. Taldearen interes-tasen aldaketan aurrean duen arriskurako lehen hurbilketa bat da, 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n.

	Milioi Euro								
	2013								
	Saldoa balantzean	Hilabete 1 arte	Hilabete 1etik 3 hilabetera	3 hilabetetik urtebete arte	Urtebetetik 2 urtera arte	2 urtetik 3 urtera	3 urtetik 4 urtera	4 urtetik 5 urtera	5 urtetik gora
Aktibo sentikorrek:									
Diruzaintza	2.204	697	91	403	-	1.013	-	-	-
Bezeroei emandako kreditua	45.928	7.052	11.752	23.693	2.135	959	90	128	119
Balore-zorria	6.582	288	244	412	408	4.872	13	6	339
	54.714	8.037	12.087	24.508	2.543	6.844	103	134	458
Pasibo sentikorrek:									
Banku-finantzazioa	3.611	2.687	226	151	46	385	-	38	78
Besteren baliabideak	49.788	5.407	9.326	12.992	4.816	2.049	14.790	4	404
	53.399	8.094	9.552	13.143	4.862	2.434	14.790	42	482
Epealdiko GAPa		(57)	2.535	11.365	(2.319)	4.410	(14.687)	92	(24)
% /Aktiboa guztira		(0,09%)	4,17%	18,70%	(3,82%)	7,26%	(24,17%)	0,15%	(0,04%)
GAP Metatua		(57)	2.478	13.843	11.524	15.934	1.247	1.339	1.315
% /Aktiboa guztira		(0,09%)	4,08%	22,78%	18,96%	26,22%	2,05%	2,20%	2,16%

	Milioi Euro								
	2012								
	Saldoa balantzean	Hilabete 1 arte	Hilabete 1etik 3 hilabetera	3 hilabetetik urtebete arte	Urtebetetik 2 urtera arte	2 urtetik 3 urtera	3 urtetik 4 urtera	4 urtetik 5 urtera	5 urtetik gora
Aktibo sentikorrek:									
Diruzaintza	1.737	1.406	56	42	48	144	20	11	10
Bezeroei emandako kreditua	49.172	7.695	11.833	24.291	435	4.505	101	59	253
Balore-zorria	8.604	533	325	262	384	6.095	360	34	611
	59.513	9.634	12.214	24.595	867	10.744	481	104	874
Pasibo sentikorrek:									
Banku-finantzazioa	6.505	656	429	285	33	5.079	6	3	14
Besteren baliabideak	52.229	4.154	9.762	16.875	4.795	4.117	11.954	80	492
	58.734	4.810	10.191	17.160	4.828	9.196	11.960	83	506
Epealdiko GAPa		4.824	2.023	7.435	(3.961)	1.548	(11.479)	21	368
% /Aktiboa guztira		7,23%	3,03%	11,15%	(5,94%)	2,32%	(17,21%)	0,03%	0,55%
GAP Metatua		4.824	6.847	14.282	10.321	11.869	390	411	779
% /Aktiboa guztira		7,23%	10,26%	21,41%	15,47%	17,79%	0,58%	0,62%	1,17%

Aurreko taulak egiteko diruzaintza gisa hartu dira honako epigrafeak: "Kutxa eta banku zentraletako gordailuak" eta "Kredituen inbertsioak - Gordailuak kreditu-erakundeetan". Bankako finantzabidetzat jo ditugu "Finantza-pasiboak kostu amortizatuan" epigrafeko honako hauek: "Banku zentraletako gordailuak" eta "kreditu-erakundeetako gordailuak". Besteren baliabide gisa hartu dira "Finantza-pasiboak kostu amortizatuan" epigrafeko honako hauek: "Bezeroen gordailuak", "Balore negoziagarrien bidez ordezkaturako gordailuak" eta "Mendeko gordailuak". Azkenik, balore-zorro gisa "Salgai dauden finantza-aktiboak" eta "Partaidetzak" nahiz "Negoziatzeko

zorroa”, “Epemugarako inbertsio zorroa” eta Taldearen balantze bateratuko “Arrazoizko balioan dauden eta galdu irabazietan aldaketak dituzten beste finantza-aktibo batzuk” sartu ditugu.

Mugaegunik gabeko edo mugaegun zehaztugabea duten eragiketak sailkatzeko, ondorengo irizpideak erabili dira:

Aktiboa	
Kutxa eta Espainiako Bankua	2-3 urte bitartean
Gainerako Kreditu-erakundeak	2-3 urte bitartean
Kreditu-txartelak Sektore publiko eta pribatua	Hilabete 1 arte
Errenta Aldakorra	4-5 urte bitartean
Balorazioagatiko doiketak	Hilabete 1 arte
Epemugarik gabeko gainerako kontuak	3 hilabete eta urte 1 arte
Pasiboa	
Kreditu Erakundeak	2-3 urte bitartean
Ageriko aurrezki arrunta Sektore Pribatua	3-4 urte bitartean
Aurrezki ordaindua Sektore Pribatua	Hilabete 1 eta 4 urte bitartean, produktuaren izaeraren arabera
Ageriko aurrezki arrunta Sektore Publikoa	3-4 urte bitartean
Gainerako Sektore Publikoa	2-3 urte bitartean
Beste Hartzekodun batzuk	2-3 urte bitartean

2013ko eta 2012 urteko itxieran Taldearen merkataritza-jardueraren bitartekaritza-marjinaren sentikortasuna, tasen kurbaren 100 puntu eta 50 puntuko tasen kurbaren desplazamendu horizontal baten aurrean, eta urtebetean eta Balantzea mantentzeko testuinguruan, honakoa da:

Sentikortasun azterketa 2013ko abenduaren 31n:

	Mila Euro	
	Interes-marjina	Eragina Ondare garbi bateratuaren balorazioagatiko doiketetan
Euriborraren gaineko aldaketa:		
Oinarrizko 100 punturen igoera	13.302	293.028
Oinarrizko 50 punturen igoera	5.713	145.691
Oinarrizko 50 punturen jaitsiera	(16.025)	(156.726)

Sentikortasun azterketa 2012ko abenduaren 31n:

	Mila Euro	
	Interes-marjina	Eragina Ondare garbi bateratuaren balorazioagatiko doiketetan
Euriborraren gaineko aldaketa:		
Oinarrizko 100 punturen igoera	48.207	289.310
Oinarrizko 50 punturen igoera	22.172	114.215
Oinarrizko 50 punturen jaitsiera	(16.962)	(111.893)

19. Beste arrisku batzuk

19.1. Merkatu arriskuak

Atal honetan, besteak beste, diru, errenta finkoko, errenta aldakorreko, eratorrien eta abarren merkatuen aurkako bilakaeraren ondorioz, berezko zorroak direla-eta galerak izateko aukera azaltzen da.

Arrisku hau Taldeko zorro guztietan dago, baina emaitzen eta Ondare Garbiaren gaineko ondorioa kasu bakoitzean ezar daitekeen kontabilitate-tratamenduaren arabera alda daiteke. Bere kudeaketaren asmoa da azaldutako galera-tasen esposizioa mugatzea, baita ere, bere gain hartutako arrisku mailaren eta esperotako mozkinen arteko harremana optimizatzea, Erakunde Nagusiko organo betearazle gorenek ezarritako arauen oinarrien inguruan.

Aipatutako arau orokorrei dagokienez, merkatuaren arriskuaren kudeaketa Aktibo eta Pasiboen Batzordeari dagokio.

Merkatu-arriskuaren gaineko kontrol-maila altua lortzeak eskatzen du Kapitalaren Akordio Berrietatik eratorritako joera arau-emaleekin zein merkatuak eskuarki onartutako jarduera onenekin bat datozen eragiketa-prozedurak ezartzea. Prozedura hauek barne hartzen dute zenbait alderdi: funtzioen banantzea, informazioaren kontrola, helburuen politika, eragiketari jarritako nozio-mugak, baita segurtasunarekin zerikusia duten alderdiak ere.

Prozedurazko alderdiez gain, merkatu-arriskuaren kontrola arriskuaren neurri homogeenok emateko gai diren tresna kuantitatiboetan oinarritzen da. Erabilitako ereduak value at risk (VaR) kontzeptuan oinarritzen da, eta horren kalkulua egiteko bariantza- eta kobariantza -matrizetik eratorritako metodologia parametrikokoak eta simulazio historikokoak erabiltzen dira. VaR erreferentzia kalkulatzeko, simulazio historikoko ereduak erabiltzen da, baina erakartzeko eredu parametrikorekin ere kalkulatu da VaR. Erabilitako VaR ereduaren asmoa da %99ko konfiantza tartearrekin balioestea zorro batetik edo zorroen multzo batetik erator daitekeen galera maximoa denbora mugatu batean. Trading jarduerak egun batekoak dira.

VaR ereduaren balidazioa edo backtesting egiteko gainezkatzeko-ehunekoaren eta erabilitako konfiantza-tartearen arteko konparazioa egin behar da. Gainezkatzeko bat gertatzen da zorro batek, denbora tarte mugatu batean, denbora horren hasieran balioetsitako VaR baino handiagoa den galera erreala badu. Balidazioa edo backtesting burutzeko erabilitako denbora epealdiak egun 1 eta 10 egun bitartekoak dira.

Azaldutako metodologia stress testingeko ariketekin osatu behar da. Horietan, aurkako testuinguruetan dauden zorroen portaera simulatzen da. Ezartzen diren estres sistematiko egoerak, "Derivatives Policy Group" batzordearen gomendioei doiketen zaizkie, "Framework for Voluntary Oversight" lan-dokumentuan 1995ean egindakoak. Dokumentu honetan, hainbat gomendio sartu dira, arrisku-faktoreka multzokatutako muturreko portaera batzuen aurrean zorroaren balorazioaren portaera zein izango den aurreratzea ahalbidetzen dutenak. Gomendatutako egoera hauetaz gain, stress testing ariketak azterketa helburu diren zorroetarako bereziki kaltegarriak izan diren egoera historikoetan oinarrituta ere egiten dira.

Merkatu arriskua kudeatzeko Taldeak une bakoitzean bereganatutako merkatu-arriskuaren kontrol zehatza egitea ahalbidetzen duten tresnak ditu, merkatuko praktika onenen ildotik.

Taldeak ez du merkatuko arrisku egoera garbirik mantentzen, estrukturaliki, negoziazio eratorriei dagokienez, izan ere, bezeroekiko eratorri posizio guztiak ixten baititu, bai banku kontrako alderdien bidez, bai merkatu antolatuetan alderantzizko norabideko eratorrien bidez. Hala ere, koiuntura-eran, hartzen dira merkatu-arrisku posizio garbi txikiak, negoziazio eratorrietan, eta hauei arrisku-azterketa berezia egiten zaie.

Egunbeteko epean eta %99ko konfiantza mailarekin, 2013an negoziazio-zorroaren batez besteko eguneroko VaR delakoa, eredu parametrikorekin bidez kalkulatu, 115 mila eurokoa zen (57 mila euro 2012ko ekitaldian).

Taldeak errenta aldakorreko egitura-arriskuaren aurreko posizioa epe ertain eta luzerako inbertsio-mugak dituzten industria nahiz finantza enpresetan mantendutako partaidetzetatik dator gehienbat. Merkatu arriskua jasateak (Taldearen eskuetan dauden kapital-tresnen arrazoizko balioa gisa neurtuta) 2013ko abenduaren 31n, 1.651.057 mila eurora heldu da (1.935.766 mila euro 2012ko abenduaren 31n). VaR globala kalkulatzeko Simulazio Historiko eredu erabiltzea erabaki da, Inbertsio-zorroko 10 egunerako batez besteko VaR, %99ko konfiantza garduaz, 220.969 mila eurora heldu da (236.561 mila euro 2012ko ekitaldian). Hala ere, urte arteko alderatze-ondorioetarako, 10 egunerako batez besteko VaR, %99ko konfiantza garduaz, metodo parametrikoz kalkulatu, 238.571 mila eurokoa da (148.222 mila euro 2012ko abenduaren 31n).

19.2. Eragiketa-arriskua

Eragiketa-arriskua definitzen da "galerak izateko aukera gisa. Arrazoiak honakoak izan daitezke: okerreko edo desegokiak diren prozesuak, giza hutsegiteak, sistemetako akatsak, edo kanpoko gertaerak". Barruan daude legezko arriskuak eta kanpoan, berriz, erreputazio nahiz estrategia arriskuak.

Kutxabank Taldeak bereziki garatutako metodologia eta tresna informatikoak ditu arrisku hau kudeatzeko, eta eskusiban eginkizun honetan diharduten langileak, Eragiketa Arriskuaren Atala, baita arrisku hau kudeatzearen arduradun sare zabala erakunde osoan barreiatua. Sistema osoa Eragiketa Arriskua Batzordeak sustatzen eta gainbegiratzen du. Kontrol eta Barne Auditoria Zuzendaritza Nagusi Albokoak du Batzorde horretako presidentzia, eta Erakunde Nagusiko atal gehienak daude ordezkatuta bertan.

Jarduera Arriskua Kudeatzeko sistemak honako prozesu hauek ditu osagai, funtsean:

1. Auto-ebaluatzeko Prozesu Kualitatiboa
2. Galeren erregistro prozesuak eta arrisku adierazleen datu hornikuntza prozesuak
3. Azterketa prozesuak eta arintzeko jardueretarako proposamenak
4. Negozioaren Jarraikotasun planak

2013ko abenduaren 31n Kutxabank Talderako jarduera arriskurako kalkulatuako kapital erregulatzailea 227.526 mila eurokoa da (230.741 mila euro 2012ko abenduaren 31n).

20. Arrisku-kontzentrazioa

Taldeak arrisku-kontzentrazio maila hurbiletik jarraitzen du, egon daitekeen kategoria bakoitzaren arabera: kontrako alderdia, sektorea, produktua, eremu geografikoa, eta abarren arabera.

2013ko abenduaren 31n Taldearen kreditu-arriskuaren %81 inguru partikularren negoziotik dator (%79 2012ko abenduaren 31n), eta horrek bere zorroaren kapilaritate maila altua ziurtatzen du.

Finantza-erakundeekiko arriskuei dagokienez, oso muga zorrotzak dituzte, Arrisku Atalak ezarriak, eta etengabe egiaztatzen du Finantza Arloak ea betetzen diren. Era gehigarrian netting eta alboko hitzarmenak daude kontrako alderdi esanguratsuenekin (16. Oharra), beraz, Erakunde Nagusiaren diruzaintza jardueratik eratorritako kreditu-arriskuak gutxieneko mailetara mugatzen dira.

Espaniako Bankuaren gardentasunari buruzko informazioaren gaineko 5/2011 Zirkularren eskakizunaren arabera, 63. Oharrean eraikuntza arloari eta higiezinaren sustapenari emandako finantzazioei buruzko informazioa zehazten da, baita etxebizitza erosteko emandakoei buruz ere. Zorrak ordaintzeko erositako aktiboak ere zehazten dira, baita finantzaketa beharizanak eta estrategiak ere.

21. Kutxa eta gordailuak banku zentraletan

Egoera-balantze bateratuen epigrafe honetako banantzea 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n, ondorengoa da:

	Mila Euro	
	2013	2012
Kutxa	245.926	261.920
Gordailuak Espainiako Bankuan	285.848	185.748
Gordailuak beste banku zentral batzuetan	581	579
Balorazioagatiko doiketak	47	259
	532.402	448.506

Espainiako Bankuan kontu korrontean mantendutako saldoa erreserba minimoen koefizientea betetzeari lotuta dago, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.

Espainiako Bankuan dituen Gordailuen batez besteko urteko interes-tasa 2013ko ekitaldian, %0,56ra igo da (%0,86 2012ko ekitaldian).

22. Aktiboa eta Pasiboa negoziazio zorroa

Egoera-balantze bateratuen epigrafe hauen banantzea 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n, ondokoa da:

	Mila Euro			
	Aktiboa		Pasiboa	
	2013	2012	2013	2012
Zorra adierazten duten baloreak	-	226.471	-	-
Beste kapital-tresna batzuk	-	8.986	-	-
Negoiazio eratorriak	128.192	188.249	121.747	184.401
	128.192	423.706	121.747	184.401

Aktibo eta pasiboen negoziazio-zorroaren elementuen arrazoizko balorean egondako aldaketek 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n bukatutako urteko ekitaldien galera-irabazi bateratuen kontuetan izandako eragina, ondorengoa da (50. Oharra):

	Mila Euro	
	2013	2012
Zorra ordezkatzan duten baloreak	10.590	(4.266)
Beste kapital-tresna batzuk	(700)	(410)
Negoiazio eratorriak	(7.417)	7.598
Mozkina/(galera) garbia	2.473	2.922
Balore hauen arrazoizko balioa kotizazioan oinarrituta	9.890	(4.676)
Balore hauen arrazoizko balioa balorazio-tekniketan oinarrituta ateratzen da	(7.417)	7.598
Mozkina/(galera) garbia	2.473	2.922

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n egoera-balantze bateratuetako aktiboak eta pasiboak negoziatzeko Zorroaren epigrafeetako banantzea, diru-mota eta epemugen arabera, ondorengoa da:

	Mila Euro			
	Aktiboa		Pasiboa	
	2013	2012	2013	2012
Diru-motaren arabera:				
Euroak	127.818	423.293	121.387	183.990
AEBetako dolarrak	374	413	360	411
	128.192	423.706	121.747	184.401
Mugaegunaren arabera:				
Hilabete 1 arte	3.268	5.650	1.866	5.520
Hilabete 1 eta 3 hilabete artean	2.316	6.347	802	5.948
3 hilabetetik urtebetera	12.128	10.940	10.778	7.790
Urtebetetik 5 urtera	36.983	200.529	40.001	60.308
5 urtetik gorakoak	73.497	191.254	68.300	104.835
Zehaztugabea	-	8.986	-	-
	128.192	423.706	121.747	184.401

a) **Kreditu-arriskua**

Arriskua aurkitu den sektore geografikoaren arabera kontzentrazioak, kontra-kontu eta tresna moten arabera, 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n duten kontabilitate-balioa aintzat hartuz, ondorengoak izan dira:

	2013		2012	
	Mila Euro	%	Mila Euro	%
Sektore geografikoaren arabera:				
Estatua	123.407	96,27	418.656	98,81
Europar Batasuneko gainerako herrialdeak	4.785	3,73	5.050	1,19
	128.192	100,00	423.706	100,00
Kontra alderdi moten arabera:				
Estatua	-	-	121.386	28,65
Kreditu-erakundeak	34.090	26,59	170.777	40,31
Bestelako sektore egoiliarak	94.096	73,41	131.532	31,04
Bestelako sektore ez-egoiliarak	6	-	11	-
	128.192	100,00	423.706	100,00
Tresna moten arabera:				
Obligazio eta bonu kotizatuak	-	-	226.471	53,45
Beste kapital-tresna batzuk	-	-	8.986	2,12
Merkatu antolatuetan negoziatu gabeko eratorriak	128.192	100,00	188.249	44,43
	128.192	100,00	423.706	100,00

Aktiboaren Negoziatio Zorroaren banantzea kanpoko kalifikazio-agentziek esleitutako kalifikazioen arabera, ondorengoak da:

	2013		2012	
	Mila Euro	%	Mila Euro	%
AA- gisa sailkatutako arriskuak	-	-	5.117	1,21
A+ gisa sailkatutako arriskuak	-	-	5.174	1,22
A gisa sailkatutako arriskuak	373	0,29	686	0,16
A- gisa sailkatutako arriskuak	4.654	3,63	6.292	1,48
BBB+ gisa sailkatutako arriskuak	-	-	903	0,21
BBB gisa sailkatutako arriskuak	12.638	9,86	8.242	1,95
BBB- gisa sailkatutako arriskuak	16.189	12,63	219.708	51,86
BBB- baino baxuagoak diren arriskuak	7.792	6,08	6.490	1,53
Esleitu gabeko zenbatekoak	86.546	67,51	171.094	40,38
	128.192	100,00	423.706	100,00

b) Zorra ordezkutzen duten baloreak

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n bateratutako egoera-balantzeen aktiboaren "Zorra adierazten duten balioak" epigrafearen saldoaren banantzea ondorengoa da:

	Mila Euro	
	2013	2012
Espainiako erakundeek igorritako obligazio eta bonuak		
Estatuko bonoak	-	90.652
Kreditu-erakundetako bonoak	-	135.819
	-	226.471

Taldeak ez zituen pignoratuta zorro honetan sailkatutako errenta finkoko balioak 2013ko abenduaren 31n (65.978 mila euro 2012ko abenduaren 31n), Europako Banku Zentralaren finantzaketa eskuratzeko helburuz (43. Oharra).

c) Negoziazio eratorriak

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n bateratutako egoera-balantzeen aktibo eta pasiboaren "Negoziazio Eratorriak" epigrafearen saldoaren banantzea ondorengoa da:

	2013				2012			
	Aktiboa		Pasiboa		Aktiboa		Pasiboa	
	Arrazoizko balioa	Nozionala	Arrazoizko balioa	Nozionala	Arrazoizko balioa	Nozionala	Arrazoizko balioa	Nozionala
Epemugarik gabeko dibisen salerosketa:								
Dibisak erostea Euroen Truke	959	42.381	2.231	165.692	2.317	48.264	2.457	180.118
Dibisak saltzea Euroen Truke	4.348	277.556	91	25.748	5.597	280.310	1.706	61.548
Balore eta interes-tasen gaineko etorkizunak:								
Erositakoak	-	-	-	-	-	-	-	-
Saldutakoak	-	-	-	843	463	39.500	2.182	224.575
Baloreen gaineko aukerak:								
Erositakoak	3.540	146.812	-	-	4.514	339.564	-	-
Jaulkitakoak	-	-	3.859	2.900.659	-	-	7.643	3.933.134
Interes-tasen gaineko aukerak:								
Erositakoak	1.198	438.377	-	-	1.190	402.390	-	-
Jaulkitakoak	-	-	1.215	437.907	-	-	1.430	403.287
Dibisen gaineko aukerak:								
Erositakoak	368	12.411	-	-	515	8.863	-	-
Jaulkitakoak	-	-	356	11.831	-	-	515	8.863
Beste eragiketa batzuk:								
Baloreen gaineko finantza-trukeak	34.005	1.220.904	32.206	1.279.562	40.580	1.488.030	41.829	1.399.334
Interes-tasen gaineko finantza-trukeak (IRS' s)	75.557	1.146.532	76.612	755.613	129.765	2.689.729	123.276	2.505.846
Kanbio-tasen gaineko finantza-trukeak (CCS)	922	50.700	912	50.643	2.640	69.269	2.625	111.301
Beste arrisku batzuen gaineko eragiketak	7.295	3.136	4.265	17.980	668	98.104	738	112.796
	128.192	3.338.809	121.747	5.646.478	188.249	5.464.023	184.401	8.940.802

Taldeak zenbait inbertsio-fondori eta pentsio-fondori emandako bermeak baloreen gainean jaulkitako aukera gisa erregistratzen dira. Eragiketa horien balio nominala 2.736.515 mila eurokoa da eta bere arrazoizko balioa 1.151 mila eurokoa 2013ko abenduaren 31n (3.436.145 mila euro eta 2.073 mila euro 2012ko abenduaren 31n).

IFRS 13ren aintzatespenaren eragina negoziazio eratorrien balorazioan, Taldearen galera eta irabazien kontuan 7.126 mila euroko zenbateko galera eta 3.233 mila euroko irabazia erregistratzea ekarri du 2013ko abenduaren 31n.

Negoiaziotiko Eratorrien kontratuen zenbateko nozionalak eta/edo kontratu bidezko zenbatekoak ez dute Taldeak bere gain hartutako arriskua kuantifikatzen; izan ere, bere posizio garbia tresna horiek orekatuz eta/edo konbinatuz lortzen da.

Bezeroei saldutako eta erositako negozioazio eratorrien balioen arteko aldeak, eta kontrako alderdiei saldutako eta erositako artekoak, Talderako marjina dagoenean, ez dira adierazgarriak.

Taldeak 2013ko abenduaren 31n merkaturatutako egitura-gordailuen eratorri inplizituen merkatu-balioa 10.550 eta 24.221 mila eurokoa zen, eta hurrenez hurren honako epigrafeetan daude jasota, izaeraren arabera data horretako egoera-balantzearen aktiboko eta pasiboko "Negoziazio-zorroa – Negoziazioagatiko eratorriak" (30.836 eta 21.975 mila euro, hurrenez hurren, 2012ko abenduaren 31n).

23. Arrazoizko balioan dauden eta galdu-irabazietan aldaketak dituzten bestelako finantza-pasiboak

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n kategoria honetan sartutako finantza-aktiboen banantzea dator jarraian, arriskuak dituzten eremu geografikoa, kontra alderdi eta tresna-motaren arabera sailkatuak:

	Mila Euro	
	2013	2012
Zorra adierazten duten baloreak:		
Kontra alderdi moten arabera:		
Kreditu erakundeek jaulkiak-		
Ez egoiliarak	36.527	100.000
	36.527	100.000
Eremu geografikoaren arabera:		
Europar Batasuneko gainontzeko herriak	36.527	100.000
	36.527	100.000
Tresna-moten arabera:		
Beste finantza-tresna batzuk	36.527	100.000
	36.527	100.000
Beste kapital-tresna batzuk:		
Partaidetzak inbertsio-fondoetan	8.245	-
	8.245	-
	44.772	100.000

Epigrafe honek bizi-aseguruei lotutako inbertsioak jasotzen ditu, inbertsio-arriskua hartzaileak hartzen duenean bere gain, Unit Linked izenekoak, 2013ko abenduaren 31n. Eragiketak hauek Kutxabank taldeko erakunde aseguratzaileetatik dator.

Epigrafe honek inbertsioa jasotzen du, epemuga 2017an duen nazioarteko banku otzara batera erreferentziatutako ohar egituratu batean. Aktibo mota honetarako erreferentzia merkatu ez dagoenez, Taldeak tresnaren balorazioa egin du, eskura dagoen informazioa aintzat hartuta eta bere eremuan zenbait iritzi sartuz. Kreditu-arriskuari, likidezia arriskuari eta otzaran sartutako erreferentzia desberdinei buruz.

2013ko ekitaldiko lehenengo seihilekoan, nazioarteko banku batzuen otzarara erreferentziatutako ohar egituratuaren salmenta egin da. Salmenta honetatik ateratako emaitza 41.540 mila eurora iritsi da, eta galera eta irabazien kontu bateratuko "Finantza-eragiketen emaitzak" epigrafean erregistratu dira (50. Oharra).

Zorro honetan sailkatutako zor-tresnek interesak sortu dituzte 2013ko ekitaldian, 6.940 mila euroko zenbatekoan (ez zuten interesik sortu 2012ko ekitaldian).

Goiko taulan erregistratutako liburuetakako balioak Taldearen kreditu arrisku maila gorena adierazten du, bertan sartzen diren finantza-tresnekiko.

Kategoria honetan sartzen diren finantza-aktibo guztien arrazoizko balioa baloraziorako barneko metodoen arabera zehazten da. Era berean, kategoria honetan sartzen diren kapital-tresna guztien arrazoizko balioa, kotizazioaren arabera zehazten da.

Taldeak ez zituen pignoratuta 2013ko abenduaren 31n, ezta 2012ko abenduaren 31n ere, zorro honetan sailkatutako errenta finkoko baloreak, Europako Banku Zentralaren finantzaketa eskuratzeko helburuz.

Taldeak ez du erregistratu, hasieran, finantza-pasiborik arrazoizko balioan aldaketaduna galera eta irabazietan.

24. Salgai dauden finantza-aktiboak

Balantze bateratuan epigrafe honetako banakatzea ondorengoa da 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n:

	Mila Euro	
	2013	2012
Zorra adierazten duten baloreak:		
Espainiako Zor Publikoa		
Altxorraren Letrak	202.869	11.058
Kontuan idatzitako bestelako zorrak	2.026.267	3.281.554
Atzerriko Zor Publikoa-		
Kontuan idatzitako bestelako zorrak	36.523	37.528
	2.265.659	3.330.140
Kreditu erakundeek jaulkitakoak		
Egoiliarrak	207.799	188.469
Ez egoiliarrak	270.930	87.797
Errenta finkoko bestelako baloreak		
Beste egoiliar batzuek jaulkitakoak	659.836	918.645
Beste ez egoiliar batzuek jaulkitakoak	92.199	324.663
	1.230.764	1.519.574
Balorazioagatiko doiketak-		
Narriaduragatiko balio zuzenketak	(2.504)	(33.946)
Balorazioagatiko beste doiketa batzuk	-	22.570
	3.493.919	4.838.338
Bestelako kapital-tresnak:		
Partaidetzak Espainiako erakundeetan	2.454.187	2.854.708
Partaidetzak atzerriko erakundeetan	22.782	77.039
Partaidetzak Inbertsio-fondoetan (*)	18.446	41.523
	2.495.415	2.973.270
Aktiboen narriaduragatiko balio zuzenketak	(87.631)	(137.755)
	2.407.784	2.835.515
	5.901.703	7.673.853

(*) 2013ko abenduaren 31n, 14.199 mila euro Taldeak kudeatutako inbertsio-fondoei dagozkie (26.683 mila euro 2012ko abenduaren 31n).

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n bateratutako egoera balantzeko "Salgai dauden finantza-aktiboak" epigrafearen diru-mota, mugaeguna eta kotizaziorako onartu ala ez-onartzearen arabera banantzea ondorengoa da:

	Mila Euro	
	2013	2012
Monetaren arabera:		
Euroak	5.901.355	7.673.343
AEB Dolarrak	348	510
	5.901.703	7.673.853
Mugaegunaren arabera:		
3 hilabete arte	87.365	112.053
3 hilabete eta urte 1 arte	558.877	545.404
Urte 1 eta 5 urte arte	1.992.422	2.404.168
5 urtetik gora	857.977	1.788.089
Zehaztugabeko epemuga	2.495.197	2.973.270
Balorazioagatik doiketak	(90.135)	(149.131)
	5.901.703	7.673.853
Kotizaziorako onartu ala ez-onartzeagatik:		
Kotizatua-		
Zorra ordezkatzan duten baloreak	3.402.719	4.703.549
Beste kapital-tresna batzuk	1.697.335	1.947.473
	5.100.054	6.651.022
Ez kotizatua-		
Zorra adierazten duten baloreak	91.200	134.789
Beste kapital-tresna batzuk	710.449	888.042
	801.649	1.022.831
	5.901.703	7.673.853

2013ko abenduaren 31ko "Beste kapital-tresna batzuk" epigrafean 349.807 mila euro jasotzen dira (217.738 mila euro 2012ko abenduaren 31n) bere arrazoizko balioa era fidagarrian kalkulatu ezin izan diren partaidetzetan; izan ere, merkatu aktiboan negoziatzen ez diren baloreak dira, eta ez dago berriki egindako transakzioen historiarik. Partaidetza horiek hartutako eskuratze kostu zuzenduan mantentzen dira, kasuan-kasuan, izan dituzten nariaduragatik galerak direla-eta.

2013ko abenduaren 31n, "Salgai dauden finantza-aktiboak" epigrafean barne hartutako elementuen arrazoizko balioan egon diren aldaketek eragindako Ondare garbi bateratuaren "Balorazioagatik doiketak" epigrafearen saldoa banantzen da 39. Oharrea.

IFRS 13ren aintzatespenaren eragina zorro honetan sailkatutako finantza-tresnen balorazioan Ondare Garbi bateratuko "Balorazioagatik doiketak" epigrafearen 1.094 mila euroko igoera ekarri du, 2013ko abenduaren 31n.

2013ko abenduaren 31n bukatu den ekitaldian, salmenten eta nariaduren ondorioz, Ondare garbi bateratuko "Balorazioagatik doiketak" epigrafetik bajaran eman den zenbatekoa, galera eta irabazien kontu bateratuan mozkin gisa aitortuz, 50.035 mila eurokoa izan da (62.325 mila euroko galera 2012ko ekitaldian), bere ondorio fiskala aintzat hartu baino lehen (39. Oharra).

2013ko ekitaldian, Taldeak epemuga arteko inbertsioen zorrora birsailkatu ditu, lehen epigrafe horretan sailkatuta zeuden zorra ordezkatzan duten baloreak, aktibo horiek muga eguneratu arte zorroan mantentzeko dagoen

konpromisoarengatik, eta indarrean dagoen kontabilitate araudian atxikitako balantze bateratuko zorro honetan sailkatuak izan daitezzen ezarritako baldintza guztiak betetzeko.

Zorra ordezkatzeko duten baloreak birsailkatuen arrazoizko balioa 43.947 mila eurokoa da birsailkatze datan (ikusi 26. Oharra), eta Estatuko Administrazio Publikoek jaulkitako zorrarekin bat datoz. Birsailkatze datan ondare garbian erregistratutako balorazioagatiko doiketa positiboaren zenbateko garbia 6.485 mila eurokoa da. 2013ko abenduaren 31n, birsailkatutako tituluen balorazioagatiko doiketa positiboak 6.477 mila eurora iristen dira, atxikitako balantze bateratuko "Balorazioagatiko doiketan sailkatuak – Salgai dauden finantza-aktiboak" atalean sailkatuta.

2013ko ekitaldian, Taldeak zorro honetako inbertsioak saldu ditu eta galera eta irabazien kontu bateratuan erregistratu diren salmentagatiko irabaziak sortu dituzte, 64.224 mila euroko zenbatekoan (7.950 mila euro 2012ko ekitaldian) (50. Oharra).

Zorra ordezkatzeko duten baloreen 2013ko ekitaldiko urteko batez besteko interes-tasa %3,77ra igo da (%4,90 2012ko ekitaldian).

Taldeak pignoratuta zituen zorro honetan sailkatutako baloreak 2013ko abenduaren 31n, 1.305.496 mila euroko zenbateko nominalean (1.577.208 mila euro 2012ko abenduaren 31n), Banku Zentral Europarrean finantzaketa eskuratu ahal izateko helburuz (43. Oharra).

"Salgai dauden aktiboaren" arrazoizko balioa 42. Oharrean sartu da.

a) Kreditu-arriskua

Sektore geografikoaren arabera arriskuaren kontzentrazioak, "Salgai dauden finantza-aktiboak- Zorra adierazten duten baloreak" epigrafearen zorroaren barruan ondorengoak izan dira:

	2013		2012	
	Mila Euro	%	Mila Euro	%
Estatua	3.094.266	88,56	4.407.026	91,09
Europar batasuneko gainontzeko herriak	281.581	8,06	353.888	7,31
Europar Batasunetik kanpoko herriak	40.562	1,16	3.622	0,07
Munduko gainontzekoak	77.510	2,22	73.802	1,53
	3.493.919	100,00	4.838.338	100,00

Kanpoko agentziek esleitutako kreditu-kalifikazioen arabera banantzea ondorengo da, 2013ko eta 2012ko ekitaldiaren itxieran:

	2013		2012	
	Mila Euro	%	Mila Euro	%
AAA gisa sailkatutako arriskuak	28.010	0,80	35.029	0,72
AA+ gisa sailkatutako arriskuak	14.096	0,40	12.175	0,25
AA gisa sailkatutako arriskuak	2.919	0,08	19.006	0,39
AA- gisa sailkatutako arriskuak	174.433	4,99	757.960	15,67
A+ gisa sailkatutako arriskuak	14.689	0,42	25.562	0,53
A gisa sailkatutako arriskuak	132.729	3,80	32.155	0,66
A- gisa sailkatutako arriskuak	67.991	1,95	55.166	1,14
BBB+ gisa sailkatutako arriskuak	159.734	4,57	167.000	3,45
BBB gisa sailkatutako arriskuak	528.272	15,12	181.937	3,76
BBB- gisa sailkatutako arriskuak	2.187.608	62,62	3.167.053	65,47
BBB- azpitik sailkatutako arriskuak	66.694	1,91	65.376	1,35
Esleitu gabeko zenbatekoak	116.744	3,34	319.919	6,61
	3.493.919	100,00	4.838.338	100,00

b) Narriaduragatiko galerak

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n bukatutako urteko ekitaldien galeren eta irabazien kontu bateratuko "Narriaduragatiko galerak (garbia) – Galera-irabazien kontu bateraturako salgai dauden finantza-aktiboak" epigrafean, salgai dauden finantza-aktiboei dagozkien saldoaren banantzea erakusten da jarraian (Ikusi 58. Oharra):

	Mila Euro	
	2013	2012
Zorra adierazten duten baloreak	2.504	33.802
Bestelako kapital-tresnak	28.194	46.188
	30.698	79.990
Emaizten konturako zuzkidurak		
Kolektiboki zehaztutakoak	-	(378)
Banaka zehaztutakoak	30.698	80.368
	30.698	79.990

“Salgai dauden finantza-aktiboak” epigrafeko “Aktiboen narriaduragatiko balio zuzenketak” saldoaren 2013ko eta 2012ko ekitaldiko mugimendua, honakoa da:

	Mila Euro	
	2013	2012
Ekitaldiaren hasierako saldoa	171.701	-
Aktiboen eta pasiboen banatzea (1.2 Oharra)	-	121.188
Zuzkidura/(berreskuratze) garbiak kargua / (abonua) emaitzetan (58. Oharra)	30.698	79.990
Traspasoa (25. Oharra)	-	(8.865)
Erretiroak	(114.636)	(20.612)
Bestelako mugimenduak	2.372	-
	90.135	171.701

2013ko ekitaldian salgai dauden finantza-aktiboen narriadurak gertatu dira 30.698 mila euroko zenbatekoz (79.990 mila euro 2012ko ekitaldian) (58. Oharra), eta balorazioagatiko doiketen birsailkapena ekarri dute “Finantza-aktiboen narriaduragatiko galerak (garbia) – Galdu-irabazietan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioan baloratu ez diren beste finantza-tresnak” epigrafean, 14.102 mila euroko zenbatekoan (69.631 mila euro 2012ko abenduaren 31n).

25. Kredituen inbertsioak

Balantze bateratuen epigrafe honetako banantzea ondorengoa da 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n:

	Mila Euro	
	2013	2012
Gordailuak kreditu-erakundeetan	1.671.885	1.288.487
Bezeroei emandako kreditua	45.927.758	49.171.831
	47.599.643	50.460.318

2013ko abenduaren 31n 4.977.672 mila euroko zenbatekoa zuten zor-tresnak zituen pignoratuta Taldeak (4.042.156 mila euro 2012ko abenduaren 31n) (43. Oharra).

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n egoera balantze bateratuetako “Kredituen inbertsioak” epigrafearen diru eta epemugen araberako banantzea ondorengoa da:

	Mila Euro	
	2013	2012
Diru-motaren arabera:		
Euroak	47.337.744	50.256.138
AEBetako dolarrak	115.085	64.732
Libra esterlinak	7.110	8.705
Japoniako yenak	73.885	84.741
Franko suitzarrak	24.895	26.609
Peso mexikarrak	40.285	17.967
Bestelakoak	639	1.426
	47.599.643	50.460.318
Mugaegunaren arabera:		
3 hilabetera arte	2.165.741	3.662.282
3 hilabetetik urtebetera arte	3.610.503	3.830.081
Urtebetetik 5 urtera arte	11.473.185	11.749.572
5 urtetik gorakoak	30.053.615	31.563.935
Zehaztu eta sailkatu gabeko mugaeguna	3.321.982	3.107.722
Balorazioagatiko doiketak	(3.025.383)	(3.453.274)
	47.599.643	50.460.318

Goiko taulako balorazioagatiko doiketa epigrafearen barne hartzen dira, aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketak, sortutako interesak, sortzeko dauden interesak eta mikro-estaldurako eragiketengatiko doiketak.

“Kreditu-inbertsioen” arrazoizko balioa 42. Oharreen sartu da.

a) Gordailuak kreditu-erakundetan

Balantze bateratuko epigrafe honen xehetasunak, tresnaren izaeraren arabera, honako hau da:

	Mila Euro	
	2013	2012
Elkarrekiko kontuak	5.917	36.027
Eperako kontuak	191.374	484.189
Aktiboen aldi baterako erosketak	855.405	258.946
Bestelako kontuak	618.244	508.859
Zalantzaszko aktiboak	1	-
Balorazioagatiko doiketak		
Balio zuzenketak aktiboen narriaduragatik	(1)	(1)
Gainontzekoa	945	467
	944	466
	1.671.885	1.288.487

Kreditu-erakundeetako Gordailuen urteko interes-tasa 2013ko ekitaldian %0,01 eta %0,50aren artean ibili da (%0,01 eta %1,00 2012ko ekitaldian).

b) Bezeroei emandako kreditua

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n "Kredituen inbertsioak" epigrafearen "Bezeroei emandako kreditua" saldoaren banantzea ondorengoa da, irizpide desberdinen arabera:

	Mila Euro	
	2013	2012
Modalitate eta egoeraren arabera :		
Merkataritza-kreditua	217.764	307.679
Hipoteka-bermea duten zordunak	35.761.920	37.991.021
Bestelako berme errealak dituzten zordunak	353.319	367.680
Eperako bestelako zordunak	5.933.181	7.200.529
Finantza-errentamenduak	100.124	114.065
Ageriko zordunak eta bestelakoak	857.619	1.277.579
Zalantzasako aktiboak	5.496.686	5.075.789
Bestelako finantza-aktiboak:		
Likidatzeke dauden finantza-eragiketak	28.552	4.500
Finantza-bermeengatikoko komisioak	10.367	20.970
Likidatzeke dauden zor-kupoiak	-	128.024
Bestelako kontzeptuak	194.553	137.735
	233.472	291.229
Balorazioagatikoko doiketak:		
Narriaduragatikoko balio zuzenketak	(3.048.901)	(3.459.525)
Bestelako balorazioagatikoko doiketak	22.574	5.785
	(3.026.327)	(3.453.740)
	45.927.758	49.171.831
Eremu geografikoaren arabera:		
Estatua	45.543.358	48.620.740
Europar Batasuneko gainerako herrialdeak	183.755	404.744
Munduko gainerako herrialdeak	200.645	146.347
	45.927.758	49.171.831
Ezarririkoko interes-tasaren arabera:		
Interes-tasa finkoa	4.035.202	4.380.954
Interes-tasa aldakorra; erreferentzia: Euriborra	32.578.732	37.225.283
Interes-tasa aldakorra; erreferentzia: CECA	7.050	15.114
Interes-tasa aldakorra; erreferentzia: HMEI	4.421.537	4.858.703
Bestelakoak	4.885.237	2.691.777
	45.927.758	49.171.831

Berme errealeko "Bezeroei egoera normalean emandako kredituen" bankatzea, hartutako bermeen tipologiaren arabera, honakoa da:

	Mila Euro	
	2013	2012
Hipoteka-bermedun zordunak (16. Oharra)		
Amaiotutako etxebizitzien gaineko bermea, haien arrisku bizia etxebizitzien tasatze-balioaren %80tik beherakoa denean:	22.357.734	27.792.239
<i>Titulizazio programetan sartutakoak</i>	4.251.222	6.079.975
Bestelako hipoteka-bermeak	13.404.186	10.198.782
	35.761.920	37.991.021
Berme errealdun zordunak (16. Oharra)		
Diru-bermeak	115.983	104.698
Balore bermedunak	155.282	146.003
Bestelako berme errealak	82.054	116.979
	353.319	367.680

"Bezeroei emandako kreditua - Balorazioagatiko doiketak" epigrafeak 19.297 mila euro ditu 2012ko abenduaren 31n (6.252 mila euro 2012ko abenduaren 31n), bezeroei egindako zenbait maileguren arazoizko balioaren aldaketei dagozkienak, interes-arriskuari eta kanbio-tasari egotzi dakizkiekeenak. Azken honek kontabilitate-estaldura izan du 27. Oharrean deskribatzen den moduan.

Zorro honetan 2013ko abenduaren 31n sailkatutako zor-instrumentuen batez besteko interes efektiboaren tasa %2,17koa zen (%2,81ekoa 2012ko abenduaren 31n).

Taldeak titulizazio desberdinak eta bestelako aktiboen transferentziak mantentzen ditu. 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n, honela labur daitezke:

	Mila Euro	
	2013	2012
Balantze bateratuan osorik baja emandakoak:		
Hipoteka-partaidetzen bidezko hipoteka-aktibo titulizatuak	15.065	16.887
Bestelako aktibo titulizatuak	8.170	9.190
	23.235	26.077
<i>Pro memoria: Balantze bateratuan baja emandakoak</i>		
<i>2004ko urtarrilaren 1 baino lehenago</i>	23.235	26.077
Balantze bateratuan osorik mantendutakoak:		
Hipoteka-transmisioko ziurtagirien bidez titulizatutako hipoteka- aktiboak	4.095.567	5.907.233
Hipoteka-partaidetzen bidez titulizatutako hipoteka-aktiboak	155.655	172.742
	4.251.222	6.079.975
	4.274.457	6.106.052

1999tik 2002ko ekitaldietan, Taldeak hipoteka-maileguren titulizazio zenbait programa burutu zuten, Hipoteka Transmisioen Ziurtagiriak jaulkiz. Aktibo titulizatuak baja eman zuten zegozkien balantzeetan, eta irizpide

bera mantendu zen 2013ko abenduaren 31n, NIIF lehendabiziko aldiz erabiltzeari buruzko NIIF 1-ean ezarritakoaren arabera. Jarraian, hipoteka-maileguen titulizazioz programa bakoitzari dagozkion balore nominalak, saldo biziak eta mendeko maileguak adierazi dira, 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n:

Ekitaldia	Mila Euro						Jaulkipena sinatzen duen fondoa
	Balio nominala		Saldo bizia		Mendeko maileguak		
	2013	2012	2013	2012	2013	2012	
2002	61.000	61.000	15.065	16.887	522	591	AyT 11, Fondo de Titulización Hipotecaria AyT 7, Promociones inmobiliarias I, Fondo de Titulización de activos
2002	71.683	71.683	8.170	9.190	2.812	3.547	
	132.683	132.683	23.235	26.077	3.334	4.138	

2004tik 2009ra arteko ekitaldietan, Taldeak hipoteka-maileguen zenbait titulizazio programa egin zituzten, Hipoteka Transmisio Ziurtagirien jaulkipenaren bidez eta hipoteka partaidetzen bidez. Aktiboen transferentzia hauek ez dituzte betetzen Espainiako Bankuaren 4/2004 Zirkularrak ezarritako eskakizunak, aktibo horiek balantzetik baja emateko, Erakundeak aktiboen jabetzari lotutako arriskuak eta mozkinak atxikitzen baititu, fondoei mendeko diru-laguntzak eman dizkielako, eta diru-laguntza horiek aktibo titulizatuetatik esperotako galerak irensten dituzte.

Jarraian, hipoteka-maileguen titulizazio programa bakoitzari dagozkien balio nominalak zehazten dira, saldo biziak eta mendeko maileguak:

Ekitaldia	Balio nominala		Hondar mugageneratzea ertaina (urtetan)		Mila Euro				Jaulkipena sinatzen duen fondoa
					Saldo bizia		Maileguak/Mendeko kredituak		
	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	
2008	1.000.000	1.000.000	17,90	20,59	643.952	696.769	39.700	14.039	AyT Colaterales Global Hipotecario BBK II FTA
2007	1.500.000	1.500.000	19,70	22,49	1.009.035	1.070.907	54.600	16.500	AyT Colaterales Global Hipotecario BBK I FTA
2006	1.000.000	1.000.000	17,20	19,87	544.325	584.171	21.500	21.500	AyT Hipotecario BBK II FTA
2005	1.000.000	1.000.000	17,30	19,17	438.568	470.432	24.000	24.000	AyT Hipotecario BBK I FTA
2006	750.000	750.000	17,50	20,52	397.530	427.994	13.500	13.500	AyT Kutxa Hipotecario I, Fondo de Titulización de Activos
2007	1.200.000	1.200.000	19,20	22,86	745.809	782.442	29.114	29.114	AyT Kutxa Hipotecario II, Fondo de Titulización de Activos
2005	300.700	300.700	18,70	22,56	65.128	70.695	5.626	5.626	AyT Promociones Inmobiliarias III, Fondo de Titulización de Activos
2009	-	2.000.000	-	15,41	-	1.535.755	-	104.892	AyT Kutxa Hipotecario IV, Fondo de Titulización de Activos
2004	150.000	150.000	12,60	14,18	52.367	58.436	1.125	1.125	AyTHipotecario Mixto II , Fondo de Titulización de Activos
2004	25.000	25.000	5,40	6,50	4.121	5.166	704	704	AyT FTPYME II , Fondo de Titulización de Activos
2006	200.000	200.000	14,70	17,90	99.167	109.153	1.605	1.605	TDA 27, Fondo de Titulización de Activos
2007	199.900	199.900	23,30	25,13	144.058	151.847	3.146	3.146	AyT Colaterales Global Hipotecario, Fondo de Titulización de Activos
2009	155.000	155.000	18,70	23,14	107.162	116.208	8.299	8.707	AyT ICO-FTVPO Caja Vital Kutxa, Fondo de Titulización de Activos
	7.480.600	9.480.600			4.251.222	6.079.975	202.919	244.458	

Era berean, aurreko aktiboak ez kitatzearen ondorioz, balantzeko "Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan" epigrafean kontabilizatutako pasiboen xehetasunak honako hauek dira (34. Oharra):

	Mila Euro	
	2013	2012
Jaulkitako partaidetzak	4.220.491	6.068.855
Jaulkitako tituluak	(385.541)	(210.932)
Atxikitako bonoak eta mendeko maileguak	(3.682.535)	(5.691.237)
	152.415	166.686

Erakunde Nagusiak atxikitako 3.679.101 mila euroko titulizazio bonoetatik, nominalaren 3.128.756 mila euro, 2013ko abenduaren 31n, Espainiako Bakuarekin bahitura duen kreditu-kontratu bati lotuta daude (2012ko ekitaldian 5.534.671 mila euroko titulizazio bonoetatik, nominalaren 1.777.799 mila euro Espainiako Bakuarekin bahitura duen kreditu-kontratu bati lotuta daude (43. Oharra).

2013ko ekitaldian, Taldeak, 7.135 mila euroko mozkina aitortu du galeren eta irabazien kontu bateratuan (61.646 mila euro 2012ko ekitaldian), "Finantza-eragiketen emaitzak (garbia) – Bestelakoak" (50. Oharrak) epigrafean, bonuak jaulki ziren eta kontabilizatuta dauden balioa baino kostu baxuagoan berrerostearen ondorioz.

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n, Taldeak aktibo materialen inguruko finantza-errentamenduko kontratuak mantentzen ditu bezeroekin, eta barne hartzen dituzte eraikinak, altzariak, ibilgailuak eta ekipamendu informatikoak, etab. Horiek guztiak 14. m Oharrean azaldutakoaren arabera zenbatuta daude. Aipatutako kontratuen hondar-balioa, errentamenduaren azken kuotaren zenbatekoarekin bat datorrena, errentan hartutako ondasun berak bermatzen du.

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n, errentariak errentamenduen epean zehar jaso behar dituzten kobrantzen banantzea ondorengo da:

	Mila Euro					
	2013			2012		
	Urte 1 arte	1 eta 5 urte bitartean	5 urtetik gora	Urte 1 arte	1 eta 5 urte bitartean	5 urtetik gora
Kobratu beharreko ordainagiriak	13.414	45.074	22.408	14.124	51.654	28.028
Hondar-balioa	4.426	6.885	7.917	4.161	7.486	8.612
Sortu gabeko etorkizuneko interesak	2.064	5.743	1.955	2.483	7.114	2.420
Sortu gabeko etorkizuneko BEZa	4.435	12.452	6.817	5.602	13.786	7.806
Inbertsio gordina	24.339	70.154	39.097	26.370	80.040	46.866

Kobratzeke dagoen errentamenduagatik gutxieneko ordainketei dagozkien kaudimen gabeziak estaltzen dituzten metatutako balio zuzenketak ez dira esanguratsuak 2013ko abenduaren 31n, ezta 2012ko abenduaren 31n ere.

Taldeak parte hartzen duen finantza-errentamenduen akordio esanguratsuenak bezeroei egindako finantza eragiketei dagozkie, ber jardueren ohiko garapenean beharrezko aktiboak erosteko emanak.

c) Narriaduraren ondoriozko galerak

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n bukatutako urteko ekitaldiaren galeren eta irabazien kontu bateratuaren "Finantza aktiboen narriaduragatik galerak (garbia) – Kredituen inbertsioak" epigrafearen saldoaren banantzea erakusten da jarraian (58. Oharra):

	Mila Euro	
	2013	2012
Emaizten konturako zuzkidurak		
Banaka zehaztutakoak	438.007	513.158
Elkarrekin zehaztutakoak	132	8.764
Emaizetan abonaturako zuzkiduren berreskuratzeak	(381.810)	(176.785)
Berreskuratutako partida etenak	(18.174)	(19.515)
Saldoen amortizazio zuzenak	7.210	9.044
	45.365	334.666

“Kredituen inbertsioak” epigrafeko “Aktiboen Narriaduragatiko Balio Zuzenketak” saldo banakatua 2013ko eta 2012ko ekitaldietan honakoa da:

	Mila Euro	
	2013	2012
Estaldura motaren arabera:		
Estaldura espezifikoa	3.046.893	3.449.003
Estaldura orokorra	-	8.440
Herrialdearen arriskuaren estaldura	2.009	2.083
	3.048.902	3.459.526
Zehazteko moduaren arabera:		
Banaka zehaztutakoak	3.046.893	3.449.003
Elkarrekin zehaztutakoak	2.009	10.523
	3.048.902	3.459.526
Eremu geografikoen arabera:		
Estatua	3.036.001	3.447.740
Munduko gainerako herrialdeak	12.901	11.786
Elkarrekin zehaztutakoak	-	-
	3.048.902	3.459.526
Estaldutako aktiboaren izaeraren arabera:		
Kreditu-erakundeetako gordailuetarako	1	1
Bezeroei emandako kreditua	3.048.901	3.459.525
	3.048.902	3.459.526
Kontrako alderdiaren arabera:		
Kreditu-erakundeak	1	1
Bestelako sektore egoiliarak	3.036.001	3.447.740
Bestelako sektore ez-egoiliarak	12.900	11.785
	3.048.902	3.459.526

“Kredituen inbertsioak” epigrafearen “Aktiboen narriaduragatiko balore zuzenketa” saldoaren mugimendua 2013ko eta 2012ko ekitaldian honakoa da:

	Mila Euro			
	Berariazko estaldura	Estaldura orokorra	Herri-arriskua estaldura	Orotara
2012ko ekitaldiaren hasierako saldoa	-	-	-	-
Aktibo eta pasiboen banakatze saldoa (1.2 Oharra)	3.367.824	666.409	1.231	4.035.464
Emaizen kargurako zuzkidura	513.158	7.629	1.135	521.922
Aurreko ekitaldietako berreskurapenak	(170.153)	(6.294)	(338)	(176.785)
Kobraezinetara egindako traspasoa, osatutako fondoan kontra	(333.946)	-	-	(333.946)
Barne traspasoa	659.304	(659.304)	-	-
Traspasoa salgai dauden aktibo ez arruntetara (28. Oharra)	(220.149)	-	-	(220.149)
Traspasoa izakinetara (33. Oharra)	(228.113)	-	-	(228.113)
Traspasoa aktibo materialera (30. Oharra)	(1.174)	-	-	(1.174)
Traspasoa horniduretara (35. Oharra)	(105.851)	-	-	(105.851)
Traspasoa salgai dauden finantza-aktiboetatik (24. Oharra)	8.865	-	-	8.865
Bestelakoak	(40.762)	-	55	(40.707)
2013ko ekitaldiaren hasierako saldoa	3.449.003	8.440	2.083	3.459.526
Emaizen kargurako zuzkidura	438.007	-	132	438.139
Aurreko ekitaldietako berreskurapenak	(380.789)	(866)	(155)	(381.810)
Kobraezinetara egindako traspasoa, osatutako fondoan kontra	(419.752)	-	-	(419.752)
Barne traspasoa	7.574	(7.574)	-	-
Traspasoa salgai dauden aktibo ez arruntetara (28. Oharra)	(24.622)	-	-	(24.622)
Traspasoa aktibo materialera (30. Oharra)	(3.000)	-	-	(3.000)
Traspasoa izakinetara (33. Oharra)	(13.749)	-	-	(13.749)
Traspasoa horniduretara (35. Oharra)	2.653	-	-	2.653
Bestelakoak	(8.432)	-	(51)	(8.483)
2013ko ekitaldiko amaierako saldoa	3.046.893	-	2.009	3.048.902

Goiko taulako “Bestelakoak” lerroak kreditu-eragiketei lotutako bermeen esleipenaren ondorioz aplikatutako fondoak jasotzen ditu, batez ere, horien estalduran erregistratu badira aipatutako fondoak.

Kaudimen-gabezien amortizazio kontzeptupean 7.210 mila euro erregistratu ditu Taldeak 2013ko abenduaren 31n (9.044 mila euro 2012ko abenduaren 31n) eta galera eta irabazi bateratuen kontuko “Finantza-aktiboen narriaduragatiko galerak (garbia) – Kredituen inbertsioak” epigrafeko saldoa igotzen du (58. Oharra).

Metatutako eta ez onartutako finantza-sarreraren galera-irabazien kontu bateratuko zenbatekoa finantza diru-sarreraren zenbatekoa 2013ko abenduaren 31n 983.618 mila eurokoa da (750.980 mila eurokoa 2012ko abenduaren 31n).

Narriatutako aktiboen kontabilitate-balioaren banantzea, narriadurengatiko balio zuzenketak kendu gabe, ondorengo da:

	Mila Euro	
	2013	2012
Kontrako alderdien arabera:		
Administrazio Publikoak	18.770	19.153
Beste sektore egoiliar batzuk	5.438.591	5.012.976
Beste sektore ez egoiliar batzuk	39.325	43.660
	5.496.686	5.075.789
Tresna motaren arabera:		
Merkataritza kreditua	29.696	25.892
Maileguak	5.131.286	4.768.612
Finantza errentamendua	32.612	32.294
Kreditu kontuak	214.080	160.188
Bermeak	60.335	51.823
Factoringa	2.045	2.540
Bestelakoak	26.632	34.440
	5.496.686	5.075.789

Narriatutako aktiboen zehaztasuna ondorengoa da, emandako bermea eta narriatutzat sailkatutako zenbatekoen antzintasunaren arabera – narriaduragatiko balioa zuzendu gabe, honakoa da:

	Mila Euro	
	2013	2012
Berme errealik gabeko eragiketak:		
6 hilabetera arte	238.735	263.110
6 hilabete baino gehiago, 9 gehienez	14.839	64.907
9 hilabete baino gehiago, 12 gehienez	55.996	79.482
12 hilabete baino gehiago	783.501	622.634
Higiezin gaineko bermedun eragiketak- Bukatutako etxebizitza:		
6 hilabetera arte	188.599	166.505
6 hilabete baino gehiago, 9 gehienez	69.479	90.272
9 hilabete baino gehiago, 12 gehienez	64.811	105.753
12 hilabete baino gehiago	803.457	577.044
Higiezin gaineko bermedun beste eragiketa batzuk - Gainontzekoak:		
6 hilabetera arte	1.122.260	892.225
6 hilabete baino gehiago, 9 gehienez	50.799	262.933
9 hilabete baino gehiago, 12 gehienez	93.145	244.344
12 hilabete baino gehiago	1.961.463	1.663.563
Sailkatu gabeko beste eragiketa batzuk	49.602	43.017
	5.496.686	5.075.789

Epea betetako eta narriatu gabeko finantza-aktiboen kontabilitate-balioaren banantzea ondorengoa da:

	Mila Euro	
	2013	2012
Kontrako alderdiaren arabera:		
Erakunde publikoak	6.805	42.623
Sektore egoiliarra	231.734	380.787
Sektore ez egoiliarra	308	334
Kreditu-erakundeak	681	15.263
	239.528	439.007
Tresna motaren arabera:		
Bezeroei emandako kredituak	238.847	423.744
Gordailuak kreditu-erakundeetan	681	15.263
	239.528	439.007

Epea betetako eta narriatu gabeko finantza-aktiboen kontabilitate-balioaren banantzea ondorengoa da, eragiketa bakoitzaren mugaegunik zaharrenaren arabera:

	Mila Euro	
	2013	2012
Hilabete 1 baino gutxiago	118.444	272.620
Hilabete 1etik 2 hilabetera	99.636	69.227
2 hilabetetik 3 hilabetera	21.448	97.160
	239.528	439.007

Taldearen balantze bateratuan berreskuratzeko aukera oso txikia dela uste ondoren baja emandako "Kredituen inbertsioak" epigrafearen saldoen banantzea honakoa da 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n:

	Mila Euro	
	2013	2012
Beste balio ez bihurtgarri batzuk	939.514	1.045.920
Norberaren baloreak	(2.640.200)	(2.618.900)
Balorazioagatiko doiketak	157.215	193.945
	5.567.162	5.306.585

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n "Zorra adierazten duten balore negoziagarriak" epigrafean izandako mugimenduak jarraian erakutsiko dira:

	Mila Euro	
	2013	2012
Saldoa ekitaldiaren hasieran	5.306.585	-
Aktiboen eta pasiboen banatzea (1.2 Oharra)	-	6.030.295
Jaulkipenak	928.304	126.509
Amortizazioak	(855.861)	(1.040.467)
Sortutako interesak	188.134	190.248
Saldoa ekitaldiaren amaieran	5.567.162	5.306.585

2013ko ekitaldian, Taldearen balore negoziagarriek ordezkaturako Zordunetek sortutako interesak 188.134 mila eurora iritsi dira (190.248 mila euro 2012ko abenduaren 31n) (46. Oharra).

Ordaindukoak eta efektuak

Ordaindukoen eta efektuen saldoak 18.540 mila euro jasotzen ditu 2013ko abenduaren 31n, "Kutxabank Empréstitos 2013 ordaindukoen jaulkipen programa" mendean Taldeak jaulkitako ordaindukoei dagozkienak, 2.000.000 mila euroko jaulkipen zenbateko maximoaz eta 12 hilabeteko indarraldiaz, 2013ko maiatzetik. Ordaindukoak deskontura jaulkitzen dira, eta haien balio nominala 100.000 eurokoa da.

Ordaindukoen eta efektuen saldoa 1.876 mila eurokoa zen, 2012ko abenduaren 31n, "Kutxabank Empréstitos 2012 ordaindukoen jaulkipen programa" mendean Taldeak jaulkitako ordaindukoei dagozkienak, 3.000.000 mila euroko jaulkipen zenbateko maximoaz eta 12 hilabeteko indarraldiaz, 2013ko maiatzetik. Ordaindukoak deskontura jaulkitzen dira, eta haien balio nominala 1.000 eurokoa da.

Goiko paragrafoetan aipaturako ordainduko guztiek dute Erakunde Nagusiaren berme solidarioa eta atzera ezina eta negoziatzeko daude onartuak AIAF merkatuan.

Jarraian, ordaindukoen hondar muga eguneratze epeen arabera xehetasunak zehaztuko dira, baita interes-tasak ere, 2013ko eta 2012ko ekitaldien itxieran:

	Mila Euro					
	Hilabete 1 arte	3 hilabete arte	3 hilabete eta urte 1 arte	Urte 1 eta 5 urte arte	Guztira	Interes-tasa
2013ko abenduaren 31n Kutxabank Empréstitos Ordaindukoak	-	18.540	-	-	18.540	%0,59-%0,85
2012ko abenduaren 31n Kutxabank Empréstitos Ordaindukoak	-	31	1.803	42	1.876	%1,50-%3,10

Balore hibridoak

2007ko martxoaren 15eko data duten balore hibridoak dagokienez, desagertutako CajaSurrek guztira 50.000 mila euroko zenbateko nominala duten bono-jaulkipen egin zuen. Bono hauen muga eguneratze data 2018ko martxoaren 15ean da. Baloreen etekina %1,5eko urteko interes-tasa finakoak zehazten du. Gainera, eta azken kupoiaren ordaintza-datak baldintzatuta, inflazioari erreferentziatutako kupoia ordainduko da eta Espainian jaulkipenak irauten duen bitartean metaturako inflazioaren arabera kalkulatu da, eta eratorri implizitu batetik banandu da eta estalduratik izendatu da (27. Oharra).

Hipoteka-tituluak

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n, Hipoteka-tituluen epigrafeak honako jaulkipen hauei dagozkion zenbatekoak biltzen ditu, AIAF izeneko merkatuan kotizagarriak dira eta beren ezaugarri nagusiak jarraian laburtu dira:

Jaulkipena	Balore kopurua	Nominal unitarioa	Amaierako amortizazioa (1)	Interes-tasa	Mila Euro			
					Hipoteka-tituluak		Balore propioak	
					2013	2012	2013	2012
Cédulas hipotecarias CajaSur 15 de septiembre de 2009	4.000	100.000	2014/09/15	(2)	400.000	400.000	400.000	400.000
Cédulas hipotecarias Bilbao Bizkaia Kutxa 29 de septiembre de 2009 (3)	11.000	100.000	2014/9/29	%3,38	1.092.730	1.095.730	-	-
Cédulas hipotecarias CajaSur 24 de noviembre de 2009	2.000	100.000	2014/11/24	(2)	200.000	200.000	200.000	200.000
Cédulas hipotecarias Bilbao Bizkaia Kutxa 11 de marzo de 2010	500	100.000	2013/03/27	%2,84	-	50.000	-	-
Cédulas hipotecarias CajaSur 4 de mayo de 2010	3.750	100.000	2015/05/04	(4)	375.000	375.000	375.000	375.000
Cédulas hipotecarias CajaSur 11 de mayo de 2010	750	100.000	2015/05/11	(4)	75.000	75.000	75.000	75.000
Cédulas hipotecarias Bilbao Bizkaia Kutxa 27 de mayo de 2010	1.000	100.000	2020/09/30	%4,55	100.000	100.000	-	-
Cédulas hipotecarias Bilbao Bizkaia Kutxa 8 de octubre de 2010	2.000	100.000	2018/10/08	(5)	200.000	200.000	-	-
Cédulas hipotecarias Bilbao Bizkaia Kutxa 26 de octubre de 2011	1.000	100.000	2015/10/26	(6)	100.000	100.000	-	-
Cédulas hipotecarias Bilbao Bizkaia Kutxa 3 de noviembre de 2011	1.000	100.000	2015/11/03	(6)	100.000	100.000	-	-
Cédulas Hipotecarias Kutxa Noviembre 2010	14.000	50.000	2014/11/05	%4,37	698.565	698.565	6.850	-
Cédulas Hipotecarias Kutxa Abril 2011	12.000	50.000	2015/04/08	%5,12	597.672	597.672	13.350	-
Cédulas Hipotecarias Kutxa Octubre 2011	2.000	50.000	2019/10/14	(7)	100.000	100.000	-	-
Cédulas Hipotecarias Kutxa Noviembre 2011	1.500	100.000	2015/11/09	(6)	149.495	150.000	-	-
Cédulas Hipotecarias Caja Vital Kutxa Marzo 2010	2.000	50.000	2013/11/27	%3,035	-	99.500	-	-
Cédulas Hipotecarias Caja Vital Kutxa Agosto 2010	700	50.000	2013/09/16	%3,81	-	35.000	-	-
Cédulas Hipotecarias Caja Vital Kutxa Mayo 2011	4.000	50.000	2013/05/23	%4,50	-	200.000	-	-
Cédulas Hipotecarias Caja Vital Kutxa Octubre 2011	1.500	50.000	2019/10/17	(8)	75.000	75.000	-	-
Cédulas hipotecarias CajaSur 6 de agosto de 2012	15.000	50.000	2017/08/06	(9)	750.000	750.000	750.000	750.000
Cédulas Hipotecarias Kutxabank, S.A. Diciembre 2012	7.500	100.000	2017/12/03	(10)	750.000	750.000	750.000	750.000
Cédulas Hipotecarias Kutxabank, S.A. Febrero 2013	7.500	100.000	2017/02/01	%3,00	743.495	-	-	-
Cédulas Hipotecarias Kutxabank, S.A. Mayo 2013	1.000	100.000	2026/12/21	%3,68	99.595	-	-	-
Cédulas Hipotecarias Kutxabank, S.A. Junio 2013	500	100.000	2021/06/07	(11)	50.000	-	-	-
Guztira	96.200				6.656.552	6.151.467	2.570.200	2.550.000

- (1) Taldeak, gainditutako zenbatekoaren amortizazio aurreratua egiteko aukera du, parean eta balio nominala murriztuz, une bakoitzean ezargarria den araudiak xedatuta dauden Hipoteka-zedulen jaulkipen mugak gaindituz gero.
- (2) Interes-tasa Euriborra 3 hilabetera izango da, gehi oinarritzko 150 puntuko marjina.
- (3) 2011ko martxoaren 31n, Bilbao Bizkaia Kutxa hipoteka-zedulak jaulki ziren, 100 milioi euroko nominaleko zenbatekoan eta 2009ko irailaren 29ko jaulkipenarekin bateratu ziren.
- (4) Interes-tasa Euriborra hilabete 1era izango da, gehi oinarritzko 175 puntuko marjina hilean ordaintzekoak.

- (5) Interes-tasa Euriborra 3 hilabetera izango da, gehi oinarritzko 200 puntuko marjina.
- (6) Interes-tasa Euriborra 6 hilabeterako izango da, gehi marjina hazkorra seihileko bakoitzean, oinarritzko 100 eta 250 punturen artean mugitzen dena.
- (7) Interes-tasa Euriborra 3 hilabetera izango da, gehi oinarritzko 275 puntuko marjina.
- (8) Interes-tasa Euriborra 3 hilabetera izango da, gehi oinarritzko 300 puntuko marjina.
- (9) Interes-tasa Euriborra 12 hilabetera izango da, gehi oinarritzko 350 puntuko marjina.
- (10) Interes-tasa Euriborra 12 hilabetera izango da, gehi oinarritzko 300 puntuko marjina.
- (11) Interes-tasa Euriborra 3 hilabetera izango da, gehi oinarritzko 175 puntuko marjina.

Balio propioen zutabeetan Taldeak erosi dituen eta “Balore propioak” epigrafean saldo zordunaz erregistratuta dauden jaulkipenen zenbatekoak sartzan dira, jaulkitako zedulen balioa murriztuz. 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n, 2.570.200 eta 2.550.000 mila eurora, hurrenez hurren, iristen diren balore horiek, bahidun kreditu kontratu bati lotuta daude Espainiako Bankuarekin.

2013ko ekitaldian 384.500 mila euroko jaulkipenen itzulketak egin dira (177.300 mila euro 2012ko ekitaldian), haien epemuga 2013ko ekitaldian gertatu delako.

Ez dago ordezkapen aktiborik, ezta jaulkipen hauei lotutako eratorririk ere. Horietako batzuek kontabilitate estaldurak izan dituzte (27. Oharra), 1.350.000 mila euroko zenbateko nominalaz, 2013ko abenduaren 31n (1.235.000 mila euro 2012ko abenduaren 31n).

Gainera, 25. Oharrean deskribatu denez, “Balio negoziagarriek ordezkaturako zordunketak – Hipoteka-tituluak” atalean Taldearen egoera garbia erregistratu da, hirugarrenek sinatutako titulizazio bonotan, deskribatutako titulizazio eragiketetan, 385.541 eta 210.932 mila euroko zenbatekotan, 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n, hurrenez hurren.

Bestelako balore ez bihurgarriak

2010eko ekitaldian, Espainiako Bankuaren alde aurreko baimenaz, BBK-k honako trukea eskaini zuen, 2005eko irailaren 28ko mendeko obligazioen jaulkipena, jaulkipen berriko Bilbao Bizkaia Kutxaren bono sinpleen truke. Trukea onartu zuten harpidedunen mendeko obligazioen zenbateko nominala 449.205 mila eurokoa izan zen, eta horixe bera da, jaulkitako bono sinpleen balio nominalari dagokion zenbatekoa. Bono horiek AIAF merkatuan kotizatzen dute, %4,38ko interes-tasa sortzen dute eta 2015eko irailaren 28an amortizatuko dira. Aipatutako bono sinple horiek “Beste balio ez bihurgarria batzuk” epigrafean daude erregistratuta. 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n, bonu sinpleen jaulkipen horretako 48.000 mila euro “Balore propioak” atalean erregistratu dira, balantze bateratuko “Balore negoziagarriek ordezkaturako zordunketak” epigrafe barruko saldo zordunaz, jaulkitako bono sinpleen zenbatekoa murriztu du.

2011ko ekitaldian, Espainiako Bankuaren alde aurreko baimenaz, BBK-k honako trukea eskaini zuen, 2006ko martxoaren 1eko mendeko obligazioen jaulkipena, jaulkipen berriko Bilbao Bizkaia Kutxaren bono sinpleen truke. Trukea onartu zuten harpidedunen mendeko obligazioen zenbateko nominala 450.909 mila eurokoa izan zen, eta horixe bera da, jaulkitako bono sinpleen balio nominalari dagokion zenbatekoa. Bono horiek AIAF merkatuan kotizatzen dute, %4,40ko interes-tasa sortzen dute eta 2016ko martxoaren 1ean amortizatuko dira. Aipatutako bono sinple horiek “Bestelako balio ez bihurgarriak” epigrafean daude erregistratuta. 2013ko abenduaren 31n, bonu sinpleen jaulkipen horretako 22.000 mila euro (20.900 mila euro 2012ko abenduaren 31n) “Balore propioak” atalean erregistratu dira, balantze bateratuko “Balore negoziagarriek ordezkaturako zordunketak” epigrafe barruko saldo zordunaz, jaulkitako bono sinpleen zenbatekoa murriztu du.

“Bestelako balore ez bihurtgarriak” epigrafearen barruan, Vital Kutxak jaulkitako diruzaintza Bono jaulkipen hauek ere daude erregistratuta, baita Caja Vital Finance, B.V.Taldeko Erakundeak egindakoa ere (jaulkipen hori estali egin da (27. Oharra)). Jaulkipen horren nondik norakoak honako hauek dira:

Jaulkipena	Balore kopurua	Nominal unitarioa	Amaierako amortizazioa	Interes-tasa	Mila Euro	
					2013	2012
Bonos de Tesorería Caja Vital – 19. Jaulkipena	1.200	50.000	2013/03/27	Euribor 3M +%0,90	-	60.000
Bonos de Tesorería Caja Vital – 3. Jaulkipen bermatua	1.000	50.000	2013/06/04	%3,145	-	50.000
Caja Vital Finance – Euro Medium Term Notes Programme (*)		50.000	2019ko uztaila	(*)	39.400	50.000
Total					39.400	160.000

(*) Jaulkipen honek %6,05eko urteko interes-tasa sortzen du lehenengo urtean eta IRS 10 urtera motako %90ekoa, bigarren urtetik aurrera muga egunera arte. Jaulkipen hau kotizaziorako onartuta dago Luxenburgoko burtsan.

2013ko ekitaldian “Bestelako balio ez bihurtgarriak” epigrafean erregistratutako jaulkipenen itzulketak egin dira, 110.000 mila euroko zenbatekoz (780.000 mila euro 2012ko ekitaldian), horien epemuga 2013ko ekitaldian gertatu delako.

Era berean, “Bestelako balio ez bihurtgarriak” kontabilitate estaldurak izan dituzte, 939.514 mila euroko zenbatekoz, 2013ko abenduaren 31n (989.100 mila euro 2012ko abenduaren 31n).

Balorazioagatiko doiketak

“Balore negoziagarriek ordezkaturako zordunketak – Balorazioagatiko doiketak” epigrafeak 29.553 mila euroko zenbatekoa du 2013ko abenduaren 31n (60.483 mila eurokoa 2012ko abenduaren 31n), hipoteka-zedulen arrazoizko balioaren aldaketei dagozkienak. 36.444 mila euroko zenbatekoa (56.191 mila eurokoa 2012ko ekitaldian), bono sinpleen arrazoizko balioaren aldaketei dagozkienak, eta 247 mila euroko zenbatekoa (1.179 mila euroko zenbateko negatiboa 2012ko ekitaldian), bono hibridoaren arrazoizko balioaren aldaketei dagozkienak, eta interes-arriskuari egozten zaizkionak. Horiek arrazoizko balioaren kontabilitate estaldura izan dute, 27. Oharrean deskribatzen den eran.

e) Mendeko pasiboak

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n balantze bateratuko “Mendeko pasiboak” epigrafeko saldoa hau da, banakatuta

	Mila Euro	
	2013	2012
Zorra adierazten duten mendeko balore negoziagarriak:		
Ez bihurtgarriak	45.100	284.100
Mendeko gordailuak	40.548	40.548
Balorazioagatiko doiketak	-	936
	85.648	325.584

Mendeko pasiboetan sartutako jaulkipenek izaera hori dute eta, kredituak emateko ondorioetarako, Erakundearen ohiko hartzekodun guztien atzetik doaz.

2013ko eta 2012ko abenduaren 31ko egoera balantze bateratuko epigrafe honetako saldoa osatzen duten mendeko pasiboan jaulkipenen xehetasunak honako hauek dira:

	Mila Euro			
	Balio Nominala 2013	Balio Nominala 2012	Interes-tasa (1)	Muga eguneratze data
Mendeko obligazioak 2005 BBK	2.100	2.100	% 1,90	2015/09/28
Mendeko obligazioak 2006 BBK	15.000	27.000	% 1,89	2016/03/01
BBKGE Kredit, E.F.C.,S.A.-ko Lehentasunezko Partaidetzak	-	2.000	(2)	
CajaSur Mendeko zorraren 1. jaulkipena	-	60.000	%2	2013/12/01
CajaSur Mendeko zorraren 3. jaulkipena	28.000	28.000	Eur 3m+%0,94	2015/03/11
CajaSur Mendeko zorraren 5. jaulkipena	-	165.000	Eur 6m+%4,5	2018/11/28
Jaulkipen singularra	40.000	40.000	Eur 3m+%0,86	2016/11/17
Jaulkipen singularra:				
CajaSur Sociedad Participaciones Preferentes	548	548	Eur 3m + %0,25	(3)
Saldoa ekitaldiaren amaieran	85.648	324.648		

(1) 2013ko abenduaren 31n indarrean zegoen tasa.

(2) Lehentasunezko partaidetza horiek ordainsaria jasotzeko eskubidea ematen diete titularrei. Ordainsari hori 3 hilabeterako euriborraren gainean kalkulaturako da gehi %0,30, %3,50eko urteko gutxienekoarekin eta %6,00ko maximoarekin, eta 2012ko ekitaldian ezarritako batez besteko interes-tasa %3,50ekoa izan da.

(3) Lehentasunezko partaidetzak denbora muga gaberako jaulkitzen dira. Hala ere, harpidetza epealdiaren amaieraren bosgarren urtetik aurrera Jaulkitzaileak amortizazioa adosteko ahalmena du, Espainiako Bankuaren eta Berme-emalearen alde zuzeneko baimenez.

Kutxabank Taldearen akzioduna den BBKren Batzar Nagusiak 2005eko martxoaren 11n eta urriaren 21ean emandako baimenaren eredura, BBKren Administrazio Kontseiluak mendeko obligazioak jaulkitzea erabaki zuen 2005ean eta 2006an. Obligazio bakoitzaren zenbateko nominala 500 milioi eurokoa da: 5.000 titulu eta bakoitzak 100.000 euroko balio nominala dauka. BBK-k 2005eko irailaren 28an (hauek arestian aipaturako trukearen ondorioa dira) eta 2006ko martxoaren 1ean jaulki zituen zor horiek. Obligazio horien mugaegunak 2015eko irailaren 28an eta 2016ko martxoaren 1a dira, hurrenez hurren. Dena den, jaulkitzaileak amortizazio aurreratua egin dezake, bosgarren urtetik aurrera. 2013ko abenduaren 31tik aurrera, jaulkipen horien zenbateko bizia 2.100 mila euroko eta 15.000 mila euroko balio nominala dute, hurrenez hurren (2.100 mila euro eta 27.000 mila euroko balio nominala, hurrenez hurren, 2012ko abenduaren 31n). Eskubide hori erabili ezean, jaulkipenaren kupoia urteko %0,50 gehituko da, amortizatu arte. Jaulkipen horren saria aldakorra da: erreferentzia 3 hilabeterako Euriborra da; 2013n ezarritako batez besteko tasa %1,02 eta %1,04koa izan da, hurrenez hurren (%1,90 eta %1,89, hurrenez hurren, 2012ko ekitaldian). Mendeko obligazio hauek negoziatorako onartuta daude, antolatutako bigarren mailako merkatuan AIAF.

Era berean, epigrafe horrek, BBKGE Kredit, E.F.C., S.A.-k egindako jaulkipena ere jasotzen zuen 2012ko abenduaren 31n (gerora Kutxabank Kredit, E.F.C., S.A. deitua). Aipaturako jaulkipen hau 2007ko irailaren 12an egin zen, 20 lehentasunezko partaidetzak izan ziren, eta bakoitzak 100 mila euroko balio nominala zuen. Lehentasunezko partaidetzak behin betiko izaera dute, baina zati bat edo osorik amortizatu ahal izango dira, edozein unetan ordaindu zirenetik hamar urte igaro ondoren, Erakunde Jaulkitzailearen borondatez, Espainiako Bankuak alde zuzeneko baimenduta. Lehentasunezko partaidetzen titularrek, amortizazio prezioa jasotzeko eskubidea dute, eta honakoa izango da, haien balio nominala gehi sortutako ordainsaria ez ordaindua amortizazio data arte. Lehentasunezko partaidetzak ez diete ematen euren titularrei inolako eskubide politikorik. Jaulkipen hori Erakunde Nagusiak erosi du eta gero amortizazio aurreratua egin dute 2013ko ekitaldian.

CajaSur desagertuaren Administrazio Kontseiluak mendeko pasiboan jaulkipena onartu zuen 2003ko ekitaldian, epemuga data 2013ko abenduaren 1ean zuena. Mendeko Zorraren jaulkipen hori 60.000 mila euroko zenbateko nominalaz burutu zen eta interes-tasa aldakorra sortzen du, 3 hilabeteko Euriborrera erreferentziatuta gehi

%0,20ko diferentziala, %3ko gutxienero tasa ordaindu baten indarraldia aintzat hartuta, 2012ko abendura arte eta %2koa data horretatik 2013ko abendura arte. Jaulkipen horrek 2013ko abenduko 1eko datan iraungi da.

CajaSur desagertuaren Administrazio Kontseiluak mendeko pasiboen jaulkipena onartu zuen 2005eko ekitaldian, epemuga data 2015ko martxoaren 11n zuena. Mendeko zorraren jaulkipen hori 75.000 mila euroko zenbateko nominalaz burutu zen eta interes-tasa aldakorra sortzen du, 3 hilabeteko Euriborrera erreferentziatuta gehi %0,44ko diferentziala. Jaulkipen horretan eta, jaulkipen datatik kontatzen hasita, bosgarren urtetik aurrera, diferentziala igo egingo da, foiletoko baldintzen arabera, %0,94 arte. 2011ko abuztuaren 1an, CajaSur Bancok 13.700 mila euroko amortizazioa egin zuen. Gerora, 2012ko maiatzaren 30an, Taldeak erosketa eskaintza luzatu zuen, Mendeko Obligazio horien edukitzaile guztiei zuzendua, pasiboaren kudeaketa hobetzeko eta taldearen balantzea sendotzeko helburuz, baita Gonbidapenaren Balioen edukitzaileei likidezia emateko helburuz ere. 2012ko ekainaren 12an, obligazioen erosketa eskaintza hori amaitu zen, eta eragiketa horren prezioak zehaztu ziren eta 30.000 mila euroko zenbateko obligazioak berrerosi ziren.

Gainera, 2012ko ekitaldian, Taldeak goiko paragrafoan zehaztutako jaulkipenaren 3.300 mila euroko zenbatekoaren berrerosia burutu zuen, beraz, 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n, erregistratutako balio nominala 28.000 mila eurokoa zen.

CajaSur desagertuaren Administrazio Kontseiluak mendeko pasiboen jaulkipena onartu zuen 2007ko ekitaldian, epemuga data 2016ko azaroaren 17an zuena. Mendeko zorraren jaulkipen hori 40.000 mila euroko zenbateko nominalaz burutu zen eta interes-tasa aldakorra sortzen du, 3 hilabeteko Euriborrera erreferentziatuta gehi %0,36ko diferentziala, eta jaulkipen datatik kontatzen hasita, bosgarren urtetik aurrera, diferentziala igo egingo da, foiletoko baldintzen arabera, %0,86 arte.

CajaSur desagertuaren Administrazio Kontseiluak mendeko pasiboen jaulkipena onartu zuen 2008ko ekitaldian, epemuga data 2018ko azaroaren 28an zuena. Mendeko zorraren jaulkipen hori 165.000 mila euroko zenbateko nominalaz burutu zen eta interes-tasa aldakorra sortzen du, 6 hilabeteko Euriborrera erreferentziatuta gehi %4,5ko diferentziala. Bosgarren urtetik aurrera, diferentziala %6ra igoko da. 2013ko azaroaren 2an, Taldeak jaulkipen horren amortizazio aurrerratu osoa egin du.

Mendeko Pasiboen kategoria honetan sartzen dira Taldekoa den CajaSur Sociedad de Participaciones Preferentes, S.A.k (Pertsona Bakarreko Erakundea) jaulkitako Lehetasunezko Partaidetzak. Lehetasunezko partaidetza horiek Erakundeak ziurtatuta dute, baldintza batzuetan, sortutako eta ez banatutako dibidenduen ordainketa, partaidetza bakoitzaren %5,87ren baliokideak zirenak (600 euro), 2002ko abenduaren 30 arte eta Euribor tasara gehi %0,25eko diferentziala data horretatik aurrera. Lehetasunezko partaidetzek Erakundearen berme solidarioa eta atzera bota ezina dute eta kredituen lehetasunaren ondorioetarako, Erakundearen hartzekodun arrunt eta mendeko guztien atzetik doaz.

CajaSur Bancoren Batzorde Betearazleak, 2011ko ekainaren 15ean egin zuen bileran, lehetasunezko partaidetza horiei zegokienez ordura arte indarrean zegoen ordainketarako gutxienero atalasea luzatzea eta hobetzea onartu zuen, beti ere, jaulkipen foiletan ezarritako ordainketa-baldintzak betez gero. Horrela, jaulkipenaren ordainketa 2011ko uztailaren 1etik 2012ko ekainaren 30 arte bi hauen arteko handiena izan da:

- Hiru hilabeterako Euribor tasa, gehi %0,25eko marjina.
- %4,00ko nominal finkoa.

Beste alde batetik, lehetasunezko partaidetzen jaulkipenaren foiletaren baldintzen arabera, A Serieko Lehetasunezko Partaidetzen titularrek, ez dute Lehetasunezko Dibidendurik jasotzeko eskubiderik izango eta, ondorioz, Taldeak ez ditu aitortuko, ekitaldiko dibidenduak, ordainduta daudenak eta ordaintzeko daudenak aintzat hartuta, aurreko ekitaldi fiskaleko Mozkin Banagarria baino altuagoak diren neurrian, jaulkipen foiletan definitzen denaren arabera; ezargarria den araudiak xedatutako norberaren baliabide konputagarrien koefizienteak betetzen ez diren kasuetan eta defizita eskatutako minimoen %20tik gorakoa den kasuetan ere ez; kasu honetan, talde bateratuko erakunde guztiek erreserbetara bideratu beharko dituzte haien mozkin edo soberakin garbiak oso-osorik. Norberaren baliabideen defizita adierazitako %20 baino baxuagoa balitz, dibidenduaren ordainketak Espainiako Bankuaren alde aurreko baimena izan beharko du eta honek ezarriko du mozkinaren zein portzentaje bideratuko den erreserbetara.

2012ko maiatzaren 7an, CajaSur Sociedad de Participaciones Preferentes S.A.U.k jaulkita zituen lehentasunezko partaidetzen berrerostea eskaintza egiteko beharrezko baimenak lortu dituela eman da jakitera. Berreroste eskaintza hau CajaSur Banco, S.A.U.rekin ("IPF") eperako ezarpen baten kontrataziotik datozen lehentasunezko partaidetzen edukitzaile guztiei zuzendu zaie. Eperako ezarpen horrek hiru urteko epemuga izan behar du eta ordainketa 3 hilabeterako Euriborra gehi %0,25eko marjina. Aipatutako "IPF" hori atzeraezina izango da hiru urteko epealdi horretan.

"IPF" delakoa BBK Bank CajaSur, S.A.U.rekin kontratatuko den zenbatekoa, bere balio nominalaren %100 izango da eta "IPF" eratzen den aldi berean, edukitzaileei lehentasunezko partaidetzen berreroste data arte sortutako dibidenduari dagozkion interesak ordainduko zaizkie. Ez da posible izango onarpen partziala eta ez dira berriro jaulkiko ezta birsalduko ere, baizik eta amortizatu egingo dira. Berreroste epealdia maiatzaren 16an hasiko zen eta 2012ko ekainaren 15ean amaitu, eta 249.086 lehentasunezko partaidetzek eskatu zuten atxikimendua, 149.452 mila euroko zenbateko nominalaz. 2012ko ekainaren 19an, CajaSur Banco, S.A.U.k lehentasunezko partaidetza hauek erosi eta amortizatu zituen, beraz, zirkulazioan den jaulkipenaren saldo bizia 548 mila eurokoa da.

Mendeko pasibo guztiak onartu dira AIAF bigarren mailako merkatu antolatuan negoziatzeko.

2013ko ekitaldian Taldeak jaulkitako Mendeko pasiboek sortutako interesak 9.418 milioi eurora iritsi dira (17.776 mila euro 2012ko ekitaldian) (46. Oharra).

f) Bestelako finantza-pasiboak

Bestelako Finantza-pasiboen Batzuen xehetasunak, finantza-tresnaren arabera taldekatuta, honako hau da:

	Mila Euro	
	2013	2012
Ordaindu beharreko obligazioak	154.606	143.288
Jasotako fidantzak	1.726	2.073
Diru-bilketa kontuak	85.695	161.191
Kontu bereziak	275.776	389.624
Finantza-bermeengatiko aldizkakotzeak	5.846	19.960
Beste kontzeptu batzuk	154.220	124.565
	677.869	840.701

g) Hipoteka-merkatuaren tituluak

Hipoteka-zedulen jaulkitzailea den aldetik, jarraian hainbat informazio esanguratsu aurkeztu da, Ohar honetan aipatu diren hipoteka-zedulen jaulkipen osoaren gainean. Hauen banantzea urteko kontu bateratuetan eskatzen du Hipoteka-merkatuaren araudiak:

1. Taldeak jaulkitako hipoteka-tituluen edukitzaileek dituzten estaldura eta pribilegioei buruzko informazioa.

Erakunde Nagusia eta %100ean partaidetutako CajaSur Banco, S.A.U. Erakundea dira hipoteka-zedulak jaulkitzen dituzten Taldeko Erakunde bakarrak.

Hipoteka-zedula hauek, Erakunde horien alde inskribatuta dauden zedula guztien gaineko hipotekaren bidez kapitala eta interesa bereziki bermatuta duten baloreak dira, ez dute erregistro-inskripzio beharrik, horien ondare erantzukizun unibertsalaren kalterik gabe.

Zedulek, Erakunde horien aurrean haien edukitzailearen kreditu-eskubidea daramate barne, aurreko ahapaldietan adierazi den eran bermatuta, eta egikaritzea daroate lotuta jaulkitzaileari ordainketa erreklamatzeko, muga eguneratu ostean. Titulu horien edukitzaileek, hartzekodun izaera dute eta lehentasun berezia, Kode Zibileko 1.923 artikuluko 3. zenbakiak adierazten duenaren arabera, beste edozein hartzekodunen aurrean, jaulkitzailearen alde inskribatutako mailegu eta hipoteka-kreditu guztiei dagokienez. Zedula edukitzaile guztiek, jaulkipen data edozein delarik ere, lehentasun bera dute bermatzen dituzten maileguen eta kredituen gainean.

Konkurtsu kasuan, zedula edukitzaileek, uztailearen 9ko 22/2003 Legeko (Konkurtsala) 90. artikuluko 1. ataleko 1. zenbakian xedatutako pribilegio berezia izango lukete.

Aurrekoaren kalterik gabe, konkurtsoan artatuko lirateke, uztailearen 9ko 22/2003 Legeko (Konkurtsala) 84. artikuluko 2. ataleko 7. zenbakian xedatutakoaren arabera, eta masaren aurkako kreditu gisa, konkurtsoa eskatu den datan jaulkita egon baina amortizatzeko dauden hipoteka-zedulen kapital amortizazio eta interesengatik dagozkien ordainketak, konkurtsopekoak mailegu eta hipoteka-kredituetatik jasotako diru-sarreraren zenbateko arte.

Denbora desfasea dagoelako, konkurtsopekoak jasotako diru-sarrerak goiko ahapaldian aipatutako ordainketei erantzuteko nahikoa ez balira, konkurtso-administrazioa finantzaketa eragiketarik egin beharko litzuzke, zeduladunei ordaintzeko dagoen ordainketa agindua bete dadin, eta finantza-emailea hauen posizioa subrogatuko da.

Ekainaren 9ko 22/2003 Legeko (Konkurtsala) 155 artikuluko 3. zenbakian xedatutakoaren arabera jokatu beharko balitz, jaulkitzaileak jaulkitako zedulen titular guztiei ordaintzeko hainbanaketa egingo litzateke, haien tituluen jaulkipen datei erreparatu gabe.

2. Hipoteka-merkatuko tituluen jaulkipenei buruzko informazioa

Jarraian, Taldeak jaulkitako hipoteka-merkatuko tituluen balio nominala dator eta biziak 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n:

	Mila Euro	
	2013	2012
Hipoteka-zedulak eskaintza publikoan ez jaulkiak		
Hondar epemuga 3 urtetik beherakoa	4.289.030	3.973.490
Hondar epemuga 3 eta 5 urte bitartekoa	2.080.466	3.207.296
Hondar epemuga 5 eta 10 urte bitartekoa	1.043.753	1.212.893
Hondar epemuga 10 urtetik gorakoa	153.846	303.846
	7.567.095	8.697.525
Hipoteka-zedulak eskaintza publikoan jaulkiak		
Hondar epemuga 3 urtetik beherakoa	2.738.462	3.126.467
Hondar epemuga 3 eta 5 urte bitartekoa	1.693.495	750.000
Hondar epemuga 5 eta 10 urte bitartekoa	325.000	475.000
Hondar epemuga 10 urtetik gorakoa	99.595	-
	4.856.552	4.351.467
	12.423.647	13.048.992

17. Oharrean zehazten den eran, Taldeak ezarrita ditu politikak eta prozedurak Taldearen likidezia kudeatzeko, eta berriaz hipoteka-merkatuko bere jarduerari dagokienez.

3. Hipoteka-zedulen jaulkipenari buruzko informazioa

Jarraian, Taldearen mailegu eta hipoteka-kreditu guztien balio nominala dator, baita hipoteka-zedulen jaulkipenaren kalkulurako ezargarria den araudian xedatutakoaren arabera aukeragarriak diren haienak ere:

	Mila Euro	
	2013	2012
Amortizatzeko dauden mailegu eta hipoteka-kredituen zorroaren balio nominala	37.072.358	37.708.086
Amortizatzeko dauden mailegu edo hipoteka-kredituen balio nominala, apirilaren 24ko 716/2009 Errege Dekretuko 12. artikulua arabera aukeragarriak direnak, bere konputuan mugak aintzat hartu barik	26.648.985	25.319.096
Amortizatzeko dauden mailegu edo hipoteka-kreditu guztien zenbatekoaren balioa, apirilaren 24ko 716/2009 Errege Dekretuko 12. artikulua finkatutako irizpideen arabera aukeragarriak direnak.	26.489.125	25.101.860

Era gehigarrian, egiteke dauden mailegu eta hipoteka-kreditu guztiei buruzko hainbat informazio aurkeztu da eta apirilaren 24ko 716/2009 Errege Dekretuko 12. artikuluan xedatutakoaren arabera beren konputuko muga arabera aukeragarriak direnei buruz:

	Mila Euro			
	2013		2012	
	Mailegu eta kreditu zorroa guztira	Mailegu eta kreditu zorro aukeragarria guztira	Mailegu eta kreditu zorroa guztira	Mailegu eta kreditu zorro aukeragarria guztira
Monetaren arabera:				
Euroak	36.977.721	26.569.319	37.603.308	25.244.644
Yen Japoniarrak	59.629	55.545	76.159	52.534
Franko Suitzarrak	24.634	21.331	24.510	19.769
USA Dolarrak	6.563	537	3.520	1.791
Libra Esterlinak	3.811	2.253	589	358
	37.072.358	26.648.985	37.708.086	25.319.096
Ordainketa egoeraren arabera:				
Normaltasuna	30.712.059	24.123.720	31.345.813	22.811.636
Berankorra	6.360.299	2.525.265	6.362.273	2.507.460
	37.072.358	26.648.985	37.708.086	25.319.096
Bere batez besteko epemuga hondarraren arabera:				
10 urtera arte	6.112.148	3.397.996	6.698.913	3.594.870
10 urtetik 20 urtera	9.239.225	7.262.532	9.285.319	6.872.393
20 urtetik 30 urtera	15.196.524	11.454.573	14.582.658	10.166.077
30 urtetik gora	6.524.461	4.533.884	7.141.196	4.685.756
	37.072.358	26.648.985	37.708.086	25.319.096
Interes-tasaren arabera :				
Finkoa	246.978	84.140	245.733	111.959
Aldagarria	36.333.313	26.383.334	37.025.243	25.080.055
Mistoa	492.067	181.511	437.110	127.082
	37.072.358	26.648.985	37.708.086	25.319.096
Enpresa jarduera-Higiezinaren Sustapena	2.982.094	1.194.158	3.376.866	1.296.019
Enpresa jarduera-Gainontzekoa	5.782.173	3.060.293	6.493.405	3.041.284
Finantzaketa familiei	28.308.091	22.394.534	27.837.815	20.981.793
Besterik	-	-	-	-
	37.072.358	26.648.985	37.708.086	25.319.096
Eragiketen bermeen arabera :				
Eraikin bukatuak-bizigunea (*)	28.722.092	21.920.181	27.896.750	19.644.041
Eraikin bukatuak-komertziala	952.387	628.767	1.962.055	1.025.830
Eraikin bukatuak-gainontzekoa	2.530.078	1.527.689	2.182.931	1.362.520
Egiten ari diren eraikinak-etxebizitzak (*)	1.581.026	1.250.193	2.197.160	1.628.013
Egiten ari diren eraikinak-komertziala	83.466	67.449	128.250	66.549
Egiten ari diren eraikinak-gainontzekoa	325.850	125.012	493.701	270.340
Lurra-lur urbanizatuak	1.966.300	780.036	2.372.185	1.160.786
Lurra-gainontzekoa	911.159	349.658	475.054	161.017
	37.072.358	26.648.985	37.708.086	25.319.096

(*) Hauetatik 2.673.458 eta 1.982.564 mila eurok babes ofizialeko etxebizitzaren bermea dute, mailegu eta hipoteka-kreditu guztien gainean, eta 716/2009 Errege Dekretuaren arabera aukeragarriak diren maileguen eta kredituen gainean, hurrenez hurren (1.674.097 eta 476.850 mila euro, hurrenez hurren, 2012ko abenduaren 31n).

716/2009 Errege Dekretuko 5.1 artikuluan ezarritako LTVren mugak betetzen ez dituztelako aukeragarriak ez diren eta amortizatzeko dauden mailegu eta hipoteka-kreditu guztien balio nominala 6.720.560 mila eurokoa da 2013ko abenduaren 31n (6.599.336 mila euro 2012ko abenduaren 31n). Hala ere, mailegu eta hipoteka-

kreditu hauek aukeragarriei eska dakizkiekeen gainontzeko eskakizunak betetzen dituzte. Eskakizun hauek aipaturako arauaren 4. artikuluan datoz zehaztuta.

Jarraian aukeragarriak diren mailegu eta hipoteka-kredituen xehetasuna dator, Taldearen hipoteka-zedulei lotuak 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n, kreditu eta mailegu horien kobratzeke dagoen zenbateko nagusia zati lotutako bermeen azken arrazoizko balioa eginda (LTV):

	Mila Euro	
	2013	2012
Etxebizitzaren gaineko hipoteka:		
%40tik beherako LTVdun eragiketak	5.628.025	4.958.093
%40 eta %60 arteko LTVdun eragiketak	7.652.047	6.817.516
%60 eta %80 arteko LTVdun eragiketak	9.570.110	9.223.700
%80tik gorako LTVdun eragiketak	320.191	215.499
	23.170.373	21.214.808
Bermetan jasotako beste ondasun batzuk:		
%40tik beherako LTVdun eragiketak	1.849.486	1.962.244
%40 eta %60 artean LTVdun eragiketak	1.278.556	1.668.050
%60tik gorako LTVdun eragiketak	350.570	473.994
	3.478.612	4.104.288
	26.648.985	25.319.096

Hurrengo taulan, 2013ko eta 2012ko ekitaldietan, zorroan baja izan diren mailegu eta hipoteka-kreditu aukeragarrien eta ez aukeragarrien xehetasuna agertuko dira. Halaber, epemugagatiko kitapena, kitapen aurreratua, hartzekodunaren subrogazioa edo beste arrazoi batzuegatik gertatu diren bajei buruzko portzentajeak ere zehaztuko dira:

2013ko ekitaldia	Mila Euro			
	Zorro ez aukeragarria		Zorro aukeragarria	
	Zenbatekoa	Portzentajea	Zenbatekoa	Portzentajea
Kitapenaren epemuga	1.743	%0,06	5.532	%0,18
Kitapen aurreratua	345.820	%12,36	1.095.906	%36,49
Bestelako egoerak	2.451.399	%87,58	1.901.556	%63,33
	2.798.962	%100,00	3.002.994	%100,00

2012ko ekitaldia	Mila Euro			
	Zorro ez aukeragarria		Zorro aukeragarria	
	Zenbatekoa	Portzentajea	Zenbatekoa	Portzentajea
Kitapenaren epemuga	303.130	%11,14	273.897	%16,56
Kitapen aurreratua	332.032	%12,20	337.188	%20,39
Bestelako egoerak	2.085.653	%76,66	1.042.665	%63,05
	2.720.815	%100,00	1.653.750	%100,00

Hurrengo taulan, 2013ko eta 2012ko ekitaldietan, zorroan alta izan diren mailegu eta hipoteka-kreditu aukeragarrien eta ez aukeragarrien xehetasuna agertuko dira. Halaber, eragindako operazioak, hartzekodunaren subrogazioak edo beste arrazoi batzuegatik gertatu diren altei buruzko portzentajeak ere zehaztuko dira:

2013ko ekitaldia	Mila Euro			
	Zorro ez aukeragarria		Zorro aukeragarria	
	Zenbatekoa	Portzentajea	Zenbatekoa	Portzentajea
Sortutako operazioak	715.869	%85,90	3.898.155	%89,97
Beste erakunde batzuetako subrogazioak	25.270	%3,03	117.781	%2,72
Beste gorabehera batzuk	92.207	%11,07	316.947	%7,31
	833.346	%100,00	4.332.883	%100,00

2012ko ekitaldia	Mila Euro			
	Zorro ez aukeragarria		Zorro aukeragarria	
	Zenbatekoa	Portzentajea	Zenbatekoa	Portzentajea
Sortutako operazioak	674.971	%69,19	2.073.908	%87,75
Beste erakunde batzuetako subrogazioak	8.318	%0,85	17.008	%0,72
Beste gorabehera batzuk	292.242	%29,96	272.403	%11,53
	975.531	%100,00	2.363.319	%100,00

4. Hipoteka-partaidetzei eta hipoteka-transmisioen ziurtagiriei buruzko informazioa

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n, Taldeak mantentzen dituen hipoteka-transmisioen ziurtagiri bakarrak Kutxabankek jaulkitakoak dira eta urteko kontu hauetako 25. Oharrean azalduta agertzen diren titulizazio - programen gainekoak dira.

Gainera, jarraian hipoteka-partaidetzei eta hipoteka-transmisio ziurtagiriei buruzko informazio gehigarria aurkezten da:

	Balio nominala (Mila Euro)	
	2013	2012
Jaulkitako hipoteka-partaidetzak	170.720	189.629
Horietatik: balantzean eutsitakoak	155.655	172.742
Horietatik: eskaintza publikoan ez jaulkiak	155.655	172.742
Jaulkitako hipoteka-transmisioen ziurtagiriak	4.095.567	5.907.233
Horietatik: balantzean eutsitakoak	4.095.567	5.907.233
Horietatik: eskaintza publikoan ez jaulkiak	4.095.567	5.907.233

	Batez besteko hondar epemuga (Urteak)	
	2013	2012
Jaulkitako hipoteka-partaidetzak balantzean eutsiak	13,72	17,50
Jaulkitako hipoteka-transmisio ziurtagiriak	18,42	30,42

35. Hornidurak

Hona hemen 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n balantze bateratuko epigrafe honen banantzea:

	Mila Euro	
	2013	2012
Pentsioetarako eta antzeko obligazioetarako fondoak:		
1588/1999 Errege Dekretuko pentsioetarako fondoak	74.548	71.151
Pentsioetarako bestelako fondoak	255.622	259.419
	330.170	330.570
Zergetarako eta beste lege kontingentzia batzuetarako hornidurak	1.478	1.648
Arriskuetaarako eta konpromiso kontingenteetarako hornidurak:		
Arrisku kontingenteetarako hornidurak	34.889	41.842
Konpromiso kontingenteetarako hornidurak	9.365	11.897
	44.254	53.739
Bestelako hornidurak	146.230	248.661
	522.132	634.618

“Hornidurak” epigrafean 2013ko eta 2012ko ekitaldietan izandako mugimenduak honako hauek dira:

	Mila Euro				
	Pentsioak eta antzeko obligazioak	Hornidura fiskalak	Arrisku eta konpromiso kontingenteak	Bestelako hornidurak	Guztira
Saldoa 2011ko abenduaren 31n	-	-	-	-	-
Aktiboen eta pasiboen banantzea (1.2 Oharra)	256.049	1.519	92.478	285.537	635.583
Emaizten kargurako zuzkidura -					
Langile-gastuak	4.053	-	-	-	4.053
Interesak eta antzeko kargak (46. Oharra)	7.948	-	-	-	7.948
Horniduretarako zuzkidura garbiak (57. Oharra)	99.677	129	7.904	34.983	142.693
Emaizten kargurako zuzkiduren itzulketa (57. Oharra)	-	-	(2.924)	-	(2.924)
Erabilpenak -					
Pentsioen ordainketak	(2.050)	-	-	-	(2.050)
Erretiroen aurreratuen ordainketak	(24.923)	-	-	-	(24.923)
Beste ordainketa batzuk	(6.068)	-	-	(79.335)	(85.403)
Traspasoak (25. Oharra)	-	-	(45.233)	151.084	105.851
Traspasoak (28 eta 33. Oharra)	-	-	-	(101.640)	(101.640)
Bestelako mugimenduak	(4.116)	-	1.514	(41.968)	(44.570)
Saldoa 2012ko abenduaren 31n	330.570	1.648	53.739	248.661	634.618
Emaizten kargurako zuzkidura -					
Langile-gastuak	3.477	-	-	-	3.477
Interesak eta antzeko kargak (46. Oharra)	7.055	-	-	-	7.055
Horniduretarako zuzkidura garbiak (57. Oharra)	16.829	82	32.418	14.550	63.879
Emaizten kargurako zuzkiduren itzulketa (57. Oharra)	-	-	(31.431)	(31.353)	(62.784)
Salgai dauden aktibo ez-arruten irabaziak (galerak) (60. Oharra)	-	-	-	7.000	7.000
Erabilpenak -					
Pentsioen ordainketak	(2.079)	-	-	-	(2.079)
Erretiroen aurreratuen ordainketak	(35.922)	-	-	-	(35.922)
Beste ordainketa batzuk	(7.929)	(735)	-	(67.789)	(76.453)
Sarrerak eta irteerak perimetrotik (1.3 Oharra)	-	-	-	1.109	1.109
Traspasoak (25. Oharra)	-	-	(4.860)	2.207	(2.653)
Traspasoak (28 eta 33. Oharrak)	-	-	-	(8.256)	(8.256)
Traspasoak (30. Oharra)	-	-	-	(15.183)	(15.183)
Barneko traspasoak	-	483	-	(483)	-
Bestelako mugimenduak	18.169	-	(5.612)	(4.233)	8.324
Saldoa 2013ko abenduaren 31n	330.170	1.478	44.254	146.230	522.132

“Pentsioak eta antzeko obligazioak “ epigrafeko saldoak langileriarekin hartutako konpromisoen gaur egungo balioa hartzen du barne.

“Pentsioak eta antzeko obligazioak” epigrafeko “Bestelako mugimenduak” lerroak IAS 19aren eragina jasotzen du, funtsean, Taldeak prestazio mugatuko planetatik datozen irabazi eta galera aktuariaren atal bat geroratzeko aukera zuen “fluktuazio bandaren” deusezpea ekartzeko duena. Aldaketa hori indarrean sartzea. Aldaketa hori indarrean sartzea, 2013ko urtarrilaren 1eko datan hasten diren urteko epealdi osoetarako egin denak, irabazi eta galera aktuariailak ondare garbi bateratuan, aldaketen egoeran, egoztea ekarri du, eta ezin dira galera eta irabazien kontu bateratura birsailkatu etorkizuneko ekitaldi batean (14.o Oharra). Aldaketa honen aplikazioak

ondare-eragin negatiboa izan du Talderako, 16.226 mila euroko zenbatekoan, 2013ko abenduaren 31n. Zenbateko hori ondare garbi bateratuan dago erregistratuta, "Balorazioagatiko doiketak – Gainontzekoa" epigrafean (39. Oharra).

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n balantze bateratuko "Pentsioetarako eta antzeko obligazioetarako fondoak - hornidurak" epigrafeko saldoa hau da, banakatuta:

	Mila Euro	
	2013	2012
Enplegu-ondoko ordainketengatiko konpromisoak:		
Eraginak	86.999	68.285
Lanen diharduten langileak eta aurretiko erretiroa hartutakoak	25.229	34.058
	112.228	102.343
Erretiro aurreratua emateko akordioengatiko konpromisoak	160.994	170.026
Beste konpromiso batzuk	56.948	58.201
	217.942	228.227
	330.170	330.570

Enplegu-ondoko ordainketengatiko konpromisoak

Prestazio mugatuko planak

2013ko abenduaren 31n, plan bakoitzerako taldeak enplegu-ostean ordainketa arloan hartutako konpromisoen egungo balioa, konpromiso horiek nola zeuden estalita aintzat hartuta, baita horien estaldurarako zeuden aktiboen arrazoizko balioa, loturadunena eta loturarik gabekoena, eta NIC 19an ezarritakoari jarraiki, data horretan balantzean erregistratu gabe zeuden konpromisoen gaur egungo balioa, kasuaren arabera, kontabilizatuta agertzen ziren data horretako balantzeko epigrafeen arabera, jarraian datoz:

	2013 (Mila Euro)				
	Jatorria BBK	Jatorria Kutxa	Jatorria Vital	CajaSur Banco	Guztira Taldea
Hartutako konpromisoak:					
Langile aktiboak eta aurretiko erretiroa hartu duten langileak	25.046	10.626	1.346	-	37.018
Langileria pasiboa	246.012	160.117	31.085	64.567	501.781
	271.058	170.743	32.431	64.567	538.799
Estaldurak:					
Barneko fondoak (14.o Oharra)	42.371	13.163	105	56.589	112.228
Konpromisoak estaltzeko aktiboak	255.704	179.804	35.217	7.978	478.703
	298.075	192.967	35.322	64.567	590.931

	2012 (Mila Euro)				
	Jatorria BBK	Jatorria Kutxa	Jatorria Vital	CajaSur Banco	Guztira Taldea
Hartutako konpromisoak:					
Langile aktiboak eta aurretiko erretiroa hartu duten langileak	32.797	12.719	1.716	460	47.692
Langileria pasiboa	260.004	177.111	34.757	60.632	532.504
	292.801	189.830	36.473	61.092	580.196
Estaldurak:					
Barneko fondoak (14.o Oharra)	36.252	11.576	70	54.445	102.343
Konpromisoak estaltzeko aktiboak	244.903	175.479	34.291	6.647	461.320
	281.155	187.055	34.361	61.092	563.663

Ohar honetan deskribatutako prestazio mugatuko plan bakoitzerako pentsioengatiko konpromisoak zehazteko helburuz, Taldeak kreditu-kalitate altuko erakunde bono europarren kurben emaitzekin bat datorren deskontu-tasa erabili du (Iboxx Corporates AA), kurba horien epemugak konpromisoenetara egokituz.

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n, enplegu-osteko ordainketengatiko konpromisoen estaldurei buruzko azterketa aktuarialak egin dira, eta kalkulu-metodoa proiektatutako kreditu-unitatearena izan da eta langile bakoitzaren erretirorako adinean erretiratzeko eskubidea duen lehendabizikoa hartu da. Azterketa aktuarialean erabilitako hipotesi aktuarial esanguratsuenak honako hauek dira:

Interes-tasa teknikoa	%3
Hilkortasun taulak	PERM/F 2000P
Baliaezintasun taula zuzenduak	EVKM/F 90
Pentsioak berrikusteko urteko tasa	%2
Soldaten hazkunderako urteko tasa	%2
Prezioen igoerarako urteko tasa metagarria	%2

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n enplegu-osteko ordainketen estaltzeko esleituta zeuden aktiboen arrazoizko balioaren banantzea honako hau da:

	2013 (Mila Euro)				
	BBK	Kutxa	Vital	CajaSur Banco	Guztira Taldea
Ondare BGAE-ak	255.704	179.804	35.217	-	470.725
Konpromisoak estaltzera bideratutako aktiboak	-	-	-	7.978	7.978
Guztira	255.704	179.804	35.217	7.978	478.703

	2012 (Mila Euro)				
	BBK	Kutxa	Vital	CajaSur Banco	Guztira Taldea
Ondarea BGAE-ak	244.903	175.479	34.291	-	454.673
Konpromisoak estaltzera bideratutako aktiboak	-	-	-	6.647	6.647
Guztira	244.903	175.479	34.291	6.647	461.320

Jarraian, 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n goiko taulan sartutako planeko aktiboak osatzen zituzten aktibomota nagusien arrazoizko balioaren xehetasunak azalduko dira:

	2013 (Mila Euro)				
	BBK	Kutxa	Vital	CajaSur Banco	Guztira Taldea
Akzioak	164	-	-	-	164
Zor-tresnak	254.561	173.262	34.032	7.978	469.833
Bestelako aktiboak	979	6.542	1.185	-	8.706
	255.704	179.804	35.217	7.978	478.703

	2012 (Mila Euro)				
	BBK	Kutxa	Vital	CajaSur Banco	Guztira Taldea
Akzioak	122	-	-	-	122
Zor-tresnak	244.549	172.516	31.523	6.647	455.235
Bestelako aktiboak	232	2.963	2.768	-	5.963
	244.903	175.479	34.291	6.647	461.320

Enplegu-osteko ordainketen estaltzeko esleituta zeuden aktiboen etekina 2013ko ekitaldirako, urteko %0,01 eta %11,30 artean mugitu da (%0,10 eta %8,47 2012ko ekitaldian).

Era berean, aktibo horietarako 2014rako espero den etekina, urteko %0,00 eta %5,45 artekoa da.

Jarraian dator prestazio mugatuko enplegu-osteko konpromisoekin zerikusia duten zenbait magnituderen balioa 2013ko abenduaren 31n, magnitude horien berberen azken lau ekitaldietako datuekin batera, alderatze ondorioetarako:

	Mila Euro				
	2013	2012	2011(*)	2010(*)	2009(*)
Prestazio Mugatuko obligazioen gaur egungo balioa	538.799	580.196	529.158	543.431	566.479
Estaldurak	590.931	563.663	553.611	569.133	599.191
Superabita/(Defizita)	52.132	(16.533)	24.453	25.702	32.712

(*)Aktiboen eta pasiboen banantze operazioan du jatorria (1.2 Oharra).

Goiko taulan agertzen diren superabita eta defizitak BGAEn integratutako aktiboen arrazoizko balioa eta horietan kanporatu diren konpromisoen gaur egungo balioaren artean dagoen soberakina jasotzen dute, funtsean, baita BGAEn erregulazioak mantentzea galdatzen dien kaudimen marjina ere. Kaudimen hori 13.911 mila eurokoa zen 2013ko abenduaren 31n (15.225 mila eurokoa 2012ko abenduaren 31n). Aipatutako kaudimen marjina ez da aktibo gisa erregistratu, Taldeak BGAEn itzulketarik edo etorkizuneko fluxuen murrizketarik lortzea zaila dela iritzi diolako.

Hipotesi nagusien aldaerak konpromisoen kalkulari eragin diezaiokete. Deskontu interes-tasa 50 oinarritzko puntutan igo edo murriztu balitz, Erakunde Nagusiaren konpromisoen gaur egungo balioa, gutxi gorabehera, 23 edo 25 milioi eurotan murriztuko edo igoko zatekeen, hurrenez hurren.

Jarraian, plan bakoitzari lotutako aktiboen arrazoizko balioaren 2013ko eta 2012ko ekitaldiko hasierako saldoa eta amaierako saldoaren arteko uztartzea azalduko da:

	Mila Euro		
	Kutxabank	CajaSur Banco	Guztira Taldea
Saldoa 2012ko urtarrilaren 1ean	-	-	-
Aktiboen eta pasiboen banatzea (1.2 Oharra)	483.382	62.911	546.293
Indarrean dagoen ekitaldiko zerbitzuen kostua	-	9	9
Interesengatiko kostuak	14.501	2.550	17.051
(Galera) eta irabazi aktuarialak	59.172	-	59.172
Bestelakoak	-	388	388
Prestazio ordainduak	(37.951)	(4.766)	(42.717)
Saldoa 2012ko abenduaren 31n	519.104	61.092	580.196
Indarrean dagoen ekitaldiko zerbitzuen kostua	-	-	-
Interesengatiko kostuak	15.712	2.472	18.184
Obligazio murrizketa planaren likidazioarengatik	-	(357)	(357)
(Galera) eta irabazi aktuarialak	(22.944)	6.065	(16.879)
Prestazio ordainduak	(37.640)	(4.705)	(42.345)
Saldoa 2013ko abenduaren 31n	474.232	64.567	538.799

Arestian aipatu dugunez, konpromiso hauek barneko fondoek nahiz loturadun aktiboek estalita daude. Plan bakoitzari lotutako aktiboen arrazoizko balioari dagokionez, jarraian aurkeztuko da, plan bakoitzari lotutako aktiboen arrazoizko balioaren 2013ko eta 2012ko ekitaldien hasierako eta amaierako zenbatekoen arteko uztarketa:

	Mila Euro		
	Kutxabank	CajaSur Banco	Taldea guztira
Arrazoizko balioa 2012ko urtarrilaren 1ean	-	-	-
Aktiboen eta pasiboen banatzea (1.2 Oharra)	460.453	6.513	466.966
Planeko aktiboetatik espero den etekina	20.598	134	20.732
(Galera) eta irabazi aktuarialak	5.103	-	5.103
Planeko kideek egindako ekarpenak	4.420	-	4.420
Prestazio ordainduak	(35.901)	-	(35.901)
Arrazoizko balioa 2012ko abenduaren 31n	454.673	6.647	461.320
Planeko aktiboetatik espero den etekina	20.002	283	20.285
(Galera) eta irabazi aktuarialak	29.375	1.432	30.807
Planeko kideek egindako ekarpenak	1.198	-	1.198
Prestazio ordainduak	(34.523)	(384)	(34.907)
Arrazoizko balioa 2013ko abenduaren 31n	470.725	7.978	478.703

“Arriskuak eta konpromiso kontingenteak” epigrafeak arrisku kontingenteak estaltzeko eraturako horniduren zenbatekoa hartzen du barne. Taldeak hirugarren baten obligazioak bermatzen dituztenean dira mota horretako operazioak, emandako finantza-bermeen edo beste mota bateko kontratu batzuen ondorioz sortuak, baita konpromiso kontingenteetatik ere, konpromiso atzerazekin gisa ulertuak, finantza-aktiboen aitortza ekar lezaketanak.

Goiko taulako “Bestelako hornidurak” epigrafeko saldoaren helburua balizko kontingentziak estaltzea da, pasiboak eta Taldeak izan litzakeen beste egoera berezi batzuk, bere ohiko jardueraren garapenean. Hornidura hauek etorkizuneko obligazioen balioespen onenari erantzuten diote, iraganeko gertakizunen ondorioa sortuak, eta argi zehaztuta daudenak euren izaerari dagokionez, finantza egoeren datan, baina zehaztugabeak dira, haien zenbatekoari edo kitapen-uneari dagokionez. Horiek epemugan eta kitatzeko, Taldeak mozkin

ekonomikoak dituzten baliabideak askatzea espero du. Hornidurak sortu dituen gertaeraren ondorioei buruz eskura dagoen informaziorik onena aintzat hartuta zenbatekotzen dira eta kontabilitate-itxiera bakoitzean balioesten dira. Horiek zenbait betebeharrak berezitarako aitortu ziren, bada, betebeharrak berezietan horiei aurre egiteko erabiltzen dira eta lehengoratu egiten dira, erabat edo partzialki, obligazio horiek desagertu edo murrizten direnean

Bideratzen ari diren prozedura judizialak eta/edo erreklamazioak

2013ko maiatzaren 21an, Kordobako Audientzia Probintzialak eman zuen epaiaren bidez, CajaSur Banco, S.A.U.k Kordobako Merkataritza 1. Epaitegiak 2012ko azaroaren 16an emandako epaiaren kontra jarritako apelazio helegitea ezetsi zuen. Merkataritza Epaitegiak emandako epai haren ondorioz, CajaSur Banco, S.A.U.k egindako maileguetako jarraian adieraziko den edukiko klausularen deuseztasuna aitortu zen:

“Arestian adierazitakoaren kalterik gabe, ezar daitekeen interes-tasa ezin daiteke urteko %3 nominala baino baxuagoa ezta urteko %12ko baino altuagoa izan. Hitzartutako aldaketa irizpidearen arabera egindako kalkulatik arestian zehaztutako mugak baino baxuagoak edo altuagoak diren interes-tasak eratoritzen badira, azken horiek ezarriko dira”.

Horrela, Taldeko CajaSur Banco, S.A.U. Erakundea aipatutako klausula mailegu-kontratuetako baldintza orokorretatik ezabatuz zigortu zen eta hurrengoetan ez erabiltzera. Konklusio bera hartu zen, urteko %4 nominalerako zorua eta urteko %12 nominalerako goia jasotzen zuten klausulei zegokienez.

Kordobako Audientzia Probintzialeko epaiari errekurtsua jarri zion CajaSur Banco, S.A.U.k 2013ko uztailaren 3an. 2013ko irailaren 2an, Kordobako Merkataritzako 1. Epaitegiak lehen aipatutako epaia behin behinean betearaztea erabaki zuen, eta ebazpena baieztatu zuen, CajaSur Banco, S.A.U.k jarritako helegitearen ostean, 2013ko azaroaren 5ean. Epaitegiaren erabakiaren kariatz, CajaSur Banco S.A.U.k probisionalki egikaritu du epaia, beraz, ezartzeari utzi dio, momentuz, aldi baterako, kontsumitzaileekin sinatutako maileguetan sartutako aipatutako zoru-klausula horiek, CajaSur Banco S.A.U.k Epaitegi Gorenaren aurrean aurkeztu duen kasazio-helegiteak erator litezkeen ondorioen zain. Kontratu mota hauetarako gehienbat erabiltzen den erreferentzia-indizearen gaur egungo kotizazioaz, urte baterako Euriborra, epaiaren eraginpean dagoen hipoteka-zorroari neurri hau ezartzeak, zerga aurreko mozkinaren murrizketa ekarri du 2013ko ekitaldiko azaroan eta abenduan, zehazki 9 milioi euro baino gutxiagoko murrizketa. Hurrengo hilabeteetan urte baterako Euriborraren bilakaeraren mende egongo da eragina.

Gainera, 2013ko eta 2012ko ekitaldien itxieran, Taldearen kontra ekindako zenbait prozesu judizial eta erreklamazio zeuden hasita. Ekimen horien jatorria Taldearen ohiko jarduna dago.

Kreditu inbertsio GARBIA	45.694.286	48.880.602	(6,5)
Balantze baliabideak	49.787.852	52.228.742	(4,7)
Balantzetik kanpoko baliabideak	12.491.649	10.130.775	23,3
Bezeroen baliabideak	62.279.501	62.359.517	(0,1)
NEGOZIO BOLUMENA	111.000.114	114.693.859	(3,2)

Kudeatutako Bezeroen Baliabideen bolumena 62.280 milioi eurokoa da, aurreko ekitaldiaren zenbatekoarekin alderatuta oso antzekoa dena. Taldearen likidezia-egoera sendoak pasiboaren kudeaketa egokia ahalbidetu du, "pasiboaren gerran" sartu gabe, epeak luzatuz eta produktuak dibertsifikatuz. Horretarako, egituratutako gordailuak eta Inbertsio Fondoetarako traspasoak ere indartu ditu. Transakzio arrazoiengatiko ageriko gordailuen hazkunde indartsuak, aldiz, bezeroek Kutxabank Taldearekin duten lotura berresten du. Bestalde, atal honek lagatzaile anitzeko Hipoteka-zedulak batzen ditu, saldoak ekitaldian nabarmen amaituta eta berriztatu gabe dituztenak. Hipoteka-zedula hauen eragina isolatuta, Kudeatutako Bezeroen Baliabideen hazkundea %1,7koa izan da.

Xehekako Negozio Sareen baliabideak %3,6 hazi dira, eta Inbertsio Fondoek zein Pentsio Planek %35,4ko eta %8,8ko hazkunde nabarmena izan dute, hurrenez hurren. Beste alde batetik, Handizkako Sareek, kontratazio-prezioen kudeaketa zuhurra dela eta, %14,3ko jaitsiera izan dute. Handizkako merkatuen finantzaketa %25 inguruan dago, eta 2012an %30 inguruan zegoen.

Mila €	2013	2012	Δ%
ARLO PRIBATUA	42.395.645	44.780.713	(5,3)
Ageriko gordailuak	17.279.922	16.779.646	3,0
Eperako gordailuak	23.487.136	25.951.155	(9,5)
Aktiboen aldi baterako lagapena	1.043.623	1.256.439	(16,9)
Balorazioagatiko doiketak	584.964	793.473	(26,3)
ARLO PUBLIKOA	1.739.397	1.815.860	(4,2)
BALORE NEGOZIAGARRIEK ORDEZKATUTAKO ZORRAK	5.567.162	5.306.585	4,9
MENDEKO PASIBOAK	85.648	325.584	(73,7)
BEZEROEN BALIABIDEAK BALANTZEAN	49.787.852	52.228.742	(4,7)
Balantzetik kanpoko baliabideak	12.491.649	10.130.775	23,3
KUDEATUTAKO BEZEROEN BALIABIDEAK	62.279.501	62.359.517	(0,1)

TALDEA GUZTIRA

Mila €	2013	2012	Δ%
Inbertsio Fondoak	7.372.867	5.244.499	40,6
BGAEak eta Pentsio Fondoak	5.074.604	4.716.495	7,6
Aseguru mistoak eta bestelakoak	44.178	169.781	(74,0)
BALANTZETIK KANPOKOA GUZTIRA	12.491.649	10.130.775	23,3

Desapalankatze gogorra ezaugarri duen urte batean, Kutxabank Taldeko Kreditu Inbertsio Garbiak %6,5eko erorketa izan du, 45.694 milioi eurora heldu arte (48.721 zenbaki gordinetan). Kredituen murrizketa askoz esanguratsuagoa da Handizkako Sareetan, Taldeak arrisku-mailen nahita izandako birkokatze-estrategiaren ondorioz. Bestalde, Xehekako Sareetan kreditua askoz gutxiago murriztu den arren (%5,7), eskaeraren ahuleziak ez du ahalbidetu kredituaren amortizazio eta murrizketa naturalak orekatzea. Izan ere, erorketa hau gorabehera, Kutxabankek kontratazio-kuotari eutsi dio bere

erreferentzia-merkatuan, eta horrela, Euskadin egin diren hipoteka maileguen %36 baino gehiago Kutxabanki dagokio, bere lidergoa indartzen duena. Era horretan, Kutxabankek jarraitu egiten dio ohiko bezeroak artatzeko duen strategiari, produktu-sorta lehiakorraren bidez. Gainera, Kutxabank Kredit-en integrazio osoz, 2013an xehekako bezeroentzako kontsumorako kredituen eskaera sendotu da.

Mila €	2013	2012	Δ%
SEKTORE PRIVATUA	46.943.436	50.652.642	(7,3)
Berme errealeko zordunak	36.115.239	38.357.791	(5,8)
Epeko beste zordun batzuk	4.188.708	5.686.131	(26,3)
Ageriko zordunak	846.060	1.130.411	(25,2)
Kreditu komertziala	215.396	307.629	(30,0)
Finantza errentamenduak	100.117	114.044	(12,2)
Zalantzako aktiboak	5.477.916	5.056.636	8,3
SEKTORE PUBLIKOA	1.777.177	1.681.700	5,7
KREDITUA BEZEROEI GORDINA	48.720.613	52.334.342	(6,9)
BALORAZIOAGATIKO DOIKETAK	(3.026.327)	(3.453.740)	(12,4)
KREDITUA BEZEROEI GARBIA	45.694.286	48.880.602	(6,5)
Beste finantza aktibo batzuk	233.472	291.229	(19,8)
KREDITUA BEZEROEI	45.927.758	49.171.831	(6,6)

SAREBera pasatutako kreditu-arrisku kaltetuei onurarik atera ez arren, Zalantzako Aktiboak gainontzeko banku-sistemarenak baino erritmo motelagoz hazten dira, eta berankortasunaren tasa %11,16koa da. Kreditu-arriskuaren kudeaketaren azken aldia, aktibo higiezinaren kudeaketa da, "Salgai dauden Aktibo ez-korronteak" eta "Aktibo Materiala" ataletan zenbatuak, eta guztira %10,6 jaitsi direnak.

Era berean, Kutxabankek 6.538 milioi euroko finantza-aktiboen zorroa du, eta horietatik 3.500 baino gehiago errenta finkoko tituluak dira. Errenta aldakorreko tituluen artean, Partaidetuen zorroa nabarmendu behar da, energiaren eta komunikabideen arloetan batez ere kokatu dena. Zorro hau erakundeak inguruko industria-sarearekin eta giza sarearekin duen konpromisoaren isla da. Oro har, inbertsioek iraunkortasun asmo argiko estrategia-izaera duten arren, zorroa etengabe berrikusten da, parte hartzen dueneko proiektuen zikloetara moldatuta beti, kontrolatutako merkatu-arriskura egokitutako errentagarritasun osoko mailen bilaketa ahaztu gabe. Ekitaldiaren itxieran, errentagarritasun aldakorreko zorroaren gainbalioak 220 milioi eurotara heltzen dira.

Mila €	2013	2012	Δ%
Beste finant. aktib. batzuk arraz bal. aldaketak G eta I	44.772	100.000	(55,2)
Salgai dauden finantza aktiboak	5.901.703	7.673.853	(23,1)
<i>Zorra ordezkatzan duten baloreak</i>	<i>3.493.919</i>	<i>4.838.338</i>	<i>(27,8)</i>
<i>Beste kapital tresna batzuk</i>	<i>2.407.784</i>	<i>2.835.515</i>	<i>(15,1)</i>
Partaidetzak	591.381	594.943	(0,6)
Orotara	6.537.856	8.368.796	(21,9)

Kutxabanken Ondare Garbia 4.913 milioi eurokoa da, eta horri esker, Taldea finantza-sistemaren erakunderik kapitalizatuenen artean dago oraindik. Kaudimen-ratioak sistemaren onenarikoen artean dago, eta bere Core Tier 1 zein Kapital Nagusia %12,0koa da. Bere Kaudimen-koefizientea %12,4koa da. Horrela, bai Europako agintarien bai Espainiako Gobernuaren gutxieneko eskakizunen gainetik dago oso. Kaudimenaren hobekuntza funtsean arriskuaren arabera neurtutako aktiboen kudeaketaren bidez lortu da, eta ez laguntza publikoen, kapital-zabalkuntzaren edo tresna hibridoaren jaulkipenaren bitartez.

Mila €	2013	2012	Δ%
Norberaren fondoak	4.676.556	4.602.213	1,6
Kapital soziala	2.000.000	2.000.000	-
Jaulkipen prima	2.545.553	2.545.553	-
Erreserbak	22.684	-	-
Taldeari egotzitako emaitza	108.319	84.560	28,1
Konturako dibidendua	-	(27.900)	(100,0)
Balorazioagatiko doiketak	223.402	143.384	55,8
Gutxiengodunen interesak	12.612	83.898	(85,0)
Ondare garbia	4.912.570	4.829.495	1,7

3. JARDUERA KOMERTZIALA

BBKren, Kutxaren eta Vital-en sare eta sistema informatikoen integrazio eragileen batzea plataforma bakar batean jarduera komertzialean arrakastatsua izan da. Izan ere, Taldea kokatze teknologiko hobezinaz hornitu du, sare guztiek baliabide eta politika komertzial berberak partekatzen dituzte. Gainera, integrazioak Kutxabanken erabiltzeei, hobari komertzial arruntez, produktu-aukera eta zerbitzu erabilgarri zabalagoaz eta berdintsuagoaz baliatzeko aukera ematen die.

Teknologien bateratzearen oinarriarekin, 2013an Kutxabankek Banka mugigarria martxan jarri du, bai partikularrentzat bai enpresentzat, bezeroen ohiko banku kudeaketen eskuragarritasuna hobetuz.

Familien aurrezteko pizgarria kentzen duen interes oso baxuko testuinguruan, Kutxabanke bere bezeroentzako balio erantsi altuko aurrezteko eta inbertitzeko produktuen eskaintza merkaturatzen jarraitu du. Horren ondorioz, ekitaldian zehar aurrezkie geureganatzeko joera positiboa izan da, ageriko aurrezkian, aurreikuspen produktuetan eta inbertsio fondoetan igoera nabarmena. Izatez, "Kutxabank Gestión" Estatuan gehien hazi den kudeatzailea da, kudeatzen duen ondasunen %40ko hazkuntza urteko, 6.725 milioi euro baino gehiago eta 200.000 bezero baino gehiago.

Kutxabanke ahalegin handia egiten jarraitu du bezeroen finantziario beharrak aseta mantentzeko eta jarduera ekonomiko eta komertzialaren garapena bultzatzeko.

Nahiz eta hipoteka-merkatuan kreditu-eskariaren jaitsiera nabarmena izan, eta dagokion inbertsioaren jaitsiera, Euskal Autonomia Erkidegoko hipoteka-merkatuaren kuotaren nagusitasunak gora jo du 2013an, berriz ere. Krisialdi garaian, finantza-taldearen hipoteka-maileguaren kuotak gorantz egin du, iazko urtean zehar egonkor mantendu den bitartean, abenduan gorakada txikia izanda, beti ere, arrisku azterketa eredu zorrotzetik eta kreditu arduratsutik.

Jarduera ekonomikoa sustatzeko helburuaz, Kutxabanke hainbat lankidetzak akordio sinatu ditu erakunde publiko eta pribatuekin, baita enpresa eta komertzio erakundeekin ere, zeinekin lehentasunezko finantziario ildoak ezarri dituen.

Kontsumoa bultzatzeko, Taldeak mailegu pertsonalak kontratatuzko eta erakundearen txartelaren erabilera bultzatzeko pizgarri-kanpaina berriak atera ditu. Kutxabanke 1.250.000 arte igo du, erraz kontrata daitezkeen mailegu pertsonal aurre-eman eran, merkatuan kokatu dituen 24.500 milioi euroz onura daitezkeen sailkatutako bezero kopurua. Era berean, atzeratutako ordainketak egiteko diseinatutako txartelak merkaturatu ditu edo berehalako kredituak, saltokietan erosteko. Finantzaketa formula hauek guztiak, arriskuaren eta kreditu arduratsuen azterketa zorrotzeko eredu batean oinarritzen dira.

Bulego sarea

Kutxabank Taldeak, 2013ko abenduaren 31n, 1.066 bulego osatutako sarea du, horietatik 679 Kutxabankenak dira eta 387 CajaSur Bankukoak, ekitaldia orotara 145 itxi ditu. Horietatik 1.048k Xehakako Sareko bezeroak artatzen ditu eta 18k Enpresa Sarekoak. Banaketa geografikoa honako hau da:

	Kutxabank	CajaSur B.	TALDEA
Euskadi	436		436
<i>Bizkaia</i>	213		213
<i>Gipuzkoa</i>	132		132
<i>Araba</i>	91		91
Andaluzia		377	377
<i>Kordoba</i>		165	165
<i>Jaen</i>		65	65
<i>Andaluzia gainontzekoa</i>		147	147
Madril	85		85
Valentziako erkidegoa	41		41
Katalunia	34		34
Gaztela-Leon	15		15
Kantabria	13		13
Aragoi	10		10
Extremadura		10	10
Nafarroa	10		10
Galizia	10		10
Errioxa	7		7
Gaztela-Mantxa	6		6
Murtzia	4		4
Asturias	3		3
Frantzia	5		5
Orotara 2013	679	387	1.066

4. ARRISKUEN KUDEAKETA

Arrisku-profil egokiari eustea elementu gakoa da Kutxabank Taldearen kudeaketan, azken finean, jarduerak iraungo duen bermerik onena baita eta, ondorioz, jabeen bidez, gizarteari egingo dion ekarpenarena.

Profil honen egokitasun-maila hiru elementuren arteko harreman orekatu iraunkorra izateak zehazten du: hartu den arriskuaren maila; kontrol eta kudeaketa egokirako dauden antolakuntza ahalmena eta ahalmen teknikoa; eta egiaztatutako baliabide propinen maila. Azken honek zehazten baitu, azken finean, garatzen diren jarduerari datzekien arriskuak gauzatu direlako gerta litezkeen ezusteko galerak irensteko Taldeak duen finantza-ahalmena.

Aipatutako hiru elementuetatik, bi kaudimen koefizienteak jasotzen ditu, ratio honek baliabide propioak eta onartutako arriskuaren arteko harremana jasotzen du, zenbait ezaugarri garrantzitsuren arabera haztatu ostean.

Testuinguru honetan, gainbegiratze arduratsuekin zerikusia duen araudi europarraren eraldaketa garrantzitsua gertatzen ari da. Alde batetik, 2010ean Basileako Banku Gainbegiratze Batzordetik (Basilea III) datozen zuzentarauak sartzen ari dira, baina, era berean, Europar batasunaren eremuan galda daitezkeen eskakizun berriak sortzen ari dira.

Horregatik, kapital gehiago eta hobearren eta, Basilea IIItik eratorritako palankatzerako mugen eskakizunak betetzeaz gain, finantza erakunde europarrak eskakizun gehigarrien mende egongo dira, sistema-koltxoien eran, eta Bail-in Ratio berriarenak.

Kaudimen arloan gero eta eskakizun handiagoa dagoen testuinguru honetan, 2013an, Kutxabank Taldeak nabarmen indartu du bere kaudimen-posizioa, bere arrisku-zorroaren optimizatzea eta kapitalaren barneko sorreraren bidez. Zehazki, bere Core Tier I ratioa 184 oinarriko puntutan igotzea lortu du, %12,0an

kokatu arte (%12,4 orotarako kaudimen terminotan), indarrean dagoen araudiak galdatutako mugetatik askoz gorago.

2014an, kaudimen araudi berria sartuko da indarrean, kapitalaren eta arriskuen zenbaketaren arauen gogortzea eta finantza erakundeei galda dakizkiekeen gutxieneko atalaseen igoerarekin uztartuz. Erakundeen gaineko bere eragina leuntzeko helburuz eta, ondorioz, jarduera ekonomiko osoaren gainekoa, mailaz maila ezartzeko egutegia diseinatu da, eta 2019an amaituko da, atalaseei dagokienez, eta 2023an, zenbaketa-arauei dagokienez. Mailaz maila ezartzeko mekanismoak alde batera utzita, Kutxabank Taldeak %10,8ko Core Tier I fully loaded Ratioa du 2014ko urtarrilaren 1ean.

Ohiko kaudimen ratioez gain, araudi berriak finantza erakundeen palankatze globalari muga ezarriko dio. Horretarako, Palankatze Ratioa erabiliko du, erakunde baten kapitala eta hartzen duen orotarako arriskuaren arteko proportzioa neurtzen duena. Gaur egungo krisian, ratio honek kaudimen ohiko beste adierazle batzuk baino balio iragarle handiagoa duela erakutsi du. Nahiz eta bere zehaztapen teknikoak eztabaida fasean egon, eta horren ondorioz behin betiko bertsiorik ez egon, Kutxabank Taldeak, 2013ko itxieran, adierazle hori %7,0an dagoela, eta eskatuko den gutxieneko atalasea %3an egongo dela uste du.

Hirugarrenik, etorkizuneko Ebazpen Zuzentarauak arazoak dituzten finantza-erakundeek jarraitu beharreko arauak ezarriko ditu, baita erakundeek prest izan behar dituzten fondoek gutxieneko mailak ere (norberarenak eta besteenak), lehendabizi bere gain har ditzaten gerta daitezkeen balizko galerak. Exijentzia berri hau adierazle berri baten bidez neurtuko da, Bail-in Ratioa. Ratio hori ere diseinu fasean dago. Kasu honetan, Kutxabank Taldeak uste du %8,4ko Bail-in Ratioaz itxiko zukeela 2013, beraz, aipatutako zuzentarauak eskatuko duen %8ko atalasea, oraintxe bertan beteko luke.

Hirugarren elementuari dagokienez, arriskua kudeatzeko azpiegitura, Taldea arrisku-mota desberdinen kontrol-markoen hobekuntza handiak egiten ari da azken ekitaldian, maila teknikoan nahiz antolakuntzakoan. Hobekuntza horiek finantza-industriaren bilakaera metodologikoaren ildotik burutu dira, baita indarrean sartzen joan diren araudi jarraibideen ildotik ere.

Dena dela, gaur egungo krisi ekonomiko eta finantzarioa, erakundeek ezarri dituzten kontrol-marko anitzen egokitasuna probatzen ari da, espero ez zen zorrotasun maila altuan. Zentzu honetan, Taldea ez dago mundu mailan dagoen testuinguru hain kontrakoak eragiten dituen ondorioetatik salbu.

Hala ere, arrisku adierazle nagusiek taldean izan duten portaera, sektorearen batez bestekoaren baino hobea izan da, beraz, horren kudeaketara bideratutako giza baliabide eta baliabide materialen egokitze maila altua egiaztatzen du horrek. Finantza-erakunde askok porrot egin duten edo kanpoko kapital txertaketa handiak behar izan dituzten testuinguru hurbileko eta nazioarteko honetan, Taldeak bere emaitzei eutsi die eremu positiboan. Hala ere, emaitzak zikloaren aurreko fasean baino apalagoak izan dira, eta bere kaudimen-maila indarrean dauden araudien eskakizunak aise gainditzen dituzten mailetan mantendu da.

Kutxabank Taldeak egiaztatutako kaudimenak, sektorearena baino hobea izan den arrisku-zorroaren batez besteko kalitateari lotuta, agintari gainbegiratzailer europarrek 2014an egingo dituzten erresistentzia frogar berriei konfiantzaz aurre egitea ahalbidetzen dio.

Kreditu arriskuak (kreditua, kontra alderdia, kontzentrazioa, herrialdea)

2013ko ekitaldian Espainiako jarduera ekonomikoko adierazle nagusien narriadurak jarraitu zuen. Horrek, kreditu inbertsioraren Taldeko berankortasun-tasaren igoera ekarri du, %9,57tik %11,16ra igarota.

Deskribatutako igoera eman bazen ere, bere bilakaera finantza-sektorearen batez bestekoaren erregistratutakoa baino nabarmen hobea izan zen, hiru puntu baino gehiago igo baitzen, %10,43tik %13,61era (kredituak beste sektore egoiliar batzuei), nahiz eta Memorandum of Understanding (MoU) delakoan 2. Taldean sailkatutako erakundeek kreditu arazotsuak SAREBi traspasatu dizkioten, berri ere, 2013ko otsailen.

2012 eta 2013 bitartean, SAREBi traspasatu zaion 40.000 milioi euro inguru kenduko bagenu, finantza-sistemaren berankortasun-tasa %16 inguruko mailetan kokatuta legoke.

Talde ahalegin handia egiten ari da, bere aktibo arazotsuen zorroa garbitzeko. Horren ondorioz seihilekoaren amaieran, bere zalantzako aktiboen gaineko %57,7ko estaldura-tasak aurkez ditzake, eta %46,4koa esleitutako bere aktibo materialen gainean.

Finantza arriskuak (likidezia, merkatua, interes-tasak, truke-tasak)

Likidezia arriskuari dagokionez, Kutxabank Taldeak bere maniobra fondoan eta bere bezeroen gordailuetan oinarritutako finantza-egitura du, eta horri esker, handizkako finantzaketari egin behar dion eskaera maila apalean mantentzen da eta hornitzaile zein muga eguneratze aniztasun altuaz. 2013ko ekitaldian, finantza-sektoreak bizi duen desapalankatze orokor prozesuak aurrera egin zuen, eta horren ondorioz, Taldearen likidezia egoeraren indartze gehigarria etorri zen.

Taldearen balore kotizatuen zorrei datzekien arriskuari dagokionez, bere emaitza kontuan aktibo mota honekin zerikusia duten sarrera garbi garrantzitsuak izaten jarraitu du, dibidendu / kupoiak kontzeptupean nahiz gainbalioen gauzatzea. Gainera, 2013an, salmenta eta amortizazio garrantzitsuak burutu dira, eta Taldeak duen mota honetako arriskua murrizten lagundu dute.

Interes-tasaren arriskuari dagokionez, Taldeak bere aktiboen eta pasiboen muga eguneratze eta balio murriztean egitura kudeatzen jarraitzen du, Banku Zentral Europarraren moneta-politikak bere interes-marjinaren gainean izaten ari den eragina minimizatzen. Banku horren politika, zordundutako eragile ekonomikoen, finantza bideragarritasuna bultzatzera, eta horrekin batera, jarduera ekonomikoaren maila bultzatzera, bideratutako interes-tasa baxuetan oinarrituta.

Eragiketen arriskua

Ekitaldian, Kutxabank Taldeak izaera anitzeko arriskuei metodologia homogeenak ezartzea ahalbidetzen duen eragiketen arriskuaren kontrol marko baten diseinuan eta ezarpenean sakontzen jarraitu du.

Eragiketa galeren gauzatzeari dagokionez, 2013an, ez da garrantzi bereziko gertaerarik izan, eta urtean erregistratutako galera gertakizunen zenbatekoa orotara maila oso apaletan mantendu da, Taldearen emaitza konturako, informazio hau biltzen denetik gertatzen ari denez.

Beste arrisku batzuk (ospearena, estrategikoa, pentsioak ...)

Taldeak beste arrisku mota batzuen kudeaketara bideratutako kontrol markoen ezarpenean jarraitzen du.

5. IKERKETA ETA GARAPENA

Kutxabank Taldeak balibide teknologikoen aprobeixamendu politikari eutsi dio, eta emaitza onak izan ditu prozesuen eraginkortasunean eta arrazionalizazioan. Kostuetan aurreztea, bezeroei emandako zerbitzuaren kalitatea hobetzea eta berrikuntza teknologikoko eta funtzionaleko beharrezan berriei aurre egitea ahalbidetzen duten aplikazioak garatu dira. Kutxabankek langileen prestakuntzan eta negozioaren beharrezan berrietara egokitzeko ahaleginean zein bere profesionalen etengabeko garapenean aurrera egin du.

Prozesu hori errazteko, etengabeko ikasketara bideratutako prestakuntzaren garapen estrategia bultzatu da.

6. 2014RAKO IKUSPEGIAK

Kutxabank Taldearen ondare eta kaudimen egoerak, arrisku maila baxuko tokiko bankaren bere negozio-eredu egiaztatuak partikularretan zentratua, eta diru-sarrera errepikariak sortzeko bere ahalmen frogatuak, 2014an planteatzen diren erronkei eta zailtasunei aurre egiteko eta gainditzeko, egoera ezin hobean kokatzen du.

7. GEROKO GERTAKIZUNAK

2013ko abenduaren 31tik urteko kontu bateratu hauek egin diren arte, ez da Taldeari eragin esanguratsua egin dion gertakizun gehigarririk izan.

8. NORBERAREN AKZIOAK

2013ko ekitaldian Taldeak ez du salerosketa ez bestelako jarduerarik egin norberaren akzioekin.

9. ERAKUNDE GOBERNUAREN URTEKO TXOSTENA

**AURREZKI KUTXAK EZ DIREN ETA MERKATU OFIZIALETAN NEGOZIATZEN DIREN
BALOREAK JAULKITZEN DITUZTEN BESTE ERAKUNDE BATZUETAKO ERAKUNDE
GOBERNUAREN URTEKO TXOSTENA**

AULKITZAILEAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK

ERREFERENTZIAZKO EKITALDIAREN AMAIERA-DATA	2013/12/31
IFK	A95653077
IZEN SOZIALA	KUTXABANK, S.A.
HELBIDE SOZIALA	KALE NAGUSIA 30

**AURREZKI KUTXAK EZ DIREN ETA MERKATU OFIZIALETAN NEGOZIATZEN DIREN
BALOREAK JAULKITZEN DITUZTEN BESTE ERAKUNDE BATZUETAKO ERAKUNDE
GOBERNUAREN URTEKO TXOSTENA**

A. JABETZAREN EGITURA

A.1 Zehatz itzazu zure erakundeko akziodun edo partaide esanguratsuenak ekitaldiaren itxiera:

Akziodunaren edo partaidearen izena edo izen soziala	Kapital sozialaren gaineko %
BILBAO BIZKAIA KUTXA, AURREZKI KUTXA ETA BAHITETXEA	%57
CAJA DE AHORROS Y MONTE DE PIEDAD DE GIPUZKOA Y SAN SEBASTIÁN- GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA	%32
CAJA DE AHORROS DE VITORIA Y ÁLAVA-ARABA ETA GASTEIZKO AURREZKI KUTXA	%11

A.2 Adieraz ezazu, kasuaren arabera, zein harreman-mota dagoen akziodun edo partaide esanguratsuen artean, senitartekoa, komertziala, kontratupekoa edo erakundekoa, erakundeak ezagutzen dituen heinean, salbu eta garrantzirik ez izan edo igorpen edo trafikoko komertzial arruntetik eratorritakoak izan:

Zerikusia duten izenak edo izen sozialak
BILBAO BIZKAIA KUTXA ETA AURREZKI KUTXA ETA BAHITETXEA
CAJA DE AHORROS Y MONTE DE PIEDAD DE GIPUZKOA Y SAN SEBASTIÁN- GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA

Harreman mota: Kontratupekoa.

Deskripzio laburra: 2011ko ekainaren 30eko dataz, BBK-k, KUTXAk eta VITALEk eta KUTXABANK, S.A.k integrazio kontratua sinatu zuten. Kontratu horren kariaz, kontratu-oinarridun kreditu-erakundeen talde bateragarrian integratzea hitzartu zuten. KUTXABANK, S.A. izango zen talde horretako erakunde nagusia eta eraginkortasuna zenbait baldintza etengarri betetzearen mende zegoen. Hori guztiori, finantza bitartekarien inbertsio-koefiziente, norberaren baliabide, eta informazio betebeharrei buruzko maiatzaren 25eko 13/1985 Legearen 8.3.d) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aipatutako kontratuak aldaketak izan zituen, 2011ko irailaren 23an eta abenduaren 30ean sinatu ziren aldaketa-aldaberritze bi kontraturen bidez, hurrenez hurren. Baldintza etengarri guztiak lortu ondoren, 2012ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean kontratua.

Zerikusia duten izenak edo izen sozialak
BILBAO BIZKAIA KUTXA ETA AURREZKI KUTXA ETA BAHITETXEA
CAJA DE AHORROS DE VITORIA Y ÁLAVA - ARABA ETA GASTEIZKO AURREZKI KUTXA

Harreman mota: Kontratupekoa.

Deskripzio laburra: Aurrekoa ikusi.

Zerikusia duten izenak edo izen sozialak
CAJA DE AHORROS Y MONTE DE PIEDAD DE GIPUZKOA Y SAN SEBASTIÁN- GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA
CAJA DE AHORROS DE VITORIA Y ÁLAVA- ARABA ETA GASTEIZKO AURREZKI KUTXA

Harreman mota: Kontratupekoa.

Deskripzio laburra: Aurrekoa ikusi.

A.3 Adieraz ezazu, kasuaren arabera, zein harreman-mota dagoen akziodun edo partaide esanguratsuen eta erakundearen artean, senitartekoa, komertziala, kontratupekoa edo erakundekoa, erakundeak ezagutzen dituen heinean, salbu eta garrantzirik ez izan edo igorpen edo trafiko komertzial arruntetik eratorritakoak izan:

Zerikusia duten izenak edo izen sozialak	Harreman-mota	Deskripzio laburra
BILBAO BIZKAIA KUTXA, AURREZKI KUTXA ETA BAHITETXEA	Kontratupekoa	Zerbitzuak prestatze kontratua
CAJA DE AHORROS Y MONTE DE PIEDAD DE GIPUZKOA Y SAN SEBASTIÁN-GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA	Kontratupekoa	Zerbitzuak prestatze kontratua
CAJA DE AHORROS DE VITORIA Y ÁLAVA-ARABA ETA GASTEIZKO AURREZKI KUTXA	Kontratupekoa	Zerbitzuak prestatze kontratua

A.4 Adieraz itzazu, kasuaren arabera, boto-eskubidea egikaritzeari egindako murrizketak, baita kapital-partaidetzak erosteko edo eskuz aldatzeko murrizketak ere

Bai

Ez

Murrizketen deskribapena:Kontratupekoak (eskuz aldatzeari egindako murrizketak zenbait kasutan, eta eskuz aldatu ez duten akziodunek duten lehentasunez eskuratzeko eskubidea).

B. BATZAR NAGUSIA EDO ORGANO BALIOKIDEA

B.1 Aipa itzazu banan-banan batzar nagusiaren edo organo baliokidearen estatutuetan zehaztutako eratze-quorumak. Deskriba ezazu zertan desberdintzen den Kapital Erakundearen Legean edo ezar dakioken araudian ezarritako gutxiengoaren erregimenetik.

Erakundearen estatutueta 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, akziodunen batzar nagusia, ohikoa edo ezohikoa, lehen deialdian behar bezala eratuta geratuko da, bertaratutako edo ordezkaturako akziodunek, gutxienez, harpidetutako kapital sozialaren ehuneko hogeita bost (%25) dutenean, boto eskubidez. Bigarren deialdian, balekoa izango da batzarraren eratzea, bertaratu den kapitala edozein delarik ere. Hori guztiori, une bakoitzean ezar daitekeen araudiak, edo erakundearen estatutuek, eskakizun zorrotzagoak badituzte, zehazten dituzten quorum eskakizun berezien kalterik gabe.

Erakundearen estatutuen 20. artikuluan arabera, akordioak batzarrera bertaratutako edo ordezkaturako akziodunen botoen gehiengo arruntez hartuko dira. Hala ere, boto eskubidea duen harpidetutako kapitalaren, gutxienez, ehuneko berrogeita hemeretzi (%59) duten bertaratutako edo ordezkaturako akziodunen aldeko botoa eskatuko da, batzar nagusiak honako akordio hauek baliozki har ditzan:

- (i) Kapital sozialaren gehikuntza, lehentasunezko eskubidea erabat edo partzialki ezabatuta eta kapital sozialaren murrizketa. Salbuespena dira ezargarria litzatekeen araudia betetzeko beharrezko kapital gehikuntzak, edo ikuskatze-agintarien eskaeraz eta, edozein kasutan, lehentasunezko eskubidea aitortuko da, ezargarria den legearen terminoetan.
- (ii) Obligazio bihurgarrien, aukeren, warrants deritzenen edo akzioak erosteko edo harpidetzeko eskubidea ematen duen beste edozein balioren jaulkipena.
- (iii) Aktiboen eta pasiboen eraldaketa, bategitea, banatzea, desegitea edo lagapen globala.
- (iv) Kontseilari kopurua zehaztea, erakundearen estatutueta 25. Artikuluan ezarritako gutxiengo eta gehiengoaren artean.
- (v) Erakundearen estatutuak aldatzea.

Hori guztiori, une bakoitzean ezargarria den araudiak zehazten dituen gehiengoaren eskakizun berezien kalterik gabe, beti ere zorrotzagoak badira.

B.2 Azal ezazu gizarte akordioak hartzeko erregimena. Deskriba ezazu zertan desberdintzen den Kapital Erakundearen Legean edo ezar daitekeen araudian zehaztutako erregimenetik.

Erakundearen estatutuen 20.2 artikuluan arabera, akordioak batzarrera bertaratutako edo ordezkaturako akziodunen botoen gehiengo arruntez hartuko dira. Hala ere, boto eskubidea duen harpidetutako kapitalaren, gutxienez, ehuneko berrogeita hemeretzi (%59) duten bertaratutako edo ordezkaturako akziodunen aldeko botoa eskatuko da, batzar nagusiak honako akordio hauek baliozki har ditzan:

- (i) Kapital sozialaren gehikuntza, lehentasunezko eskubidea erabat edo partzialki ezabatuta eta kapital sozialaren murrizketa. Salbuespena dira ezargarria litzatekeen araudia betetzeko beharrezko kapital gehikuntzak, edo ikuskatze-agintarien eskaeraz eta, edozein kasutan, lehentasunezko eskubidea aitortuko da, ezargarria den legearen terminoetan.
- (ii) Obligazio bihurgarrien, aukeren, warrants deritzenen edo akzioak erosteko edo harpidetzeko eskubidea ematen duen beste edozein balioren jaulkipena.
- (iii) Aktiboen eta pasiboen eraldaketa, bategitea, banatzea, desegitea edo lagapen globala.

- (iv) Kontseilari kopurua zehaztea, erakundearen estatutuetako 25. Artikuluan ezarritako gutxiengoa eta gehiengoaren artean.
- (v) Erakundearen estatutuak aldatzea.

Hori guztiori, une bakoitzean ezargarria den araudiak zehazten dituen gehiengoaren eskakizun berezien kalterik gabe, beti ere zorrotzagoak badira.

Aipatutako gehiengoak ez datoz bat, zorrotzagoak direlako, Kapital Erakundearen Legeko 201. artikuluan ezarritakoekin, eta horren arabera, goiko puntuetan adierazitako akordioak Batzarrean bertaratutako edo ordezkaturako akziodunen botoen gehiengo arruntez hartuko dira, salbu eta, bigarren deialdian, boto eskubidez jaulkitako kapital sozialaren %25 edo hortik gora ordezkaturako duen akziodun kopurua bildu, %50era iritsi barik. Kasu horretan, bertaratutako edo ordezkaturako kapitalaren bi herenen (2/3) aldeko botoa beharko da.

B.3 Zehatz ezazu, labur, txosten honi dagokion ekitaldian izandako batzar nagusietan edo organo baliokideetan hartutako akordioak eta zein boto portzentajez hartu diren.

* **2013ko urtarrilaren 31n** akziodunen ezohiko batzar nagusi unibertsala egin zen eta aho batez hartu zituen, besteak beste, honako akordio hauek:

- Carlos Vicente Zapatero Berdonces jaunaren eta Fernando Raposo Bande jaunaren kargu uzteak, Bankuko Administrazio Kontseiluko kide ziren aldetik, eta Luis Viana Apraiz jauna (dominikala) eta Juan M^a Ollora Ochoa de Aspuru jauna (dominikala) Kutxabanken Administrazio Kontseiluko kide berri izendatzea, estatutuetan aurreikusten den 4 urteko epealdirako, biak Vital Kutxaren proposamenez.

* **2013ko otsailaren 7an** akziodunen ezohiko batzar nagusi unibertsala egin zen eta aho batez, besteak beste, honako akordio hauek hartu zituen:

- Onartzea, 2013ko otsailaren 7tik aurrerako eraginez, kontseilariei, haien jardueraren betetzeagatik, dagokien bertaratze dieten erregimena.

* **2013ko martxoaren 27an** akziodunen ezohiko batzar nagusi unibertsala egin zen eta aho batez, besteak beste, honako akordio hauek hartu zituen:

- Erakundearen urteko kontu indibidualak eta bateratuak onartzea, emaitza ezartzea eta 2012ko abenduaren 31n itxitako ekitaldiko gizarte kudeaketa onartzea.
- KUTXABANK, S.A.k honako erakunde hauek, irenste bidez, bategitea onartzea: KUTXABANK KREDIT, E.F.C., S.A.U. eta CK CORPORACIÓN KUTXA-KUTXA KORPORAZIOA, S.L.U.

* **2013ko apirilaren 11n** akziodunen ezohiko batzar nagusi unibertsala egin zen eta aho batez erabaki zuen Erakundearen Estatutuetako 29. artikulua aldatzea. (Ikusi Erakundearen Estatutuetako 29. artikulua erredakzio txosten honetako G atalean).

* **2013ko maiatzaren 29an** akziodunen ezohiko batzar nagusi unibertsala egin zen eta aho batez, besteak beste, honako akordio hauek hartu zituen:

- Jesús María Echave Román jaunak kargua uztea Bankuko Administrazio Kontseiluko kide zen aldetik eta José Miguel Martín Herrera jauna (dominikala) Kutxabanken Administrazio Kontseiluko kide berri izendatzea, estatutuetan aurreikusten den 4 urteko epealdirako, Kutxaren proposamenez.

* **2013ko ekainaren 27an** akziodunen ezohiko batzar nagusi unibertsala egin zen eta aho batez, besteak beste, honako akordio hauek hartu zituen:

- Bankua, Bizkaiko Lurralde Historikoko balantzeak eguneratzeari buruzko abenduaren 18ko 11/2012 Foru Dekretu Arauemaileak arautzen duen balore eguneratzera atxikitzea, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez.

B.4 Adieraz ezazu erakunde gobernuak web gunean duen edukira sartzeko helbidea eta modua.

www.kutxabank.com

B.5 Adieraz ezazu zure kasuan dauden sindikatuen bilerarik egin den, eta erakundeak jaulkitako baloreen edukitzaileen bilerarik, txosten honi dagokion ekitaldian egindako bileren helburua eta hartu diren akordio nagusiak.

Ez da bat bera ere egin.

C ERAKUNDEAREN ADMINISTRAZIO EGITURA

C.1 KONTSEILUA EDO ADMINISTRAZIO ORGANOA

C.1.1 Zehatz itzazu estatutuetan ezarritako kontseilari edo administrazio organoko kide kopuru gehienekoa eta gutxienekoa:

KONTSEILARI GEHIENEKO KOPURUA	20
KONTSEILARI GUTXIENEKO KOPURUA	10

C.1.2 Bete ezazu jarraian dagoen kontseiluko edo administrazio organoko kideei eta haien ezaugarriei buruzko taula:

KONTSEILARIAK/ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO KIDEAK

KONTSEILARIAREN / ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO KIDEAREN IZENA EDO IZEN SOZIALA	ORDEZKARIA	IZENDATZE AZKEN DATA
Mario Fernández Pelaz jauna		2012/01/01
Xabier Gotzon Iturbe Otaegi jauna		2012/01/01
Joseba Mikel Arieta-Araunabeña Bustinza jauna		2012/01/01
Alexander Bidetxea Lartategi jauna		2012/01/01
Josu de Ortuondo Larrea jauna		2012/01/01
María Begoña Achalandabaso Manero andrea		2012/01/01
Jesús M ^a Herrasti Erlogorri jauna		2012/01/01
María Victoria Mendia Lasa andrea		2012/01/01
Luis Fernando Zayas Satrústegui jauna		2012/01/01

KONTSEILARIAREN / ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO KIDEAREN IZENA EDO IZEN SOZIALA	ORDEZKARIA	IZENDATZE AZKEN DATA
Ainara Arsuaga Uriarte andrea		2012/01/01
José Antonio Ruiz-Garma Martínez jauna		2012/01/01
Iosu Arteaga Álvarez jauna		2012/01/01
Luís Viana Apraiz jauna		2013/01/31
Juan María Ollora Ochoa de Aspuru jauna		2013/01/31
José Miguel Martín Herrera jauna		2013/05/29

C.1.3 Adieraz ezazu, kasuaren arabera, zein kontseilu edo administrazio organoko kidek hartzen duen bere gain administratzaile edo zuzendari kargurik erakundearen taldekoa den beste erakunderen batean:

ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO KIDEAREN IZENA EDO IZEN SOZIALA	TALDEKO ERAKUNDEAREN IZEN SOZIALA	KARGUA
Mario Fernández Pelaz jauna	ARABA GERTU, S.A.U.	KONTSEILUKO PRESIDENTEA
Mario Fernández Pelaz jauna	KUTXABANK EMPRÉSTITOS, S.A.U.	KONTSEILUKO PRESIDENTEA
Mario Fernández Pelaz jauna	S.P.E. KUTXA, S.A.U.	KONTSEILUKO PRESIDENTEA
Mario Fernández Pelaz jauna	KARTERA 2, S.L.	KONTSEILUKO PRESIDENTEA
Mario Fernández Pelaz jauna	KARTERA 1, S.L.	KONTSEILUKO PRESIDENTEA
Xabier Gotzon Iturbe Otaegi jauna	ARABA GERTU, S.A.U.	KONTSEILARIA
Xabier Gotzon Iturbe Otaegi jauna	KUTXABANK EMPRÉSTITOS, S.A.U.	KONTSEILARIA
Xabier Gotzon Iturbe Otaegi jauna	S.P.E. KUTXA, S.A.U.	KONTSEILARIA
Xabier Gotzon Iturbe Otaegi jauna	KARTERA 2, S.L.	KONTSEILARIA
Xabier Gotzon Iturbe Otaegi jauna	KARTERA 1, S.L.	KONTSEILARIA
Xabier Gotzon Iturbe Otaegi jauna	KUFINEX, S.L.	KONTSEILUKO PRESIDENTEA
Xabier Gotzon Iturbe Otaegi jauna	CAJA DE AHORROS Y MONTE DE PIEDAD DE GIPUZKOA Y SAN SEBASTIÁN- GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA	KONTSEILUKO PRESIDENTEA
Luís Viana Apraiz jauna	ARABA GERTU, S.A.U.	KONTSEILUKO PRESIDENTEA
Luís Viana Apraiz jauna	KUTXABANK EMPRÉSTITOS, S.A.U.	KONTSEILARIA
Luís Viana Apraiz jauna	S.P.E. KUTXA, S.A.U.	KONTSEILARIA
Luís Viana Apraiz jauna	KARTERA 2, S.L.	KONTSEILARIA

ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO KIDEAREN IZENA EDO IZEN SOZIALA	TALDEKO ERAKUNDEAREN IZEN SOZIALA	KARGUA
Luís Viana Apraiz jauna	KARTERA 1, S.L.	KONTSEILARIA
Joseba Mikel Arieta-Araunabeña Bustinza jauna	ARABA GERTU, S.A.U.	KONTSEILARIA
Joseba Mikel Arieta-Araunabeña Bustinza jauna	KUTXABANK EMPRÉSTITOS, S.A.U.	KONTSEILARIA
Joseba Mikel Arieta-Araunabeña Bustinza jauna	S.P.E. KUTXA, S.A.U.	KONTSEILARIA
Joseba Mikel Arieta-Araunabeña Bustinza jauna	KARTERA 2, S.L.	KONTSEILARIA
Joseba Mikel Arieta-Araunabeña Bustinza jauna	KARTERA 1, S.L.	KONTSEILARIA
José Miguel Martín Herrera jauna	ARABA GERTU, S.A.U.	KONTSEILARIA
José Miguel Martín Herrera jauna	KUTXABANK EMPRÉSTITOS, S.A.U.	KONTSEILARIA
José Miguel Martín Herrera jauna	S.P.E. KUTXA, S.A.U.	KONTSEILARIA
José Miguel Martín Herrera jauna	KARTERA 2, S.L.	KONTSEILARIA
José Miguel Martín Herrera jauna	KARTERA 1, S.L.	KONTSEILARIA
Juan María Ollora Ochoa de Aspuru jauna	ARABA GERTU, S.A.U.	KONTSEILARIA
Juan María Ollora Ochoa de Aspuru jauna	KUTXABANK EMPRÉSTITOS, S.A.U.	KONTSEILARIA
Juan María Ollora Ochoa de Aspuru jauna	S.P.E. KUTXA, S.A.U.	KONTSEILARIA
Juan María Ollora Ochoa de Aspuru jauna	KARTERA 2, S.L.	KONTSEILARIA
Juan María Ollora Ochoa de Aspuru jauna	KARTERA 1, S.L.	KONTSEILARIA
Luis Fernando Zayas Satrústegui jauna	ARABA GERTU, S.A.U.	KONTSEILARIA
Luis Fernando Zayas Satrústegui jauna	KUTXABANK EMPRÉSTITOS, S.A.U.	KONTSEILARIA
Luis Fernando Zayas Satrústegui jauna	S.P.E. KUTXA, S.A.U.	KONTSEILARIA
Luis Fernando Zayas Satrústegui jauna	KARTERA 2, S.L.	KONTSEILARIA
Luis Fernando Zayas Satrústegui jauna	KARTERA 1, S.L.	KONTSEILARIA

C.1.4 Bete ezazu jarraian dagoen taula Administrazio Kontseilua eta bere Batzordeak osatzen dituzten kontseilari andre kopuruari buruzko informazioaz

Kontseilari kopurua Administrazio Kontseiluan

EKITALDIA T		EKITALDIA T-1		EKITALDIA T-2		EKITALDIA T-3	
KOPURUA	%	KOPURUA	%	KOPURUA	%	KOPURUA	%
3	20	3	20	N.A.	N.A.	N.A.	N.A.

Auditoretza eta Betetze Batzordea

EKITALDIA T		EKITALDIA T-1		EKITALDIA T-2		EKITALDIA T-3	
KOPURUA	%	KOPURUA	%	KOPURUA	%	KOPURUA	%
1	33,3	1	33,3	N.A.	N.A.	N.A.	N.A.

Izendapen eta Ordainsari Batzordea

EKITALDIA T		EKITALDIA T-1		EKITALDIA T-2		EKITALDIA T-3	
KOPURUA	%	KOPURUA	%	KOPURUA	%	KOPURUA	%
1	33,3	1	33,3	N.A.	N.A.	N.A.	N.A.

Batzorde Betearazlea

EKITALDIA T		EKITALDIA T-1		EKITALDIA T-2		EKITALDIA T-3	
KOPURUA	%	KOPURUA	%	KOPURUA	%	KOPURUA	%
0	0	0	0	N.A.	N.A.	N.A.	N.A.

Arriskuen Batzorde Eskuordetua

EKITALDIA T		EKITALDIA T-1		EKITALDIA T-2		EKITALDIA T-3	
KOPURUA	%	KOPURUA	%	KOPURUA	%	KOPURUA	%
0	0	0	0	N.A.	N.A.	N.A.	N.A.

C.1.5 Bete ezazu jarraian dagoen taula, kontseilarien edo administrazio organoko kideen ordainsari agregatuari dagokionez, ekitaldian irabazia:

ORDAINSARI KONTZEPTUA	NORBANAKOA (MILA EURO)	TALDEA (MILA EURO)
ORDAINSARI FINKOA	796	-
ORDAINSARI ALDAKORRA	-	-
DIETAK	495	-
BESTELAKO ORDAINSARIAK	-	-
OROTARA	1291	-

C.1.6 Adieraz ezazu goi mailako zuzendaritzako zein kide ez den, aldi berean, kontseilari edo administrazio organoko kide betearazle, eta zehatz ezazu ekitaldian bere alde sortutako ordainsaria orotara:

Izena edo izen soziala	Kargua
Ignacio Sánchez-Asiáin Sanz jauna	Erakundeko zuzendari nagusia
José Alberto Barrena Llorente jauna	Erakundeko zuzendari nagusi ondokoa
Fernando Martínez-Jorcano Eguiluz jauna	Erakundeko zuzendari nagusi ondokoa
María Alicia Vivanco González andrea	Partaidetuen eta Proiektu Finantzaketaren zuzendari nagusia
Francisco Javier García Lurueña jauna	Kontrol eta Barne Auditoretzako-Presidententzia kabinetearen zuzendari nagusi ondokoa

Goi mailako zuzendaritzaren ordainsaria orotara (mila euro)	1.834
--	-------

C.1.7 Adieraz ezazu estatutuek edo kontseiluko araudiak aginte mugatua ezartzen duten kontseilariantzat edo administrazio organoko kideentzat:

Bai

Ez

Agintaldirako gehieneko urte kopuru	4
--	---

C.1.8 Adieraz ezazu kontseiluari edo administrazio organoari onartzeko aurkezten zaizkion urteko norbanakoaren kontuak eta kontu bateratuak alde zuzentzat dauden:

Bai

Ez

Adieraz ezazu, kasuaren arabera, kontseiluari edo administrazio organoari onartzeko aurkezten zaizkion urteko norbanakoaren kontuak eta kontu bateratuak aldeztatik ziurtatu dituzten pertsonak:

C.1.9 Azal ezazu, balego, kontseiluak edo administrazio organoak zein mekanismo ezarri duen berak formulatutako norbanakoaren kontuak eta kontu bateratuak Batzar Nagusian edo organo baliokidean auditoretza txostenean salbuespenak dituztela aurkez daitezkeen ekiditeko

Kontrol Zuzendaritza Nagusiaren, Barne Auditoretza eta Presidentzia Kabinetearen etengabeko hartu-emanak auditoreekin, kontabilitate-araudia zorrotz ezartzeko eta Auditoretza eta Betetze Batzordeak aldeztatik ikuskatuta, bere eginkizunen artean, finantza-informazio arautuaren lantze-prozesua eta aurkezpena gainbegiratzea baitu.

C.1.10 Administrazio Kontseiluko idazkaria kontseilaria ere bada?

Bai

Ez

C.1.11 Adieraz itzazu, baleude, zein mekanismo dagoen ezarrita auditorearen, finantza-analisten, inbertsio-bankuen eta kalifikazio-agentzien independentzia babesteko

Auditoretza eta Betetze Batzordeak bere eskumenen artean du kanpoko auditoreekiko hartu-emanak izatearena, horien independentzia arriskutan jar dezaketen gaiei buruzko informazioa jasotzeko, Batzordeak azter dezan, eta kontu-auditoriaren garapen prozesuarekin zerikusia duen beste edozein, baita kontu-auditorien legedian eta auditoria arau teknikoetan ezarritako gainontzeko komunikazioak ere.

Edozein kasutan, urtero jaso beharko dute, Kontu Auditoreen eskutik, haien independentziaren egiaztapen idatzia Erakundearekiko edo zuzenean nahiz zeharka lotura duten erakundeekiko, baita erakunde hauei auditoreek edo horiei lotutako pertsonak edo erakundeek aurkeztutako edozein motatako zerbitzu gehigarrien informazioa ere, kontu auditoriari buruzko legedian eta auditoriaren arau teknikoetan ezarritakoaren arabera.

Auditoretza eta Betetze Batzordeak urtero jaulkitzen du, kontu-auditoriaren txostena jaulki baino lehen, Kontu Auditoreen independentziari buruzko iritzia adierazten duen txostena. Txosten horrek, edozein kasutan, kontu-auditoriaren zerbitzu gehigarriei buruzko iritzia eman beharko du.

C.2 KONTSEILUKO EDO ADMINISTRAZIO ORGANOKO BATZORDEAK

C.2.1 Aipa itzazu banan-banan administrazio organoak:

Organoaren izena	Kide kopurua	Eginkizunak
Administrazio Kontseilua	15	Administrazio Kontseiluak Erakundea zuzentzea, administratzea eta ordezkatzea du eginkizun, hori guztiori Akziodunen Batzar Nagusiari dagozkion eskumenen kalterik gabe.
Auditoretza Batzordea	3	Erakundearen Estatutuen arabera, Administrazio Kontseiluak Auditoretza eta Betetze Batzorde bat izendatuko du bere baitan, gutxienez, hiru kide eta, gehienez, bost izango dituena. Auditoretza eta Betetze Batzordeak honako eginkizun hauek izango ditu, behintzat: (a) Batzar Nagusiari eta Administrazio Kontseiluari, euren eskumeneko arloetan, bere baitan eztabaidatzen diren gaien berri ematea; (b) Erakundearen barne kontrolaren eraginkortasuna gainbegiratzea, barne auditoria, kasuaren arabera, eta arriskuen kudeaketarako sistemak, baita kontu-auditoreekin eztabaidatzea, auditoria egitean antzeman diren barne kontrol sistemako ahuldade esanguratsuak; (c) finantza informazio arautuaren lanketa eta aurkezpen prozesua gainbegiratzea; (d) Administrazio Kontseiluari proposatzea, Akziodunen Batzar Nagusira eraman dezan, kontu auditoreen izendapena, ezargarria den araudiaren arabera;
Arriskuen Batzorde Eskuordetua	7	Erakundearen Estatutuen arabera, Arriskuen Batzorde Eskuordetua eratuko da, eta Erakundearen arriskuen kudeaketa sistemaren gaineko kontrol eta gainbegiratze ahalmenak emango zaizkio. Kontseiluko Araudiaren 18.7 artikuluan ezarritakoaren arabera, honako eginkizun hauek izango ditu, besteak beste: (a) arrisku eragiketak onartzea bezero edo talde bakoitzarentzat, Erakundeak ezartzen duen arriskuak onartzeko sistema barruan; (b) sistematikoki berrikustea arriskuak bezero eta sektore ekonomiko nagusiekin; (...) eta (j), Kontseiluak ematen dizkion gainontzekoak. c) ataletik i) atalera adierazitako eginkizunak Arriskuaren Kontrol Azpibatzaordeari dagozkio, Arriskuaren Batzorde Eskuordetuan sortua, 2014ko urtarrilaren 23an, Kontseiluaren Araudian eratzia ezarri ondoren, 2013ko abenduaren 26an onartu zen Kontseiluko Araudiaren aldaketaren bidez, txosten honetako C.2.3 atalean zehazten den bezala.

Organoaren izena	Kide kopurua	Eginkizunak
Batzorde Betearazlea	7	Erakundearen Estatutueta 31. artikulua arabera, Administrazio Kontseiluari dagokio zehaztea Batzorde Betearazleak zenbat kide izango dituen, baita kide horiek izendatzea ere. Hala ere, Batzorde Betearazleko berezko kideak izango dira Presidentea, Batzordeko Presidentea izango baita, eta boto ebazlea izango du berdinketa kasuan, eta Administrazio Kontseiluko Presidenteorde biak. Administrazio Kontseiluak Batzorde Betearazlean eskuordetu ahal izango ditu, legean, estatutueta edo Administrazio Kontseiluaren araudian ezarritakoaren arabera, eskuordetu ezinak ez diren ahalmen guztiak.
Izendapen eta Ordainsari Batzordea	3	Izendapen eta Ordainsari Batzordeak hiru kide izango ditu, gutxienez, eta bost, gehienez, den-denak kanpokoak edo ez betearazleak. Horietako batek Presidente eginkizuna beteko du. Izendapen eta Ordainsari Batzordeko kideak Administrazio Kontseiluak izendatuko ditu, kontseilarien ezagutzak, gaitasunak eta esperientzia eta Batzordearen betebeharrak aintzat hartuta. Bere eginkizunak, Izendapen eta Ordainsari Batzordearen 3. artikuluan jasotzen dira, txosten honetako C.2.3 atalean deskribatzen den bezala.

C.2.2 Kontseiluko edo administrazio organoko batzorde guztien xehetasunak eta bere kideak

AUDITORETZA BATZORDEA

Izena	Kargua
María Victoria Mendia Lasa andrea	PRESIDENTEA
Jesús M ^a Herrasti Erlogorri jauna	KIDEA
José Antonio Ruiz-Garma Martínez jauna	IDAZKARIA

BATZORDE BETEARAZLEA EDO ESKUORDETUA

Izena	Kargua
Mario Fernández Pelaz jauna	PRESIDENTEA
Xabier Gotzon Iturbe Otaegi jauna	KIDEA
Luís Viana Apraiz jauna	KIDEA
Joseba Mikel Arieta-Araunabeña Bustinza jauna	KIDEA
Juan María Ollora Ochoa de Aspuru jauna	KIDEA
José Miguel Martín Herrera jauna	KIDEA
Luis Fernando Zayas Satrustegui jauna	KIDEA

ARRISKUEN BATZORDE ESKUORDETUA

Izena	Kargua
Mario Fernández Pelaz jauna	PRESIDENTEA
Xabier Gotzon Iturbe Otaegi jauna	KIDEA
Luís Viana Apraiz jauna	KIDEA
Joseba Mikel Arieta-Araunabeña Bustinza jauna	KIDEA
Juan María Ollora Ochoa de Aspuru jauna	KIDEA
José Miguel Martín Herrera jauna	KIDEA
Luis Fernando Zayas Satrustegui jauna	KIDEA

IZENDAPEN ETA ORDAINSARI BATZORDEA

Izena	Kargua
Josu de Ortuondo Larrea jauna	PRESIDENTEA
Ainara Arsuaga Uriarte andrea	KIDEA
Iosu Arteaga Alvarez jauna	IDAZKARIA

C.2.3 Egin ezazu antolaketa eta funtzionamendu arauen deskribapena, baita kontseiluko batzorde bakoitzak edo administrazio organoko kide bakoitzak esleituta dituen erantzukizunak. Kasuaren arabera, Kontseilari Delegatuaren ahalmenak deskribatu beharko dira.

Administrazio Kontseiluak Batzorde Betearazlean eskuordetu ditzake eskuordetu ezinak ez diren ahalmen guztiak.

Arriskuaren Batzorde eskuordetuak, besteak beste, honako eginkizun hauek izango ditu: (a) arrisku eragiketarak onartu (...); (b) sistematikoki berrikustea arriskuak bezero eta sektore ekonomiko garrantzitsuenekin; (c) sistematikoki berrikustea arriskuak arrisku-mota nagusiekin; (d) Taldearen arriskuaren kudeaketaren kontrolaren estrategia eta politikari buruzko proposamenak aztertzea eta ebaluatzea; (e) Administrazio Kontseilua aholkatzea arriskuaren joera globalari buruz, (...); (f) Kontseiluari laguntza ematea arrisku estrategiaren aplikazioaren zaintzan (...); (g) Erakundearen arrisku-mapa berrikustea eta aztertzea (...); (h) bezeroei eskainitako aktiboen eta pasiboen prezioek enpresa-eredua eta arrisku-estrategia erabat aintzat hartzen duten aztertzea (...); (i) aztertzea, (...), pizgarriek aintzat hartzen duten arriskua, kapitala, likidezia eta mozkinen probabilitatea eta egokitasuna; eta (j) Administrazio Kontseiluak esleitu diezazkiokeen gainontzekoak. c) ataletik i) atalera adierazitako eginkizunak Arriskuaren Kontrol Azpibatzaile dagozkio, Arriskuaren Batzorde Eskuordetuan sortua, 2014ko urtarrilaren 23an, Kontseiluaren Araudian ezarritakoaren arabera, 2013ko abenduaren 26an onartu zen Kontseiluko Araudiaren aldaketaren arabera.

Auditoretza eta Betetze Batzordeak, besteak beste, honako eginkizun hauek izango ditu: (a) Batzar Nagusiarik eta Administrazio Kontseiluarik bere barnean lantzen diren gaien berri ematea (...); (b) Erakundearen barne kontrolaren eraginkortasuna gainbegiratzea, barne auditoria eta arriskuak kudeatzeko sistemak, (...); (c) araututako finantza-informazioaren lanketa prozesua eta aurkezpena gainbegiratzea; (d) Administrazio Kontseiluarik kontu-auditoreen izendapena proposatzea (...); (e) beharrezko hartu-emanak ezartzea kontu auditoreekin (...); (f) urtero jaulkitzea kontu auditoreen independentziari buruzko txostena.

Izendapen eta Ordainsari Batzordeak, besteak beste, honako eginkizun hauek izango ditu: (a) Kontseilua osatzeko eta hautatzeko jarraitu beharreko irizpideak formulatzea; (b) Kontseilariak izendatzeko eta berrautapenerako proposamenak formulatzea (...); (c) goi mailako zuzendaritzako kideen izendapenen eta kargu uzteen berri ematea; (d) Egokitasuna Ebaluatzeko Politika proposatzea Kontseiluarik, baita dagozkion aldaketak ere; (e) Egokitasuna Ebaluatzeko Politikari lotutako ebaluazio-sistemak proposatzea Kontseiluarik; (f) Egokitasuna Ebaluatzeko Politika zuzen ezartzen dela gainbegiratzea; (g) Kontseiluko kideen edo hautagaien egokitasuna ebaluatzea eta lotura duten gainontzeko kolektiboena; (h) Politikari Lotutako Kolektiboen prestakuntza-planak proposatzea Kontseiluarik; (i) Oro har, Administrazio Kontseiluaren ordainsari konpentsazio-sistema proposatzea, (...); (j) Kontseilari betearazlen eduki ekonomikoa duten ordainsarien, eskubideen eta konpentsazioen hedapena eta zenbatekoa zehaztea (...); (k) Kontseiluarik proposatzea goi mailako zuzendarien ordainsari-politika, (...); (l) Erakundearen ordainsari-politika betetzen dela zaintzea eta aldizka berrikustea Kontseilari betearazlentzako eta goi mailako zuzendariarentzako ordainsari-politika (...); (ll) Aldizka berrikustea ordainsari-programak, (...); (m) Ordainsarien gardentasuna zaintzea (...); (n) Ebaluatzea, urtean behin behintzat, funtzionamendua eta lanen kalitatea (...); (o) Araudian edo Administrazio Kontseiluaren erabakiz esleitu zaizkion gainontzekoak.

C.2.4 Adieraz ezazu auditoria batzordeak ekitaldian izan duen bilera kopurua

Bilera kopurua	9
----------------	---

C.2.5 Izendapen batzordea badago, adieraz ezazu ea bere kide guztiak kontseilariak diren edo administrazio organoko kanpoko kideak.

Bai

Ez

D LOTURADUN ERAGIKETAK

D.1 Zehatz itzazu erakundea edo bere taldeko erakundeen eta erakundeko akziodun edo partaide esanguratsuenen arteko baliabide edo obligazio transferentzia dakarten eragiketa garrantzitsuak:

BILBAO BIZKAIA KUTXA, AURREZKI KUTXA BAHITETXEA, CAJA DE AHORROS Y MONTE DE PIEDAD DE GIPUZKOA Y SAN SEBASTIÁN- GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA eta CAJA DE AHORROS DE VITORIA Y ÁLAVA- ARABA ETA GASTEIZKO AURREZKI KUTXA, konturako dibidenduaren banaketa eta zerbitzuak emateko kontratua akziodunekin.

D.2 Zehatz itzazu erakundea edo bere taldeko erakundeen, eta administratzaile edo administrazio organoko kideen, edo erakundeko zuzendarien artean egindako eragiketak:

D.3 Zehatz itzazu talde barneko eragiketak

2013ko urtarrilaren 8ko dataz, Kutxabank, S.A.k Andaluziako Autonomia Erkidegoan zituen 45 bulegoetako aktiboen eta pasiboen CajaSur Banco, S.A.U.ren aldeko lagapen partzialaren eskritura publikoa eman zen. Data horretan bertan, CajaSur Banco, S.A.U.k Andaluzia eta Extremadura Autonomia Erkidegoetatik kanpo zituen 8 bulegoen aktiboen eta pasiboen Kutxabank, S.A.ren aldeko lagapen partzialaren eskritura publikoa ere eman zen.

Kutxabank taldean burutzen ari den higiezin erakunde berregituratze prozesuaren barruan, 2013ko abenduan, jabetzaren %100 Cajasur Banco Taldearena zen lau higiezin erakunderen transmisioa egin da, zenbait higiezin erakundeari. Erakunde horien kapital soziala, CajaSur Banco, S.A.U.rena bezalaxe, Kutxabank taldearena da %100ean. Transakzioaren prezioa, aditu independentearen balorazio-txosten batean oinarrituta, 639 milioi eurokoa izan da eta, bateratze-prozesuan desagertzen den transakzioa denez, ez du batere eraginik izan Kutxabank Taldearen ondarean 2013ko abenduaren 31n.

D.4 Zehatz itzazu erakundea edo bere taldea, eta bere kontseilarien edo administrazio kontseiluko kideen edo zuzendarien arteko balizko interes-gatazkak antzemateko, zehazteko eta ebazteko ezarritako mekanismoak

Legedian ezarritakoak, eta bereziki, Kapital Erakundearen Legearen 229 eta 230 artikuluetan ezarritako komunikazioak.

Honi dagokionez, Erakundeak badu, era berean, Interes Gatazkei eta Kontseilariari, akziodun esanguratsuei eta Goi Mailako Zuzendariei Lotutako Eragiketei buruzko Araudia, Administrazio Kontseiluak onartua, eta ezargarria den legediaren eta Kutxabanken Erakundearen Estatutuen markoan, honako bi kasu hauetan ezargarria den prozedura zehaztea helburu duena:

- (i) Erakundearen edo Kutxabank Taldea osatzen duen edozein erakunderen interesa ("Taldea" Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako terminoetan ulertuta) eta kontseilarien interes pertsonala, zuzena nahiz zeharkakoa, -eta/edo erei lotutako pertsonena-, edo interes gatazken arauen mende dauden pertsonena gatazkan sartzen diren egoeretan; eta
- (ii) Taldeak kontseilariekin -eta/edo eurei lotutako pertsonekin-, interes gatazken arauen mende

dauden pertsonekin edo Akziodun Esanguratsuekin egiten dituen transakzioak. Aipatutako Araudiak, era berean, Administrazio Kontseiluaren Araudian ezarritakoa garatzen (29. artikulutik 34.era) eta Balore Merkatuaren eremuan Portaera Barne Erregelamenduan ezarritakoaren osagarri da (30. artikulua). Aipatutako Erregelamenduak zehazki arautzen ditu, eremu horri dagokionez, Administrazio Kontseiluko eta Zuzendaritza Batzordeko kideek, nahiz Erakundeko gainontzeko zuzendariek eta enplegatuek bete behar dituzten portaera arauak.

E ARRISKUEN KONTROL ETA KUDEAKETA SISTEMAK

E.1 Azal ezazu erakundearen Arriskuen Kudeaketa Sistemaren irismena.

Kutxabankek kreditu-erakundearen bere talde bateragarriari bere Arriskuaren Kudeaketarako Politiken Eskuliburuan ezargarria zaien Arriskuen Kudeaketa Sistemaren lerro nagusiak ezartzen ditu. Txosten honen erreferentzia datan, Eskuliburu horren indarrean dagoen azken bertsioa 2013ko urtarrilaren 24ko Kutxabanken Administrazio Kontseiluan onartu zena da.

Beraz, Arriskuen Kudeaketa Sistemak irismen bateratua du, eta arriskuen erakunde tipologiaren arabera artikulatzen da. Hamazortzi arrisku-mota ezartzen ditu tipologia horrek.

Era berean, arrisku-mota bakoitzerako zenbait erantzukizun-maila ezartzen dira, eta Erakundeko erabaki organoei eta sail zehatzei esleitzen zaizkie, beraz, arrisku guztien gaineko erantzukizun guztiak esplizituki esleituta daude.

Arriskuen Kudeaketa Sistemaren ezarpen-maila, horrela ezarrita, arrisku-mota bakoitzaren eta taldeko erakunde bakoitzaren arabera aldatzen da, proportzionaltasun printzipioa eta baliabide erabilgarritasuna ezarrita. Beraz, ez dago sistema horren ezartze integrala.

E.2 Identifika itzazu Arriskuen Kudeaketa Sistema egiteaz eta egikaritzeaz arduratzen diren organoak

Kutxabanken Administrazio Kontseiluak (edo, horren faltan, Batzorde Betearazleak) Taldearen Arriskuen Kudeaketa Sistemaren lerro nagusiak ezartzen ditu, Arriskuaren Kudeaketarako Politiken Eskuliburuaren bidez.

Bere aldetik, Arriskuen Batzorde Eskuordetua arrisku-mota desberdinen berrikusketa sistematikoaz arduratzen da, eta Taldearen arriskuaren kudeaketaren estrategia eta politikari buruzko proposamenak aztertu eta ebaluatzen ditu.

Dokumentu honen C atalak gobernu organo bien eginkizunen xehetasunak jasotzen ditu.

E.3 Adieraz itzazu negozioaren helburuak lortzeko eragina izan dezaketen arrisku nagusiak:

Kutxabank Taldeak hamazortzi kategoria sailkatu dituen arriskuen erakunde-tipologia ezarri du. Jarrian esanguratsuenak aipatu eta definituko ditugu.

Kreditu-arriskua: bezeroek (batez ere, partikularrek, enpresek, administrazio publikoek eta irabazi asmorik gabeko instituzioek) ordainketa betebeharrak ez betetzearen ondorioz, balio galeretan erortzeko aukera. Bezeroek dituzten ordainketa betebeharrak horiek erakundeak merkaturatzen duen edozein banku produktutik eratorritakoak izan litezke, tresna eratorriei egindako eragiketak barne. Kategoria honetatik kanpo geratzen dira berariaz, finantza-erakundeekin hartutako kreditu-arriskuak, baita zor-tresnei lotutako kreditu-arriskuak ere.

Kontraparte arriskua: balio galeretan erortzeko aukera, banku-tresnetara sartutako finantza-erakundeek ordainketa betebeharrak ez betetzearen ondorioz, tresna eratorrien bidez egindako eragiketak barne. Gainera, kudeaketa eremu horrek likidazio-arriskua hartzen du barne berariaz (trukaturako fluxuak erabat aldi berekoak ez diren transakzioetara lotuta) eta berariaz uzten du kanpo arrisku igorlea (titulu baten igorle pribatuak ez ditu barne dituen eskubideak zaintzen).

Kontzentrazio arriskua: balio galeretan erortzeko arriskua, jardura zenbait sektoretan, eremu geografikotan, edo talde ekonomikotan duen inbertsio-mailak (kreditukoa, finantzarioa, edo beste edozein motatakoa) aipatutako elementuren baten bilakaerarekiko Bankuaren mendekotasun handiegia ekartzearen ondorioz.

Interes-tasen egitura arriskua: balio galeretan erortzeko aukera, interes-tasek balantzeko posizio sentibera taldearen gainean duen kontrako mugimenduen eraginaren ondorioz.

Likidezia arriskua: balio galeretan erortzeko aukera, bere aktiboen eta pasiboen arteko muga eguneratzeen denbora desfasearen ondorioz, eta finantza-egitura horrek bere posizio estrategikoaren gainean, bere finantzaketaren kostuaren gainean, edo bere ordainketa konpromisoerantzuteko bere ahalmenaren gainean duen eraginaren ondorioz.

Merkatu arriskua: balio galeretan erortzeko aukera, finantza arrisku faktore nagusiek (interes-tasak, truke-tasak, kotizazioak, hegazkortasunak eta merkaderien prezioak) bere balore-zorroen eta tresna eratorrien (inbertsiokoak eta/edo negoziaziokoak) gainean dituzten kontrako mugimenduen eraginaren ondorioz. Kudeaketa eremu honek berriaz hartzen du barne igorle arriskua (titulu baten igorle pribatuak ez ditu zaintzen barne hartzen dituen eskubideak), baina kanpo uzten du arrisku subiranoa (nazioz gaindiko erakundeek, estatuak edo administrazio erregionalek jaulkitako zor tresnen ez-ordainketa edo birnegoziatzea).

Eragiketa arriskua: balio galeretan erortzeko aukera, prozesuetako, sistemetako edo langileen huts-egite, akats, gutxiegitasun edo desegokitasunen ondorioz, baita kanpoko gertaeren ondorioz ere. Gainera, kudeaketa eremu honen barne daude, berriaz, legezko arriskua, nahiz arriskua, eta ez ditu barne hartzen ez arrisku estrategikoa ezta ospe arriskua ere.

Beste arrisku esanguratsu batzuk: Higiezinaren jardueraren arriskua, arriskua erakunde partaidetuetan, ospe arriskua, arrisku estrategikoa, Arrisku subiranoa eta araudia betetzearen arriskua.

E.4 Adieraz ezazu Erakunde arrisku tolerantzi maila:

Arrisku-profil ertain-baxua aurkezteko joera bere kudeaketa-ereduaren elementu giltzarri dela deritzo Taldeak, bere erantzukizun sozialaren oinarriaren gainean, azken finean, bere jardueren denboran jarraipenaren bermerik onena baita, eta, ondorioz, bere bazkideen bidez gizarteari egiten dion ekarpenarena.

Taldeak egiten duen aipatutako arrisku profilaren bilaketak, harreman orekatua behar du bere kapital oinarria, bere Arriskuen Kudeaketa Sistema eta arrisku-mailaren kalitatea eta magnitudea.

Taldeak arriskuaren aurrean duen tolerantzia-mailaren erakunde-definizioa ez badago ere, badago kaudimen erakunde-helburua, baita erabili beharreko Arriskuen Kudeaketa Sistemaren erakunde-definizioa ere, eta arrisku-mota nagusietarako zenbait muga daude ezarrita.

E.5 Adieraz ezazu zein arrisku gauzatu den ekitaldian:

2013ko ekitaldiaren ezaugarria izan da egoera ekonomiko eta finantzario orokorraren narriaduran sakontzea, eta ondorioz, Espainiako finantza-sistemaren berankortasuna igo egin zen, baita higiezinaren aktiboen balorazioen jaitsiera berri orokorra ere. Gainera, aginte gainbegiratzailleek berfinantzate eragiketekin zerikusia duten arriskuei ezargarria zaien kontabilitate-irizpidea nabarmen gogortu zuten.

Horren ondorioz, finantza-erakundeek kontabilitate-hornidura berriak esleitu behar izan dizkiete euren kreditu-zorroerik eta higiezinaren aktiboei, euren emaitza-kontuetara kargatuta.

KUTXABANK TALDEA ez da joera orokor horretatik kanpo geratu, nahiz eta bere kreditu-zorroak jasaten duen berankortasunak sistemako batez besteen azpitik gora egin. Azken hori bere arriskuen kudeaketa politika kontserbatzailearekin bat dator. Hala ere, bere emaitza-kontuaren kargu hornitu ditu 45.365 milioi euroko narriaduragatiko hornidurak bere kreditu-zorroaren gainean, eta 337.211 mila eurokoa higiezinaren aktiboen bere zorroaren gainean.

Gainera, garrantzi txikiagoko arrisku-gauzatzeak gertatu dira, eta horien gaineko informazio zehatza ematen da Taldearen Urteko Kontuetako 16. oharretik 20.era.

E.6 Azal itzazu erakundearen arrisku nagusietarako erantzun eta gainbegiratze planak:

Jarraian, Taldearen arrisku-kontrolaren azpiegitura osatzen duten elementu nagusietako batzuk gainetik deskribatzen dira:

KREDITU ETA KONTRAPARTE ARRISKUA: Kreditu-arriskua ebaluatzeko, arintzeko edo murrizteko ezarritako sistemak kontraparteen kontzentrazioaren dibertsifikazio eta murrizketa eta bermeen onarpen politika zuhurretan oinarritzen dira, baita onartzeko, bideratzeko, jarraipena egiteko eta berreskuratzeko prozeduretan, eta kontrol jardueretan ere.

Onarpena: Erantzukizuna negozio-kudeatzaile eta arrisku-aztertzaileen artean partekatzen da. Kudeatzaileek bezero, arrisku eta berme motaren arabera eskuduntza-maila dute, eta muga globala dute bezero bakoitzeko. Eskuduntza horiek gainditzen dituzten arriskuak Arrisku sailek aztertzen dituzte, eta han ebazten dira edo Batzorde Betearazleari/Administrazio Kontseiluari helarazten zaizkio. Eragiketak ebaluatzeko scorina eta ratina erabiltzen dira, eta integrazio-maila desberdinak dituzte onarpen-prozesuetan.

Bideragintza: Bideragintza eta euskarri juridiko prozesuek trataera desberdina jasotzen dute, duten estandarizazio mailaren arabera. Kudeaketa deszentralizatuta dago, eragiketa singularrak izan ezik.

Jarraipena eta kontrola: Sareak jarraipen operatiboa egiten du, alerten sistema automatikoen laguntzaz, eta birfinantzatutako zorroaren jarraipenerako eta sailkapenerako sistema berezia dago, baita higiezinaren sektorearekiko kontzentrazioarako mugak ere, Arriskuen Atalaren erantzukizuna.

Berreskuratzeak: Arrisku ez ordainduak berreskuratzeko politik proaktiboa, identifikazioa goiztiarraren bidez, eta berreskuratze kudeaketetan adituen esku utzita. Eguneroko informazioa dago, arriskuen egoera indibiduala eta globalari buruz, baita berreskuratze-kudeaketan adituak diren langile adituak ere bulegoetan zentralizatu barik, kanpoko enpresa eta legelarien laguntzaz.

MERKATU ARRISKUA: Merkatu arriskuaren neurketa Balioa Arriskuaren (VaR) kontzeptuan oinarritutako metodologiak erabilia egiten da. Jarraipena aldizkakoa da, dauden arrisku-mailen berri kontrol-organoei emanda eta unitate bakoitzerako ezarritako mugak beteta. Simulazio ariketa berezien bidez osatzen da, baita *stress testing* eszenarioen bidez ere. VaR metodologiaren fidagarritasuna *backtesting* tekniken bidez frogatzen da.

INTERES-TASAREN EGITURA ARRISKUA: Interes-tasen kurben kontrako mugimenduen aurrean duen finantza-esposizioaren azterketa zehatza ezartzen da, arriskuaren identifikazioa eta neurketa barne eta aukera komertzialen proposamena edo merkatuen eta balantzaren egoerarekin bat datozen negozio helburuetarako estaldurarena. Arintze-teknikak interes-tasen estalduretarako errenta finkoko eta finantza eratorrien tresnen kontratazioan zentratzen dira.

LIKIDEZIA ARRISKUA: Taldeak aktibo likidoen bilakaeraren aldizkako jarraipena egiten du eta zorro dibertsifikatua mantentzen du, baita etorkizuneko beharrianak aurreratzeko ureko proiektioak. Aldi berean, likidezia gapa aztertzen da, fondoan sarrera eta irteeren arteko desberdintasun aurreikusgarriak epe labur eta ertaineko muga. Arintzeko, dibertsifikazio politikari jarraitzen zaio, handizkako finantza merkatuetara errenta finkoaren eta titulazioen jaulkipen programen bidez sartuta.

ERAGIKETA ARRISKUA: Bereziki garatu diren metodologia eta tresna informatikoak daude eta lan honetan eskusiboki ari diren langileak, hau da, Eragiketa Arriskuaren Unitatea, baita arrisku honen kudeaketaren arduradun sare zabala, antolakuntza osoan sakabanatuta.

Xehetasun gehiago ematen dira arriskuaren kudeaketa-sistemei buruz, urteko kontuen 16. oharretik 20.era.

F BARNE KONTROLEKO SISTEMAK ETA ARRISKUEN KUDEAKETA FINANTZA INFORMAZIOAREN JAULKIPEN PROZESUARI DAGOKIONEZ (FIBKS)

F.1 Erakundearen kontrol ingurunea

F.1.1. Zein organo eta/edo funtzio dira honako hauen arduradunak: (i) FIBKS egokia eta eraginkorra egon eta mantent dadin; (ii) ezarpena; eta (iii) gainbegiratzea

FIBKS egokia eta eraginkorra egotearen arduraduna Kutxabanken Administrazio Kontseilua da. Administrazio Kontseiluaren Araudiak, bere 5. artikuluan zera ezartzen du, "Administrazio Kontseiluak bere funtzioen artean duela arriskuaren kontrol eta kudeaketa politika finkatzea, eta barne kontrol eta informazio sistema egokiak antolatzea, baita sistema horien aldizkako jarraipena egitea ere". Halaber, Administrazio Kontseiluko Araudiaren 16. artikulua ezartzen duenez, "Auditorietza eta Betetze Batzordeak lagundu egiten dio Administrazio Kontseiluari Erakundearen barne kontrolaren eraginkortasuna, barne auditoria, kasuaren arabera, eta arriskuaren kudeaketa sistemak gainbegiratzeko bere eginkizunetan, baita Kontu Auditoreekin auditoria egitean antzeman diren barne kontrol sistemaren ahuldade esanguratsuak eztabaidatzen ere". Zentzu honetan, Auditorietza eta Betetze Batzordearen eskumenen artean, finantza informazio arautuaren lanketa eta aurkezpen prozesua gainbegiratzearena ere badago. Barne Kontrol eta Auditorietza Zuzendaritza Nagusi Ondokoak, bere aldetik, Auditorietza eta Betetze Batzordeari laguntzen dio, arriskuaren kudeaketa eta kontrolerako sistemen diseinu egokiaren eta ezarpenaren gainbegiratzeari buruz informatzeko. Horien artean, finantza informazioaren lanketa prozesua dago (FIBKS), eta horien funtzionamendu zuzena eta eraginkorra izan dadin zaintzen du. Azkenik, Finantza Zuzendaritzak arriskuaren kudeaketa eta kontrol sistemen diseinuan eta ezarpenaren laguntzen du, bereziki, merkatuetara zabaltzen den finantza informazioaren lanketa, aurkezpen eta zuzentasun prozesuari dagokionez. Ardura banaketa hori, barne izaera duen Arau baten bidez jakinarazi zaio antolakuntzari, Administrazio Kontseiluak onartua, eta Informazio Finantzarioaren Barne Kontrol Funtzioa garatzen du.

F.1.2. Adieraz itzazu, baldin badira, bereziki informazio finantzarioaren lanketa prozesuari dagokionez, jarraian agertzen diren elementuak:

Honako hauen ardura duten sailak eta/edo mekanismoak: (i) antolakuntza egituraren diseinua eta berrikusketa; (ii) erantzukizun eta autoritate lerroak argi definitzea, lan eta eginkizunen banaketa egokia; eta (iii) erakundearen behar bezala zabaltzeko prozedura nahikoa dagoela, bereziki, informazio finantzarioaren lanketa prozesuari dagokionez.

Bai

Ez

Erakundearen antolakuntza-egituraren diseinua eta berrikusketa eta ardura eta aginte lerroen definizioa, Administrazio Kontseiluaren jarraibideek zehazten dute. Izendapen eta Ordainsari Batzordea, Administrazio Kontseiluaren Araudiak ezartzen duenaren arabera, Kontseiluari goi mailako zuzendarien izendapenak eta kargu uzteak informatzeko eta proposatzeko eginkizuna du, baita ordainsari politika proposatzea eta betetzen dela zaintzea ere. Giza Baliabideen Zuzendaritzak du beharrezko baliabideak esleitzeko ardura, eginkizunei eta adostutako lan kargei egokitutako profilarekin, edozein kasutan, arloko Zuzendaritza arduradunarekin, eta Administrazio Kontseilua da erakundearen antolakuntza-egitura onartzeko ardura duena. Erakundearen organigrama antolakuntza-egituraren helbide, arlo eta sail guztiak hartzen ditu eta Zuzendaritza guztiek dituzte eginkizun-eskuliburuak. Eskuliburu horietan zehazten dira zuzendaritza guztien eginkizun eta ardurak. Definizio horien artean, informazio finantzarioaren lanketan zerikusia duten zuzendaritza lanpostuena dago barne. Finantza Zuzendaritza Arloak du merkatuei aurkezten zaien informazio finantzarioa lantzeko ardura eta bere lan-organigrama propioa du, eta bertan zehazten dira erantzukizun lerroak, betebeharrak eta eginkizunak.

Portaera-kodigoa, onarpen-organoa, hedapen eta instrukzio maila, barne hartzen dituen printzipioak eta baloreak (eragiketen erregistroak bereziki aipatzen diren eta informazio finantzarioaren lanketa zehaztuz), ez-betetzeak aztertzeaz eta jarduera zuzentzaileak eta zigorrak proposatzeaz arduratzen den organoa.

Bai

Ez

Kutxabankek Kode Deontologikoa du, Administrazio Kontseiluak onartua 2012ko abenduaren 13ko dataz, eta Erakundearen intranetaren bidez hedatzen da.

Onartu zen datan Kode Deontologikoaren mende zeuden pertsona guztiek duen edukia berriaz onartu dutela, baita intranetean argitaratzen denetik eratorzen den araudia ere. Halaber, onartu denetik aurrera, egiten diren kontratazio berri guztietan, Kode Deontologikoaren testu osoa ezagutarazten da lan-kontratu guztiak sinatzen diren unean, berriazko onarpen-klausulak baitituzte.

Kodea Administrazio Kontseiluko kideei ezartzen zaie, baita Kutxabanken langile guztiei ere, hori guztiori, pertsona horietakoren bat beste Koderen baten mende egotearen kalterik gabe, esaterako, Balore Merkatuetako Portaera Kodea eta bere eginkizunak betetzen dituzten jarduerari dagokion beste Portaera Kode batzuk.

Kode Deontologikoak portaera oinarriko printzipioak jasotzen ditu, barne harremanetan nahiz hirugarrenei dagokienez ere, Pertsona Loturadunei ezargarrak, baita balizko zehatzei buruzko jarduera arauak ere (informazio pribilegiatua, datuen babesa, e.a.), merkatuen eskura jartzen den informazio finantzarioaren lanketa eta zuzentasun prozesuarekin zerikusia duten barne-prozedurei egiten zaizkien berriazko aipamenak.

Araudia Betetzea eta Barne Kontrol Zuzendaritzaren eskumena da Kode Deontologiko honen hedapena, ezagutza eta betetzea sustatzea, eta Giza Baliabideen Zuzendaritzari dagokio ez-betetze kasuan dagozkion diziplina neurrien ezarpena, kasuaren arabera.

Kutxabankek Kode Deontologikoari buruzko prestakuntza ematea du aurreikusita 2014rako.

Salaketa kanala, irregulartasun finantzarioak eta kontabilitatekoak Auditoretza Batzordeari komunikatzea ahalbidetuko duena, gehi portaera kodearen balizko ez-betetzeak eta jarduera irregularrak antolakuntzan, eta konfidentziala den ere informatuko du, hala badagokio.

Bai

Ez

Kutxabankek "Kanal Etikoa" deritzona du, salaketen barne komunikaziorako, Kode deontologikoaren arau-hausteak nahiz irregulartasun finantzarioak eta kontabilitatekoak jakinarazteko, edo, oro har, erakunde barruan egiten diren jarduera irregularrak edo iruzurrezkoak jakinarazteko.

Kanal horren bidez jasotako komunikazioak, konfidentzialsunez tratatu eta aztertzen ditu Araudia Betetzea eta Barne Kontrol Zuzendaritzak eta, bideratzeko onartuak direnean, Giza Baliabideen Zuzendaritzari jakinarazten zaizkio.

Giza Baliabideen Zuzendaritzak ebatzen du eta diziplina neurriak ezartzen ditu, salatutako portaera probatuta eta egiaztatuta geratuz gero, Hitzarmen Kolektiboan edo ezargarrak den lan legedian ezarritako falta eta zigorraren erregimenaren arabera, eta txostena helarazten du Zuzendaritza Nagusira eta Araudia Betetzea eta Barne Kontrol Zuzendaritzara.

Kanal hau behar bezala ibil dadin, lasterbidea ezarri da erakundearen intranetean, eta han Kode Deontologikoaren ez-betetzeak salatzeako formularioa dago eskura.

Prestakuntza programak eta aldizkako eguneratzea, informazio finantzarioaren prestakuntzarekin, ebaluazioarekin eta berrikusketarekin zerikusia duten langileentzat, baita FIBKSren ebaluazioarekin zerikusia dutenena ere. Programa horiek kontabilitate arauak, auditoria, barne kontrola eta arrisku kudeaketa, behintzat, bete behar dituzte.

Bai

Ez

Informazio finantzarioarekin eta FIBKSren ebaluaketarekin zerikusia duten prozesuetan diharduten Kutxabanken langileek, prestakuntza jasotzen dute eta ezagutza eguneratzeak, berriaz diseinatuak

haien eginkizunen garapen egokia errazteko.

Erakundeak, informazio finantzarioaren prestaketarekin eta berrikusketarekin eta FIBKSren ebaluazioarekin zerikusia duten langileen postu eta erantzukizun bakoitzari egokitutako kontabilitate, finantza eta barne kontrol arloan Prestakuntza Plana izateko bere helburuari jarraiki, 3.668 prestakuntza ordu eman dizkie arlo horietan diharduten 193 langileri.

Egindako prestakuntza, batez ere, honako eremu hauetan oinarritu da:

-Kontabilitatea / Baterakuntza

-Juridikoa / Fiskala

-Auditoria

-Araudia Betetzea

-Kaudimena

-Arriskuaren azterketa eta kudeaketa

-Gardentasuna

Erakundearen emandako prestakuntza-saioak presentziazkoak eta on-line dira, bertako edo kanpoko prestatzaileen eskutik.

F.2 Informazio finantzarioaren arriskuen ebaluazioa

F.2.1. Zeintzuk dira arriskuen identifikazio prozesuaren ezaugarri nagusiak, akatsa edo iruzurra barne.

Bai

Ez

Prozesua existitzen bada eta dokumentatuta badago:

Erakundeak informazio finantzarioarekin zerikusia duten prozesuak, arlo esanguratsuak eta loturadun arriskuak identifikatzeko politika du, akatsa eta iruzurra barne.

Era honetara, finantza egoeretan eragin potentzial esanguratsua duten arriskuen identifikazio prozesua, informazio finantzarioaren sortzeari atxikitako kudeaketa-prozesu kritikoen eta aipatutako arriskuak gauzatzen diren finantza-egoeren arlo edo epigrafeen identifikazioan ardazten da. Prozesuen eta arloen azterketa prozesuan faktore kuantitatiboak (saldoa eta granularitatea) eta kualitatiboak (prozesuen automatizazio maila, eragiketen estandarizazioa, kontabilitate konplexutasun maila, aurreko ekitaldiarekiko aldaketak, kontrol ahuldade identifikatuak, e.a.).

Prozedurak informazio finantzarioaren helburu guztiak betetzen baditu, (existentzia eta gertaera; zuzentasuna; balorazioan; aurkezpena, banantzea eta bateragarritasuna; eta eskubideak eta betebeharrak), ea eguneratzen den eta zein maiztasunaz:

Ebaluazio prozesu horrek informazio finantzarioaren helburu guztiak estaltzen ditu: (i) existentzia eta gertaera; (ii) zuzentasuna; (iii) balorazioa; (iv) aurkezpena; (v) banatzea eta bateragarritasuna; eta (vi) eskubideak eta betebeharrak.

Arriskuen identifikazio-prozesuaren irismenaren berrikusketa urtero osatzen da, abenduaren 31ko Egoera Publiko Bateratuak oinarri erabilita. Hala ere, ekitaldian zehar, alde aurretik identifikatu gabeko inguruabarrak agertuz gero, eta horiek informazio finantzarioaren balizko akatsak edo Erakundearen eragiketetan aldaketa esanguratsuak agertuz gero. Finantza Zuzendaritzak alde aurretik identifikatuta zeudenei metatu behar zaien arriskurik dagoen ebaluatuko du.

Baterakuntza perimetroaren identifikazio prozesua existitzea, besteak beste, erakunde-egitura konplexuen, tresna-erakundearen edo proposamen berezien balizko existentzia aintzat hartuta:

Baterakuntza perimetroaren identifikazio zuzenarekin zerikusia duten balizko arriskuak, "Baterakuntza

Prozesua” izenekoan daude dokumentatuta. Hori da Kutxabanken hiru prozesu kritikoetako bat, eta bere berrikuntza urtean behi egitea ezarri da.

Prozesuak beste arrisku tipologia batzuetako eraginak hartzen baditu aintzat (eragiketakoak, teknologikoak, finantzarioak, legalak ospearenak, ingurumenekoak, e.a.) finantza-egoerei eragiten dieten neurrian:

Arriskuak identifikatzeko prozesuak aintzat hartzen du beste arrisku tipologia batzuen eragina (eragiketakoak, teknologikoak, finantzarioak, legalak ospearenak, ingurumenekoak, e.a.) finantza-egoerei eragiten dieten neurrian.

Erakundearen zein gobernu organok gainbegiratzen du prozesua:

Arriskuen eta kontrolen identifikazio prozeduraren egikaritzea Finantza Zuzendaritzaren ardura da, eta horren gainbegiratzea Auditoretza eta Betetze Batzordeari dagokio, Barne Kontrol eginkizunaren bidez.

F.3. Kontrol jarduerak

F.3.1. Informazio finantzarioaren berrikusketa eta baimentze prozedurak eta FIBKSren deskribapena, balore merkatuetan argitaratzekoa, arduradunak zeintzuk diren adierazita, baita jarduera eta kontrol fluxuen dokumentazio deskriptiboa ere (iruzur-arriskuei buruzkoak barne), finantza-egoerei era materialean eragin diezaieketen transakzio mota guztienak, kontabilitate itxiera prozesua eta epai, zenbatespen eta proiektzio esanguratsuen berrikusketa berezia barne.

Finantza-egoerei era materialean eragin diezaieketen transakzioekin zuzenean zerikusia duten jarduera eta kontrolei dagokienez, Erakundeak informazio finantzarioaren sorrera, lanketa eta prestaketari eragiten dioten prozesuen eta arlo esanguratsuen arriskuen eta kontrolen Prozedurak eta Matrizeak ditu.

Prozedurek prozesuan zerikusia duten organigrama eta eginkizunak hartzen ditu aintzat, zerikusia duten sistemak eta prozesuaren deskriptiboa. Gainera, arriskuen eta kontrolen Matrizeek, besteak beste, honako arlo hauek hartzen dituzte aintzat:

- Arriskuaren deskriptiboa
- Kontrol jarduera
- Kontrolaren sailkapena: gakoa /estandarra
- Kontrolaren kategoria: prebentiboa /detektatzekoa
- Metodoa: manuala /mistoa /automatikoa
- Kontrola jasaten duen sistema
- Kontrolaren egilea eta arduraduna
- Kontrolaren maiztasuna
- Kontrolaren ebidentzia,
- e.a.

Jarraian, Erakundearen finantza arloei lotutako prozesu esanguratsuak zehaztuko ditugu (zeharkako prozesuak eta negoziokoak desberdinduz). Horietarako arestian aipatutako dokumentazioa dago.

Zeharkako prozesuak

- Kontabilitate itxiera
- Baterakuntza
- Kontrol Informatiko Orokorrak

Negozio prozesuak

- Kreditu-inbertsioa:
 - Kreditu-inbertsioak
 - Arriskueterako hornikuntzak eta konpromiso kontingenteak
 - Finantza aktiboen narriaduragatiko galerak
- Hartzekodunak: Pasibo finantzarioak kostu amortizatuan

- Finantza-tresnak:
 - Negoziazio zorroa
 - Salgai dauden finantza-aktiboak
 - Estaldura eratorriak
 - Balorazioagatiko doiketak
 - Finantza eragiketen emaitzak
- Zorra ordaintzeko jasotako higiezin aktiboak (ANCEV, Higiezin Inbertsioak eta Izakinak):
 - Aktibo ez arruntak salgai
 - Aktibo materiala
 - Gainontzeko aktiboak
 - Salgai dauden aktibo ez arrunten emaitza, eragiketa etenak gisa sailkatu gabeak
- Pentsioengatiko konpromisoak: Pentsioetarako fondoak antzeko obligazioengatik
- Erakundeen gaineko Zergak: Aktibo eta pasibo fiskalak
- Jarduera aseguratzailea: Aseguru kontratuengatiko pasiboak
- Urteko Kontuak egitea eta gainbegiratzea

Arestian komentatutako dokumentazio deskriptiboak honako hauek hartzen ditu barne:

- Prozesuarekin hasieratik zerikusia duten jardueren deskribapena, produktu edo eragiketek izan ditzaketen berezitasunak zehaztuz.
- Erakundearen finantza-egoeretan eragin materiala izan dezaketen arrisku esanguratsuen identifikazioa.
- Kontrolen identifikazioa eta deskripzioa, baita aldez aurretik identifikatutako arriskuekiko lotura ere.

Epai eta zenbatespen esanguratsuen berrikusketari dagokionez, epai edo zenbatespen parametroak dituzten arlo esanguratsueni buruzko informazioa ematen du Erakundeak bere urteko kontuetan, baita horiekiko erakundeak aurreikusi dituen hipotesi giltzarri buruzko informazioa ere. Zentzu honetan, egindako zenbatespen nagusiak zenbait finantza aktiboren narriaduragatiko galerei buruzkoak dira, pasiboari buruzko kalkulu aktuarialak eta pentsioengatiko konpromisoak, aktibo materialen eta ukiezinen balio-bizitza, finantza-aktibo ez kotizatuen arrazoizko balioa eta higiezin aktiboen arrazoizko balioa. Gainera, Kutxabankek epaiak eta zenbatespenak egiteko politika orokorra du, eta aintzat hartu beharreko alderdi guztiak hartzen ditu barne, baita horien prestaketako eta berrikusketako ardurak ere.

F.3.2 Erakundearen prozesu esanguratsuek informazio finantzarioaren lanketa eta argitaratzeari dagokionez jasaten dituzten informazio-sistemen gaineko barne kontroleko politikak eta prozedurak (besteak beste, sarbide segurtasunaz, aldaketen kontrola, horien eragiketa, eragiketen jarraikortasuna eta eginkizunen banantzea).

Erakundeak informazio-sistemak erabiltzen ditu bere eragiketen erregistro eta kontrol egokia mantentzeko [eta ondorioz, bere jarduera zuzenaren mendekotasun altua du].

Erakundeak Kontrol Informatiko Orokorren Prozesua du, dagokion prozedura eta arrisku eta kontrol matrizearekin. Bertan zehazten dira sarbide-segurtateari buruzko arriskuak eta kontrolak, aldaketa kontrolak, horien eragiketak, jarraikortasun operatiboa eta eginkizunen banantzea.

Aplikazioen diseinuan eta inplementazioan kontrol puntu desberdinak ezartzen dituen marko metodologikoa dago definituta, lortu den emaitzak erabiltzaileak eskatutakoa betetzen dituela ziurtatzeko, eta kalitate-mailak galdatutako fidagarritasun, eraginkortasun eta mantenu estandarrak betetzen dituela ziurtatzeko. Badago metodologia bat Erakundearen negozio-aplikazioak eskatzeko, diseinatze eta ezartzeko.

Azpiegituren edo aplikazioen mailako edozein aldaketa barne metodologiaren bidez kudeatzen da. Metodologiak aldaketa onartzeko fluxua definitzen du, eta eragina eta balizko "atzerakada" definitzen ditu.

Erakundearen Informatika Zuzendaritzak sarbideei dagokien segurtasuna estaltzera bideratutako politikak ditu ezarrita, eginkizunen banantzearen bidez, rolen eta profilen definizioaz, baita bere funtzionamenduaren jarraipena, babes zentroak sortuz eta bere eraginkortasunaren aldizkako proben bidez.

Kontingentzia Informatikoko Planak babes zentro ispiluetan oinarritzen dira, eta Host eta Banatutako sistemetara zabaltzen dira. Plan horien aldizkako proba eta kontrolak egiten dira, eraginkortasuna eta jarduera zuzena bermatzeko.

Zerbitzu hornitzaile nagusiek (azpiegiturak, telekomunikazioak, e.a.) segurtasun sistema oso gaituak ezarri dituzte Erakundearen, sektoreko praktika onenetan oinarrituta. "Services Level Agreement" (SLA) deritzenak betetzea aldizka berrikusten du Erakundeak.

F.3.3 Hirugarrenei azpikontratutako jardueren kudeaketa gainbegiratzera bideratutako barne kontrol politikak eta prozedurak, baita aditu independenteei enkargatutako ebaluazio, kalkulu edo balorazio alderdiena ere, finantza-egoerei era materialean eragiterik duten kasuetan.

Erakundeak aldizka berrikusten ditu hirugarrenek egikaritutako jarduerak, lanketa finantzarioarako esanguratsuak diren kasuetan, edo fidagarritasunari zeharka eragin diezaioketen kasuetan. Erakundeak aditu independenteen txostenak erabiltzen ditu sarri, finantza egoerei era materialean eragin diezaioketen eragiketak baloratzeko.

2013ko ekitaldirako, aditu independenteen balorazioekin eta kalkuluekin zerikusia zuten hirugarrenei enkargatutako jarduerak, honako hauei buruzkoak izan dira:

- Finantza-tresna egituratuak eta eratorrien balorazioak.
- Langileekin onartutako konpromisoen azterketa aktuariaren kalkulua.
- Esleitutako higiezinaren tasazioak eta Erakundearen kreditu-zorroaren eragiketetan berme gisa diharduten higiezinena.

Erakundeak maila guztietan ditu ezarrita kontrolak, jarduera hauei lotutako arriskuak arintzeko. Kontrol horiek eragiketen ardura duten sailek egikaritzen dituzte, eta gaitasuna, trebakuntza, egiaztatzea edo independentzia egiaztatzea dute helburu, baita erabilitako datuen eta metodoen baliagarritasuna eta erabilitako hipotesien arrazoigarritasuna ere.

F.4. Informazioa eta Komunikazioa

F.4.1. Funtzio berezia, kontabilitate-politikak definitzeko eta eguneratuta mantentzeko eginkizuna duena (kontabilitate-politiken arloa edo saila) eta bere interpretaziotik eratorritako zalantzak edo gatazkak ebazteko eginkizuna, erakundearen eragiketen gaineko ardura dutenekin komunikazio bizkorra izanez, baita kontabilitate politikaren eskuliburu eguneratua eta erakundeak jarduteko bitartekari dituen unitateei komunikatua.

Finantza Zuzendaritzak du, bere mendean dituen arloen laguntzaz, Erakundeari eragiten dioten kontabilitate politikak identifikatzeko, definitzeko eta komunikatzeko ardura, Talde Ekonomikoko erakunde filialak eta partaidetu bazkidetuak barne, baita erakunde filialek nahiz Erakundearen negozio unitateek egin litzaketan kontabilitate arloko kontsultak erantzuteko ardura ere.

Baterakuntza paketeak Taldearen erakunde filial bakoitzak betetzen ditu eta partaidetu bazkidetuek, hiru hilean behin, eta Filialen eta Baterakuntza Finantza Zuzendaritza da Talde Ekonomikoko erakunde filialek eta partaidetu bazkidetuek Erakundetik zehazten diren kontabilitate erregistro jarraibideak eta kontabilitate politikak jarraitzen dituzten zaintzen duena. Arlo horretatik, filialen eta partaidetu bazkidetuen informazioa aztertu eta berrikusten da, eta beharrezkoa izanez gero, bateratua egiteko zein aldaketa egin behar duten jakinarazten zaie erakundeari.

Informazio finantzarioari eragiten dioten eta finantza egoeretan eragina duten araudi aldaketak egonez gero, Finantza Zuzendaritzaren erantzukizuna da, eta zehazki, Kontabilitate eta Estatistika arloarena, eragindako arloetako langileei helaraztea.

Taldearen kontabilitate politiken jarraipena ziurtatzeko, Erakundeak Kontabilitate Politiken Eskuliburua du, eguneratuta, Finantza zuzendaritzak onartua.

Taldeak ezar ditzakeen kontabilitate politikak definitzen dituen kontabilitate araudi markoak eta finantza egoerek ondarearen eta finantza egoeraren irudi fidela erakustea ahalbidetzen duenak honako hauek hartzen ditu barne, (i) Finantza Informazioaren Nazioarteko Arauak (ii) Espainiako Bankuaren abenduaren 22ko 4/2004 Zirkularra.

F.4.2. Informazio finantzarioa harrapatzeko eta prestatzeko mekanismoak, formatu homogeneousunak, Erakundeko edo Taldeko unitate guztiek ezartzeko eta erabiltzekoa, finantza-egoera nagusiak eta notak jasango dituztenak, baita FIBKSi buruz zehazten den informazioa ere.

2013ko lehenengo hiruhilekoan, jatorrizko Kutxetako hiru plataforma informatiko independenteen integrazioa burutu da. Ordura arte, Finantza Zuzendaritzari informazioaren gainbegiratzea errazteko helburuz, hiru eremuetako kontabilitatea automatikoki gehitzeko prozesua mantendu da.

Era berean, Espainiako Bankuari informazioa igortzeko tresna, "Datuak harrapatzea", hiru plataforma informatikoen integrazioa arte hiru eremuetatik sartzen ziren egoerak gehitu ahal izateko prestatu zen eta Kutxabank mailan behar ziren koadratzeak egin ahal izateko.

Gainera, Espainiako Bankuari igorritako informazioa Kutxabanken kontabilitatearekin koherentea zela ziurtatzeko helburuz, hileroko egiten da koadratzea Espainiako Bankuaren egoeren eta emaitza publikoen Balantze eta Kontuaren eta gehitutako kontabilitate informazioaren artean.

Informazio finantzarioaren baterakuntza eta prestatzea erakundetik burutzen da era zentralizatuan, "Hyperion-HFM" aplikazio informatikoa erabiliz. Baterakuntza prozesua burutzeko, Talde Ekonomikoaren erakunde filialek Erakundeak berak erabiltzen duen aplikazio informatiko berera sartzea dute, eta horren bidez kargatzen dute informazio finantzarioa, beraz, saldo guztiek iraultzen dute Talderako kontu plan homogeneousun batean.

Filialen informazio finantzarioa ezarritako jarraibideak eta formatuak jarraituz helarazten da, eta Taldearen finantza egoeren prestatzea-prozesuaren sarrera-datuak dira. Gainera, erakundeek beharrezko informazio gehigarria igortzen dute, bidalitako informazioa egiaztatu eta alderatzeko, nahiz kontabilitate irizpideak harmonizatze eta homogeneousunatzeko. Horretaz gain, Taldeko erakundeek finantza egoerei dagozkien banantzeak egiteko beharrezko baterakuntza paketeak igortzen dituzte, baita zenbait kontabilitate egoera edo lagungarriak ere, informazio gainontzeko beharrezko estaldura emateko beharrezkoak baitira.

Filialen eta Baterakuntza Finantza Zuzendaritza atalak du erakunde filialek eta partaidetuek helarazitako informazio finantzarioaren berrikusketa egiteko ardura, eta, kasuaren arabera, beharrezko irizten zaien homogeneousunatze doiketak egiten dituzte. Erakundeek helarazitako informazio finantzarioaren fidagarritasuna ziurtatzeko helburua duten zenbait prozedura eta kontrol dago, baita informazio hori zuzen tratatuko dela ziurtatzeko ere, besteak beste, saldoen, transakzioen eta gertaera ekonomiko esanguratsuen azterketa, horien bilakaera eta aurkezpena arrazoizkoa eta koherentea den, inbentarioak lortzea eta koadratzea, baterakuntza idazpenen berrikusketa eta eguneratzea, e.a. Era berean, badaude prozedurak eta kontrolak baterakuntza prozesuaren emaitzak balidatzeko, besteak beste, lortutako emaitzen eta aurrekontuen arteko alde azterketa, baita Espainiako Bankuak egiten dituen egoeren gaineko kontrolak. Kontrol horietan, balantzeko partidak eta emaitzen kontua alderatzen baitituzte.

Horretaz gain, erakunde partaidetu nagusietako auditoreei zenbait txosten eta prozedura eskatzen zaizkie Taldearen baterakuntzarako helarazi duten informazio finantzarioari buruz, besteak beste, ezarritako kontabilitate irizpideen berrikusketa eta baterakuntza paketeetan igorritako banantzeen zuzenketa.

F.5. Sistemak nola diharduen gainbegiratzea

F.5.1. Auditoretza batzordeak egiten dituen FIBKSen gainbegiratze jarduerak, baita ea Erakundeak barne auditoria duen, eta auditoria horrek bere eskumenen artean batzordeari barne kontrol sistemaren gainbegiratze eginkizunean laguntza ematea duen, FIBKS barne. Era berean, ekitaldian egin den FIBKSren ebaluazioaren irismenaren berri emango da, eta ebaluazioa egiteaz arduratzen denak zein

prozeduraren bidez jakinarazten dituen emaitzak, ea Erakundeak beharrezko zuzenketa-neurriak zehazten dituen jarduera-plana duen, eta ea informazio finantzarioan duen eragina aintzat hartu den.

Kutxabanken, Barne Kontrol Unitatea Araudia Betetzea eta Barne Kontrol Atalaren mendean dagoen eginkizun gisa dago eraturta. Atal honek bere eginkizunen artean du Auditoretza eta Betetze Batzordeari informazioa helaraztea eta laguntza ematea, informazio finantzarioa landu eta aurkezteko prozesua gainbegiratzeko bere eginkizunean. Ebaluazioa plana eta FIBKS gainbegiratzearen emaitzak, gutxienez, urtean behin aurkezten zaizkio Auditoretza eta Betetze Batzordeari. Barne Kontrolak landutako txostenean, egindako lanaren irismena zehazten da, lortutako emaitzak, balizko gorabeheren eragin potentzialak eta horietatik eratorritako jarduera-planak.

Barne Kontrol eginkizunak Auditoretza eta Betetze Batzordeak onartutako Araudia Betetzea eta Kontrol Planean integratutako Barne Kontrol Plana du. Plan horrek Kutxabanken garrantzitsuan irizten zaien atalen gaineko probak egitea aurreikusten du, eta Planak hartzen dituen hiru urteetan atal guzti-guztiak hartuko ditu barne, bereziki garrantzitsuak diren zenbait atal edo prozesu izan ezik, esaterako, kontabilitate itxiera, baterakuntza, epaiak eta zenbatespenak prozesu kritikoak eta kontrol informatiko orokorrak.

2013an Auditoretza eta Betetze Batzordeak informazio finantzarioaren barne kontrol sistemen gaineko berrikusketa eta kontrol lana Araudia Betetze eta Barne Kontrol Atalari gomendatu dio. Gainera, Auditoretza eta Betetze Batzordeak informazio finantzarioaren barne kontrol sistemen berrikusketa prozesuaren irismena ebaluatu eta baliozkotu du, eta 2013ko ekitaldian egindako zeharkako prozesuen eta negoziokoen gainbegiratzeari buruzko informazioa jaso du.

2013ko ekitaldirako egindako ebaluaketaren irismenak inplementatutako FIBKSren jarduera formalaren gainbegiratzea hartu du barne, baita kontabilitate itxieraren, baterakuntzaren, kontrol informatiko orokorren, kreditu inbertsioen, finantza-tresnen, pentsioengatikoko konpromisoen, erakundeen gaineko zergen, aseguru jardueren eta urteko kontuen prozeduren kontrol giltzarrien gainbegiratzea ere.

2013ko ekitaldiko ebaluazio prozesuan, 185 kontrol identifikatu dira eta 168 dira kritikotzat hartzen diren kontrolak. Identifikatu diren kontrol ahuldadeak eta hobekuntza aukerek 10 jarduera-plan ekarri dituzte.

Gainera, Barne Auditoretza, Kontrol eta Barne Auditoretza Zuzendaritzaren mendeko eginkizun gisa dago eraturta. Atal horrek politikak, planak, prozedurak, arauak eta erregelamenduak betetzen direla ziurtatzen duten sistemak aztertzea eta ebaluatzea du bere eginkizunen artean, baita barne kontrol sistemen nahikotasuna eta eraginkortasuna, horiek hobetzeko iradokizunak jaulkita. Barne Auditoriak egin behar duen lan errepikakorretako bat, gutxienez, hiru urterik behin, FIBKSen egoerari buruzko txostena jaulkitzea da. Txosten horretan, ahuldadeak identifikatzeak ekarri lezakeen eragina ere agertuko da, baita lan gehigarrien planifikazioaren gaineko erabakiak ere, eta azaleratu diren arriskuak arintzeko kontrol neurri bereziak. Txosten hori Auditoretza eta Betetze Batzordeari aurkezten zaio.

F.5.2. Aipa itzazu, kontu auditoreak (NTAn ezarritakoaren arabera), barne auditoria eginkizuna eta beste aditu batzuek goi mailako zuzendaritzari eta Auditoretza Batzordeari edo erakundeko administratzaileei jakinarazi diezaieketen eztabaida prozesurik baldin badago, urteko kontuen berrikusketa prozesuetan edo beste berrikusketa batzuetan identifikatutako barne kontroleko ahuldade esanguratsuenak adieraz dezaten. Era berean, behatutako ahuldadeak zuzendu edo arintzeko helburua duen jarduera-plana duen jakinaraziko du.

Auditoretza eta Betetze Batzordea urtean bitan biltzen da, gutxienez, (informazio arautua argitaratu baino lehen) Administrazio Kontseiluak eman dizkion eskumenak betetzeko beharrezko informazioa lortu eta aztertzeko helburuz.

Kontu auditoreak, berrikusketa prozesuaren alde aurreko fasean nahiz kontu auditoria amaitzean, kasu bakoitzean lortutako emaitzak adierazten ditu. Behin kontu auditoria amaituta, kanpoko auditoreak Auditoretza eta Betetze Batzordean aurkezten ditu Urteko Kontuak eta informazio finantzarioaren bilakaera ebaluatzen duen Espainiako Bankuaren Txosten Osagarria. Prozesu hori burutzeko, alde aurretik, Auditoretza eta Betetze Batzordeak dokumentazioa jasotzen du eta dokumentazio hori Finantza Zuzendaritzarekin batera aztertu eta berrikusten da, indarrean dauden kontabilitate arauen ezarpen zuzena eta informazio finantzarioaren fidagarritasuna zaintzeko helburuz.

Auditoriak irauten duen bitartean, Erakundeko kontu auditoreak Erakundeko Goi Mailako Zuzendaritza eskura du eta aldizka biltzen da beraiekin, lana garatzeko behar duen beharrezko informazioa lortzeko

nahiz lanean ari dela antzemandako kontrol ahuldadeen berri emateko. Gainera, eztabaida prozesu honetan, antzeman diren FIBKSren balizko ahuldadeak ebaluatzen dira, eta, kausaren arabera, zuzentzeko proposamenak eta inplementatutako akzioen egoera ere. Horrela, urtean behin, FIBKSren marko barruan, Auditoretza eta Betetze Batzordeak Kontrol eta Barne Auditoretza Zuzendaritza Nagusi Ondokoak proposatutako jarduera-planak berrikusi eta onartzen ditu.

F.6. Bestelako informazio esanguratsua

Ez dago ezer aipagarririk atal honetarako.

F.7. Kanpoko auditorearen txostena

F.7.1. Merkatuetara igorritako FIBKSren informazioa ea kanpoko auditoreak berrikusi egin duen, eta hala balitz, erakundeak dagokion txostena Eranskin gisa sartu beharko luke. Ezetz balitz, zergatik egin duen azaldu beharko luke.

Kanpoko auditoreak FIBKs ez berrikustea erabaki du Kutzabankek, 2013ko ekitaldiko lehenengo hiruhilekoan Erakundeak bizi izan duen integrazio markoa dela eta, baita FIBKSren zenbait alderdi gauzatzeko prozesuan ar direlako ere. 2014ko ekitaldian prozesu horiek amaitzea espero da. Erakundeak ebaluatuko du ea etorkizuneko ekitaldietan kanpoko auditoreak merkatuetara igorritako FIBKSren informazioa berrikusiko duen ala ez.

G BESTELAKO INFORMAZIO INTERESGARRIAK

Erakunde gobernu arloan alderdi esanguratsurik badago erakundean edo taldeko erakundeetan, Txosten honetako gainontzeko ataletan jaso ez dena, baina beharrezkoa bada jasotzea, gobernu egiturari eta praktikei buruzko informazio osoagoa eta arrazoituagoa biltzeko erakundean edo bere taldean, adieraz itzazu labur.

Atal honen barruan, beste edozein informazio, argibide edo ñabardura ere sar daiteke, txostenaren aurreko atalekin zerikusia duena, garrantzitsuak eta ez errepikatuak diren neurrian.

Zehazki, erakunde gobernu arloan, erakundea Espainiakoa ez den beste legedi baten mendean dagoen adieraziko da eta, kasuaren arabera, adieraz ezazu zein informazio eman behar duzun, txosten honetan galdatutakoa ez bada.

Printzipio etikoetako edo praktika onetako beste kode batzuetara borondatez atxiki den ere adieraz dezake erakundeak, nazioartekoak, sektoreen arabekoak edo beste eremu batzuetakoak. Kasuaren arabera, erakundean aipatutako kodea identifikatuko du, baita atxikipen-data ere.

Ez dago Erakunde Gobernu Urteko Txosten honetan azaldutakoari atxikitzeko printzipio edo alderdi esanguratsurik.

Esanak esan, " Bete ezazu jarraian dagoen kontseiluko edo administrazio organoko kideei eta haien ezaugarri buruzko taula" izeneko C.1.2 atalari dagokionez, honako hau zehaztu nahi da:

2013.01.31ko dataz, CAJA DE AHORROS DE VITORIA Y ÁLAVA- ARABA ETA GASTEIZKO AURREZKI KUTXA akziodunak sustatuta izendatuak ziren Carlos Vicente Zapatero Berdonces jaunak eta Fernando Raposo Bande jaunak euren kargua utzi zituzten eta Juan María Ollora Ochoa de Aspuru jauna eta Luis Viana Apraiz jauna izendatu ziren Administrazio Kontseiluko kide, biak izaera dominikalaz, biak akziodun beraren ekimenez. Era berean, 2013ko otsailaren 7an, Integrazio Kontratuan xedatutakoa betetzeko, Luis Viana Apraiz jauna izendatu zen Administrazio Kontseiluko Bigarren Presidenteorde.

2013.05.29ko dataz, CAJA DE AHORROS Y MONTE DE PIEDAD DE GIPUZKOA Y SAN SEBASTIÁN-GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA akziodunak sustatuta izendatua zen Jesús Echave

Román jaunak bere kargua utzi zuen eta José Miguel Martín Herrera jauna izendatu zuten, izaera dominikalaz, akziodun beraren ekimenez.

"Adieraz ezazu, kasuaren arabera, zein kontseilu edo administrazio organoko kidek hartzen duen bere gain administratzaile edo zuzendari kargurik erakundearen taldekoa den beste erakunderen batean" C.1.3 atalari dagokionez, 2013ko azaroaren 4ko dataz, Mario Fernández Pelaz jaunak BILBAO BIZKAIA KUTXA, AURREZKI KUTXA ETA BAHITETXEA erakundeko Presidente karguari utzi zion.

"Zehatz ezazu, labur, txosten honi dagokion ekitaldian izandako batzar nagusietan edo organo baliokideetan hartutako akordioak eta zein boto portzentaje hartu diren" B.3 atalari dagokionez, zera gehitu nahi da, Erakundearen Estatutuen 29. artikulua, 2013ko apirilaren 11ko akziodunen Ezohiko Batzar Nagusi Unibertsalak aho batez aldatu zuenez, une hartatik aurrera, honako eduki hau duela:

"29. artikulua- Kontseilarien ordainsaria

1. Administrazio Kontseiluko kideek, haien eginkizunak betetzeagatik, bertaratze dieta kontzeptupeko kopurua jasoko dute. Kopuru hori globalki zehaztuko du Akziodunen Batzar Nagusiak. Administrazio Kontseiluak izango du Akziodunen Batzar Nagusiak finkatutako kopurutik kontseilari bakoitzari zein kopuru zehatz dagokion finkatzeko eskumena, bete dituen karguen arabera, dedikazioaren arabera eta gizarte organoen zenbat bileretara bertaratu den aintzat hartuta, baita bere karguaren aldizkakotasunaren arabera ere.

2. Erakundeko eginkizun betearazleak eskuordetuta dituzten Administrazio Kontseiluko kideek, eginkizun horiek betetzeagatik ordainsaria jasotzeko eskubidea izango dute, dagokion goi mailako zuzendaritzako edo baliokidea den merkataritza-harreman lan-harremanaren mende. Lan-harreman hori Administrazio Kontseiluak finkatuko du eta zati finko bat izango du eskudirutan, hartutako erantzukizunei egokitu, eta laguntza-atal bat, dagozkion aurreikuspen eta aseguru sistemak barne hartuko dituena; halaber, Administrazio Kontseiluaren irizpidearen arabera, atal aldakor bat izan dezake, administratzailearen edo erakundearen betetze indibidualari buruzko adierazle objektiboetara lotuta, une bakoitzean ezargarria den legediak dioen eran ordainduko dena, baita bere eginkizunak ondo bete arren, kargua utziz gero, administratzailearen eskubidea indemnitazioa lortzeko, hori guztiori legearen arabera xedatutakoaren arabera.

3. Estatutu hauetako hitzaurrean aipatutako Erakundearen jatorria eta izaeraren arabera, eta jatorriz Bilbao Bizkaia Kutxa, Aurrezki Kutxa eta Bahitexea, Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián – Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa eta Caja de Ahorros de Vitoria y Alava-Araba eta Gazteizko Kutxa erakundeena zen finantza-negozioa Erakunde honi ematearen ondorioz, Erakunde edozein motatako kontraturen bidez egon daiteke lotuta, kontseilari jardunari lotuta, aipatutako kutxetarikoren batek sinatuta Erakundeko kontseilariekin, eta horrek, subrogazioz jarraitu dio hasieran sinatu zuen kutxari. Kontratu horiek bertan xedatutakoaren arabera amaituko dira, eta Akziodunen batzar nagusiari dagokio erabakitzea, kasuaren arabera, luzatuko den, legez eta estatutuaren arabera aurreikusitako markoan.

4. Goiko 2. eta 3. ataletan aurreikusitakoaren arabera Erakundearen kantitateak jasotzen dituzten Erakundearen Administrazio Kontseiluko kideek ezin izango dute zenbatekorik jaso, bertaratze dieta kontzeptupean.

5. Erakundeak erantzukizun zibileko aseguru kontrata lezake bere kontseilariarentzat."

"Aipa itzazu banan-banan administrazio organoak" C.2.1. atalari dagokionez, zera aipatu nahi da, 2013ko abenduaren 26ko dataz, Administrazio Kontseiluak aho batez adostu zuela, Administrazio Kontseiluaren funtzionamendu Araudia aldatzea, bere edukia "Europako parlamentuko eta Kontseiluko 2013ko ekainaren 26ko kreditu erakundeak jardueran sartzeari buruzko eta kreditu-erakundearen eta inbertsio-entresen zuzentzeriazko gainbegiratzeari buruzko 2013/36/UE zuzentaraua. Aipatutako zuzentarau horrek 2002/87/CE zuzentaraua aldatu zuen eta 2006/48/CE eta 2006/49/CE zuzentarauak indargabetu zituen" zuzentarauan ezarritako betebeharrei egokitzeko helburuz, Arriskuaren Kontrol Azpibatzerdea sortzea aurreikusiz, Arriskuaren Batzorde Eskuordetuan integratua, eta, araudiak eskatzen duenaren arabera, Bankuan eginkizun betearazlerik ez duten kontseilariak eratu. Arriskuaren Kontrol Batzordearen Azpibatzerdeak, Arriskuaren Batzorde Eskuordetuaren akordioz 2014ko urtarrilaren 16an sortu zena,

honako kontseilari hauek osatzen dute, Juan M^a Ollora Ochoa de Aspuru jaunak, José Miguel Martín Herrera jaunak eta Mikel Arieta-Araunabeña Bustinza jaunak.

Erakunde-gobernuaren urteko txosten hau erakundearen Administrazio Kontseiluak edo Gobernuak onartu du, 2014-02-27eko bileran.

Txosten hau onartzeko bozketan, aipatu Kontseiluaren edo Administrazio Organoaren zein kidek eman duten aurkako botoa edo abstenitu diren.

Jarraian, Erakundearen Gobernu Onaren Kode Bateratuaren gomendioak noraino jarraitu diren zehatz-mehatz azaltzen da, nahiz eta kontuan hartu behar den KUTXABANK, S.A. ez dela kotizatutako erakundea.

1. Kotizatutako Erakundearen Estatutuek akziodun batek gehienez eman dezakeen boto-kopurua ez mugatzea, eta merkatuan bere akzioak hartuz, erakundeak kontrola hartzea oztopatzen duten bestelako mugarik ez izatea.

KUTXABANK, S.A. ez da erakunde kotizatua eta, beraz, ezin ezar daskioke gomendio hau. Edozein kasutan, KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du, Erakundearen Estatutuek ez baitute zentzu honetako mugarik edo murrizketarik.

2. Jatorriko erakundeak eta bere mendeko batek kotizatzen dutenean, ondokoa jendaurrean zehatz definitu dezatela.
 - a) Haien jarduera-eremuak eta haien artean izan litezkeen negozio-harremanak, eta baita taldeko beste enpresekin kotizatutako mendeko erakundearenak ere;
 - b) Ager litezkeen interes-gatazkak konpontzeko aurreikusitako mekanismoak.

KUTXABANK, S.A. ez da erakunde kotizatua eta, beraz, ezin ezar daskioke gomendio hau.

3. Merkataritza Legeek berariaz eskatu ez arren, erakundearen egituraren aldaketak ekar ditzaketen eragiketak, Akziodunen Batzar Nagusian aurkeztea onartuak izan daitezten eta bereziki honako hauek:
 - a) Kotizatutako erakundeak holding bihurtzea, ordura arte erakundeak berak burututako funtsezko jarduerak erakunde mendekoetara eramatean edo "kidetza"ren bidez, nahiz eta erakundeak hauek erabat menderatu;
 - b) Funtsezko aktibo eragileak erostea edo eskuz aldatzea, honek helburu sozialean benetako eragina izan dezakeenean;
 - c) Erakundearen desegiteak bezalako eragina duten eragiketak.

Aurreko ataletan aipatutakoaren arabera, KUTXABANK, S.A.k gomendio hau berez betetzen du.

4. Batzar Nagusiak hartu beharreko akordioaren proposamen zehatzak, 28 gomendioan aipatzen den informazioa barne, jendaurrean aurkeztea Batzarraren deialdiaren iragarkia argitaratzean.

Hiru akziodun baino ez daudenez, normalean Batzarrak unibertsalak izaten dira, baina horrek ez du eragozten akziodun hauek bilerak egiteko datak baino lehen, jorrotutako gaien inguruan beharrezkoa den informazioa aldeztu aurretik izatea.

5. Batzar Nagusian funtsean independenteak diren gaiak bereizirik bozkatzea, akziodunek botoa ematean haien lehentasunak bereizirik adierazi ahal izateko. Eta arau hau, bereziki, honako hauek ematen ezar dadila:
 - a) Kontseilariak izendatzean edo berrestean, hauek banan-banan bozkatuko dira.

- b) Estatutuak aldatuz gero, funtsean independenteak diren artikulua bakoitzean edo artikulua multzo bakoitzean.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

6. Erakundeek botoa zatikatzea ahalbidetzea, akziodun giza legitimatuak agertzen diren finantza-bitartekariak, baina bezero desberdinentzat jarduten badute, horien argibideen arabera eman ditzaten botoak.

Gomendio hau ez da KUTXABANK, S.A.n ezargarria.

7. Kontseiluak bere eginkizunak asmo bakarraz eta iritzi independenteen arabera betetzea, akziodun guztiak berdin tratatzea eta Erakundearen interesak gidatuak egotea, enpresaren balio ekonomikoa jasangarritasunez gehienera eramateko. Eta era berean, interes-taldeen (stakeholders) harremanetan enpresak legeak eta araudiak bete ditzala zaintzea; bere beharrak eta kontratuak asmo onez bete ditzala; bere jarduera-eremuaren eta jarduera-arloaren arauak eta praktika onak errespetatzea; eta borondatez onartutako gizarte-erantzukizuneko printzipio gehigarriak zain ditzala.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

8. Kontseiluak, bere eginkizunaren ardatz gisa, bere gain har dezala enpresaren estrategia eta hau praktikan jartzeko beharrezkoa den antolakuntza zehatza onartzea, baita Zuzendaritzak ezarritako helburuak betetzen dituela eta enpresaren gizarte-xedea zein gizarte-interesa errespetatzen dituela gainbegiratzea eta kontrolatzea. Eta horretarako, Kontseiluak honakoak onartzeko eskumena bere gain hartzea:

a) Erakundearen politika eta strategi orokorrak, bereziki:

- i) Plan estrategikoa edo negozio-plana, eta baita kudeaketarako eta aurre-konturako urteko helburuak ere;
- ii) Inbertsio eta finantza-politikak;
- iii) Taldeko Erakundearen egituraren definitzea;
- iv) Erakunde gobernuaren politika;
- v) Erakunde gizarte-erantzukizunaren politika;
- vi) Ordainsari politika eta goi mailako zuzendariaren jardueraren ebaluazioa;
- vii) Arriskuen kontrol eta kudeaketa politika, baita informazio eta kontrol barne sistemen aldizkako jarraipena.
- viii) Dibidendu politika, baita auto-zorroa, eta, bereziki, haiei dagozkion mugak.

b) Hurrengo erabakiak:

- i) Enpresaren lehen betearazleak eskatuta, goi-zuzendariak izendatzea eta, dagokionean, kargutik kentzea, eta baita bere kalte-ordainari buruzko klausulak kentzea ere.
- ii) Kontseilarien ordainsariak, eta betearazleen kasuan, baita bere eginkizun betearazleengatik jasotzen dituztenak ere, eta haien kontratuek bete behar dituzten bestelako baldintzak ere.
- iii) Kotizatua izatearren, erakundeak jendaurrean aurkeztu beharreko finantza-informazioa.
- iv) Edozein motatako inbertsio edo eragiketak, zenbateko handikoak edo ezaugarri bereziak izatearren, izaera estrategikoak dutenak, bere onarpena Batzar Nagusiari ez badagokio.
- v) Asmo bereziko erakundeetan edo egoitza paradisu fiskaltzat hartzen diren herrialde edo lurraldeetan duten erakundeetan partaidetzak sortzea edo erostea, baita antzeko beste transakzio edo eragiketak, haien konplexutasunagatik, taldearen gardentasuna kaltetu ahal dutenak.

c) Erakundeak kontseilariekin, akziodun esanguratsuekin edo Kontseiluan ordezkaturik daudenekin, edo haiei lotutako pertsonekin egiten dituen eragiketak ("eragiketa lotetsiak"). Kontseiluaren baimen hau, aldiz, ez da beharrezkotzat joko ondoko hiru baldintzak aldi berean betetzen dituzten eragiketa lotetsietarako:

1. Baldintzak estandarizatuta dituzten kontratuengatik egiten badira eta bezero askori pilaka aplikatzen bazaie;
2. Hizpide den bin edo zerbitzuaren hornitzaile lana egiten duenak oro har ezarritako prezioetan edo salneurrietan egiten badira;
3. Bere zenbatekoa erakundearen urteko sarreraren %1a ez gainditzea.

Kontseiluak eragiketa lotetsiak onartu aurretik Ikuskaritza Batzordeak bere aldeko txostena ematea gomendatzen da, edo, hala badagokio, horretarako ardura hartu duenarena; eta horien eragina izaten duten kontseilariak, haien boto-eskubidea ez gauzatzeaz eta ez eskuordetzeaz gain, bilera gelatik irtetea Batzordeak horretaz eztabaidatzen eta botoa ematen duen bitartean.

Hemen Kontseiluari esleitzen zaizkien ardurak eskuordetu ezinak izatea gomendatzen da, b) eta c) hizkietan aipatzen direnak izan ezik, premiazko arrazoiengatik Batzorde Delegatuak onartuak izan daitezkeenak, ondoren Kontseiluak osoan berresteko.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau funtsean betetzen du, txosten honen aurreko ataletan aipatutakotik ondorioztatzen dena.

9. Kontseiluaren funtzionamendua eraginkorra eta partaidetsua izan dadin, komenigarria da bere kideak bost baino gutxiago eta hamabost baino gehiago ez izatea.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

10. Kanpoko kontseilari dominikalak eta independenteak Kontseiluan gehiengo zabala izatea, eta kontseilari betearazleen kopurua beharrezkoa den txikiena izatea, erakundearen taldearen konplexutasuna eta erakundearen kapitalean kontseilari betearazleek duten partaidetza-ehunekoa kontuan hartuta.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

11. Dominikal edo independentetzat har ezin daitekeen kanpoko kontseilaririk balego, erakundeak egoera hori eta bai erakundearekin edo bere zuzendariekin bai bere akziodunekin dituen loturak azaltzea.

Gomendio hau ezin ezar dakioko KUTXABANK, S.A.ri.

12. Kanpoko kontseilarien artean, kontseilari dominikalen eta independenteen kopuruek kontseilari dominikalek ordezkatzten duten erakundearen kapitalaren eta gainontzeko kapitalaren arteko proportzioa islatzea.

Proportzionaltasun irizpide hau leundu ahal izango da, eta horrela, dominikalen pisua ordezkatzten duten kapitalaren ehuneko osoari legokiokeena baino handiagoa izan liteke:

1º. Partaidetza handiko erakundeetan, legearen arabera esanguratsuak diren akzio partaidetzak oso urriak edo nuluak direnean, baina balio absolutu handiko akzio-sortak dituzten akziodunak daudenean.

2º. Kontseiluan ordezkaturako akziodun aniztasuna duten erakundeak direnean, eta haien artean loturarik ez dutenean.

KUTXABANK, S.A.k hiru akziodun besterik ez du, kapital sozialaren %100aren titularrak, eta hirurak daude kontseilari dominikalek ordezkaturata, eta ez dago kapital sozialaren portzentajerik Administrazio Kontseiluan ordezkaturata ez dagoenik.

13. Kontseilari independenteen kopurua gutxienez kontseilari guztien herena izatea.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du, 15 kontseilaritik 5 kontseilari independente baititu.

14. Kontseiluak kontseilari bakoitzaren izaera azal dezala bere izendapena egin edo berretsi behar duen Akziodunen Batzar Nagusiaren aurrean, eta egiazta dadila, edo kasuaren arabera, urtero berrikeri dadila Erakunde Gobernuaren Urteko Txostenean, Izendapen Batzordeak alde aurretik egiaztatuta. Eta txosten horretan, kapitalaren %5 baino txikiagoa den akzio-partaidetza duten akziodunek sustaturako kontseilari dominikalak izendatzeko arrazoiak ere azal daitezela; eta azal dadila zergatik

ez diren onartu, kasuaren arabera, Kontseiluan presentzia izateko kontseilari dominikalak izendatu dituzten beste batzuen baina akzio-partaidetza berdina edo altuagoa duten akziodunetatik datozen eskaera formalak.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

15. Emakumezko Kontseilari kopurua eskasa edo nulua denean, Kontseiluak horrek arrazoiak azaltzea eta egoera zuzentzeko onartutako ekimenak aurkeztea; eta, bereziki, Izendapen Batzordeak hutsik geratutako postu berriak betetzean honakoa zaintzea:
 - a) Hautaketa-prozedurek kontseilari emakumezkoak aukeratzea oztopatzen duten joera inpliziturik ez izatea;
 - b) Erakundeak hautagaien artean bilatutako lan-profila betetzen duten emakumezkoak nahita bilatzea eta sartzea.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau partzialki betetzen du. Hautaketa-prozedurek kontseilari emakumezkoak aukeratzea oztopatzen duten joera inpliziturik ez daukate, baina erakundeak ez ditu kontseilari-kargua betetzeko emakumeak nahita bilatzen.

16. Presidenteak, Kontseiluaren funtzionamendu eraginkorraren arduraduna den neurrian, kontseilariak alde aurretik informazio nahikoa izan dezatela bermatzea; Kontseiluaren sasoietan eztabaida sustatzea eta kontseilariaren partaidetza aktiboa bultzatzea, haien jarrera defendatzeko eta iritzia adierazteko askatasuna zainduz; eta esanguratsuak diren Batzordeen presidentekin Kontseiluaren aldikako gainbegiratzea antolatzea eta koordinatzea, eta baita, hala badagokio, Kontseilari Delegatuarena edo lehen betearazlearena ere.

KUTXABANK, S.A.k, gomendio hau funtsean betetzen du.

17. Kontseiluaren Presidentea erakundearen lehen betearazlea ere denean, kontseilari independenteetarik bati Kontseilua deitzeko edo gai-zerrendan hizpide berriak sartzeko baimena ematea; kanpoko kontseilariaren kezkak koordinatzeko eta horien berri emateko; eta Kontseiluak bere Presidenteari egindako ebaluazioa gidatzeko.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du. Erakundearen Estatutuen 28. artikulua ezarritakoaren arabera, Administrazio Kontseilua, oro har, hilean behin bilduko da eta, gainera, Presidenteak deitzen duen beste aldiz, bere ekimenez edo kontseilari bik hala eskatuta. Kontseiluaren deialdiak bileraren tokia zehaztuko du eta eguneko gai-zerrendarekin batera etorriko da. Hala ere, kontseilari guztiek eska dezakete gainontzekoen oniritzia gai-zerrendan agertzen ez den beste edozein gai sartzeko.

18. Kontseiluaren Idazkariak Kontseiluaren jarduerak jarraian azaltzen den bezalakoak izan daitezkeen bereziki zaintzea:
 - a) Legeen eta beren araudien letra eta espirituarekin bat etor daitezela, baita erakunde arautzaileek onartutakoekin ere;
 - b) Erakundearen Estatutuekin eta Batzordearen, Kontseiluaren eta erakundeak bestela dituen Araudiekin bat etor daitezela;
 - c) Kode Bateratu honetan agertzen diren eta Erakundeak onartu dituen gobernu onaren inguruko gomendioak kontuan jarrai ditzatela.

Eta Idazkariaren independentzia, inpartzialtasuna eta profesionaltasuna zaintzeko, bere izendapenaren eta kargu uztearen berri Izendapen Batzordeak eman dezala eta Kontseilu osoak onar ditzala; eta izendapen eta kargu uzte prozedura hori Kontseiluaren Araudian jaso dadila.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

19. Kontseilua bere eginkizunak eraginkortasunez egin ahal izateko beharrezkoa den maiztasunez biltzea, ekitaldiaren hasieran zehaztutako daten eta gaien programa jarraituz. Kontseilari guztiek hasieran gairerrendan agertzen ez diren beste hizpide batzuk proposatu ahal izango dituzte.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

20. Kontseilariak bileretara ez bertaratzea nahitaezko kasuetara baino ez mugatzea, eta hauek Erakundearen Gobernuaren Urteko Txostenean zenbatzea. Eta ordezkatzeari ezinbestekoa balitz, argibidei jarraituz egitea.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

21. Kontseilariak edo Idazkariak proposamenen baten inguruko kezka adierazten dituztenean, edo kontseilariaren kasuan, erakundearen jardunaren inguruan, kezka horiek Kontseiluan argitzen ez badira, adierazi dituenak eskatuta, aktan idatziz jasotzea.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

22. Kontseiluak urtean behin honakoak ebaluatzea:

- a) Kontseiluaren jardueraren kalitatea eta efizientzia;
- b) Izendapen Batzordeak helarazten dion txostena abiapuntutzat hartuta, Kontseiluko Presidenteari eta erakundearen lehen betearazleak haien eginkizunak zelan bete dituzten;
- c) Bere Batzordeen jarduerara, horiek helarazten dioten txostenetik abiatuta.

KUTXABANK, S.A.k partzialki betetzen du gomendio hau, eta edozein kasutan ere, akziodunek eginkizun horien jardueraren ebaluaziorako mekanismo gehigarriak dituzte.

23. Kontseilari guztiek Kontseiluaren ardura diren gaien inguruan beharrezkotzat jotzen duten informazio gehigarria jasotzeko eskubidea izan dezatela. Eta, Estatutuek edo Kontseiluaren Araudiak bestelakorik zehaztu ezean, haien eskaera Presidenteari edo Kontseiluaren Idazkariari helaraz diezaietela.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

24. Kontseilari guztiek haien eginkizunak betetzeko behar duten aholkularitza erakundetik jasotzeko eskubidea izan dezatela. Eta erakundeak eskubide hau gauzatzeko ildo egokiak eskaini ditzala. Egoera berezietan, enpresaren kontura, kanpoko aholkularitzaz ere baliatu ahal izango dira.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

25. Erakundeek kontseilari berriei enpresaren ezaguera arina eta nahikoa emango dien orientazio programa ezar dezala, baita erakunde gobernuaren bere arauena ere. Eta kontseilariari ezaguerak eguneratzeko programak eman diezazkietela, baldintzek hala eskatzen dutenean.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

26. Erakundeek galda dezatela kontseilariak haien eginkizunari eraginkortasunez betetzeko beharrezko denbora eta ahalegina eman diezaiotela eta, ondorioz:

- a) Kontseilariak Izendapen Batzordeari haien beste betebeharren berri eman diezaiotela, horiek eskatutako dedikazioa oztopa dezaketelakoan;
- b) Erakundeek haien kontseilariak zenbat kontseilutan parte har dezaketen arautzen duten arauak ezar ditzatela.

KUTXABANK, S.A.k partzialki betetzen du gomendio hau. Erakundeak ez dio egoki iritzi mugatzeari, bankuetako kontseilariari ezargarria zaien arauan ezarritakoaz haraindi, bere kontseilariak zenbat kontseilutan egon daitezkeen.

Era berean, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, Administrazio Kontseiluko kideen, zuzendari nagusien eta antzekoen, barne kontrol eginkizunen arduradunen eta Bankuaren jardueraren eguneroko garapenerako beste lanpostu giltzarrien egokitasuna ebaluatzeko politika du Erakundeak.

Politika hori Erakundearen Administrazio Kontseiluak onartu zuen eta Estatutuetan, Administrazio Kontseiluaren Araudian eta bere Batzorde Eskuordetuen araudietan eta Interes-gatazken Erakundearen Kudeaketa Politikan ezarritakoaren era gehigarrian ulertu behar da.

Honi dagokionez, Administrazio Kontseiluko kideen, zuzendari nagusien edo atzekoen, barne kontroleko eginkizunen arduradunen eta Erakundearen lanpostu giltzarriak dituzten pertsonen egokitasuna ebaluatzeko, euren merkataritza ohorea eta ohore profesionala hartuko dira aintzat, baita euren jakinduria eta esperientzia ere. Administrazio Kontseiluko kiden kasuan, gobernu onari dagozkion alderdiak ere balioesten dira, zenbait adierazleren bidez, dedikazio ahalmena, independentzia eta interes-gatazkarik dagoen, esaterako.

27. Kontseiluak Akziodunen Batzar Nagusian aurkeztutako kontseilariak izendatzeko edo berriro hautatzeko proposamena, eta baita haien behin-behineko izendapena (kooptazioz egindakoa) ere, Kontseiluak onar ditzala:

a) Kontseilari independenteen kasuan, Izendapen Batzordeak eskatuta.

b) Beste kontseilari guztien kasuan, Izendapen Batzordearen txostenaren ostean

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

28. Erakundeek, haien Web orriaren bidez, bere kontseilarien inguruko honako informazio hau argitara eman eta eguneratuta izan dezatela:

a) Profil profesionala eta biografikoa;

b) Zeintzuk administrazio kontseilutan dauden, erakunde kotizatuak izan nahiz ez izan;

c) Zein kontseilari-kategoriatan dagoen, dagokionaren arabera, eta kontseilari dominikalen kasuan, zein akziodunaren ordezkariak diren edo zein akziodunarekin duten lotura zehaztuko da.

d) Erakunde kontseilari lehendabizikoz zein datatan izendatu zuten, baita geroko izendapenen datak ere, eta;

e) Konpainiaren akzioak, eta horren gaineko aukerak, titularra den kasuetan.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau partzialki betetzen du, eta Web orriaren bidez ez du gomendio honek aipatzen duen informazio guztia argitara ematen, kontseilarien pribatasuna zaintzearen, erakunde kotizatu ez delako eta bere akziodunek beharrezkotzat jotzen ez dutelako. Gainera, legeak ez du eskatzen.

29. Kontseilari independenteek kategoria horretan jarraian 12 urte baino gehiago ez ematea.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

30. Kontseilari dominikalek haien dimisioa aurkez dezatela ordezkatzeko duten akziodunok bere akzio-partaidetza osorik saltzean. Eta gauza bera egin dezatela, dagokion kopuruan, aipatutako akziodunak bere akzio-partaidetza gutxitzen duenean kontseilari dominikalen kopurua murriztea eskatzen duen mailara heldu arte.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

31. Administrazio Kontseiluak kontseilari independenteen kargu-kentzerik ez proposatzea izendatua izan zen estatutuaren aldirako amaitu baino lehen, Izendapen Batzordearen txostenaren ondotik, Kontseiluak atzemandako bidezko arrazoia dagoenean izan ezik. Zehatz esanda, bidezko arrazoia dagoela ulertuko da kontseilariak bere karguari dagozkion berezko eginkizunak bete ezean edo Kode honen definizioen III. atalaren 5. epigrafean deskribatutako egoeretan sartzean.

Kontseilari independenteen kargutik kentzea ondoko egoeretan ere proposatu ahal izango da: Erosteke Eskaintza Publikoen, bat-egiteen edo erakundeearen kapitalaren egitura aldaketa eragiten duten erakundeen beste eragiketen ondorioz, Kontseiluaren egituran izandako aldaketa hauek 12. Gomendioan aipatutako proportzionaltasun-irizpideak eragindakoak direnean.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

32. Erakundeek kontseilariak informazioa ematera, eta hala badagokio, erakundearen ospea eta izena kaltetu dezaketean egoeretan dimititzera behartzen dituzten arauak ezar ditzatela, eta batez ere, Kontseiluak inputatu gisa agertzen diren auzi penalen berri eta prozesuaren ondorengo gorabeheren berri ematera behar ditzala.

Kontseilari bat prozesatua bada, edo bere kontra Erakunde Anonimoen Legearen 124. artikuluan zehaztutako delituengatik ahozko epaiketa hasteko autoa ematen bada, Kontseiluak kasua ahalik eta lasterren azter dezala, eta egoera zehatzak ikusita, erabaki dezala kontseilariak bere karguan jarraituko duen ala ez. Eta Kontseiluak honen guztiaren berri arrazoitua eman dezala Erakunde Gobernuaren Urteko Txostenean.

Arestian aipatu den Ebaluazio Politikaren arabera, kontseilariak beren ebaluazioari eragin diezaiokeen edo egokitasun balioespena berriro egitea eskatzen duen edozein gorabeheraren berri eman behar dute. Besteak beste: Erakundearen barne arauak ez betetzea, Prozedura judizialen batean inputatua izatea, edo Erakundearen jardueran edo ospean eragin negatiboak sor ditzakeen beste edozein gorabehera edo egoera.

33. Kontseilari guztiek argi eta garbi haien desadostasuna adieraz dezatela Kontseiluari aurkeztutako erabaki-proposamen bat gizarte-interesaren aurkakotzat jotzen dutenean. Eta beste horrenbeste egin dezatela, bereziki independenteek eta balizko interes-gatazkak eragiten ez dien gainontzeko kontseilariak, erabaki horiek Kontseiluan ordezkapenik ez duten akziodunengan kalterik eragin dezaketenean.

Eta Kontseiluak kontseilariak erreparoz zalantzazkotzat jotzen dituen erabaki esanguratsuak behin eta berriz hartzen dituztenean, kontseilariak behar diren ondorioak atera ditzala, eta dimisioa hartuko balu, hurrengo gomendioan aipatzen den gutunean bere arrazoiak azal ditzala. Gomendio honek Kontseiluaren Idazkariarengan ere izango du eragina, nahiz eta kontseilaria ez izan.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

34. Dimisioagatik edo bestelako arrazoiengatik kontseilari batek bere agintaldia amaitu baino lehen kargua utziko balu, Kontseiluaren kide guztiei bidaliko dien gutunean bere arrazoiak azal ditzala. Eta aipatutako kargu-uztea gertaera esanguratsutzat jakinarazteari utzi gabe, kargu-uztearen arrazoiak Erakundearen Gobernuaren Urteko Txostenean ager dadila.

KUTXABANK, S.A.k ez du gomendio hau betetzen, kasu bakoitzean dagozkion legezko betebeharrak betetzearen kalterik gabe.

35. Kontseiluak onartutako ordainsari politikak gutxienez hurrengo gaiak jorra ditzala:

a) Osagai finkoen zenbatekoa, eta hala badagokio, Kontseiluan eta Batzordeetan parte hartzeagatik jasotako dietak banakatuta, eta sortzen duten urteko ordainsari finkoaren balioespena;

b) Aldakorrak diren ordainsariaren kontzeptuak, bereziki:

i) Zein kontseilari motari aplikatzen zaizkien, eta finkoen aurrean, aldakorrak diren ordainsariaren kontzeptuen garrantziaren azalpena.

ii) Akzioen, akzioen gaineko aukeren edo beste edozein osagai aldakorren bidezko ordainsaria jasotzeko eskubidea zein emaitzetan oinarritzen den ebaluazio irizpideak;

iii) Urteko primen (bonus) edo eskudirutan eman ez diren beste mozkin batzuen edozein sistemaren funtsezko parametroak eta oinarria; eta

- iv) Proposatutako ordainsarien planak sortutako ordainsari aldakorren zenbateko osoaren balioespena, erreferentziatzen hartutako hipotesien edo helburuen betetze-mailaren arabera.
- c) Aurreikuspen sistemen ezaugarri nagusiak (adibidez, pentsio osagarriak, bizitza-aseguruak eta antzekoak), bere zenbatekoaren edo urteko kostu baliokidearen balioespenaz.
- d) Kontseilari-betearazle gisa goi-zuzendaritzako ardurak dituztenen kontratuek errespetatu beharreko baldintzak, besteak beste:
 - i) Iraupena;
 - ii) Aurreabisu-aldiak; eta
 - iii) Kontratazio-primei dagozkien beste edozein klausula, baita aurretiazko ebazpenagatik edo erakundearen eta kontseilari-betearazleren kontratu-harremanaren amaieragatik emandako kalte-ordainak edo blindatzeak ere.

Gomendio hau bidezkoan betetzen da, eta aipatutako kontu batzuk ez dira kontuan hartzen KUTXABANK, S.A.rentzat ezargarriak ez direlako.

36. Erakundearen edo taldearen erakundearen akzioen, akzioen gaineko aukeren edo akzioaren balioari erreferentziatutako tresnen, erakundearen etekinari lotutako ordainsari aldakorren edo aurreikuspen-sistemen bidez egindako ordainsariak kontseilari betearazleei mugatzea.

Gomendio honek ez du akzioak ematean eraginik izango, kontseilariak kontseilari gisa kargua utzi arte hauek mantentzeko baldintza betetzen bada.

Gomendio hau ez da ezargarria, KUTXABANK, S.A.ren kontseilari betearazleen ordainsarrietan horrelako kontzeptuak ez daudelako.

37. Kanpoko kontseilarien ordainsaria haien karguak eskatzen dituen dedikazioa, kualifikazioa eta ardura ordaintzeko nahikoa izan dadila; baina ez haien independentzia zalantzat jartzeko bezain handia.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

38. Erakundearen emaitzekin lotutako ordainsariak kanpoko parte ikuskariaren txostenean ager litezkeen eta aipatutako emaitzak murriz litzaketan salbuespenak kontuan har ditzatela.

Gomendio hau ez da KUTXABANK, S.A.rentzat ezargarria, kontseilariak ez dutelako horrelako ordainsari-mekanismoak.

39. Ordainsari aldakorren kasuan, ordainsari-politikek beharrezkoak diren arreta teknikoak gehi ditzatela, ordainsari hauek beren onuradunen lan-jarduerarekin lotuta daudela eta merkatuen bilakaera orokorretik edo erakundearen jarduera-eremutik edo antzeko beste egoera batzuetatik soilik ez datozela bermatzeko.

Gomendio hau ez da ezargarria, horrelako kontzepturik ez dagoelako.

40. Kontseiluak, Akziodunen Batzar Nagusiari, gai-zerrendatik bereizitako hizpide eta aholkua helburu, kontseilarien ordainsari-politikari buruzko txostena aurkez diezaiola bozkatua izateko. Eta txosten hori akziodunen esku jar dadila, bai banaka bai erakundeak egokitzen jotzen duen beste edozein eratarata.

Aipatutako txostenak hasitako urterako Kontseiluak onartutako ordainsarien politika izango du oinarri bereziki, eta baita, hala badagokio, hurrengo urteetarako aurreikusitakoa ere.

35. Gomendioan aipatzen diren gai guztiak jorratuko ditu, informazio komertzial garrantzitsua agerian utzi ahal duen kasuetan izan ezik. Arreta berezia jarriko du Batzar Nagusiak aipatzen duen aurreko ekitaldikoekin alderatuta, politika horietan izandako aldaketetan. Aipatutako aurreko ekitaldian ordainsarien politika zelan gauzatu zen ere laburtuko du.

Kontseiluak, era berean, Ordainsari Batzordeak ordainsarien politika eratzean izandako jokaeraren

berri eman dezala, eta kanpoko aholkularitza erabili izan balu, kanpoko aholkulari horien izenak eman ditzala.

KUTXABANK, S.A.k ez du gomendio hau betetzen.

41. Memoriak ekitaldian kontseilarien banako ordainsariak zehatz ditzala, eta aipa dezala:

- a) Kontseilari guztien ordainsaria banaka eta hala badagokio, ondokoak ere agertuko dira:
 - i) Kontseilariak dituzten asistentzia-dietak eta bestelako ordainsari finkoak;
 - ii) Presidenteak edo Batzorderen baten kideak dituzten ordainsari gehigarriak;
 - iii) Mozkin edo primen kontzeptupean emandako edozein ordainsari, eta hauek eman diren arrazoia;
 - iv) Kontseilarien alde ekarpen definituko pentsio-planetan egindako ekarpenak; edo kontseilarien eskubide bateratuak gehitzea, prestazio definituko pentsio-planen kasuan;
 - v) Bere funtzioak amaituz gero, adostutako edo ordaindutako edozein kalte-ordaina;
 - vi) Taldeko beste enpresa batzuen kontseilari gisa jasotako ordainsariak;
 - vii) Kontseilari betearazleek goi-zuzendaritzako betebeharrak egiteagatik emandako ordainsariak;
 - viii) Aurrekoez gain, beste edozein ordainsari-kontzeptu, bere izaera edo ematen duen taldea edozein izanda ere, bereziki eragiketa lotutzat hartzen denean edo ez-esateak kontseilariak jasotako ordainsari guztien irudi leiala desitxuratzen duenean.
- b) Kontseilariak eman lekizkiekeen akzioen, akzioen gaineko aukeren edo akzioei lotutako beste edozein tresnaren emateak banaka azaltzea, honakoak zehaztuz:
 - i) Urtean emandako akzioen edo aukeren kopurua, eta egikaritzearen baldintzak;
 - ii) Urtean egindako aukeren kopurua, akzioen eragindakoen zenbatekoa eta egikaritzearen prezioa zehaztuz;
 - iii) Urte amaieran gauzatzeko dauden aukeren kopurua, haien prezioa, data eta ekitaldiaren gainontzeko baldintzak;
 - iv) Dagoeneko emandako aukeren gauzatzeko baldintzetan urtean izandako edozein aldaketa.
- c) Aurreko ekitaldi horretan kontseilari betearazleek jasotako ordainsarien eta erakundearen emaitzen edo beste etekin unitate batzuen arteko loturari buruzko informazioa.

KUTXABANK, S.A.k ezargarria zaionari dagokionez, gomendio hau funtsean betetzen du.

42. Batzorde Delegatua edo Betearazlea dagoenean (aurrerantzean "Batzorde Delegatua"), kontseilari mota desberdinen partaidetza-egitura eta Kontseiluarena antzekoak izan daitezela, eta bere idazkaria Kontseiluarena izan dadila.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

43. Kontseiluak Batzorde Delegatuan jorrotutako gaien eta onartutako erabakien berri izan dezala beti, eta Kontseiluaren kide guztiek Batzorde Delegatuaren bilkuren akten kopia jaso ditzatela.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau funtsean betetzen du.

44. Administrazio Kontseiluak bere barnean, Balore-merkatuaren Legeak eskatutako Ikuskaritza Batzordeaz gain, Izendapenen eta Ordainsarien Batzorde bat, edo banatutako bi Batzorde, sor ditzala. Ikuskaritza Batzordearen eta Izendapen eta Ordainsari Batzordearen / Batzordeen egitura- eta funtzionamendu-arauak Kontseiluaren Araudian ager daitezela, eta honako hauek aipa ditzatela:

a) Kontseiluak Batzorde hauen kideak izenda ditzala, kontseilarien ezagutzak, gaitasunak eta eskarmentua eta Batzorde bakoitzaren eginkizunak kontuan hartuta; haien proposamenak eta txostenak eztabaida ditzala; eta bere aurrean, haien bilerak egin eta Kontseiluaren lehenengo plenoan, haien jardueraren berri ematea eta egindako lanaz erantzutea;

b) Aipatutako Batzordeak kanpoko kontseilariak baino ez osatzea, gutxienez hirukidez. Aurrekoa kontseilari betearazleen edo goi-zuzendaritzakoen asistentziari kalte egin gabe ulertu behar da, Batzordearen kideek beren-beregi horrela adierazten dutenean.

c) Bere Presidenteak kontseilari independenteak izatea.

d) Kanpoko aholkularitza eskatu ahal dezatela, beren eginkizunak betetzeko beharrezkotzat jotzen dutenean.

e) Haien bileren aktak idatz daitezela; hauen kopiak Kontseiluaren kide guztiei bidaliko zaizkielarik.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau funtsean hau betetzen du.

45. Jokabide barne-kodeak eta erakunde gobernuaren arauak betetzen direla gainbegiratzea Ikuskaritza Batzordeari, Izendapen Batzordeari edo, banatuta egongo balira, Betetze edo Erakunde Gobernu Batzordeei esleitzea.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

46. Ikuskaritza Batzordearen kideak, eta bereziki bere presidentea, kontabilitatearen, ikuskaritzaren edo arrisku-kudeaketaren arloetan dituzten ezagutzak eta eskarmentua kontuan hartuta izendatuak izan daitezela.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

47. Kotizatutako erakundeek, Ikuskaritza Batzordearen gainbegiratupean, barne-ikuskaritzarako funtzioa izan dezatela, informaziorako eta barne-kontrolerako sistemen funtzionamendu zuzena bermatzeko.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

48. Barne Ikuskaritzaren arduradunak Ikuskaritza Batzordeari bere urteko lan-plana aurkez diezaiola; bere garapenean ager daitezkeen gorabeheren berri zuzenean eman diezaiola; eta ekitaldi bakoitzaren amaieran jarduera-txostena bere esku jar dezala.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

49. Kontrol eta arriskuen kudeaketa politikak identifika ditzala, gutxienez:

a) Erakundeak zein arrisku motari egin behar dion aurre (eragiketetakoak, teknologokoak, finantzariak, legalak, ospearenak ...), eta finantzarioen eta ekonomikoen artean, pasibo kontingenteak eta balantzetik kanpoko beste arrisku batzuk sartuta;

b) Erakundeak onargarria deritzon arrisku-maila finkatzea;

c) Identifikatutako arriskuen eragina arintzeko aurreikusitako neurriak, gauzatuko balira;

d) Aipatutako arriskuak kontrolatzeko eta kudeatzeko erabiliko diren informazio eta barne kontrol sistemak, baita pasibo kontingenteak edo balantzetik kanpoko arriskuak.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

50. Ikuskaritza batzordeari egokitzea:

1º Informazio eta barne kontrol sistemai dagokienez:

a) Erakundeari dagokion finantza-informazioaren osotasuna eta eratze-prozesua gainbegiratzea, eta hala badagokio, taldearena ere, arauak ezartzen dituzten baldintzak bete daitezela berrikusiz eta baterakuntza-perimetroaren mugatze egokia eta kontabilitate-irizpideak zuzen aplikatzea zainduz.

b) Barne-kontrolerako eta arrisku-kudeaketarako sistemak aldika berrikustea, arrisku nagusiak identifikatzeko, kudeatzeko eta era egokian jakinarazteko.

c) Barne-ikuskaritzaren independentzia eta eraginkortasuna zaintzea; barne-ikuskaritzaren arduradunaren hautatzea, izendatzea, berrautatzea eta kargutik kentzea proposatzea; zerbitzu honen aurrekontua proposatzea; bere jardueren inguruko informazioa aldika jasotzea; eta goi-zuzendaritzak bere txostenen ondorioak eta gomendioak kontuan hartzen dituela egiaztatzea.

d) Langileek enpresaren barruan atzeman litzaketen eta garrantzitsuak izan litezkeen irregulartasunak, bereziki finantza eta kontabilitate arlokoak, konfidentzialtasunez eta, egokitzat jotzen bada, anonimotasunez jakinarazteko aukera izan dezaten mekanismoa zehaztea eta berrikustea.

2º Kanpoko ikuskariari dagokionez:

a) Kontseiluan kanpoko ikuskaria hautatzeko, izendatzeko, berrautatzeko eta ordezkatzeko proposamenak aurkeztea, eta baita bera kontratatzeko baldintzak ere.

b) Kanpoko ikuskariarengandik aldizka ikuskaritza-planaren inguruko informazioa eta bere jardueraren emaitzak jasotzea, eta goi-zuzendaritzak bere gomendioak kontuan har ditzala egiaztatzea.

c) Kanpoko ikuskariaren independentzia bermatzea, eta horretarako:

i) Erakundeak Baloreen Merkatuko Batzorde Nazionalari ikuskariaren aldaketa gertaera garrantzitsu gisa jakinaraztea, kargua uzten duen ikuskariarekin izan litezkeen desadostasunen inguruko adierazpenarekin batera, eta izanez gero, haien edukiaren adierazpenarekin batera ere.

ii) Erakundeak eta ikuskariak ikuskaritzaz gaineko zerbitzu-ematearen inguruan indarrean dauden arauak, ikuskarien negozioaren kontzentrazioari jarritako mugak, eta oro har, ikuskarien independentzia bermatzeko ezarritako gainontzeko arauak betetzen dituztela zaintzea;

iii) Kanpoko ikuskariak bere kargua uzten badu, gertaera hori eragindako egoerak azter ditzala.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

51. Ikuskaritza Batzordeak erakundearen edozein langile edo zuzendari deitu ahal izatea, eta baita inongo zuzendariren presentziarik gabe aurkez daitezela agindu ahal izatea.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

52. Ikuskaritza Batzordeak Kontseiluari 8. Gomendioan aipatutako ondoko gaien inguruan informazioa ematea, Kontseiluak hauei buruzko erabakiak hartu baino lehen:

a) Erakundeak, kotizatua izatearren, aldizka jendaurrean aurkeztu beharreko finantza-informazioa. Batzordeak bermatu behar izango luke aldizkako kontuak eratzekeko urtekoak egiteko erabiltzen diren irizpide berberak erabiltzen direla, eta horretarako, kanpoko ikuskariaren mugatutako berrikustearren jatorria aintzat hartu behar izango luke.

b) Asmo bereziko erakundeetan edo egoitza paradisu fiskaltzat hartzen diren herrialde edo lurraldeetan duten erakundeetan partaidetzak sortzea edo erostea, baita antzeko beste transakzio edo eragiketak, haien konplexutasunagatik, taldearen gardentasuna kaltetu ahal dutenak.

c) Eragiketa lotetsiak, txostena aldeztu aurretik egiteko arduraren gainbegiratze eta kontrol arloko beste Batzorde bati esleitu ez bazaio.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

53. Administrazio Kontseilua Batzorde Nagusia kontuak ikuskaritza txostenean erreserbarik eta salbuespenik egin gabe aurkezten saia dadila, eta hauek agertuko balira, hala Ikuskaritza Batzordearen Presidenteak nola ikuskariek akziodunei argi eta garbi azal diezaietela aipatutako erreserba edo salbuespen hauen edukia eta irismena.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

54. Izendapen Batzordearen kide gehienak – edo Izendapen eta Ordainsari Batzordearenak, bakarra balitz-kontseilari independenteak izan daitezela.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

55. Izendapen Batzordeari, aurreko Gomendioetan zehaztutako eginkizunez gain, honakoak esleidakizkiola:

a) Kontseiluan beharrezkoak diren gaitasunak, ezagutzak eta eskarmentua ebaluatzea, eta ondorioz, hutsik geratu den kargu bakoitza betetzeko hautagaiak izan behar dituzten eginkizunak eta gaitasunak zehaztea, eta haien lana ondo egin ahal izateko beharrezkoak diren denbora eta dedikazioa ebaluatzea.

b) Presidentearen eta lehen betearazlearen ondorengotza egokitze jotzen den eran aztertzea eta antolatzea, eta hala badagokio, Kontseiluari proposamenak egitea, ondorengotza hori era ordenatuan eta ondo planifikatu ondoren egin dadila.

c) Lehen betearazleak Kontseiluari proposatutako goi-zuzendarien izendapenen eta kargu-uzteen berri ematea.

d) Kode honen 14. Gomendioan aipatzen diren genero-dibertsitate gaien inguruan Kontseiluari informazioa ematea.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau funtsean betetzen du.

56. Izendapen Batzordeak, erakundearen Presidenteari eta lehen betearazleari argibideak eska diezazkiela, bereziki, kontseilari betearazleei dagozkien gaiak direnean.

Eta edozein kontseilari izendapen Batzordeari eskatu ahal diezaiola hutsik dauden kontseilari karguak betetzeko izan litezkeen hautagaiak aintzat hartzea, egokiak izan litezkeelakoan.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

57. Ordainsarien Batzordeak, aurreko Gomendioetan aipatutako eginkizunen ardura ez ezik, honako hauena ere izan dezala:

a) Administrazio Kontseiluari ondokoa proposatzea:

i) Kontseilarien eta goi-zuzendarien ordainsarien politika.

ii) Kontseilari betearazleen banako ordainsariak eta haien kontratuaren gainontzeko baldintzak.

iii) Goi-zuzendarien kontratuen oinarritzko baldintzak.

b) Erakundeak zehaztutako ordainsarien politika betetzen dela bermatzea.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.

58. Ordainsarien Batzordeak erakundearen Presidenteari eta lehen betearazleari argibideak eska diezazkiela, bereziki, kontseilari betearazleei eta goi-zuzendariari dagozkien gaiak direnean.

KUTXABANK, S.A.k gomendio hau betetzen du.